

2024  
69-2

# euskera

**IKERKETA ALDIZKARIA**

REVISTA DE INVESTIGACIÓN REVUE DE RECHERCHE RESEARCH JOURNAL



**EUSKALTZAINDIA**

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE  
ROYAL ACADEMY OF THE BASQUE LANGUAGE

**EUSKERA** ikerketa aldizkaria 2024, 69, 2. Bilbo. ISSN 0210-1564

# E U S K E R A

IKERKETA ALDIZKARIA



2024  
69, 2  
BILBO  
ISSN 0210-1564



# EUSKALTZAINDIA

Plaza Barria, 15. 48005 Bilbo  
Telefonoa: 94 415 81 55 • Faxa: 94 415 81 44  
posta elek.: euskeraaldizkaria@euskaltzaindia.eus  
webgunea: <https://euskera-ikerketa.euskaltzaindia.eus>

Aldizkari hau beste agerkariekin trukutzen da  
Esta revista admite el intercambio con otras publicaciones  
Cette revue s'échange avec d'autres publications  
This journal can be exchanged for others by agreement

Testuen hizkuntza-orraketa: Euskaltzaindiaren Hizkuntza Kalitatearen Behatokia zerbitzua (HIZBEA)

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoeekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoa edo mekanikoa, fotokimikoa, elektrooptikoa, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz beraz transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen alde aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

ISSN: 0210-1564

Lege-gordailua: BI-1244-58

*Diseinua:* [www.ikeder.es](http://www.ikeder.es)

*Aurreinprimaketa:* Composiciones Rali, S.A.  
Costa, 12-14, 7. ezk. – 48010 Bilbo

*Inprimategia:* Printheaus, S.L.

## EUSKERA IKERKETA ALDIZKARIA

*Euskera Ikerketa Aldizkariaren* aurrekari gisa, *Euskera* Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala izan da 1920. urtetik 2022ra bitartean. 2023tik aurrera bi argitalpen mota dira: batetik, *Euskera Ikerketa Aldizkaria* eta bestetik, *Euskaltzaindiaren buletina*. Lehenak Akademiaren lan esparruetako ikerketa-artikulu originalak, liburu-aipamenak eta antzekoak jasotzen ditu, eta paperean eta euskarri informatikoan argitaratzen da. Bigarrenak Euskaltzaindiaren lana eta bizitza akademikoa biltzen ditu eta modu elektronikokoan argitaratzen da. *Euskera Ikerketa Aldizkariak* bi zenbaki argitaratzen ditu urtero. Lehena, martxo edo apirila inguruan (urtarrila-ekaina aldiari dagokiona) eta bigarrena, irailean edo urrian (uztaila-abendua aldiakoa). Ikerketa artikuluak argitaratzeko, Idazketa Batzordeak, anonimotasuna bermatuz, kanpo ebaluatzaileen iritzia jasoko du PEER REVIEW itsu bikoitza sistema erabiliz.

***Euskera Ikerketa Aldizkaria* honako aurkibide, zerrenda eta datu-baseetan dago:**

- Azkue Bibliotekaren katalogoan
- Euskaltzaindiko webgunean
- Latindex Katalogoan
- Inguma datu-basean
- ISOC datu-basean
- Linguistic Bibliography datu-basean
- Dialnet datu-basean
- Emerging Sources Citation Index-en (ESCI)

**Kalitate adierazleak:**

CIRC (2024): C maila

MIAR (2023): c1+m1+e1+x1

Como publicación previa a *Euskera Ikerketa Aldizkaria*, la revista *Euskera* ha sido el órgano oficial de la Real Academia de la Lengua Vasca - Euskaltzaindia y se ha publicado desde 1920 hasta 2022. De 2023 en adelante, son dos tipos de publicación: *Euskera Ikerketa Aldizkaria* y *Euskaltzaindiaren buletina*. La primera publica artículos de investigación originales, reseñas de libros y otros contenidos del ámbito de investigación de Euskaltzaindia, y se publica en papel y en formato electrónico. La segunda recopila la vida y el trabajo académico de Euskaltzaindia y se publica de forma electrónica. *Euskera Ikerketa Aldizkaria* publica dos números anuales: el primero (enero-junio) entre marzo y abril y el segundo (julio-diciembre) entre septiembre y octubre. Para publicar los artículos de investigación el Consejo de Redacción recaba, utilizando el sistema de doble ciego PEER REVIEW, la opinión de evaluadores externos.

**La revista *Euskera Ikerketa Aldizkaria* está disponible en los siguientes catálogos y bases de datos:**

- Catálogo de la Biblioteca Azkue
- Página web de Euskaltzaindia
- Catálogo Latindex
- Base de datos Inguma
- Base de datos ISOC
- Base de datos Linguistic Bibliography
- Base de datos Dialnet
- Emerging Sources Citation Index (ESCI)

**Indicadores de calidad:**

CIRC (2024): Categoría C

MIAR (2023): c1+m1+e1+x1

Préceuseure d'*Euskera Ikerketa Aldizkaria*, la revue *Euskera* a été la publication officielle de l'Académie de la langue basque – Euskaltzaindia de 1920 à 2022. À partir de 2023, il y a deux publications différentes : d'une part, la revue *Euskera Ikerketa Aldizkaria* et, d'autre part, *Euskaltzaindiaren buletina*. La première contient des articles de recherche originaux, des comptes rendus de livres et autres dans les domaines de travail de l'Académie, et est publiée sur papier et sur support informatique. La seconde couvre le travail et la vie de l'Académie ; elle est publiée électroniquement. *Euskera Ikerketa Aldizkaria* publie deux numéros par an : le premier vers mars-avril (correspondant à la période janvier-juin) et le second en septembre-octobre (correspondant à la période juillet-décembre). Avant de publier les articles de recherche, le Comité de Rédaction recueille l'avis d'évaluateurs externes en utilisant le système PEER REVIEW double aveugle, qui garantit l'anonymat.

**La revue *Euskera Ikerketa Aldizkaria* est présente sur les catalogues et bases de données suivants :**

- Catalogue de la Bibliothèque Azkue
- Page web d'Euskaltzaindia
- Catalogue Latindex
- Base de données Inguma
- Base de données ISOC
- Base de données Linguistic Bibliography
- Base de données Dialnet
- Emerging Sources Citation Index (ESCI)

**Indicateurs de qualité :**

CIRC (2024) : Catégorie C

MIAR (2023) : c1+m1+e1+x1

As a publication prior to *Euskera Ikerketa Aldizkaria*, the review *Euskera* was the official organ of the Royal Academy of the Basque Language - Euskaltzaindia, published from 1920 to 2022. From 2023 onwards there are two kinds of publication: *Euskera Ikerketa Aldizkaria* and *Euskaltzaindiaren buletina*. The former publishes original research papers, book reviews and other content in the research area of Euskaltzaindia, and is published on paper and in electronic format. The second documents the academic life and work of Euskaltzaindia, and is published electronically. *Euskera Ikerketa Aldizkaria* comes out twice a year: the spring issue (January-June) published between March and April and the second (July-December) between September and October. To publish research papers the Editorial Committee requests the opinion of external assessors, using the double-blind PEER REVIEW system.

***Euskera Ikerketa Aldizkaria* is available in the following catalogues and databases:**

- Catalogue of the Azkue Library
- Euskaltzaindia website
- Latindex Catalogue
- Inguma database
- ISOC database
- Linguistic Bibliography database
- Dialnet database
- Emerging Sources Citation Index (ESCI)

**Quality indicators:**

CIRC (2024): Category C

MIAR (2023): c1+m1+e1+x1

# EUSKALTZAINDIA



IDAZKETA BATZORDEA – CONSEJO DE REDACCIÓN – COMITÉ DE RÉDACTION – EDITORIAL COMMITTEE

*Burua:* Andres Urrutia (*euskaltzainburua*)  
*Idazkaria:* Adolfo Arejita (*Euskaltzaindiaren idazkaria*)

Kideak – Miembros – Membres – Members

MIXEL AURNAGUE CNRS. Paris	ASUN GARIKANO <i>Euskaltzaindia</i>
ENEKO BIDEAIN HUHEZI. Arrasate/Mondragon	PATXI JUARISTI <i>Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU). Leioa</i>
JEAN-BAPTISTE COYOS <i>Euskaltzaindia</i>	PATXI SALABERRI ZARATIEGI <i>Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP)</i>
EBA GAMINDE <i>Deustuko Unibertsitatea. Bilbo</i>	<i>Iruñea/Pamplona</i>

AHOLKU BATZORDEA – CONSEJO ASESOR – COMITÉ CONSULTATIF – ADVISORY BOARD

OLGA ANOKHINA CNRS. Paris	PHILIPPE CHAREYRE <i>Université de Pau et des Pays de l'Adour. Pau</i>
MIREN AZKARATE <i>Euskaltzaindia. Donostia/S. Sebastián</i>	JEROEN DARQUENNES <i>Namur University. Belgium</i>
JOXE AZURMENDI <i>Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)</i>	BENASET DAZÉAS <i>Lo Congrès permanent de la lenga occitana. Pau</i>
Donostia/S. Sebastián	ANA ETXAIDE <i>Nafarroako Unibertsitatea. Iruñea/Pamplona</i>
XARLES BIDEAIN <i>Paueko eta Aturri herrialdeetako Unibertsitatea.</i>	JOSE RAMON ETXEBARRIA <i>Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)</i>
Baiona	<i>Bilbo</i>
HERVE LE BIHAN <i>Université Rennes 2. Rennes</i>	MAITE ETXENIKE <i>Universitat de València. Valencia</i>
JOSU K. BIJUESCA <i>Deustuko Unibertsitatea. Bilbo</i>	PILAR GARCÍA MOUTON <i>Profesora ad honorem ILLA-CSIC. Madrid</i>
GIDOR BILBAO <i>Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)</i>	EUGÈNE F.-X. GHERARDI <i>Università di Corsica Pasquale Paoli. UMR CNRS</i>
Vitoria/Gasteiz	LISA. Corsica
ANA ISABEL BOULLÓN AGRELO <i>Universidade de Santiago de Compostela.</i>	PATXI GOENAGA <i>Euskaltzaindia. Vitoria/Gasteiz</i>
IÑAKI CAMINO <i>Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)</i>	RICARDO GOMEZ <i>Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)</i>
Vitoria/Gasteiz	<i>Vitoria/Gasteiz</i>

MANUEL GONZALEZ  
*Real Academia Galega. A Coruña*

MARTIN HAASE  
*University of Bamberg. Alemania*

BERNHARD HURCH  
*Graz University. Austria*

JOSE IGNAZIO HUALDE  
*University of Illinois. USA*

ITZIAR IDIAZABAL  
*Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)  
Vitoria/Gasteiz*

IÑAKI IRAZABALBEITIA  
*Elhuyar Fundazioa. Usurbil*

JACINTO ITURBE  
*Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)  
Leioa*

XABIER ITZAINA  
*CNRS, Centre Emile Durkheim, Sciences Po  
Bordeaux. Bordeaux*

JABIER KALTZAKORTA  
*Deustuko Unibertsitatea. Bilbo*

JOSEBA ANDONI LAKARRA  
*Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)  
Vitoria/Gasteiz*

JON LANDABURU  
*CNRS. Paris*

ALBERTO LOIZATE  
*Basurtuko Ospitalea. Bilbo*

JUAN MADARIAGA  
*Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP)  
Iruñea/Pamplona*

JOAN MARTÍ  
*Institut d'Estudis Catalans, Secció Filològica.  
Barcelona*

JÈP DE MONTOYA  
*Institut d'Estudis Aranesi. Vielha (Llèida)*

ENEKO OREGI  
*Eusko Jaurlaritza. Vitoria/Gasteiz*

JON ORTIZ DE URBINA  
*Deustuko Unibertsitatea. Bilbo*

ROSA MIREN PAGOLA  
*Deustuko Unibertsitatea. Bilbo*

JOSE ANTONIO PASCUAL  
*Real Academia Española. Madrid*

ANDONI SAGARNA  
*Euskaltzaindia. Donostia/S. Sebastián*

IBON SARASOLA  
*Euskaltzaindia. Donostia/S. Sebastián*

ANA TOLEDO  
*Euskaltzaindia. Donostia/S. Sebastián*

MIRIAM URKIA  
*UZEI. Donostia/S. Sebastián*

HANS VAN DER VELDE  
*Fryske Akademy / Utrecht University. Leeuwarden  
(Netherland)*

MIKEL ZALBIDE  
*Euskaltzaindia. Donostia/S. Sebastián*

JUAN JOSE ZUBIRI  
*Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP)  
Iruñea/Pamplona*

*Teknikariak: JON ARTZA. Euskaltzaindia. Bilbo*

*IBON USARRALDE. Euskaltzaindia. Donostia*

*Aholkulariak: JOSEBA ZABALETA eta ERRAMUN OSA. Euskaltzaindia. Bilbo*

# E U S K E R A

## AURKIBIDEA

### IKERKETA ARTIKULUAK

- [11-45] Joseba Sarrionandiaren poesiaren molde jasoak  
ARANDIA MORGAETXEBARRIA, ANE
- [47-91] -*KAdun* adberbioez haratago: *apurKA-apurKA* baina beti *aurreraKA*  
BERRO, Ane eta FERNÁNDEZ-ALTONAGA, Cecilia
- [93-122] Urtaroak: ikuspegi etnolinguistikoa  
DIÉGUEZ BARAHONA, Kepa
- [123-157] Itzulpen-estrategia pedagogikoak euskal irakaskuntzaren ardatzekin bat  
IBARLUZEA SANTISTEBAN, Miren
- [159-186] Euskara zinema elkariaren hasmentan (1930-1936): deba-teak, ametsak eta praktikak  
MARTINEZ, Josu
- [187-219] Euskaldunen euskara-gaitasunaren eragina *euskara-gaztelania* kode-alternantziaren erabileran  
PÉREZ GONZÁLEZ, Mikel eta MUNARRIZ-IBARROLA, Amaia



**OHARRAK**

- [220-259] Mario Onaindiaren euskal lanak  
GOJENOLA ONAINDIA, Manu

**LIBURU-AIPAMENAK**

- [263-266] *La Reial Acadèmia de Bones Lletres de Barcelona i l'Institut d'Estudis Catalans davant la normativa de la llengua catalana*  
URRUTIA BADIOLA, Andres M.

**Ikerketa artikuluak**

**Artículos de investigación**

**Articles de recherche**

**Research articles**



# Joseba Sarrionandiaren poesiaren molde jasoak

Moldes cultos en la poesía de Joseba Sarrionandia

Structures métriques à usage culte dans la poésie de Joseba Sarrionandia

Cultured molds in the poetry of Joseba Sarrionandia

ARANDIA MORGAETXEBARRIA, Ane  
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)  
ane.arandia@ehu.eus

DOI: <https://doi.org/10.59866/eia.v69i2.283>

Noiz jaso: 2024-02-07

Noiz onartua: 2024-03-19

Artikuluan, Joseba Sarrionandia idazlearen corpusean molde metriko jasoek duten presentzia eta funtzioa aztertuko da. Bi motatako sorkariei erreparatuko zaie: batetik, tradizio jasoko molde «zarratuei» (sonettoa, epigramak, *haikuak*); eta bestetik, gaiagatik edo enuntziatio-moduagatik bereizten diren poema epikoei. Hainbat generotako lanetan barreiatuta daude molde jasook, eta horietaz iruzkin laburrak egin diren arren, ez da burutu sistematikoki elkaturik aztertzeko saiakerarik. Hortaz, xede gisa, Sarrionandiak poesiaren tradizio jasoko moldeak zertarako erabiltzen dituen ikertu nahi dugu.

**Gako-hitzak:** Sarrionandia, molde metriko jasoak, epika, kulturalismoa.

Este artículo analiza la presencia y función de estructuras métricas cultas en el corpus del escritor Joseba Sarrionandia. Para ello, examinaremos dos tipos de textos: por un lado, las estructuras «cerradas» de tradición culta (soneto, epigramas, *haikus*); y por otro, los escritos que por su tema o forma de enunciación son modelos cercanos a la épica. Estos textos están dispersos en publicaciones de diversos géneros, y aunque se han hecho breves menciones sobre ellos, no existe ningún trabajo en el que se hayan analizado sistemáticamente de manera conjunta. Así, nos proponemos determinar con qué fin utiliza el poeta Sarrionandia las formas de tradición culta.

**Palabras clave:** Sarrionandia, estructuras métricas cultas, épica, kulturalismo.

L'article analysera la présence et la fonction de diverses structures métriques à usage culte dans le *corpus* de l'auteur Joseba Sarrionandia. Pour ce faire, nous prêtons attention à deux types de textes: les structures «fermées» à usage culte (sonnet, épigrammes, *haikus*); et les écrits qui se distinguent par le sujet ou la forme d'énonciation épique. Ces textes sont éparpillés dans des publications de divers genres et bien qu'ils aient été brièvement mentionnés, aucune tentative n'a été faite pour les analyser ensemble systématiquement. C'est pourquoi nous voulons analyser pourquoi le poète Sarrionandia utilise la structure métrique classique.

**Mots-clés** : Sarrionandia, structures métriques à usage culte, épique, culturalisme.

The article will analyse the presence and function of different cultured moulds in the author Joseba Sarrionandia's *corpus* of poetry. For this goal, we will pay attention to two types of texts: «closed» structures of cultured tradition (sonnet, epigrams, *haikus*); and writings that are distinguished by the subject or form of epic enunciation. These texts are dispersed in publications of various genres, and although brief references have been made to them, there has been no attempt to analyse them together systematically. For this reason we want to analyse when did the poet Sarrionandia use them, and which were the uses of cultured tradition.

**Keywords**: Sarrionandia, cultured molds, epic, culturalism.

ARANDIA MORGAETXEBARRIA, Ane (2024). «Cultured moulds in the poetry of Joseba Sarrionandia», *Euskera Ikerketa Aldizkaria*, 69, 2: 11-45.

## 1. Sarrera

Artikuluaren xedea Joseba Sarrionandia idazlearen lanetan tradizio jasoko moldeek duten presentzia agerraraztea eta aztertzea da. Horretarako, bi motatako sorkariei erreparatuko zaie: batetik, molde zarratu jasoei (sonetoa, epigramak, *haikuak*); eta, bestetik, enuntziazio-moduagatik bereizten diren poema epikoei. Molde «zarratuak» izendatuko ditugu formagatik —ahapaldi edo arau metrikoengatik— ezaugarritzen diren testuak.<sup>1</sup> Horrelako hainbat darabiltza iurretarrak, eta zenbaitetan euskal tradizioko molde itxiak erabili dituen arren (bertsoa, koplak edota marijesiak), tradizio jasoa rekin lotutakoez soilik arituko gara lan honetan.<sup>2</sup>

Argitaratutako lehen liburutik, *Izuen gordelekuetan barrera* lanetik, lotu izan da egilea kulturalismoarekin. Idazleak berak lehen liburuaren hitzaurrean zera aitortu zuen: «Literatura oro literaturaren literatura da, hots, literatura berari buruzkoa, eta poema orok aurreko poemagintzan du erroa, eta nirea ere erreferentzia literarioz beterik dago» (Sarrionandia 1981: 6). Era berean, kritikariek ere kulturalismoarekin uztartu izan dute aho batez (ikus Kortazar 2000: 357, Azkorbebeitia 1997: 92 edota Izagirre 2002).

Iurretarraren lanen muinean dauden erreferentzia guztiak ezin aipa ditzakegu, baina, bere laburrean, tradizio jasoa noiz eta zertarako erabiltzen duen azertu nahi dugu. Kontuan izanda, halere, eragin kulturalistak ez direla molde horietara mugatzen, eta oso bestelako bitartekoekin batera baliabide bat gehiago direla. Hortaz, idazle euskaldun kubatarraren lanetan barreiatu-rik aurki daitezkeen epigramak, *haikuak*, atsotitzak edota sonetoa bezain molde zarratu edo itxiei jarraituz ondutako testuak eta genero epikora hur-

---

<sup>1</sup> Izendapena De Cuencaren hurrengo aipu honetatik hartu dugu: «Hace unos quince años y guiado por lecturas helenísticas (la *Antología palatina*) y provenzales (la lírica trovadoresca), abandoné una poesía de estructuras abiertas y empecé a escribir otra de estructuras cerradas» (De Cuenca 1999: 395).

<sup>2</sup> Molde zarratuei buruzko lehen hurbilpena *IkerGazten* (2023) aurkeztu zen eta kongresu horretako laburpenen bilduman jasota dago (ISBN: 978-84-8438-862-3). Gure artikulu honetan, molde zarratuaren alor hori garatuago eta adibide gehiagorekin aurkezteaz gain, epikaren alorra ere gehitu zaio. Horrela, Sarrionandiak tradizio jasoz egiten duen erabileraren ikuspegi orokorra agertu nahi dugu.

biltzen direnak dira gure aztergaia. Horietaz aipamen laburrak han eta hemen egin diren arren, interesgarria da horiek batera aztertzea eta idazlearen sorkuntza-prozesuaren muinean zer-nolako eragina duten agerraraztea.

## 2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

Kritikak aho batez lotu izan ditu bizkaitarra eta kulturalismoa, iurretarraren obra poetikoaren irakurleak erreferentzia asko eta askotarikoak aurkituko baititu. Kultura erreferentziok hainbeste dira, eta hainbesteko garrantzia dute testua ulertzeko orduan, non testuartekotasunari etekin berezia ateratzen dion autore kulturalistatzat jo dezakegun. Era berean, kulturalismoaz egiten duen erabilerak, eta horren ondoriozko beste baliabide batzuk postmodernitatearekin identifikatutako hausnarketa metaliterarioarekin hertsiki lotuta daude. Hitz batean esanik, literaturari buruzko hausnarketa egilearen ibilbide osoan sumatzen den ildo da, hainbestearino non bere poetikaren oinarrian dagoela esan daitekeen.

Álvarezek (2015: 44) kulturalismoari buruz egindako tesian dioenez, berez oso gutxi dira idazleek baliatzen dituzten elementu berriak; berrikuntza, horien antolaketan eta erabileran datza. Kulturalismoa ez da testuak kultura erreferentzia ugari eta zabalen aipamenez betetzea. Askoz urrunago doan baliabidea da. Kultura erreferentziak testuaren makroegiturari dagozkio, eta *inventio*an hasten dira gauzatzen. Gainera, goi-mailako erreferentziaz gain, kultura «demokratikoagoak» edo sozialagoaren parte direnak ere egon daitezke (nahiz eta horrelakorik apenas dagoen iurretarraren lanean, ahozko euskal tradizioko molde batzuetan, salbu).

Iurretakoak molde klasikoei ateratzen dien etekina erakutsi nahi dugu. Izan ere, ez da molde edo azpigenero zarratu eta kulturalistei buruzko lan sistematikorik egin, horiei buruzko iruzkin eta aipamen laburrak baino ez daude: Kortazarrek (2000: 353) *Izuen gordelekuetan barrera* liburuko epigramen hainbat eragin aipatu zituen; Iñaki Arranz (2006: 191), *Hitza arzi* saiakeran, atsotitz apokrifoez labur aritu zen; Iñigo Astizek *Hitza bide, bizia xede* liburuko epigramak Martzial idazle klasikoarekin uztartu zituen; Lourdes Otaegik (2017: 219-236) oihartzun epikoak dituzten ziklo arturikoko ipui-

nak aztertu zituen. Hala ere, sonettoa aipatu da gehien, Sarrionandiaren literaturan intertestualitateak duen garrantzi handiaren seinale (Rodríguez 2013: 118-124).

Lan honi dagokionez, lehenik, Sarrionandiak darabiltzan molde zarratuak, batetik, eta epikarekin lotzen diren testuak, bestetik, identifikatu eta bilatu dira. Izan ere, askotariko liburuetan aurki daitezke: poesia-bildumetan, narrazioetan, saiakeretan edota beste autore batzuekin batera osatutako lan kolektiboetan.

Horren ostean, genero bakoitzari dagokion bibliografia zehatza erabiliz ikertu dira testuok, horiek interpretatzeko behar dugun lanabesa ematen digutelako. Azkenik, behin genero bakoitza bere kabuz aztertuta, molde zarratuak eta azpigenero kulturalistak noiz eta zertarako erabiltzen dituen azalduko dugu.

### 3. Tradizioaren birlanketa jaso Sarrionandiaren obran

Bi motatako sorkaritan arreta jarriko dugu: molde jasoetan eta epikarekin lotzen diren olerki eta narrazioetan.

#### 3.1 Molde jasoak

Sarrionandiak erabilitako poesia molde laburrei buruz arituko gara, lehenik. Azpigenero diskurtsiboak dira, atsotitzak, epigramak, aforismoak, adagioak, sententziak eta beste. Nekez sailkatzen dira genero handien artean: ez dira poesia, eta ez dira narratiba, baina saiakera izatera ere ez dira iristen, laburregiak baitira.

Halere, prestigio literario eta intelektual handiko azpigerotzat jo izan dira. Mendebaldeko literatura tradizioan eredu ospetsuak daude, horien artean Marko Aurelioren epigramak, edota Montaigneren *Essaie*sekoak aipa daitezke. Errenazimenduaz geroztik, jakitate klasikoaren berpiztearekin batera, epigrama-sortak idatzi zituzten Baltasar Grazianek gaztelaniaz eta Blai-



se Pascalek frantsesez. Aipatutakoek inteligentziaren, adimen-zorroztasunaren eta hizkuntzaren bidez adierazteko gaitasun sintetikoaren lekuko dira.

XVIII. mendean heldu zen modernitateko aforismo-bildumarik ospetsuenaren egilea: Georg Christoph Lichtenberg. 1769-1799. urteen artean idatzitako kaieretako ohar argi eta erakargarri sorta egin zuen. Aforismo deritze haren idatziei, eta hartara, sententzia labur eta doktrinalak izan beharko lukete, arte edo zientzia jakin bati buruzkoak. Aforismoa, maxima, axioma edo apotegmaren sinonimo baita, baina Lichtenbergenak harrigarriak dira, ustekabean ezbaian jartzen baitituzte erlijioari edo zientziei buruzko baieztapen edo sinesterik hedatuenak. Ondorioz, aforismoa baino, beste deituraren bat egokiagoa lukete, eta maiz, Sarrionandiaren epigrama edo atsotitz deitutakoen antza dute, non umore beltzez edo ironiaz blai eginiko adierazpenak topa ditzakegun gizakiari dagozkion gaiez hausnarturikoak, askotan guztiz osatugabeak, ambiguetatean utziak edo hitzen adierazpen-gaitasunen mugan jarriak, baieztapenak baino gehiago iradokizunak direnak, hartara.

### 3.1.1 Atsotitzak

Atsotitzak, paremiologiak aztertzen ditu, eta esaldi laburrak izan ohi dira. Bizitzarekin eta inguruarekin lotutako herri-jakintzaren erakusgarri dira. Laburtasuna, elipsi eta paralelismoen bidez lortzen da, eta oroimenari laguntzen dioten ezaugarri batzuk dituzte: erritmoa edota errima (Paya 2013: 139). Oso antzinako generoa da, Bibliaren Proberbioen liburuan bildurikoek frogatzen dutenez. Halere, Rotterdamgo Erasmusen *Adagiorum chilias* (1508) bilduma aipatu behar da euskal bildumen aitzindaritzat. Gene-roaren prestigioa eraiki zen idazlanaren «Prolegomenoak» atarikoan, eta antzinateko testuetatik berreskuraturiko esapideak bildu zituen, hala Plutarko, nola Diogenes, Platon, Aristoteles, Zizeron, Luziano, Tito Livio, Aulo Gelio, Virgilio, Horazio, Terentzioren testuetakoak.

Berpizkundeko humanismo erasmistak barreiatutako sentiberatasunaren eraginez, atsotitzak, esaerak eta antzinako kanten zatiak biltzeari ekin zioten Euskal Herrian ere. XVI. mende bukaeran eta XVII. mende erdialdean zenbait paremiologok atsotitzak bildu zituzten, eta kronikagile eta geneolo-

gista batzuek beren obretan guduen eta heriotzen berri ematen zuten pasarteak txertatu zituzten (Aldekoa 2008: 9-10).

Ezagutzen den euskarazko errefrau-bilduma zaharrena, *Refranes y sentencias comunes en bascuence, declaradas en romance con números sobre cada palabra, para que se entiendan las dos lenguas* (1596) da. XVI. mende amaierako beste bi errefrau-sorta ezagutzen dira Esteban Garibai historialariaren bidez heldutakoak. Bertrand Zalgizen errefrauak ere aipatu behar dira, eta XVII. mendean, aldiz, Arnould Oihenarten bilduma eta Jacques Belaren atsotitzak.

XIX. mendean errefrauekiko interesa areagotu egin zen, erromantikoen ustez errefrauetan herri-jakintza gordeta baitzegoen. Halere, ikerlan eta bilketa gehienak eta esanguratsuenak XIX. mendekoak dira. Bilduma zaharrei buruzko azterlan aipagarrien artean, J. Urkijoren lanak, K. Mitxelena *Refranes y sentencias* bildumaz eginiko azterketa sakona, eta gure garaikideen artean, J.A. Lakarrak *Refranes y sentencias* buruz eginiko edizio kritikoa (1996) aipatu behar dira.

#### SARRIONANDIA ETA ATSOTITZAK

Sarrionandiaren obran atsotitzek presentzia dute, eta *Refranes y sentencias*en jariora hainbat lanetan dago. Olerkiei dagokienez, bi poematan dago, biak adiera ezin interesgarriagoetan. «Hurrutirean boluara dator hura» poeman errefrauekiko zaletasunaren berri ematen da:

Laket zait antigualeko izkribuak leitzea  
 (Hurrutirean boluara dator hura)  
 gure mintzairako lehenagokoen gauzak,  
 (Hurrutirean boluara dator hura),  
 ez haien esanahia zehatz ulertzen dudalako,  
 (Hurrutirean boluara dator hura)  
 hizpidea iragan mendeetan galdu dutenean ere bai.  
 (Hurrutirean boluara dator hura)  
 Berben materia berrosatzen ahalegintzen naiz  
 (Hurrutirean boluara dator hura),  
 haien esangura atzendua igartzen.

Mezua argia da: antigoaleko izkribuak leitzea laket zaio, berben materia berrosatzea eta esangura igartzea, haien mamia hausnartzea. Bestalde, atso-titzaren mezuak protagonismoa bereganatzen du errepiken bidez, hala poetak euskara zaharretik datorren jakintza hori bere «boluara», bere gaurko poesiara, ekarri nahi du.

Bigarren olerkia «Gabriel Aresti» da, eta poeta izateko hitzen gaineko gogoeta eta deszifratze-lana beharrezkoa dela iradokitzen da. Olerkiak hiru argitalpen izan ditu, eta gero eta agerikoagoa da lotura hori. Lehen bertsoan, *Marinel Zaharrak*, haurrak leihotik begira daude, mendian, urrun, harri bat ikusi dutelako. Inork ez du berba sekretua gogoratzen eta poemak esanahiz betetako mututasunean iraungo du. *Hnuy illa nyha majah yahoo* 1995ean, ume aspertuak leihotik begiratu eta harri bat ikusiko du, eserleku bat. Azkenik, *Hnuy illa nyha majah yahoo* 2013an, ume aspertuak, leihotik begira, harri izkiriatu bat imajinatuko du, eta harginen berba sekretua deszifratzen saiatuko da:

Perretxiko biltzaileek estropezu egiten ditek  
hik utzitako harrian.  
Ume bakar baten irudimenari  
(*Aspertu banekio, asper lekiket*)  
ipini dizkiot hegalak aurtan.

Poeta bilakatuko den haurren irudimenari lotuta dago errefraua, eta badirudi iradokitzen dela, poeman olerkari izateko antzinako hitzen gaineko gogoeta eta deszifratzea nahitaezkoa dela, aurreko adibidean bezalaxe.

Bestelako generoetan ere badaude atsotitzak, *Refranes y sentenciasekoak*, batez ere. *Akordatzen*, *Hitzen ondoeza*, *Bizitzea ez al da oso arriskutsua?*, *Airea ez da debalde*, *Gauzak direna balira* edota *Munduari bira eman zion ontzia* liburuetan. Oro har, errefraua darabiltza hizkuntzari buruz hausnartzeko, dela hitzen historia ezagutzeko, dela tradizioari, argumentuekin, aurre egiteko (*erbeste* hitzaren<sup>3</sup> kasuan, esaterako).

<sup>3</sup> *Airea ez da debalde* liburuan *erbeste* hitzaren etimologiaz eta ortografiaz luze aritu ostean, zera dio: «Ondo dago obeditzea ortografia gaietan, baina protestantismo apur bat ere ez legoke gaizki, *erbeste* neologismoa h gabe idaztearen kontra, esate baterako» (Sarrionandia 2019: 28).

Halere, guztiz bestelakoa da *Han izanik hona naiz* (1992) liburua. *Hitzen ondoezan* Oihenartek bildutako «Han izanik hona naiz» errefracua emateaz gain, esaera hori sortu zeneko alegia kontatzen du: negua zela txori batek beste bati habia kendu nahi zion eta «Orhin ekia bero» esan ei zion. Habia-ko txoria engainuaz konturatu, eta «Han izanik hona naiz» erantzun zion. Hori da, iurretarrak 1992. urtean argitaratutako lanaren izenburua.

Hainbat pasarteren amaieran «Han izanik hona naiz» dago, testuartekotasunak eraikiz, txori bizkorak bezala, engainuaren diskurtsoari aurka egiteko estrategiak garatzen dituela. Horren adibideetako bat «Hamelingo xirularia» da, zeinetan Hamelingo txirularia txirula jotzen hasi eta arratoi guztiek atzetik jarraitzen dioten. Itsasora heltzean, arratoiak gelditu egin dira; txirularia, ordea, ez. Hamelingo txirularia ito eta arratoiak txaloka hasi dira. Hori da amaiera, eta hortxe dago «han izanik hona naiz». Arratoiak engainuaz jabetu, eta ez ziren itsasoratu; txirularia, temati, ito egin zen.

Edonola ere, atsotitzei dagokienez, atalik interesgarriena «Atsotitz apokrifoa» da. Aurkezpenean, Zalgiz, Bela eta Oihenart aipatu ostean, zera zehaztu zuen: «XVII. mendeko zuberotar hugonoteek utziriko paperen artean, ondoko esaera zaharren izkribua dago, biltzailearen izena historiak gugana arte gorde ez duen arren» (Sarrionandia 1992: 90). Beraz, beste bati egotzi dizkio atsotitz horiek, berak sortuak edo eraldatuak izan arren.<sup>4</sup> Arranzek *Hitza arzi* lanean, «esaera berria» deritze bizkaitarraren atsotitz apokrifoei.

Zalgizek, Belak eta Oihenartek jaso zituzten atsotitzak, baina hitz-hurrenkera aldatu, eta esanahi berriak sortzen ditu iurretarrak; guztira 22 dira. «Onest nezan Jainkoa, iduri zegidan tronkoa» da horietariko bat. Berrez, Zalgizek «Onhets neçan troncoa, // iduri ceguidan jaincoa» (Urquijo 1908: 707) bildu zuen, eta Oihenartek «Onhets nesan gure atsoa, iduri seguidan nescaxoa» (Oihenart 1657: 32, edizio fakzimilea). Hitz-ordena al-

<sup>4</sup> Gogora dezagun, Sarrionandiak sortutako hamaikatzko testu beste egile batzuei egotzi ohi dizkiela. Adibide bat aipatzearren, *Hilda dago poesia?* liburuko «Hariak eta abestiak» ataleko egile eta biografiak asmatutakoak dira. Idazle apokrifoen erabilera eta funtzioa Jakak (2011: 262-276) aztertut zituena, eta, era berean, hainbat itzultzaile fikziozko identifikatu zituen (Jaka: 2014).

datzearen ondorioz guztiz bestelako esanahia bereganatu du atsotitz berriak. Izan ere, maitasunaren medioz maitatua eder iruditzen zaigula diote Zalgizek eta Oihenartek. Iurretarrak ondorio ironikoa iradoki du: miresgarri dirudien Jainkoa maitatu eta hark zapuztu egiten duela gizakiaren onespena, enbor bat bezain ezgai eta baldar dela erakutsiko duenez. Erlijioaren kritika bihurtu ditu egileak atsotitz zaharraren baieztapeneko hitzak.

Beste adibide bat aipatzearren, iurretarraren liburuan «Xazkoen ürkazaleak, aurthenko uhuñak» dugu. Zalgizen bildumako 41.a da hori, Belaren bildumako 13.a eta Oihenarten bildumako 478.a, hitz-hurrenkerat aldatuta. Jatorrizko errefrauan, aurreko urtean oker jokaturakoak, aurten ekintza bera egiten dutenen kontra daudela adierazten da. Apokrifoa lehenago kritikaturakoa, beranduago norberak egitea.

Adibide bakar batean mantendu da errefraua biltzaileek jasotako modu-moduan: «Eliza egin zuiena, aldarian». Botereari buruzko behialako hausnarketa gaurko egunera dakar poetak, aldaerarik egin behar gabe. Izan ere, atsotitz apokrifoetako gehienek irakurketa soziopolitikoak onartzen dituzte, garaiko egoera politiko-sozialekin lotutakoak. Azken horrek garai guztietako botere-nahiari eusten dio modu adierazgarrian.

### 3.1.2 *Epigramak*

Epigramak, jatorrian, hilarrietako edota monumentu nahiz oroitarrietako idazkunak dira. Testuen izaerak sorrarazi zuen generoaren ezaugarriarik nabarmena: laburtasuna. Díaz de Ceriok (1999) epigrama funerarioen bila-kaera aztertu eta kronologikoki sailkatu zituen, lan narratiboagoetatik hasi eta alokutibozko egitura berritzaileetaraino. Apurka-apurka produktu literario bihurtu, balizko grabaziotik aldendu, eta gaiak eta egiturak hedatu ziren.

Epigramen azpigenero garrantzitsuena, maitasun-gaia da, zeinak goia jo zuen Kalimako edo Asklepiades bezalakoekin. Horren ostean, generoak garatuz jarraitu zuen eta mota berriak sortu ziren; emankorrenetariko bat, isekazkoa izan zen.

Halere, epigramen ideia modernoa Martzialengandik dator. Huraxe izan zen generoaren eraldatzaile nagusia. Luzio eta Nikarkoren eredu grekoa, Katulo eta erromatar tradizio satirikotik abiatu zen generoa berritzeko. Generoa definitzeko Ortegak (2005) ezaugarri oinarritzotzat hartzen ditu, laburtasuna eta amaiera aldeko zorrotasuna, kondentsazioa poetikoa eta irudiak sortzen duen inpresioa. Horrexegatik, bada, alderatu izan dira epigramak eta erleen zitzadak. Epigrama da postmodernitate kulturalistan, sonetoekin batera, gehien landu den azpigenero diskurtsiboa.

#### SARRIONANDIAREN EPIGRAMAK

Iurretarrak zertutako epigramen artean bi motatakoak daude: *Izuen gordelekuetan barrena* (1981) liburukoak; eta *Hitz bide, bizia xede* (2012) lane-koak.

Lehenengoei dagokienez, liburua ardazten duten zazpi atalen ostean, lau bertsoleerroz osaturiko zortzi epigrama daude. Askotarikoak dira bai gai, bai metrika, bai errima aldetik. Naturako elementuak nahiz erreferentzia jasoak daude. Egileak «prologoan» dioenez, «ikuskitun, ideia eta egoera niminoak atzeman nahi izan dira epigrametan, eta sail berezia osatzen dute» (Sarrionandia 1981: 6). Halere, tradizioari jarraituz, Sarrionandiaren epigrametan gehien lantzen den gaia heriotzarena da, eta hilarriek dute presentziarik handiena. Aipagarria da, *Marinel Zaharraken* «Hilarri izkribua I» eta «Hilarri izkribua III» olerkiak daudela; eta *Kartzelako poemak*en, bi horiei «Hilarri izkribua V» gehitu eta hirurak elkarren segidan daudela. Beraz, zentzuzkoa dirudi, heriotzaren gaia lantzen zuten epigramek segida izan dutela pentsatzeak.

Halere, askotariko epigramak daude. Horietako bat, «L epigrama»: «Hilei deitu eta / erantzun egiten dute // biziei deitu eta / ez dute erantzuten». Azken hori Afrika mendebaldeko poesiaren igarkizun enigmatiko bat da, eta iurretarraren beste lan batean ere badago: *Hitzen ondoezan* (1997), «Enigmak» atalean. Bertan igarkizunaren erantzuna dago: «orriak».

Bigarren multzoko epigramei dagokienez, Martzialen estilora egindako 28 dira. Arestian aipatutakoak ez bezala, hitz lauz idatzita daude, eta «zu» bati zuzenduta. Alabaina, bada alde nabarmena Martzialen epigramen eta Sa-

rriionandiak ondutakoan artean: euskal idazleak izenak jarri eta gai politikoak lantzen ditu. Bizkaitarrak molde klasikoari jarraituz eguneroko gaiak jorratzen ditu, edo eguneroko elementuak daude. Hona hemen bi adibide: «Gerlaren alde mintzo zara, baina gerla telebistatik ikusteko asmoa duzu. Telebistazalea zara orduan, Hostilius, ez gerlazalea»; eta: «Zure bizitza, Autobulus, irauingitze bat izan da ezta? Lehenengo independentista izan zinen, gero dependentista, gero dentista, ezta?».

Gainera, Sarrionandiak itzulitako poema-antologietan epigramak daude, esan nahi baita, epigramak sortu aurretik, bildumak ezagutu eta landu egin zuela generoa.

### 3.1.3 Haikuak

*Haikua* japonierazko olerki mota bat da. Iurretarrak *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak*en (1985) *haiku* batzuk euskaratu, eta azpigenaroari buruzko informazio argigarria eman zuen:

Mendebaldeko poeta sortzaile eta artisaua izan ohi da. Japoniar poetak, berriz, ez du deus ere egiten, begiratu baino. Baina bat-batean zer edo zer gertatu da, ingurua une batez ustekabeen harritu duen zerbaiten lekukoa izan da bera, eta poema labur batean jasoko du gertaera harrigarri hori, mundura itzuli den isiltasuna hautsi gabe.

Japoniar poesian ez dago errimarik, ez azentu «tanke»rarik, silabarik silaba neurtzen dira poemak. Poesia motarik klasikoena *waka* edo *tanka* delakoa da: bost lerro, lehenengo hiru eta gero bi, 5-7-5 eta 7-7 neurriekin. *Tanka* kate jarraitu eta luzeak egiten hasi zirenean renga izena eman zitzaien; autore desberdinak elkartzen omen ziren *renga haikai* hauek egiteko. *Renga* atal bakoitzaren hasierari *hokku* izena ematen zitzaion. Gero, 5-7-5 neurriko poema arinak egiten hasi ziren eta, *haikai* eta *hokku* izenak batuaz, *haiku* izena eman zitzaien.<sup>5</sup>

(Sarrionandia 1985b: 155)

<sup>5</sup> Letra etzanez jarri ditugu, jatorrizko testuan letra lodiz datozen berbak.

Gainera: «Inoiz epigrama poetikoa dela esanez definitu izan da lirikako azpigenero mota hori» (Igerabide 2008). Hernández Esquivelek (2017: 75) dioenez, «[*haiku* hitzak] significa literalmente frase o sentencia de un actor». Euskal literaturari dagokionez, Igerabideren (2008) esanetan, berriki sartu da Urkizu, Perurena eta Igerabideren poesiagintzaren bidez.

#### SARRIONANDIAREN *HAIKUAK*

Bi dira Sarrionandiak egindako *haikuak*; hauexek:

HAIKU II	HAIKU IV
Jainkook otoi,	Haizea dator,
ez zaitezte sar gure	gure ileak nahasi
bizimodura.	eta badoa.

Esan daiteke *haikuen* ildo klasikoari jarraituz sortu dituela, hausnarketa filosofikoei eta naturari buruzko gaietakoak baitira. Halere, errepara bedi, lehen eta hirugarren *haikuak* falta direla adierazten duela zenbaketa erro-matarrak, eta inplizituki besteak ezabatu egin behar izan dituela dirudi.

#### 3.1.4 *Sonetoa*

Sonetoa Siziliako gortean asmatu ei zen XII. mende hasieran (Lekuona 2008). Mendebaldeko tradizioan eredu jasotzat jo izan da. Larramendiren soneto batez ari zela, aurkezpen hauxe egin zuen iurretarrak: «Euskal sonetogintzaren historiak [...] euskal literatura kultoarekiko gauza interesgarri ugari azalduko luke. Sonetoa, XVI. mendez geroztik, mendebaldeko eredu metriko kulto estimatuena eta, gainera, poemagintzarako gaitasun froga modukoa izan da» (Sarrionandia 1985a: 87).

Poema laburrak dira, hamalau bertso-lerroz osatutakoak. Lehen bi ahapaldiek lau bertso-lerro dituzte eta azken biek hiru. Tradizionalki lehenengo bi ahapaldietako errimak besarkatuak dira, ABBA egiturakoak. Azken bi ahapaldietan, gehienetan CDE edo CDC egiturako errimak daude. Halere, bestelako konbinazioak egin dira. Silaba-kopuruari dagokionez, aldeak



daude. Espainian, hamaika silabakoak dira. Frantzian, hamabikoak. Halere, euskaraz hamalauduna deritzanak, era askotako aldaerak izan ditu. Zenbaitetan malgutasun berriak ezarri zaizkio, modernismoan eta ondorengo poesian, batez ere (Lekuona 2008). Euskal letretan gutxi erabili da, eta ikertzaileren artean onartuta dago, euskal sonetoek ez dutela batasun eta eredurik. Beti «maisuen» lan edo erronkatzat hartua izan da. Oihenartek XVII. mendean landu zuen eta XX. mendean X. Lizardik, F. Krutwigek edo J. Mirandek ere bai. G. Arestik sorta interesgarria ondu zuen *Euskal Harria* (1968) bilduman.

#### SARRIONANDIAREN SONETOA

Idazleak soneto gehiago idatzita dauzkala jakin arren,<sup>6</sup> bakarra argitaratu du: «Berrogei izen». Tituluak aurreratu bezala, berrogei izen-abizenez osatuta dago, eta ABBA, ABBA, CDC, DCD egitura du. Jolas bezala ulertzen dugu sonetoa, izenak soilik erabiltzearen murriztapena baliatuz sortutakoa. Beraz, abiltasun-ariketa formaltzat aipa genezake. Izan ere, *Izuen gordelekue-tan barrena* lanean argitaratu zen, eta bertan, badira esperimentazioarekin lotutako beste zenbait poema.

#### 3.1.5 *Molde klasikoari jarraituz sortutako poemak*

Salaberrik (2002: 49) dioenez, tradizio luze bati zor zaio molde klasiko-dun egitura, eta Etxepareren sasoirako ondo txertatuta zegoen. Horren adibidetzat eman zuen, esaterako, Hegoaldeko ahozko tradizioan kantatzen ziren poema batzuk («Mila urte / igarota // ura bere / bidean...»). Halere, askozaz lehenagokoa da moldea, latinezko molde batzuetan eta kristau-tradizioan ere bazegoen: «... distantziak gutxietsi gabe, askoz lehenagokoak ziren latinezko eredu zenbaitekin zutena, besteren artean, Lafonek aipatzen

<sup>6</sup> *Marinel Zaharrak* liburuan, hauxe irakur daiteke: «Bilduma honetatik aparte utzi ditut, finean, lehen liburuko orri ugari, gartzelan egindako kobla eta sonetoak, eta *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak* liburuan agerturiko apokriko batzuk» (Sarrionandia 1987: 8).

dituen III. mendeko trokaiko haien («Tantum vini habet nemo, // quantum fudit sanguinis») eta kristau-tradizioak *quantum* utzitakoen (IV. mendean San Ambrosiok idatziak: «Apparebit repentina // dies magna Domini») ildo-koekin» (Salaberri 2002: 49).

Ezagun denez, Etxeparek molde hori erabili ohi zuen, eta Patxi Altunaren (1978) hipotesiaren arabera, Sarasketakoak 4 / 4 // 4 / 3 erritmo-mota duen bertso-lerroak multzokatzen zituen, errima-kopurua aldakorra izanik. Salaberrik (2002: 49) dioenez, XVII. mendean ere erruz erabili zen eredu; Etxeberri Ziburukoaren obran aurki daiteke, adibidez.

#### SARRIONANDIA ETA MOLDE KLASIKOKO POEMAK

Bi olerkitan dago molde klasikoko egituraketa hori; lehena, «Disiecti membra poetae» narrazioan. Ipuinaren narratzailea Etxepare da, eta kontalariari dagokion molde metriko bereizgarria da, Cervantesen ipuin batean sonetoa sartzea bezain koherentea. Ipuinean, paragrafo bat hitz lau txertatu du (ahapaldi bati dagokiona), gero narrazioa erabiltzen jarraitu du, eta ostean berriro olerkiari dagokion paragrafo bat tartekatu du; eta horrela ipuinaren amaierara arte, poema zatitua emanik, prosa eta poesia txandan-txandan. Beraz, paragrafo horiek narraziotik erauzten baditugu, 4 / 4 // 4 / 3 eskema metrikoari jarraituz osatutako olerkia dago. Errima ere idazle baxenabartarrak erabiltzen zuen tankerakoa da. Gainera, Azkorbebeitiak (1997: 58) azpimarratu zuenez, 1., 2., 4. eta 5. ahapaldien aurretik poetak idazteari ekin diola, edota idazten jarraitzen duela, jakinarazi digu, «pergamuan, antzara lumaren punta tintontzian bustita izkiriartzen hasi zen» (Sarrionandia 2011: 250) bezalako azalpenen bidez.

Bigarren olerkia, «Galtzetan gordetzeko koblak» da, eta Puerto de Santa Maria presondegian zegoela idatzia du: «Egoera eta larritasun hura ezin azalduz idatzi ziren bertsook Bernat Etxeparek erabiltzen zuen moldean, hamabost silabako puntuekin» (Sarrionandia 2018: 28). Kasu honetan, Etxeparerekiko lotura kartzelako espazioak ematen du, hark ere «Mosen Bernat jakin bahu» hasten den poeman kartzela garaiko kontakizunak aipatu baitzituen.

Bi olerkiotan, Sarrionandia ahalik eta hurbilenetik saiatu da eredu metrikoari jarraitzen. Halere, hainbat desadostasun aurki daitezke, metrika zorrotzak eta errima-beharrak sorrarazitakoak.

### 3.2 Epika

Bigarren multzoan, kutsu epikoa duten testuez arituko gara. Epika eta epopeia grekerazko *ēpos* hitzetik sortu ziren, eta poesiaren izendapen metaforikotzat jo izan dira. Poesian nahiz prosan, «gertakizun eta ekintza go-goangarriak —bortxazkoak edo heroikoak gehienetan— kontatzen dituen generoa» dela esan ohi da (Igerabide 2008). Moralesek (2016: 151) epika, mendebaldeko tradizioaren barruan kokatuta, honelaxe definitu zuen:

[...] la épica es el género literario que «cuenta y describe objetivamente algo que posee existencia concreta fuera del narrador-autor» (Beristáin 1988: 241). Consta de una forma fija: «un discurso confiado al compás del metro, transmitido oralmente de generación en generación por medio de la cantinela de los aedos o de sus equivalentes» (Marchese y Forradellas 1994: 129) y de un contenido específico: «el héroe que se encarga o se obliga al cumplimiento de un deber, la búsqueda, las pruebas y las peripecias; el héroe se enfrenta al oponente o antagonista, con o sin la mediación de un adyuvante, etc».

(Morales 2016: 151)

Epikaren alorrean epopeiak eta kantu epikoak bereizi ohi dira. Bereizkuntza luzeerari dagokio. Lehenak luzeak dira, eta bigarrenak, laburragoak.

Epopeiak, antzinako zibilizazioen testurik zaharrenetakoak dira. Elezahar edo legenda bihurturiko gertakizun historikoak bildu eta ahozko tradizioan ondutakoak. Ondorioz, ez dago behin betiko testurik, ezta egile jakinik ere. Epopeia batzuk idatziz bildu ziren antzinatean, eta horrela kontakizunek gorputz bateratua lortu zuten; babiloniarren eta asiriarren *Gilgamex*, hinduen *Mahābhārata* edo greziarren *Iliada* eta *Odisea* dira horren adibide.

Tradizio klasikotik eratorrita, Erdi Aroan Europako zenbait herrialdetan ahozko tradizioak epopeia asko sortu zituen, eta ahozko tradizio hori kultu-

ra-giro latinizatutik aparte garatu zen, Frantziako *Chanson de Roland*, edota Gaztelako *Cantar del Mio Cid*, esaterako.

Ahozko tradizioan sortu eta garatu arren, literatura idatzian oihartzun handia izan du. Erromantizismoaren eraginez, berealdiko bultzada izan zuen epikaren alorrak, epopeia batek kultura/zibilizazio bati funtsezko euskarri espiritualak eskaintzen ziola uste baitzen. Gainera, nazio modernoaren eraikitze-prozesuaren suspengarri espiritualak izan zen. Ondorioz, herri bakoitzak bere epopeia nazionala nahi zuen; Finlandian, kasurako, *Kalevala* (1836) da horren adibide.

Euskal letrei dagokionez, ez dago epopeiarik, tradizio epikoa kantu urritan gauzatu zen. XIX. mendeko Hiribarreneren *Euskaldunak* (1853) tankera horretan sortutako olerki luzea da, eta «Altabizkarko kantua» bezalako apokrifikoak moldatzea ekarri zuen, edota Klaudio Otaegik moldaturiko «Beotibarko kantua». Beranduago, naziotasunaren bultzadak, eta idealismo erromantikoari jarraituz, epopeia horren beharra aldarrikatu zuen XX. mende hasieran. Hori horrela, Orixek *Euskaldunak* poema idatzi zuen 1934an, nahiz eta 1950. urtera arte argitaratu ez. Halere, egileak hitzaurrean adierazi bezala, ez zuen epika generoaren ezaugarri nabarmenena bere testuan txertatu, hots: erregistro handi harroa edota borroka-gaien kontaketa.

Kantu epikoak, bestalde, baladen azpisailtzat jo ohi dira, eta epopeiaren oinordekotzat. Izan ere, askotan, epopeien zatiak dira, edo horren antzeko izaera duten kantu laburragoak (Igerabide 2008). Epopeiek baino doinu aberatsagoa eta ugariagoa dute, eta euren indarra erritmoan eta musikan dago (Paya 2013: 96). Gertakari beliko edo balentria baten kontakizun poetikoak dira. Erromantizismoak bilketa-prozesurik handiena bultzatu zuen eta azterketa sakonak egin. Horien artean aipagarria da, Menéndez Pidak erromantze-kantuari ('romancero') buruz egindako azterlana. Euskal Herriari dagokionez, lehen bilaketak, XVI. mendean, historialariek egin zituzten (Garibai eta Martínez de Isasti, berbarako). Halere, bilketa-lanik handienak XIX. eta XX. mendekoak dira (Francisque-Michel, Salaberri, Villehélio, Jaurgain, Azkue eta J.A. Zulaika *Aita Donostia*).

Tradiziozko euskal epikan ezagutzen diren lehen testuak XVI. mendeko kronikagileek batu zituzten: Garibaik bere bilduman jasotako «Beotibarko gudua-

ren kanta», «Olasoren kantorea» eta «Salinasko kontearen kanta»; Iburgüen-Cachopinen kronikako «Akondiako gudu» eta «Arrasateko erreketak», eta «Juan Lazkaokoren kanta», «Sandailiaren kanta», «Txanfarronen kanta» eta «Urrexolako guduaren kanta». XIX. mendean Francisque-Michelek, Salaberriek, Villehéliok, Bordesek eta Jaurgainek eginiko bilketen ondoren, Azkue eta Aita Donostiaren lanak datoz XX. mendean. Geroagogarrenean, aldizkarietako bilketa-lanak heldu ziren: *Gure Herria*, *Eusko Folklore*, *Euskalerrriaren Alde* eta *Euzkadin*. Horren ostean, M. Lekuonaren azterlanak aipagarriak dira, eta Riezu, Leizaola, Irigarai, Mitxelena, Satrustegi eta J.M. Lekuona ilobarenak. Azkenik, Maria Goiri eta Mikel Zarate mintegiak nabarmendu behar dira.

Sarrionandiaren corpusean ñabardura epikoa duten testu batzuk daude: batetik, hizkera-mailan genero honi dagozkion ezaugarriak biltzen dituen olerki bat dago; eta bestetik, pertsonaia epiko baten inguruan ardazturiko olerkiak.

### 3.2.1 *Hizkera-mailan ñabardura epikoa duen testua: «Ossian» olerkia*

1760. urtean, James Macpherson eskoziarra Ossian bardo zeltaren kondairen ustezko itzulpenak argitaratzen hasi zen. 1765ean, zatika argitaratutakoa, *The Works of Ossian* lanean bildu zuen. Poema liriko-epikoak dira, eta heroi zelten guduak eta balentriak kontatzen dira. Pertsonaia nagusia Ossian gerlari eredugarria da.

Hedadura eta arrakasta direla medio, laster zabaldu zen mundu osora, erromantikoen miresmena bilduz. Macpherson ohituta zegoen garaiko eskoziar bardoak entzutera eta abesti horiek bazuten kutsu epikoa. Gainera, XVIII. mendean (eta mende luzeetan), poetarik onena Homero zela uste zen, eta hortaz, *Iliada* eta *Odiasea* lanen generoa, generorik gorena. Ondorioz, Edimburgoko ikasiak, Macphersonen Eskoziako pasarte epikoak bildu zituela jakin zutenean, harrituta geratu ziren, antzinako epepeiaren bat egon zitekeela uste baitzuten, eta, hariari tiraka, horrek beste eskualde moderno batzuekiko nagusitasuna emango ziolako Eskoziari (Borges 2014).

Halere, hasieratik egon ziren egiazkotasunaren gaineko zalantzak. 1805ean itzulpen faltsuak zirela jakin zen, Macphersonen idatziak zirela.

Halere, pasarte horietako batzuk irlandar eta eskoziar bardoek harparen laguntzaz abestu ohi zituzten, eta XII. mendetik XVII. mendera artean idatzitako eskuizkribuetako pasarteak ere bazituzten. Hortaz, egiazko zati tradizionalak bazituela ondoriozta zitekeen. Olerkien faltsutasuna frogatu zenerako idazlearen helburua beteta zegoen: eskoziarrek bazuten beren iragan historiko-epikoa laudatzen zuen kondaira.

Beste herri batzuk beren iragan epikoaren bila aritu ziren, tartean Euskal Herria ere. Horren erakusgarri dira hurrengo adibide hauek: 1834an, Garai de Monglavek pergamino batean aurkitu ei zuen testu bat argitaratu zuen, ahozko tradizioari esker menderik mende irauna. *Altabizkarko kantua* zen testu hori, eta Orreagako bataila zuen ardatz. Macphersonen lana bezala, hori ere antzinako altxortzat jo zen, ahozkotasanaren eta iraganaren islatzat hartuta. Baina, kasu horretan ere, testuaren egiazkotasunari buruzko zalantzak sortu ziren. Ia mende erdi igaro ostean, Websterrek testua Garaik idatzi zuela frogatu zuen.

Bestalde, Aldekoak (2008) dioenez, Arriolabengoak aurkitu zituen, Iburgüen-Cachopinen kronikan jasota dauden euskal tradizioko faltsutzerik ospetsuena sorrarazi zuten bertsoak: «*Leloren kanta edo Kantabriarena* deritzan kanta apokrifoa, Iburgüen-Cachopinek XVI. mendean zabaldua. *Leloren kantaren* ondoren izan ziren, XIX. mendean jadanik, *Ossianen* tankerako beste kanta apokrifoa batzuk ere» (Aldekoa 2008: 10).

Sarrionandiaren «Ossian» olerkian, Ossianena da «ni poetikoa». Pertsonaia mitifikatua dugu, gerlari handi baten semea. Haurra zela itsas neska batek hartu eta Tir na n-Og paradisura eraman zuen. Han hirurehun urtean bizi eta gero, sorlekura bueltatu nahi izan zuen. Itsas neskek hegaldun zaldi bat eman zion, eta oinak lurrean jarriz gero, munduan zegokion adinarekin berdinduko zela jakinarazi zion. Zalditik jauzi eta halaxe gertatu zen. Olerkiak erabat jarraitzen dio jatorrizko kontakizunari.

Testuari epikotasuna dario, eta erromantizismo-kutsua ere bai. Pertsonaia jakin baten inguruan bildu da, eta formulak eta izenen zerrendatze luzeak daude, heroiaren genealogia bertutearen adierazgarri baita. Horrez gain, errepikapenak, paralelismoak eta aliterazioak daude. Erritmo bizia ematen diote horiek olerkiari, eta haren ahozkotasanaren adierazle dira.

Irudiak ere aipagarriak dira, idilikotasunari lotuak. Hala, sorlekuan, Gabrango zelaian, odol-uholdea ematen duen «odoldea» da, eta Tir na n-Og pasadisuan, berriz, «eztiardoa erreken gisa doa», liliak zimelgaitzak dira, zaldunek janari eta bizigarri ederrak dituzte, emakumeak lirainak dira eta sagarrak eta mertxikak dilindan hazten dira harpen doinuarekin, paradisu nordikoan den bezala.

Halere, geure usteen, aipagarriena olerkiaren erregistroa da. Poeman zukako alokutibozko formak daude (*bizi ninduzun* edota *agure itsu bat ninduzun* bezalakoak), eta hori hizkera epikora hurbiltzeko saiakeratzat daukagu guk. Olerkia *Izuen gordelekuetan barrena* bilduman argitaratu zen, eta egileak, sasoi hartan hizkera literarioa sortzeko ahaleginetan zihardutela adierazi izan du. Ildo horretan gaudela ulertzen dugu lehen poesia-liburuaren erregistro-ugaritasuna, eta horien artean baita «Ossian» testukoa ere. Gainera, nabarmentzeko modukoa iruditzen zaigu, zukako alokutiboa lehen liburu hartako beste olerki batzuetan ere badagoela jakinaraztea —«Etxera itzuli» eta «XXXVII. epigrama» poemetan—, ez, baina, gainerako inongo liburuetan. Aipatutakoen artean, «Etxera itzuli» poema bakarrik argitaratu da beste bilduma batean, eta horretan, ostera, ez du zukako alokutibozko formarik erabili. Beraz, geure iritziz, erabat lotuta daude, a) hizkera epikora hurbiltzeko saiakera, b) darabilen erregistroa eta c) hizkera literarioaren sorrera-asmoa zuen hastapeneko garai hura. Azkenik, adierazgarria da, Ossianen olerkien artean bueltatzearen edo itzultzearen kontzeptuaz diharduen bat aukeratu izana.

### 3.2.2 *Pertsonaia epikoak dituzten testuak*

Beste olerki eta narrazio batzuetan iurretarrak pertsonaia epikoak darabiltza, baina horietan ez dago hizkera aldetik epikara hurbiltzeko ahaleginik.

#### SUMERTAR ETA IRLANDARREN LORRATZETATIK

##### a) *Gilgamex*

*Gilgamexen epopeia* K.a. III. mendeko sumeriar epopeia da, Mesopotamiako idazki zaharrena, buztinezko 12 taulatan idatzia. Bertsiorik osatuena

akadioeraz dago, idazkera kuneiformean. Colell eta Torranok (2006: 202) diotenez, olerki hori mendebaldeko kultura tradizioaren sorrera-testuetariko bat da. Historia eta mitoaren artean kokatzen da epopeia, ezen litekeena da Gilgamex K.a. 2650. urte inguruan errege izan izana. Epopeiak hiru gai nagusi ditu: gizakiaren heriotzaren zergatia, hilezkortasuna eta jainkoen gizakiekiko jokabidea.

Poemaren muina hauxe da: Gilgamex etsita dago Enkidu lagun minaren heriotzagatik, eta betiko gaztetasunaren bila abiatu da. Utanapishtimengana jo du, eta hark hilezkortasunaren landarea itsas hondoan aurki dezakeela esan dio. Gilgamexek landarea eskuratu du, baina suge batek ostu dio.

Horixe, labur, epopeiaren haria, eta Sarrionandiaren bi testutan egin zaio erreferentzia pertsonaia horri: «Gilgamesh bidaztia» eta «Uruk hiriko biltzarra» konposizioetan.

«Gilgamesh bidaztia» testuan epopeiaren gai nagusia dago: heriotza eta haren ondoriozko samina. Ahots poetikoa, hildako norbaitena da, eta Gilgamexi zuzentzen zaio:

[...] hemen ene gorputza soilik lurpean,  
sustraien artean, ene soin behiala lerdena,  
bihotzak ere argitzen zituen gorputza,  
jada xahutua, harrak elikatzen [...].

Beraz, pertsonaia epiko bat hartu eta haren historiaren pasarte bat berri-datzi du, baina tratamendu lirikoaz baliatuz; berridazketa historiografikoa da.

Bigarren testua, «Uruk hiriko biltzarra» da, *Hexurrezko Xirulaken* (1991) argitaratutako itzulpena. Testuan, Gilgamex hiriko agureengana doa, Kisheko jendearen aginpiderik ez onartzeko eta borrokara joatea proposatzeko, baina ezetz erantzun diote. Orduan, hiriko gerlariengana jo, eta horiek onartu egin dute proposamena. Beraz, Gilgamexek hainbat talderengana jo behar izan du baiezko hori lortu arte.

#### b) *Eorann*

Irlandar mitologiako pertsonaia da, Suibhne eroaren emaztea. *Buile Shuibhne* Erdi Aroko Suibhne mac Colmáini buruzko ipuin irlandarra da.



Aditu gehienen ustez, XII. mendeko errege-istorioa da; trasgresioak egiten dituzten eta horregatik kritikatuak diren erregeei buruzko testuen baitan kokatu izan da (Lefebure 2018: 34).

Hauxe da, bi hitzetan, argumentua: San Ronánek eta Suibhne errege paganoek hainbat tirabira izan ostean, San Ronánek Suibhne madarikatu zuen, eta ondorioz, erotu egin zen. Zoramenak eraginda, hainbat botere eskuratu zituen: lebitatuz edo jauzi eginez distantzia handietan zehar bidaiatzeko gaitasuna, edota poesiaren eta profeziaren doaiak. Orduz geroztik, herrari ibili zen Irlandan, orain sendatuta, orain erotuta. Azkenean, San Molingek bere etxean hartu zuen. Urtebetez egon zen han, harik eta egun batean San Molingek lantza bat jaurti eta Suibhne hil zuen arte, San Ronánek garai hartan eginiko madarikazioa betez.

Sarrionandiaren bi testuk egiten diote erreferentzia pertsonaia horri: «Elurrezko hegazia da gure bihotza, Eorann» eta «Itsas hondoko gogoeta» konposizioek.

«Elurrezko hegazia da gure bihotza, Eorann» olerkia Eoranni zuzenduta dago. Bidaztiarena da ahots poetikoa, eta bihotza non duen adierazten du. Bihotza «elurrezko hegazti bilakatzen da ihes egiteko» eta «elurrezko hegazia» dela errepikatzen da. Halere, *Buile Shuibhneren* istoriarekin alderatuta, bada alde nabarmena: irlandar istorioaren protagonistak duintasuna galdu du, eromenak jo duelako errege izateari utzi dio; Eorann beste gizon batekin bizi da, eta etxera ez bueltatzeko eskatu dio Suibhneri, lotsagarria delako. Sarrionandiaren olerkian, ordea, heroia-aren figura dago. Zoritzarrak izan arren, heroia izaten dirau, eta ez zaio damutu. Duintasun epikoa du, tragedi bizi arren ekintzetan mamitzen da heroia. Espiritu edo utopia-nahi hori ez da galdu. Amaieran antzeman daiteke hori:

[...] eta munduko kantoi amaigabeetan galtzen da damurik gabe

heroi zaharrak kale izenetan herdoiltzen diren artean.

Gure bihotza elurrezko hegazia da, Eorann,

esperantza doi batez airean, eguzkitan urtzear.

Elurrezko hegazia, Eorann, zeure bihotz barruan

onartzen baduzu soilik ez da desegingo [...].

Olerkiak iurretarraren beste poema bat gogorarazten digu: «Ikaroren erorketa» izeneko. Ikarok ere hegaz egin baitzuen ihes. Greziar mitologia-ko pertsonaiak lumak argizariz itsatsita zituen; hura eguzkira asko hurbildu, argizaria urtu eta erori egin zen. Hona hemen amaiera:

Beste guztiei sufrimenduan laguntzeko gauza bagina ez genuke  
bizi ahal izango,  
baina Ikaroren zain nago eta ahaleginduko naiz laguntzen,  
bere hegal apurtuen zatiak bilduko ditut  
eta aterpea emango diot, ni erori nintzen bezala eroriko denean,  
oilaskoaren moduan.

Bi testuetako gaiaren tratamendua ezberdina da, oso. Izan ere, lehenengoan, bihotza ez desegiteko esperantza egon arren, bigarrean, gauza ziurra da Ikaro jausiko dela, oilaskoaren moduan, jausi ere.

«Itsas hondoko gogoeta» poeman ere ahots poetikoa Eoranni zuzenduta dago. Itsas hondoan dago, eta bertan daudenak eta ez daudenak zerrendatzen dira. Badago aurreko olerkiarekin erkatuta dakusgun alde esanguratsu bat: aurrekoan, esperantza dago amaieran; honetan, aldiz, ez. Hauxe bukaera: «Eta esperantza, zertarako esperantza, / Eorann, ilargi gazia urrunei badago». *Buihle Shuibhneren* istorioan protagonista ihesi zebilen. Sarrionandiaren olerki honetan, ordea, badirudi gatibatu ondorengo bizitzaz ari dela, «bizitza itsasoan murgildu zaigu» bezalako irudiei erreparatuz gero.

#### ZIKLO ARTURIKOARI BURUZKO NARRAZIOAK

Lau ipuin ondutzeko oinarritu da iurretarra ziklo arturikoan: «Ginebra erreginarenean erbestea», «Eguzkiak ortzi urdinean», «Ezpata arragoan» eta «Amorante ausarta» ipuinok. *Narrazioak, atabala eta euria* eta *Ifar aldeko orduak* liburuetan argitaratu ziren, eta *Narrazio guztiak (1979-1990)* bilduman berrargitaratu. Halere, badirudi garai beretsuan sortu zirela, horixe baitio idazleak 1984ko urriaren 1ean Mikel Hernandez Abaituari idatzitako gutunean:

Narrazioetaz, ez diakiat ondo egin nuen ipuinok horrela antolatzen. Hogeita gehiago ipuin nizkian eginik eta, gai eta estilo desberdinenekoak hautatzea erabaki nian. Baserri girokoak hiru nizkian eta bat sartu nian liburura, gai arturikokoak lau nizkian eginik eta bat sartu

nian, eta abar, ipuinek gai eta estiloz elkarren kontraste egin zezaten. Liburua, horregatik, nahiko heterogeneoa duk. Orain beste liburu bat diat iada prestaturik, planteiamendu berdintsuarekin eta Atabala eta euria tituluarekin. Oraingoz ez diat argitaratu nahi, hurrengo urtean edo, agian [...].

(Hernandez Abaituari gutuna: 2)

Lau ipuinok Arturo erregearen kondairaren gaiekin lotuta daude, eta erregea hainbat egoeratan azalduko da eurotan.

a) Ginebra erreginaren erbestea *ipaina*

Erresuma sakabanatzean, erbestera, Durango aldera, joan ziren Arthur eta Ginebra errege-erreginak, Fool bufoia, Lanzelot zalduna, eta Galahad. Erreginaren eta Lanzeloten arteko harremanaren zurrumurrua zabaldu zenean, munduz mundu bidaiatzeraz joan zen zalduna. Denbora igaro, eta erregina eta Galahad hartu-emanetan hasi ziren. Arthurrek hori jakin zuenean, Galahad hil zuen. Ginebra erretzeko asmoa ere bazuen, ohore-legeak agindutakoari jarraitzeko, baina, azkenean, ez zuen hil. Arthurren kezka bakarra hauxe zen: «Hil egin da Graal sailduaren esperantza, esperoa besterik ez uzteko» (Sarrionandia 2011: 61). Amaieran, erregina Galahadek haurdun utzi zuela aditzera emango digute.

b) Eguzkiak ortzi urdinean *ipaina*

Erromes itsu batek Preserbal zaldun heroiarekin topo egin, eta zuhaitz-adarretik sagar bigun bat hartzeko eskatu zion. Zuhaitzera igotzean, Preserbalek adarbakoitz bat ikusi eta haren atzetik abiatu nahian, lurrera jausi eta konortea galdu zuen. Dontzeila batek gizon zauritua aurkitu eta gaztelura eramane zuen; osatu eta gero ere han geratu zen berarekin. Emakumea hiru nebeekin bizi zen. Lau gizonok oilhanera joaten ziren adarbakoitzaren bila, baina ezin hura harrapatu. Preserbalek eta dontzeilak ume bat izan zuten. Egun batean, adarbakoitza dontzeilarengana hurbiltzen zela jakinik, enbor batera lotu zuten emakumea, harrapakina hurbilduko zelakoan... Halaxe jazo zen, jazo ere: adarbakoitzari oratu eta hil egin zuten. Orduan euria zarr-zarra hasi zuen, eta uholde ikaragarriak jaiki. Preserbal, dontzeila eta umea zuhaitz baten gorengo adarrera igo ziren, baina ur-korronteak don-

tzeila eta umea arrastaka eraman zituen. Orduan, itsuak Preserbali galdetu zion zertan ari ote zen, luzetsita zegoela-eta sagarraren zain.

c) Ezpata arragoan *ipuina*

Narrazioa, funtsean, Arthur eta Fool bufoiaren arteko elkarrizketa da. Erresumaren garai onak gogoratu dituzte biek, eta Arthurrek errege nola bilakatu zen kontatu du.

d) Amorante ausarta *ipuina*

Narrazioaren protagonista Merzlin aztia da. Enare izeneko neskez maite-mindu eta, hasieratik maitasun horrek hil egingo zuela jakin arren, temati jarraitu zuen bere horretan. Enarek, aztiarengan zuen erakarmenez jakitun zela, Merzlin limurtuz-limurtuz nigromantziaren sekretuak esanarazi zizkion; behin Enarek horiek jakinda, aztia betiko gatibaturik geratu zen.

Narrazio horietan, sagako pertsonaia ezagunez baliatu da egilea; denbora-aldaketak egin eta pertsonaiok bestelako lekuetan kokatu ditu. Azkor-bebeitiak (1997: 47) kronotopo determinatua agertzen duten narrazioen artean sailkatu zituen.

Kortazarrek (2005: 52) perspektiba gisa ulertzen ditu leku-denboraren aldaketak, eta hiru ezaugarri nabarmentzen: bazterraren kontzeptua (zibilizazioetik urrun baitaude), tragedia (zorionaren zain bizi dira) eta izadia eta pertsona (lehena perfektua da, eta bigarrena inperfektua) (Kortazar 2005: 52).

Aldekoaren ustetan, iurretarraren interes nagusia gizartea birsortzea da, zeinetan Erdi Aroko erromantizismoan girotutako ohorezko legeak eta epikak agintzen duten (Aldekoa 1997: 320-321).

Rodríguezek hurrengo alor hauek aipatu zituen: betiereko itzulera edo denbora ziklikoa, ziklo arturikoko pertsonaiak Euskal Herrira ekartzearen ondorioz, literatura unibertsala gurea ere badela baieztatzea eta gainbehera (urrezko aroa iraganda, geroztikakoa gainbehera baita) (Rodríguez 2013: 223-224).

Otaegik, bestalde, ipuinen irakurketa soziopolitikoa proposatu zuen. Otaegiren (2017: 220) iritziz, Sarrionandiak, ziklo arturikoko narrazioetan, gure garaiko auziez aritzeko bide metaforikoa aurkitu du. 80ko hamarkada-

ko Euskal Herriko bizitza kulturala eta politikoa zauritzen duten gaiak daude, eta horrexek ematen dio bere parodiari malenkonía ezin tristeagoa (Otaegi 2017: 232). Ipuinen bitartez botereaz hausnartzen du, baita klase eta gizon-emakumeon genero auziaz ere, gizarte-arau eta ohore-legeek dakarten zoritxarraz. Emakume-protagonisten jokaera, esaterako, ohorezko araudiaren kontra doa: Ginebra ez zaio erregeari maitasunean leiala izan, eta desira propioen jabe dela erakutsi du. Enarek bere erakarmen sexuala erabiliko du Merlinen jakitura bereganatzeko. Gainera, zaharturik eta erbesteturik egon arren, haien arteko hierarkiak bere horretan jarraituko du: Arthur, erregea da edonon eta beti; Fool bufoia, polizia, espia eta historialaria da, eta erregearen esanera dago; Merzlinek ere erregeari baliabide teknikoak eskaini dizkio, haren manupekoa da. Ginebra, emakume bat baino gehiago da aldi berean: Eba da (edozein desiraren iturburu), eta eskurazina, berorrek aukeratu ez dituenentzat (Otaegi 2017: 226-227).

*Ezpatá arragoan* narrazioan ikusten ditu Otaegik euskal herritarren aipamenik hurbilenak. Erregearen eta bufoiaren elkarrizketek beti dihardute, «esperoan» dauden herritarrez, «eta beharbada ipuina idatzi zen sasoko Euskal Herriko politikaren auzi nagusiak, hala nola ETArek borroka iraultzailea, indarkeria, erbesteratzea eta itxaropen zapuztuak azaleratzen dira fikzioan. Pentsa daiteke 1978ko Konstituzioan eta 1979ko Estatutuan marnitu zen baldintzapeko demokrazia haren desenkontuaz mintzo dela malenkonía ilunaz» (Otaegi 2017: 228).

#### EUSKAL EREDUAK

Aipatutakoez gain, olerkien beste pertsonaia batzuk euskal tradiziokoak dira.

##### a) *Bereterretxen kantorea*

Baladak heriotza bortitz bat kontatzen du, harako beaumontarrek Bereterretxe agaramontarra hil zutena. Beraz, ahaide nagusien arteko borroka odoltsuen gaia du. Horixe da euskal baladen bi gai berariazkoetako bat<sup>7</sup>

<sup>7</sup> «Dos tipos de temas se repiten obsesivamente: las luchas sangrientas entre clanes rivales y los malos tratos (que llegan en ocasiones al uxoricidio) infligidos por hidalguelos despóticos a sus

(Juaristi 1989: 12). Maria Goiri mintegikoen (1983) esanetan, baladaren gai nagusia traizioa da. Izan ere, kantuak zaldun batek jarraitu beharreko arau guztiak hautsi ditu.

Sarrionandiak maiz aipatzen du baladaren pertsonaia, euskaldunen arteko bando-zaletasunaz eta horren ondorio makurrez aritzeko. Hona hemen adibide bat:

Ahaide Nagusiak ziren ugazaba Erdi Aroan, leinutan antolatutako gizartean. Araban, Mendozakoak eta Gebarakoak ibili ziren borrokan, ezin izan nagusi, Mendozakoak Gaztelara emanago eta Gebarakoak Nafarroako erresumatik hurbilago. Mendozakoak Oinazinoekin lotzen ziren, Gipuzkoa aldean, Gebarakoak Ganboakoekin. Bizkaian, Butroikoak oinazinoak ziren, eta Abendañoakoak ganboinoak. Nafarroa aldean, berriz, Beaumont eta Agramont deitzen ziren bandoak [...].

[...] beaumontarren eta agramontarren arteko borroka iraunkorrak erraztu zuen Nafarroa Fernando Katolikoak konkistatu eta okupatzea.

(Sarrionandia 2015: 24-25)

Sarrionandiaren olerkian etsipenezko mezu lirikoa dago, irabazi ezinezko borroka. Baladaren gaia hartu da olerkia idazteko, lehen ahapaldian argi antzeman daitekeenez:

Horrela azkendu ginduzten:  
                   batak bestea hil genuen.  
 Sagar helduak lez erori ginen  
                   arbola azpira,  
 bukata ederren alboan odolustu ginen  
                   amore eman orduko.

Aipagarria da Bereterretxeren testuaz eta traizioaren gaiaz beste hainbat idazlek ere idatzi dutela, Artzek (*Isturitzetik Tolosan barru*) edota Lekuonak (*Mimodramak eta ikonoak*), kasu.

---

esposas» (Juaristi 1989: 12).

b) *Jaun Zuriano*

Jaun Zuriari buruzko balada eta elezahar bat gorde dira ahozko tradizioan. Elezaharrean jasotzen denez, Eskoziako errege baten alaba itsas bidaiari zihuan, hainbat itsasontzirekin batera. Ekaitzak zirela-eta Mundakara joan ziren babestera, eta han zegoela haurdun geratu zen printzesa hura. Ez zuen umearen aita nor zen aitortu, eta zigortzeko, erregeak Mundakan utzi zuen bakarrik. Haurdunaldi hartatik Jaun Zuria jaio ei zen. Laster egin zen Bizkaiko lurren jabe, eta Arrosa izeneko emakumearekin ezkondu zen. Gerrara joan zenean, Arrosa, senarra hilda zegoela sinetsita, konde batekin oheratu zen. Jaun Zuria bueltatu zenean, biak, andrea eta kondea, hil zituen ezpatatz (Igerabide 2022: 118-119).

Elezaharraz gain, Jaun Zuriaren inguruko balada bat ere badago, *Kaunzuriano*. Bertan morroi batek emaztearen desleialtasunaz ohartarazi dio nagusiari. Jaun Zurianok ez du holakorik sinestuko bere begiez ikusi arte, baina ez da, halere, hilketaren berririk emango. Zavalak *Euskal erromantzeak*. *Romancero vascon* «Itzulera» atalean kokatu zuen, eta hurrengo azalpen hau eman:

Garai batean, berriz, etxetik noiz irten bazekiten gerrara zijoazen arma-gizonak edo belaontzi batera igo eta itxasoetara abiatzen ziran mariñelak. Baiña atzera noiz etorriko ziran nork esan? Suerte ori zutenak, andik urteetara azalduko ziran. Ezagutu eziñezko itxuran etorri ere sarritan. Orra or, besterik gabe, literatur-gai berezi bat, *Odisea* liburuan edo bearbada leenago asi zana, eta prosaz eta itz-  
neurtuz ainbeste orrialde bete arazi dituana: munduan zear ibili ondoko etxeratzea edo itzulera, gure erromantzeetan ere bein eta berriro modu batera edo bestera agertzen dana.

(Zavala 1998: 23-24)

«Itzulera» olerkian «ni poetikoa» urteak kanpoan igaro ostean bueltatu zen, eta paisaia aldatua iruditu zitzaion, jendeak ez zuen agurtu, semeak ez zuen ezagutu, eta Penelope izenez aurkeztu zioten emakumea ez zen Penelope. Hauxe amaiera: «Ulises? Ulises diozue? Ni ez naiz Ulises. / Jaun Zuriano naiz, Elantxobera itzultzen».

Sarrionandiaren ahotsa heldu zaigu pertsonaia mitiko baten bitartez. Izan ere, kulturalismoak horretarako baliabideak eskaintzen ditu. Gainera, tes-

turatutako adibidean Jaun Zuriano dago, euskal alorrean Ulisesen parekidea den pertsonaia. Jaun Zuria aukeratzearen ondorioz, euskal mitoa mito greko-latindarraren ordeztu da.

Azaldutakoez ostean, beste balada batzuei egindako erreferentziak ere badaude. *Zaramologian* errepikatzen den «zazpi zaborrontzi kale bazterrean» horrek, *Urtsuako kantako* «zazpiak lerroz lerro» irudiari egiten dio erreferentzia. Edota «Poesia hilda dago baina ez naiz ni izan» olerkiaren amaiera *Perutxoren kantoreakoaren* berdina da, «Lelo lirelo bai lelo, lelo zarai leroba, / lelo lirelo bai lelo...»; hartan ere, Etxepareren *Linguae vasconum primitiae*-ko «Sautrela» atalean ere dagoena.

#### 4. Ondorioak

Iurretakoak molde jasoetara jotzen du sarri testuak sortzeko. Halere, ez du beti helburu bera. Askotarikoak dira darabiltzan moldeak, eta askotarikoak ere molde horiei ateratzen dien etekina. Hori horrela, bi multzo bereizi ditugu generoaren arabera: *a)* molde zarratu jasoak eta *b)* genero epikora hurbiltzen diren sorkariak.

Atsotitzei dagokienez, Sarrionandiaren filologiarekiko zaletasunaren erakusgarri dira molde jasook, edota hizkuntzaren iraganaren ezagutzari, eta hartaz hausnartzeari, etekin literarioa ateratzeko ahaleginaren lekuko. *Refranes y sentencias* iturri filologiko gisa darabil hitzen etimologiaz edota esanahiaz hausnartzeko. Bestela esanda, hizkuntzaz, edo zehatzago esanda, hitzen historiaz edo etimologiaz hausnartzen, azalpenak ematen, deszifratzen dituenen, begiratzen duen iturrietariko bat *Refranes y sentencias* da. Era berean, badirudi iurretarrantzat lotura zuzena dagoela hitzei buruzko hausnarketan eta poeta-ofizioaren artean, badirudi poetaren eginbidea eta hizkuntzari buruzko hausnarketaren arteko lotura ezinbestekotzat duela. Poetaren xedea atsotitz horietan «lehenagokoen gauzak» aztertu eta horietaz hausnartzea da, lehenagoko euskaldunen «berben materia berrosatzen ahalegintzea». Hortaz, euskal literaturaren tradizioaren memoria berreskuratzea du gogoan, eta «Hurrutirean boluara dator hura» atsotitzeko metaforaz baliatuz, esan liteke iradoki nahi duela, bero-



rren testuetan ere iraganeko arbasoengandik datorren urak ibilarazten duela poesiaren bolua.

Halere, oso bestelakoak dira atsotitz apokrifoak. Horietan —eta beste horrenbeste esan daiteke *Hitza bide*, *bizia xede* liburuko epigramez— ezaguna den moldea darabil egunerokotasuneko auziez aritzeko. Atsotitz apokrifoen kasuan testuartekotasunak altxatuz eta moldaketak eginez esanahi berriak eraikitzen ditu. Molde zaharrak darabiltza esanahi berriok eraikitze-ko, hau da, tradizioaz baliatzen da, hura eraldatuta testu berria sortzeko. Tradiziora jotzen du, baina hitz jakintsuak bihurritu egiten ditu orainaz jarduteko. Horretarako, etimologiak edo hitz-jokoez baliatzen da, «independentista» «dentista» bilakatzen den Autobulusi buruz diharduenean bezala. Bestalde, epigramaren gezia jasotzen duenaren izena ere alusiboa da: autonomia, autodeterminazioa eta horien gisako asmo politikoa duenari —*ulus* txikigarria erantsiz osatua—. Independentzia asmo handiangoaren ordeztan, autonomia-maila mugatuarekin konformatzen dena izendatzeko.

Hitz-hurrenkera aldatuz sortutako hainbat atsotitzek bigarren irakurketa onar dezaketela uste dugu, eta horrek bat egiten du Otaegik ziklo arturiko-ko narrazioez ondorioztatutakoarekin. Epigramek eduki satirikoa eta kritikoa dute, eta Martzial nahiz Lichtenbergen ildotik uste finkatuak eta ideia jasoak edo hedatuak sarritan ustelak direla adieraztea dute helburu.

Sonetoa, bestalde, abiltasun-ariketatzat daukagu, mendebaldeko tradizioan eredu jasotzat jo izan denari beste baldintza bat ezartzen dio: izen bereziz osatuta egotea. Olerkia Oulipo (*Ouvroir de littérature potentielle*) taldekoen jokoen antzekoa da, eta, hortaz, haren liburuetakoa beste zenbait testurekin batera aztertzea.

*Haikuek* japoniako poesia-moldea dakarte, eta ondorioz beste kultura batzuek presentzia dute. *Haikuen* itxurazko sinpletasunean oinarrituta, hausnarketa filosofiko eta estetiko iradokitzaileak egiten ditu. Edonola ere, Sarrionandiak gutxitan erabili izan du, eta bigarren ildo estetiko hori kopletan landu du gehiago; ildo filosofikoa epigrametan edota atsotitz apokrifoen bidez adierazia izan da, gehienetan.

Bestalde, molde klasikoari jarraituz eratutako bi olerkiei dagokienez, ipuinean txertatutako kasua interesgarriagoa iruditzen zaigu. Izan ere, na-

rratzailea Etxepare bera da, eta narrazioan txertatuta, hark erabili ohi zituen moldeko bertso-lerroak tartekatu dira, baina bere gorputz atalak bezala, *disiecti* dago poema, hots zatitua, eta formak edukia adierazteko moldea bilakatu dira. Hari horretatik joanda, aipatu nahiko genuke, Álvarez (2015: 16) jarraituz, kulturalismoak poetari bere buruaz mintzatzeko aukera eskaintzen diola, bere burua espreski izendatzeko beharrik gabe. Izan ere, poetaren ahotsa beste batzuen maskararen atzetik hel dakiguke, eta horren bidez, «fikziozko autobiografia» eginez: «Hay una clara ficcionalización del yo lírico disfrazado de personaje antiguo, literario o real, que nos susurra, canta o confiesa sus vicisitudes vitales» (Álvarez 2015: 16). Narrazioan Etxepareri buruzko hainbat aipamen egon arren, kasuren batean ahalbidetu egin da Etxepareren eta Iurretakoaren arteko paralelismoa, erbesteari eta kartzelari egingako aipamenetan, batik bat: «Hemengo herbeste hestu honetan moldatzen zuen bere bizitza, koblak nehurri emanean moldatzen eta bizi diren bezala» (Sarrionandia 1990: 23). Beste horrenbeste adieraz daiteke «Itzulera» olerkian entzun dugun Jaun Zurianoren ahotsaz eta ziklo arturikoko pertsonaiez.

Ikusi dugunez, molde zarratu jasoak erabiltzen dituenean euskal zuztarrekoak eta mundu zabalekoak darabiltza, eta horrek bat egiten du *Ni ez naiz hemengoako* «Tradizioa eta sinkretismoa» testuan esandakoarekin: «Euskaldun irauteko, alde batetik erroak eta geure tradizioarekiko fideltasuna abandonatu gabe [bizi behar dugu], eta beste aldetik unibertsalitateera zabalik, beste tradizioetara eta beste sentsibilitateetara. Munduko jakintza geurea izan behar da, geure kreaioa ere munduarentzat izango bada» (Sarrionandia 1985a: 134).

Kutsu epikoa duten testuei dagokienez, beste hainbat pertsonaiaekin egin bezala (hala historikoak, nola idazleak) iurretarrak pertsonaia epikoak gaurkotzen ditu errekreazio literario estetikoaz harago, bestelako irakurketak onesten dituzten testuak ontzeko.

Salbuespena *Ossian* da; hor, kontakizun epikoa molde epikoak gordez eskaini zaigu. Beraz, badirudi hizkera epiko hori nolabait berreraikitzen saiatu dela. «*Ossian*» *Izuen gordeleketan barrena* lanean argitaratu zen. Liburu hori euskal poesia fundatzeko ahalegintzat jotzen dugu, eta ildo horretan,

proposatzen den bidaia mito fundazionaltzat hartzen. Hizkera literarioa sortzeko saiakeran urrats bat ematea zen liburuaren helburua, gure ustetan, eta horren ondoriotzat dugu liburuan dagoen estilo epikoa behialako hizkera zahar eta dotorearen lekuko litzatekeen erregistro ugaritasuna, zeina olerki honetan islatuta dagoen zukako alokutibozko formen bidez.

Gainontzeko testuetan pertsonaia epikoak hartu eta gaur egungo testuigurueta dakartza, gehienetan mezu lirikoak emateko. *Ni ez naiz hemengoa* liburuan, «literatura historikoaren gainean» ari dela, iraganeko pertsonaia, gertaera edo historia batzuk erabiltzearen onurak azaldu zituen: horien inguruko bariazioak egitea errazagoa da, irakurleak pertsonaia, gertaera edo historia horiek ezagutzen dituelako, eta horrela «ez dugu irakurlea azalezko konduetan aspertu beharrik, zutabe finko eta zabal bat dugu narrazioa altxatzeko» (Sarrionandia 1985a: 48).

Esango genuke, hori dela ziklo arturikoko pertsonaiak erabiltzeko zioa. Bide horretatik abiatuta, Jakak (2012: 345) dioen bezala, Sarrionandiaren pentsamenduan barneratuz, argi antzeman daiteke iurretarrantzat «tradizio desberdinen arteko hartu-emanen osatzen den “literaturaren literatura”, azken batean, idazle aitzindarien testuak itzuliz edota berridatuz baizik ezin dela garatu». Era berean, hori Álvarezek (2015) aipatutako maskararen ideiarekin batera dator, pertsonaia guztiz ezagunei esanarazten dielako poetak iradoki nahi duen auzia. Bestalde, *Ni ez naiz hemengoa* liburuako «Literatura anakronikoa» ezin interesgarriagoa iruditzen zaigu. Bertan Maloryk egindako *La morte d'Arthur* lanaren egokitzapenez, zera dio: «[...] narrazioa anakronikoa da, aro historiko desberdinak nahasten dituelako, baina liburuiko gai eta ardurak XV. mendekoak bertakoak dira [...]. Hogeigarren mendeko jendearentzat izkiriartzen zuela argi izanda, antzinako argumentuan gaur egungo gai eta ardurak eman zituen» (Sarrionandia 1985a: 52). Horrek Kavafis poeta gogora ekarri digu. Ruedak honela azaldu zuen Kavafisek pertsonaia mitologiko, fiktizio eta historikoez egindako erabilera:

En la obra del Kavafis maduro predomina la impersonalidad, el autor desaparece detrás de los rostros, de las máscaras, de las mil voces que se sobrepone unas a otras o se desdobra en innumerables yo es (algunas veces ficticios, algunas veces históricos). De esta manera, paso a paso, poema a poema, nos da una visión llena de arquetipos uni-

versales que representan al hombre contemporáneo y a la historia griega, al mismo tiempo que va transmutando proteicamente y evolucionando desde metáforas individuales y personales hacia metáforas colectivas e históricas, dándonos como resultado la conformación de un mundo mítico en la cual la historia griega antigua y moderna se funden en una imagen que desde la antigüedad refleja las angustias de las sociedades y del hombre moderno.

(Rueda 2006: 35-36)

Esandako hori Sarrionandiarentzat ere aplikagarria dela uste dugu. Izan ere, «ni» kolektibo horren metaforak eratzeko balio dioten maskaren artean daude Ulises, marinela, Ismael, Arturoren zaldunak eta abar.

Álvarez (2015) iritiz, material poetikoa sortzeko egunerokotasuna erabili nahi izateak, antzinako generoak berreskuratzea daramatza hainbat autore. Horren adibidetzat jo du epigramen eta Martzialen berreskurapena. Ikusitakoak ikusita, Álvarezek ondorioztatutakoa Sarrionandiaren kasuan ere baliozkoa dela uste dugu. Esan liteke, bada, molde horiek erabiliz osatutako kulturalismoa modu sakonean eratzen dela eta iraganak orainaz aritzeko abagunea ere eskaintzen diola idazleari, aldi berean euskal tradizio literarioa mundukoaren ondoan landuz, euskal berben materia berrosatuz eta, horrekin batera euskal memoria aldarrikatuz, transmitituz eta iraunaraziz. Era berean, pertsonaia mitiko eta epikoen erabileran ere horren antzeko zerbait suma daiteke, Maloryk eta Kavafisek bezala, Sarrionandiak mito literario ezagunen maskarak darabiltzalako gaur egungo arazoez eta auziez aritzeko.

## Bibliografia

ALDEKOA, Iñaki (1997). «Paganismo y última poesía vasca», *Revista de Lenguas y Literaturas Catalana, Gallega y Vasca* 5, 1996-1997: 315-324.

——— (2008). *Euskal literaturaren historia*. Erein: Donostia.

ÁLVAREZ, Eva María (2015). *Culturalismo en la poesía española contemporánea. Tradición clásica y posmodernidad*. Valladolid: Universidad de Valladolid (UVA).

ARRANZ, Iñaki (2006). *Hitza azti*. Irun: Alberdania.

AZKORBEBEITIA, Aitzpea (1997). *Joseba Sarrionandia. Irakurketa proposamen bat*. Bilbo: Labayru Fundazioa eta Amorebieta-Etxanoko Udala.

BORGES, Jorge Luis (2014). «James Macpherson y el origen escocés del movimiento romántico», *Revista Buenos Aires Poetry* 2, 2014: 48-52.

COLELL, Savina Caire eta TORRANO, Conrad Vilanou (2006). «Sentido pedagógico de la epopeya de Gilgamesh», *Aloma: Revista de Psicología, Ciències de l'Educació i de l'Esport Blanquerna* 19, 2006: 201-216.

CUENCA, Luis Alberto de (1999). «Poética», in *El último tercio de siglo (1968-1998). Antología consultada de la poesía española*. Madrid: Visor: 387-396.

DÍAZ DE CERIO, Mercedes (1999). «Estructura discursiva en el epigrama funenario: la evolución de un género», *Habis* 30, 1999: 189-204.

HERNÁNDEZ ESQUIVEL, Christian Emmanuel (2017). «Haiku: tradición poética de Japón», *La Colmena* 73, 2017: 75-79.

IGERABIDE, Juan Kruz (2008). «Epika», in *Literatura terminoen hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia: 234-240.

——— (2022). *Ahozko euskal literatura. Antologia bat*. Donostia: Alai Argitale-  
txea.

JAKA, Aiora (2012). *Itzulpenari buruzko gogoeta eta itzulpen-praktika Joseba Sarrionandiaren lanetan*. Iker bilduma, 28. zenbakia. Bilbo: Euskaltzaindia.

——— (2014). «Pseudo-traductions et traducteurs fictifs dans l'oeuvre de l'écrivain basque Joseba Sarrionandia», *Meta* 59 (1), 2014: 24-46.

JUARISTI, Jon (1989). *Euskal baladen lorea. Flor de baladas vascas*. Madril: Visor.

KORTAZAR, Jon (2000). *Euskal literatura xx. mendean*. Zaragoza: Prames.

——— (2005). *Joseba Sarrionandiaren ipuingintza. Zuhaitz erramesa*. Donostia: Utriusque Vasconiae.

LEFEBURE, Unni Ingeborg Kolrud (2018). *With you were women gentle and comely. Mná málla maisecha let. Suibhne and the women: function and identity*. Oslo: Universitetet i Oslo.

LEKUONA, Juan Mari (2008). «Hamalaudun», in *Literatura terminoen hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia: 310-312.

MORALES, Roberto (2016). «Épica: definiciones enciclopédicas», *Káñina* 40, 2016: 149-157.

OIHENART, Arnaut (1657). *Les proverbes basques recueillis par le Sr. d'Oihenart, plus les poesies basques du mesme auteur*. Paris. (Edizio faksimilea).

ORTEGA, Begoña (2005). «Versiones, revisiones y (per)versiones del epigrama en las últimas generaciones poéticas», in *Orfeo XXI. Poesía española contemporánea y tradición clásica*. Gijón: Libros del Peixe Cátedra Miguel Delibes: 11-28.

OTAEGI, Lourdes (2017). «Sarrionandiaren ipuin arturikoak: parodia, utopia eta desira», *Lapurdum* 20, 2017: 219-236.

PAYA, Xabier (2013). *Ahozko euskal literaturaren antologia*. Euskal Antologiak Saila bilduma, 3. zenbakia. Donostia: Etxepare Euskal Institutua.

RODRÍGUEZ, Eider (2013). *Joseba Sarrionandiaren Lagun Izoztua eleberriko hiru itsasoak. Irakurketa proposamen bat*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.

SALABERRI, Patxi (2002). *Iraupena eta lekukotasuna. Euskal literatura idatzia 1900 arte*. Donostia: Elkar.

SARRIONANDIA, Joseba (1981). *Izuen gordeleketan barrera*. Bilbo: Bilbo Aurrezki Kutxa.

——— (1985a). *Ni ez naiz hemengoa*. Donostia: Elkar.

——— (1985b). *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak*. Iruña: Pamiela.

——— (1992). *Han izanik hona naiz*. Donostia: Elkar.

——— (1995 eta 2013). *Hmuy illa nyha majah yahoo. (Poemak, 1985-1995)*. Donostia: Elkar.

——— (2011). *Narrazio guztiak (1978-1990)*. Donostia: Elkar.

——— (2012). «Erromako barbaroaren epigrama batzuk», in *Hitza bide, bizia xede*. Iruña: Pamiela: 109-116.

——— (2015). *Lapur banden etika ala politika*. Iruña: Pamiela.

URQUIJO, Julio (1908). «Los refranes vascos de Sauguis, traducidos y anotados por Julio de Urquijo e Ibarra», *Revista Internacional de los Estudios Vascos*: RIEV 2 (5), 1908: 677-724.

ZAVALA, Antonio (1998). *Euskal erromantzeak. Romancero vasco*. Oiartzun: Auspoa.



# -KA<sub>Adun</sub> adverbioez haratago: *a<sub>pur</sub>KA-* *a<sub>pur</sub>KA* baina beti *a<sub>urrera</sub>KA*

Más allá de los adverbios con -KA

Au-delà des adverbes avec -KA

Beyond -KA adverbs

BERRO, Ane

(Análisi formalá, kontzeptualizazioa, ikerketa eta idazketa)

Irakasle kontratatu doktorea

Deustuko Unibertsitatea

ane.berro@deusto.es

<https://orcid.org/0000-0002-6818-506X>

FERNÁNDEZ-ALTONAGA, Cecilia

(Kontzeptualizazioa, ikerketa eta idazketa)

Doktoratu aurreko ikertzailea

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) - Paue eta Aturrialdeko Unibertsitatea (UPPA)

cecilia.fernandez@ehu.eus

<https://orcid.org/0000-0001-9273-9598>

DOI: <https://doi.org/10.59866/eia.v69i2.284>

Noiz jasoá: 2023-12-19

Noiz onartua: 2024-03-07

Lan honetan, -KA atzikiak zenbait gramatika-kategoriatako osagaiekin elkartzean sorrazten dituen interpretazioak aztertu ditugu, hots, -KA<sub>Adun</sub> kuantifikatzaileetan (*dozenaka*), aditzetan (*saltoka*) eta adposizioetan (*etxeraka*) dituena, eta testuinguru horietan guztietan duen erabilerari, adberbioa izatetik harago doan azalpena eman diogu, kasu guztiok ezaugarritzeko gai den azalpen bateratua. Proposatú dugu, morfema horren zeregina [+ plural] tasuna gaineratzea dela, eta hala, bere egitekoa ez dela, euskarazko hainbat gramatikatan adierazi den bezala, beste kategoria batzuetatik eratorritako adberbioak sortzea, baizik eta, [+ plural] tasuna gaineratuz, erreferentzia metagarria duten osagaiak sorraztea.

**Gako-hitzak:** -KA atzikia, plurala, erreferentzia metagarria, adberbioak, morfologia.



En este trabajo analizamos las interpretaciones que surgen al combinar el sufijo *-KA* con diferentes categorías gramaticales, como son cuantificadores (*dozenaka*), verbos (*saltoka*) y adposiciones (*etxeraka*) y ofrecemos un análisis unificado de su uso en todas ellas. Proponemos que la función de este morfema es añadir un rasgo [+ plural] a su complemento, y que, al contrario de lo que se ha expresado en varias gramáticas del euskera, no genera adverbios derivados a partir de otras categorías, sino más bien crea elementos con referencia cumulativa, por medio del rasgo [+ plural].

**Palabras clave:** sufijo *-KA*, plural, referencia cumulativa, adverbios, morfología.

Dans ce travail, nous analysons de façon unifiée les interprétations qui émergent de la combinaison du suffixe *-KA* avec différentes catégories grammaticales telles que les quantificateurs (*dozenaka*), les verbes (*saltoka*) et les adpositions (*etxeraka*). Nous proposons que la fonction de ce morphème consiste à attacher le trait [+pluriel] à son complément, et non pas à dériver des adverbes d'autres catégories, contrairement aux descriptions des diverses grammaires du basque. Nous proposons, alors, que ce morphème soit chargé de créer des éléments avec une référence cumulative en ajoutant le trait [+pluriel].

**Mots-clés :** suffixe *-KA*, pluriel, adverbes, référence cumulative, morphologie.

In this work, we analyze the interpretations that arise when combining the suffix *-KA* with different grammatical categories, such as quantifiers (*dozenaka*), verbs (*saltoka*), and adpositions (*etxeraka*), and we offer a unified account for them. We propose that the purpose of this morpheme is to add a [+ plural] feature to its complement, and not to derive adverbs from other categories, as various Basque grammars have suggested. Thus, it is not responsible for providing a particular category but rather for creating elements with cumulative reference by means of the addition of the [+ plural] feature.

**Keywords:** suffix *-KA*, plural, cumulative reference, adverbs, morphology.

BERRO, Ane eta FERNÁNDEZ-ALTONAGA, Cecilia (2024). «Beyond *-KA* adverbs», *Euskera Ikerketa Aldizkaria*, 69, 2: 47-91.

## 1. Sarrera<sup>1</sup>

-KA atzizkia, atzizki eratorle adberbiogiletzat hartzen da euskararen gramatiketan oro har (Euskaltzaindia 1991: 315; Euskaltzaindia 2021; Hualde eta Ortiz de Urbina 2003: 193-194; Salaburu eta beste 2011-2019), baina beste eginkizun batzuk ere badituela jasotzen da (esate baterako, De Rijk 2008: 912-918; Hualde eta Ortiz de Urbina 2003: 348; Euskaltzaindia 2021: 185-187). Izatez, -KA atzizkia kuantifikatzaileetan —*mila-KA*—, aditzetan —*igeri-KA egin*—, adposizioetan —*etxera-KA*— eta adberbioetan —*multzo-KA*— ageri den morfema da. Gertaeren eremuan esanahi progresiboa edota iteratiboa gaineratzen duela proposatu da zenbait lanetan (Ortiz de Urbina 2003: 290; De Rijk 2008: 912-918; Preminger 2012; Berro 2015b), baina inon ere ez da egin morfema horren ezelako azterketa sintaktiko eta semantiko bateraturik, eta askotariko kategorietan duen banaketa ez da, beraz, orain arte azaldu.

Hori dela eta, lan honetan -KA<sub>k</sub> gramatika-kategorietan duen banaketa deskribatuko dugu eta modu bateratu batez, hau da, kasu guztiotan duen funtzioa bat eta bakarra dela defendatuz, azal daitekeela erakusten saiatuko gara. Gure proposamena da, -KA<sub>k</sub> [+ plural] tasuna gaineratzen diola hartutako osagarriari eta, ondorioz, adierazpen sintaktiko «metagarria» sorrazten duela (Krifka 1998; Zwarts 2008; Rothstein 2004, 2007, 2008).

- a) Lehenik azalduko dugu, kuantifikatzaileetan eta kuantifikatzaileetatik eratorritako modifikatzaileetan -KA gaineratzeak denotazio plurala eragiten duela. Kopuru handia adierazten duten kuantifikatzaileei loturik, balio pluraleko kuantifikatzaile zehaztugabeak sortzen dira: *milaka*, *dozenaka* eta abar.
- b) Bigarrenik erakutsiko dugu, adposizioen eremuan, helburu-bideetatik abiatuz amaierarik gabeko hurbiltze-bideak sortzen dituela: esate baterako, *etxeraka* eta *aurreraka*.
- c) Eta hirugarrenik, aditzen eta moduzko modifikatzaileen eremuan «markatzaile plurakzionaltzat» har liteke. Markatzaile plurakzionalak aditze-

<sup>1</sup> Lan honen egileok Eusko Jaurlaritzaren (IT1439-22) eta Espainiako Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioaren (PID2023-147383NB-I00) dirulaguntza jaso dugu. Horretaz gain, bigarren egilea ministerio bereko dirulaguntzaren (FPU21/05860) onuradun da.

tan agertzen diren morfemak dira eta modifikatzen duten aditzaren gertaera behin baino gehiagotan gertatzen dela adierazten dute. Fenomeno hori hizkuntza-tipologian, sintaxi- eta semantika-lanetan luze aztertu da (beste batzuen artean, Dressler 1968; Cusic 1981; Lasersohn 1995; Van Geenhoven 2004, 2005; Laca 2006; Wood 2007; Iordăchioaia eta Soare 2015; ikus Cabredo-Hofherr 2010 berrikusketa baterako).

Lan honetan, kuantifikatzaileek, aditzek, modifikatzaileek eta adposizioek lortzen duten izaera «plurala», «pluralakzionala» edota «hurbiltzezkoa», [+ plural] tasunaren bitartez azal litekeela aldarrikatuko dugu. Izan ere, tasun horren ondorioz, oinarriak adierazten duen kopurua, gertaera edo bidea denotazio bera duten beste kopuru, gertaera edo bide batzuekin ka-teatzen da eta adierazpen metagarriak sortzen dira.

Bestetik, euskararen gramatikan hartu ohi den bidetik aldenduz, lan honetan *-KA* atzizkiak ez duela gramatika-kategoria zehatzik ezartzen aldarrikatuko dugu eta, ondorioz, ezin har daitekeela atzizki adberbio-sortzaile-tzat. Gure ustez, *-KAK* kuantifikatzaile zehaztugabeen ekarpena egiten dio bere osagarriari —[+ plural] tasunaren adiera eransten dio, alegia—, eta hori adierazpen sintaktikoak gramatika-kategoria hartu baino lehenago gertatzen da. Beraz, *-KAK* ez dio gramatika-kategoriarik bere osagarriari ematen, denotazio metagarria baizik. *-KAZ* osatutako modifikatzaileen kasuan, funtzio sintaktiko hori MOD buru isil batek ematen diola *-KA* hitzari proposatuko dugu, Fernández-Altonagaren (2022a) ildotik.

Lanaren egitura honako hau da:

- Hurrengo atalean, 2.ean hartan ere, *-KA* atzizkia ager daitekeen tes-tuinguruak aurkeztuko ditugu, labur, eta horrek eremu hauetan guz-tietan egiten duen ekarpena gure teoria-proposamenak azal dezakee-la erakutsiko dugu.
- 3. atalean, *-KA* atzizkia izenen eremuan kuantifikatzaile gisa erabil daitekeela ikusiko dugu.
- 4. atalean, *-KA* aditzei loturik edo gertaerak izendatzeko nola erabil-tzen den azalduko dugu.
- 5. atalean, *-KAK* adposizioetan duen banaketa deskribatuko dugu, hots, «bideen» adierazpenari nolako ekarpena egiten dion.

- 6. atalean, «gertaerak» eta «bideak» konparatuko ditugu, eta *-KA* morfemak bietan antzeko ekarpena egiten duela proposatuko dugu.
- 7. atalean, *-KAren* [+ plural] tasunaren bitartez, gertaera-barruko plurakzionalen orokorpen batzuk azal litezkeela erakutsiko dugu.
- 8. atalean, *-KA* atzikia nolako modifikatzaileetan agertzen den deskribatuko dugu eta *-KA* ez dela adberbio-sortzailea aldarrikatuko. Modifikatzaile guztietan, bai kuantifikatzaileen gainean sortutakoetan, zein gertaera predikatuen gainean sortutakoetan, *-KAK* pluraltasunaren edo errepikapenaren balioa ematen dio modifikatzaileari eta, hortaz, bi kasuetan [+ plural] tasuna gaineratzen duela proposatuko dugu.
- Azkenik, 9. atalean, lanaren ondorio nagusiak aurkeztuko ditugu.

## 2. Proposamenaren eta oinarri teorikoaren aurkezpena

Lehen atalean aurreratu bezala, bi dira lan honetan egingo ditugun proposamen teorikoak. Alde batetik, *-KA* atzizkiak ez duela gramatika-kategoria zehatzik ezartzen defendatuko dugu eta, beraz, ez dela adberbio-sortzailea. Bestalde, *-KA* morfemak, edozein kategoriarekin elkartzen dela ere, ekarpen semantiko bera egiten duela erakutsiko dugu, eta ekarpen hori [+ plural] tasunari zor zaiola. Datozen ataletan *-KA* atzikia hainbat kategoriatan zehar agertzen denean jasotzen diren interpretazioak deskribatuko ditugu eta ildo horretatik abiatuta eurok azaltzen ahaleginduko gara. Atal honetan, ordea, gure analisiaren eta haren oinarrian dauden proposamen teorikoen aurkezpen laburra ere egingo dugu, hurrengo atalak ulertzeko argigarria izango delakoan.

Aurreko zenbait lanetan (De Rijk 2008: 912-918; Euskaltzaindia 2021: 185-187) *-KA* atzizkiaren gainean osatutako egiturak, oinarriaren esanahia-  
ren arabera sailkatu izan dira. Hala, honako hauek bereizi dira:

- i)  $\langle X + \text{egin} \rangle$  egituretan parte hartzen duten izenak, hots, «gertaera izenak» hartzen dituztenak, adib. *aharrausi egin* > *aharrausika*;
- ii) baliabidea edo tresna adierazten duten izenen gainean osatuak, adib. *aizkoraka*, *harrika*;
- iii) lekua edo espazioa adierazten duen osagaiaren gainean osatuak, adib. *alboka*, *gibelka*;

- iv) esapide edo esamolde bat osatzen duen osagai baten gainean eraikituta, hain zuzen, esapide hori behin eta berriro errepikatzen dela adierazten dutenak, adib. *aieneka*, *gora-goraka*;
- v) kuantifikatzaileekin bat eginik datozenak, adib. *milaka*, *binaka*;
- vi) neurri-izenetan oinarritzen direnak, adib. *apurka*, *saldoka*;
- vii) denbora-tartea adierazten duten izenekin konbinatzen direnak, adib. *aldika*, *arteka*;
- viii) eta, azkenik, adjektibo<sup>2</sup> oinarri dutenak, adib. *gordeka*, *isilka*.

Adibide horietatik ia guztietan, -KAdun hitzak gertaera baten modifikatzaileak dira, hau da, gramatika-kategoriari dagokionez, adberbioak dira. Nolanahi ere den, bestelako kategoria duten hitzak ere sor daitezke -KA atzikiarekin, eta horrexegatik, hain zuzen, proposatuko dugu -KA ez dela adberbio-sortzaile hutsa. Izan ere, -KA zenbait kategoriatako<sup>3</sup> hizkuntza-aleekin batera ager daiteke (Euskaltzaindia 2021: 186, 358-360): izenen eremuko kuantifikatzaileekin (1a) edo multzo-izenekin (1b); aditezko oinarri edo gertaera-izenei loturik aditzen barruan (2a) edo perifrasi aspektualen barruan (2b); -ra adlatibo-adposizioarekin batera, (3); eta, azkenik, aditzen modifikatzaile gisa, kuantifikatzaileei (4a) edota gertaera-izenei (4b) loturik. Adibide horietan, -KAK askotariko funtzioak betetzen ditu: (1a) eta (1b) adibideetan, kuantifikatzailea dirudi; (2a) eta (2b) adibideetan, predikatu nagusia da; (3) adibidean, itxuraz adposizioa dirudi; eta, azkenik, (4a) eta (4b) adibideetan modifikatzailea da.

<sup>2</sup> Berrikusle batek ohartarazi digunez, horrelako adibideetan adjektiboen gainean beharrean, pentsa liteke -KAdun osagaiak aditzen gainean eraikitzen direla. Gure proposamenerako erabakigarria ez baita, ez dugu gai honen inguruko iritzirik emango.

<sup>3</sup> Morfologia Banatuan (Halle eta Marantz 1993, 1994; Marantz 1997; Harley eta Noyer 1999; Matushansky eta Marantz 2013), oinarri guztiek ez dute gramatika-kategoriarik. Erroak sintaxian sartzen dira kategoriarik gabe eta buru funtzional batek ematen die kategoria. Ildo honi jarraituz, -KA atxikitzen zaion oinarriak —kasu honetan, *erroak*— kategoriarik ez duela uste dugu guk ere, baina deskribapenaren mesederako «aditezko» eta «izenaren eremuko» gisako terminoak erabiltuko ditugu. Izatez, oinarriak kategoria izatea edo ez izatea bateragarria da artikulu honetan defendatzen ditugun hipotesi nagusiekin; esan nahi baita, -KAK ez diola oinarriari kategoria zehatzik ematen, baina ekarpen semantiko zehatza egiten duela, alegia, adierazpen metagarriak sortzen dituela.

- (1) a. **Milaka** langile etorri dira.  
b. **Dozenaka** lagun ikusi nituen.
- (2) a. Mirenek **korrika** egiten du egunero.  
b. Irati **saltoka** ari zen.
- (3) Jon **etxeraka** joan zen.
- (4) a. Ikasleak **milaka** hurbildu ziren.  
b. Miren **saltoka** sartu zen gelara.

Adibide horietan guztietan, *-KAk* ez dio bere osagarriari —kuantifikatzaileari, aditzeko oinarriari, gertaera izenari edo dena delakoari— adberbio-kategoriarik ematen, esan bezala, honela sortutako osagaiek ez baitute kasu guztietan modifikatzaile-funtziorik betetzen. Gure analisisian, kategoriazioa bestelako buru baten bitartez gertatzen da. Beraz, *-KA* atzizkia morfema lexikoa da eta eratorpen sintaktikoan oso goiz txertatzen da.

Baina *-KA* adberbiogilea ez bada, zein da *-KA*ren egitekoa? Gure proposamenaren arabera, *-KAk* ekarpen semantiko zehatza egiten dio bere osagarriari. Zehazki, *-KAk* [+ plural] tasuna du eta bere osagarriarekin bat egitean, sortzen den adierazpen sintaktiko berriak zentzu «metagarria» hartzen du. Goazen pausoz pauso ikustera horrek zer esan nahi duen.

*-KA* maiz morfema adberbiogile modura aurkeztu izan delako, gutxitan erreparatu izan zaio atzizki horrek egiten duen ekarpen semantikoari (dena den, ikus Hualde 2003; Etxepare 2003; De Rijk 2008; Euskaltzaindia 2021). Guk, aitzitik, alderdi horri garrantzia emango diogu, argudiatuko baitugu, edozein oinarriarekin elkartzen eta edozein kategoriatan agertzen dela ere, *-KA* atzizkiak ekarpen berbera egiten duela beti. Goian esan dugun bezala, *-KAk* [+ plural] tasuna du. Ikusiko dugun moduan, ezaugarri hori metagarritasunarekin hertsiki lotuta dago, [+ plural] tasun hori duten multzoek metagarriak izan behar baitute. Hala, ontzat hartuko dugu, [+ plural] tasunak metagarritasuna gaineratzen diola *-KAz* osatutako adierazpen sintaktikoaren denotazioari, alegia, *-KA* duen osagai sintaktikoak «erreferentzia metagarria» duela.

Metagarritasuna zenbait kategoriatako osagaien ezaugarri semantikoa da. Honelaxe defini daiteke, orduan: *a* eta *b* osagaiak metagarriak dira, baldin

eta (i) *a* eta *b* osagaiak *x* denotazioa badute, eta (ii) *a* eta *b*-ren arteko baturak ere *x* denotazioa badu (Quine 1960: 83; Krifka 1989, 1998; Zwarts 2005, 2008). Hala, ohikoa da pluralean adierazitako formek erreferentzia metagarria deritzona izatea. Hau da: A multzo bateko osagai guztiak *txakurrak* direla esan badaiteke (*txakurrak* denotazioak definitzen duen multzoaren parte badira), eta B multzoko osagai guztiak ere *txakurrak* badira, A eta B multzoak elkartuta osatutako multzoaz ere *txakurrak* direla esan liteke. Beraz, denotazio metagarria eta pluraltasuna zuzenean elkarri lotuta dauden kontzeptuak dira. Horrekin batera, metagarritasuna izen mugagabeen (Krifka 1998) eta aditzen eremuetan ere (Rothstein 2004, 2007) maiz erabili izan da, bai eta bide-multzoez aritzeko adposizio mugagabeen eremuan ere (Zwarts 2005, 2008). Lan honetan ere, izenen eremuko kuantifikatzaileek edo multzo-izenek (1ab), gertaerak adierazten dituzten aditzek (2), adposizioek (3), eta modifikatzaileek (4) erreferentzia metagarria izan dezaketela erakutsiko dugu, hain zuzen, *-KA*ekin batera agertzen direnean.

Zehazki, aditzen edo gertaeren eremuari dagokienez, *-KA*k egiten duen ekarpena —gure analisiaren arabera, esanahiari metagarritasuna gaineratzea— beste hizkuntza batzuetako markatzaile plurakzionalak egiten dutenarekin pareka liteke. Markatzaile plurakzionalak aditzetan agertzen diren morfemak dira eta modifikatzen duten aditzaren gertaera hori behin eta berriz errepikatzen dela adierazten dute. Cusicen (1981) lanetik aurrera, markatzaile plurakzionalak bi talde nagusitan banatu izan dira: «gertaera barrukoak» eta «gertaera kanpokoak» (Cusic 1981; Wood 2007). Gertaera barruko plurakzionaletan, aldi bakarrean gertatzen den gertaera errepikakorra adierazten da, hau da, denbora-tarte berean gertatzen dena (adibidez, *hazka egin*). Gertaera kanpoko plurakzionaletan, ordea, aldi batean edo gehiagotan errepikatzen den gertaera bat edo bat baino gehiago aditzera ematen da, alegia, denbora desberdinetan gertatzen dena edo gertatzen direnak (hala nola, *hauteskunderetara berraurkeztu*). *-KA*k sorrarazten dituen plurakzionalak lehen motakoak dira: hots, errepikatzen diren gertaerak jarraian gertatzen dira, aldi bakarrean, eta testuinguru honetan ager daitezkeen aditzak murriztuak dira, beste hizkuntza batzuetan jasotzen den antzera.

Beraz, gure analisisan, *-KA*k «numerotasun» bat gaineratzen du, pluralarena, hartan ere. Nolanahi ere den, *-KA* ezin da gramatika-morfematzat

hartu, alegia, ezin da *-ak* plural gramatikalarekin parekatu. *-KA* atzizkia «plural lexikoa» da eta, hala izaki, murriztapen lexikoak erakusten ditu. Esate baterako, izen eta kuantifikatzaileen eremuan, balio handiko zenbaki kardinalekin soilik konbina daiteke (3. atala); aditzen eremuan, gertaera semelfaktiboekin, lorpen-aditz mota batzuekin eta jarduera-aditzekin baino ez da ageri (4. eta 6. atalak); eta adposizioen arloan, helburu-bideekin lotuta dago (5. eta 6. atalak). Azken bi murriztapenok 6. atalean azalduko denez, «konektagarritasuna» deritzan ezaugarriarekin (Zwarts 2008) lotuta daude. Izan ere, osagai batek, metagarria izan dadin, konektagarria izan behar du. 6. atalean emango ditugu ezaugarri horren xehetasunak.

Azkenik, 8. atalean, *-KA* atzizkia zenbait modifikatzailetan ere ager daitekeela erakutsiko dugu. Modifikatzaileak, kasu askotan adberbio gisa aurkeztu badira ere, era askotako egiturak izan daitezke eta haien kategoria-estatusa ez dago batere argi, hainbatetan onartu denez (ikus, besteak beste, Delfitto 2006; eta euskararako, Salaburu eta beste 2011-2019; Fernández-Altonaga 2022b). Hala, gure proposamenak Rubinen (1994) eta Fernández-Altonagaren (2022a) ildoari jarraituko dio, modifikatzaileak kategoria bakartzat hartzean. Kategoria hori MOD buru funtzional baten bidez islatzen da. Buru horrek edozein kategoriatako osagaiak argumentutzat hartu eta aditzaren edo perpausaren eremua modifikatzeko ahalmena ematen dio, berorren tipo semantikoa aldaraziz. Batzuetan, MOD buru funtzionalak gauzapen lexikoak izan ditzake (adibidez, euskarazko *-ki* atzizkia). Hala ere, guk hemen, modifikatzaileetan *-KA* ez dela MOD buruaren gauzapen lexikoa argudiatuko dugu. Aitzitik, beste testuinguru guztietan bezala, *-KAk* pluraltasuna adierazten duela erakutsiko dugu, eta beraz ez duela kategoria ezartzeko zereginean parte hartzen.

### 3. *-KA* atzizkia izenen eta kuantifikatzaileen eremuan

Aurreko ataletan azaldu den bezala, *-KA* atzizkia maiz adberbioak erartortzen dituen atzizkitzat aurkeztu izan da. Alabaina, adberbiotzat hartu ohi diren osagaiak aditzaren eta perpausaren eremukoak dira eta, beraz, *-KA* atzizki adberbiogiletzat aztertzen denean, atzizki horrek izenaren eremuan egiten duen ekarpena albo batera uzten da. Ordea, *-KA* kuantifikatzaileei



ere atxiki dakieke, De Rijkek (2008: 916) ohartarazi bezala, eta zenbaitetan izenaren eremuko osagaiak osa ditzake:

- (5) a. **milaka** langile
- b. **dozenaka** lagun

(5a) eta (5b) adibideetako *milaka* edo *dozenaka* bezalako osagaiak kuantifikatzaile jokatzan dute kasu hauetan. Tradizioan, kuantifikatzaileak, izenaren eremuan kokatzen direnean (5) eta (6) adibideetan bezala, determinatzailetzat sailkatu ohi dira (Euskaltzaindia 1991: 97-101, 2021: 571-588; Salaburu eta beste 2011-2019), eta aditzaren eremuan agertzen direnean, adberbiotzat (*asko ikasi* egituran bezala). Egun, zenbait ikuspegitatik, kasu horietan bietan, kuantifikatzailea aparteko kategoriatzat hartzea proposatzen da (Goenagak 2022, adibidez, «zenbatzaile-sintagmari»<sup>4</sup> erreferentzia egin dio). Ildo beretik, aditzaren eremukoak ere, A-kuantifikatzailetzat aurkeztu ditu Etxeberrriak (2012).

Beraz, kuantifikatzaileak izenaren eremuan zein aditzaren eremuan gerta daitezke. Horri dagokionez, kontuan hartzekoa da, *-KA* atzizkia kuantifikatzaileekin konbinatuz osatzen diren egiturek eremu bioi eragin diezaieketela. Izan ere, *dozenaka lagun* esanez gero, *-KA* atzizkidun osagaiak izenak adierazitako entitatearen kuantifikazioa egiten du, ‘hainbat aldiz dozena bat lagun’ adieraziz. Hala ere, *arrautzak dozenaka saltzen dira* esanez gero, *dozenaka* osagaiak gertaeraren modifikazioa egiten du, ‘dozenaka taldekatuta’ edo horren antzeko zerbait esan nahi baitu<sup>5</sup> (horixe da, Etxeberrriak —2012: 55— euskarazko kuantifikatzaile-motez egindako berrikusketan, «kuantifikatzaile distributibo» gisa deskribatu zuena). Atal honetan, ordea, lehen erabileraz arituko gara, eta bigarrena 8. atalerako utzi.

Hala, *milaka* edo *dozenaka* bezalako osagaiak kuantifikatzailetzat hartuko ditugu hemen. Bereizketa horrek, 2. atalean azaldu bezala, agerian uzten du,

<sup>4</sup> Ikus, honen gainean, sintagma horrek egitura sintaktikoan hartu beharreko kokapena eztabaiatzen duten Artiagoitia (2002, 2004, 2006, 2012), Etxeberrria (2005) eta Etxeberrria eta Etxepare (2008, 2012) lanak, besteak beste.

<sup>5</sup> Beherago azalduko dugun moduan, *dozena* osagaiak ugaritasun zehaztugabea ere adierazi dezake eta hala *dozenaka*, adiera honetan, *hainbaten* sinonimotzat ere jo daiteke.

-KAK ez duela funtzio adberbiala soilik betetzen, izenaren eremuan ere ager baitaiteke. Behin hori argituta, ordea, zehaztu beharrekoa da, zein den -KA atzizkiak osagai horietan egiten duen ekarpen semantikoa. Izan ere, *dozena* edo *mila* badira kuantifikatzaileak, berez . Har ditzagun (6) eta (7) adibideak:

- (6) a. **Mila** lagun etorri dira.
- b. **Milaka** lagun etorri dira.
- (7) a. **Dozena bat** lagun gonbidatu ditu.
- b. **Dozenaka** lagun gonbidatu ditu.

(6a) eta (7a) adibideak, batetik, eta (6b) eta (7b) adibideak, bestetik, konparatuz gero, -KArekin eginkizuna kuantifikatzailearen balio numerikoa aldatzean datzala konturatuko gara, hau da, zenbaki zehatza izatetik ('mila' edo 'hamabi'), zehaztugabea izatera ('hainbat aldiz mila', 'hainbat aldiz hamabi') igaro da. Hala, *mila lagun etorri dira* adierazpenak ezin du deskribatu egoera bat non sei mila lagun etorri diren. Ordea, *milaka lagun* egiturak kopuru handi bat denotatzen du, zehaztasun gabe, eta beraz, *milaka lagun etorri dira* adierazpena, egokia da sei mila lagun etorri badira.

Dena dela, kopuru handi horren denotazioa zehatza ez bada ere, haren interpretazioak baditu zenbait murriztapen: *milaka* ezin da bi milatik beherako kopururik izan. Izan ere, -KAdun kuantifikatzaileak oinarrian hartzen duen kuantifikatzaileak denotatzen duen kopurua, halako bi adierazi behar du gutxienez. Hala, *dozenaka* esanez gero, bi dozena baino gehiago izan behar du, *ehundaka*,<sup>6</sup> berrehun baino gehiago. -KA atzizkiak, beraz, badu berezitasun bat eta hori da, kuantifikatzailearen denotazioari behetik muga jartzen diola, baina goitik mugarik ez: *milaka* izan daitezke, hartara, 2.200, 6.000 edo 50.000...

Azterketa honek, bada, hauxe pentsatzeko bidea eman digu: -KA atzizkiaren ekarpen semantikoa, behetik muga duen baina goitik mugarik ez

---

<sup>6</sup> Hemen sor litekeen eztabaida da, zergatik -KA atzizkiaren bidez eratorritako hitzek maiz atzizki distributiboekin edo horien antzekoekin agertu behar duten, interpretazio distributiborik antzematen ez denean (*hamarNaka lagun*, *ehunDaka landare*). Ez dugu horretarako azalpenik, ez bada balio distributibodunen analogiaz eraiki direla (*hamamaka banatu* erakoak, alegia) pentsatzea. Azken horiei buruz, ikus 7. atala.

duen pluraltasuna adieraztea dela, «pluraltasun irekia» nahi bada. Ondorengo ataletan azaldukoenez, pluraltasunaren oinarriko denotazio hori egonkor mantentzen da, atzizki hau edozein eremu semantikotako hitzekin konbinatzen eta edozein kategoriatan agertzen dela ere.

Guk, Alexiadouri (2011) jarraituz, -KA atzizkia plural lexikoa dela proposatu nahi dugu, ezin baitaiteke egitura konplexuko kuantifikatzaileekin konbina (\**bost milioika*), plural gramatikala ez bezala (*bost milioiak*). Gainera, plural gramatikala (-*ak*) determinatzaile gabeko izenekin ezin ager daitekeen bezala (Artiagoitia 2002; Etxeberria 2005), -KA<sub>ak</sub> determinatzaile gabeko egitura nominalak hartu behar ditu oinarrian: *milioika* / \**milioiaka*.

Plural lexiko honek, 2. atalean azaltzenenez, [+ plural] tasuna du eta, ondorioz, -KA<sub>z</sub> osatutako adierazpen sintaktikoak erreferentzia metagarria hartzen du. Hain zuzen ere, [milioika pertsona] denotazioa duen osagai bat, esaterako, denotazio bereko beste osagai batekin batuz gero, sortzen den osagai berriak ere [milioika pertsona] denotazioa izango luke. Horrekin batera, plural lexikoak bi baino gehiagoko balioa interpretatzera behartzen du, plural gramatikalak ez bezala.

Plural gramatikaetik bereizten duen beste ezaugarri bat da, -KA morfemak murriztapen lexikoak agertzen dituela. Izan ere, atzizki hori ez da edozein kuantifikatzailearekin konbinatzen; balio handiko kuantifikatzaile kardinal borobil batzuekin (*ehun, mila*) eta zenbait multzo-izenekin (*dozena, zienta*) baino ez da ageri. Hau da, konbentzionalki kantitate handiak adierazteko erabiltzen diren kuantifikatzaileekin baino ez: *dozenaka, ehundaka, zientoka, milaka, milioika*... Hala, -KA atzizkiaren balio hori, gaztelaniaz kuantifikatzailez osatutako «pseudopartitiboek» duten bera da: *cientos de alumnos*, 'ehundaka ikasle'. Kasu horretan ere, ez da ohikoa egitura hori bestelako kuantifikatzaileekin aurkitzea: \**ciento veintes de alumnos*, lit. 'ehun eta hogeika ikasle'. Era honetara, plural lexiko honek murriztapen lexiko bat ezartzen duela ematen du, bere oinarrian konbentzionalki ugaritasun zehaztugabea adieraz dezaketen kardinalak hartzera behartzen duena. Bide beretik, Alexiadouk (2011) ere argudiatu du, murriztapen lexikoak ezartzea plural lexikoen ezaugarria dela, hain zuzen, grezieraz masa-izenekin konbinatzen den plural-markaren azterketan oinarrituz.

Ondorengo ataletan, -KA plural lexikoak aditzekin eta adposizioekin konbinatzean eratoritzen dituen adierak aztertuko ditugu. Egitura konposatuaren denotazioa kasu bakoitzean desberdina den arren, guztietan ere -KA morfemaren ekarpena, bera dela aldarrikatuko dugu, arestian esandako moduan, eta metagarritasunaren kontzeptuaren bidez defini daitekeela proposatuko dugu.

#### 4. -KA atzizkia gertaeretan

Euskarazko hainbat gramatikatan (Euskaltzaindia 1991: 334, 2021: 358-359; Hualde 2003: 193; Etxepare 2003: 396; De Rijk 2008: 912-918; Salaburu eta beste 2011-2019) aipatzen denez, -KA aditzezko oinarriari ere atxikitzen zaie eta horrek bi eratako egiturak osatzen ditu: alde batetik, predikatuak (8) eta beste aldetik, modifikatzaile —adberbio, nahi bada— jokatzen dutenak (9).

(8) Mirenek **korrika** egiten du egunero.

(9) Nekazariak idia **tiraka** darama.

(9) adibidean, *tiraka* osagaiak aditz nagusiak adierazitako gertaeraren —idia eramatearen— gaineko zirkunstantzietan buruzko informazio gehiago adierazten du, hots, modifikatzaile jokatzen du. Horrexegatik ez da ezinbesteko elementua esaldian, eta esaldia, zuzena litzateke hura gabe ere. Aitzitik, (8) adibidean, *korrika* hitzak ez du modifikatzaile jokatzen, gertaerara bakarrik denotatzen duen *korrika egin* predikatu konplexuaren parte da, eta beraz, ezin da esalditik kendu.

Atal honetan *korrika egin* bezalako egiturez arduratuko gara, modifikatzaileak 8. atalerako utzita. Dena den, kuantifikatzaileen kasuan bezala, hemen ere kontuan hartu beharrekoa da, egitura berak bi funtziook bete ditzakeela hainbatetan. Konpara bitez (8) eta (10) adibideak:

(10) Mirenek **korrika** ekarri zituen sagarrak.

Predikatuak osatzen dituzten egiturei soilik begiratuz gero, esan behar da, horietako askok *egin* «aditz arinaz» (ing. *light verb*) osatutako predikatu inergatiboetan parte hartzen dutela (*oihuka egin*, *saltoka egin*, *tiraka egin*), eta

gehienetan -KA izen-itxura duen baina gertaera adierazten duen osagaiari, alegia, gertaera-izenari, lotzen zaiola (adibidez, *oihu*, *salto*, *eztul*), (De Rijk 2008: 912-914). Halaber, gertaerak osatzen dituzten -KAdun egitura guztiek osa ditzakete perifrasi aspektualak, horretarako aspektu-aditzekin konbinatzen badira, (11-14) adibideetan bezala:

- (11) Irati **saltoka ari** zen.
- (12) Irati **saltoka hasi** zen.
- (13) Irati **saltoka ibili** zen.
- (14) Iratik **saltoka jarraitu** zuen.

Dena den, hor ere, -KAk egiten duen ekarpena zein den argitu beharrekoa da. Horretarako, zenbait kasutan, gutxienerako bikoteak osa daitezkeela ikusiko dugu, atzizki honekin edo hura gabe azal litezkeen predikatuetan:

- (15) a. salto egin / saltoka egin
- b. eztul egin / eztulka egin
- c. igeri egin / igerika egin
- d. korri egin / korrika egin

Lan honetan agerian utzi nahi duguna da, predikatu hauetan guztietan -KAk egiten duen ekarpena, bat eta bakarra dela, era batera edo bestera gertaera-pluraltasuna adierazten baitu (hain zuzen, beste kategoria batzuekin konbinatzean gaineratzen duen esanahi bera). Jarri ditugun predikatu horietan, -KAk aditzak denotatzen duen gertaera behin eta berriro errepikatzen dela erakusten du, hots, gertaeren edo azpigertaeren pluraltasuna agertzen du. Bigarren atalean azaldu dugun bezala, aditzak adierazten duen gertaera behin eta berriz errepikatzen dela adierazten duten morfemei «markatzaile plurakzionala» deritze hainbat hizkuntzaren azterketetan (Dressler 1968; Cusic 1981; Lasersohn 1995; Van Geenhoven 2004, 2005; Laca 2006; Wood 2007; Iordachioaia eta Soare 2015; Cabredo-Hofherr 2010) eta geuk ere halaxe deritzogu euskarazko -KA morfemari. Zehazki, -KA morfema gertaera barruko plurakzionaltzat har daitezkeela proposatzen dugu.

-KAk interpretazio errepikakorra dakarrela ikustea erraza da (15a) moduko adibidean, esaterako; hots, gertaera «teliko» eta «semelfaktiboan» kasuan (Vendler 1967). Izan ere, *salto egin* norbere gorputza (hankekin)

gorantz proiektatzeko indar egitea da, baina ahalegin hori bulkada bakar batez gertatzen da. Hala, ezinezkoa da (16) adibideko egitura bezalakoa:

(16) \*Peruk salto egin zuen bi minutuz.

Izan ere, (16) etsenpluak dakarren bezalako gertaera puntukariak ezin dira *bi minutuz* osagarriaren moduko iraupen modifikatzaileekin (ing. *durative adverbials*) konbinatu (Vendler 1967; Dowty 1979). Aitzitik, *saltoka egitea/aritzea*, salto egiteko ekintza behin eta berriro errepikatzea da, eta beraz, halaberrez, denbora-tarte luzean jardun beharrekoa:

(17) Peruk **saltoka egin zuen** bi minutuz / Peru **saltoka ibili zen** bi minutuz.

Hala, hemen -KA atzizkiak gehitzen duen adiera, errepikakortasuna edo «iteratibotasuna» da (Hualde eta Ortiz de Urbina 2003: 348; De Rijk 2008: 912; Berro 2015b), eta ekintza errepikatua adierazten duen egiturak bestelako gertaera bat osatzen du, hain zuzen, gertaera «atelikoa», bukaera-unerik ez duena. Gertaera ateliko honek hainbat azpigertaera ditu, salto bakoitzak osatzen dutena. Beraz, -KAK gertaerak kateatuz azpigertaera anitzeko predikatuak sortzea ahalbidetzen du, hain zuzen, markatzaile plurakzionalek bezala. Hori bera ikusten da (15b) adibidean ere, non *extulka egitea/aritzea*, ezul bakoitzak sortzen duen gertaera kateatuak barne biltzen dituen gertaera den.

Nolanahi ere den, azpigertaerak kateatuz gertaera bakarra osatzeko, ezin bestekoa dute denboran jarraian agertzea, hots, denbora-tarte berean bata bestearen atzetik gertatzea. Hala, goizeko zazpitan ezul bat egitea eta arratsaldeko zazpitan beste bat egitea, ez da *extulka egitea*, bi gertaerak ez baitira denbora-tarte bakarrean jazo. Horregatik argudiatu daiteke, -KA atzizkiak azpigertaera anitzez osatutako gertaera bakarra denotatzen duela, errepikapenak denbora-tarte bakarrean gertatu behar baitira.

Laburtzeko esan dezagun, -KAK azpigertaera-pluraltasuna adierazten duela. Hirugarren atalean azaldu dugunez, -KAdun osagaien denotazioak behetik muga zehaztua du baina, goitik mugarik ez du. Beraz, *saltokaren* denotazioan, gutxienez bi salto egiten direla interpretatzen da, eta bitik gora ez dago saltoetan kopuru-mugarik.

Kasu batzuetan, ordea, De Rijkek dagoeneko ohartarazi bezala (2008: 912), ez du ematen *-KA* atzizkiak hartzen duen aditzaren gertaera errepikatu egiten denik (15c-15d). Hori gertatzen da, hain zuzen, oinarriak gertaera atelikoak adierazten duenean (adibidez, *igeri*, *korri*). Horrelakoetan, Fernández-Altonagak (2022b: 93) *-KA* atzizkiak inperfektibotasuna gaineratzen duela proposatu du. Inperfektibotasuna, «egoera baten barne-egitura tenporalari erreferentzia esplizitua egiten dion»<sup>7</sup> aspektua da (Comrie 1976: 24). Gertaeraren barne-egituran fokoratzean, gertaerak izan dezakeen bukaera-unerik ez da kontuan hartzen, eta horrelaxe lortzen da «prozesuan dagoen» edo «jarraitua» den gertaeraren adiera. Konpara ditzagun (18a) perfektiboa eta (18b) inperfektiboa, *ari izan* eta *egon* aditz progresiboez osatuak:

- (18) a. Lorea hazi da.  
b. Lorea hazten ari da / hazten dago.

(18a) adibidean, gertaera burutua da, badu bukaera-unea. (18b) etsenpluan, ordea, arreta gertaeraren prozesuan dago, garapenean, eta ez dakigu gertaerak bukaera-unerik duen ala ez. Interpretazio hori *-t(z)en ari* eta *-t(z)en egon* perifrasiari esker lortzen da. *-KA* ere irakurketa hori sorrarazten du nolabait, baina ez bakarrik aditzak atelikoak direnean, telikoak direnean ere bai. Izatez, gure analisisian, *-KA* irakurketa inperfektiboa dakar errepikapenaren edo iteratibotasunaren bitartez. Gertaera bat errepikatzen denean, (azpi)gertaerak metatu egiten dira eta erreferentzia metagarria duen gertaera bat sortzen da, alegia, bukaera-une jakinik ez duen gertaera mugagabea. Hala, atzizki horrek, aditzekin konbinatzean, inperfektibotasuna beti gehitzen duela esan daiteke, oinarriko aditzak denotatzen duen gertaera atelikoak izan zein izan ez. Horrexegatik, predikatu aspektualetan *-KA* atzizkia, *egiten* forma inperfektiboaz ordezkatu daiteke:<sup>8</sup>

<sup>7</sup> Jatorrizkoan: «... explicit reference to the internal temporal structure of a situation...» (Comrie 1976: 24).

<sup>8</sup> Dena dela, azpimarragarria da, *-KA*z osatutako predikatuek, egitura progresiboetan, interpretazio inperfektibo bakarra har dezaketela: bukaerarik gabe errepikatutako gertaerarena, esan gura da, *-tzen* atzizkiak ez bezala, ezin du *slow-motion* interpretazioa hartu, non gertaera behin gertatzen den baina denboran luzatuz. Hala, kamera geldoan ikusitako tranpolinetik egindako salto bat deskribatzeko, egokia da *salto egiten ari da*, baina ez *saltoka ari da*.

- (19) a. Irati **salto egiten ari** zen.  
 b. Irati **saltoka ari** zen.
- (20) a. Irati **korri egiten ari** zen.  
 b. Irati **korrika ari** zen.

Dena dela, goragoko eztabaidara berriro etorrira, zaila da *korrika egin* edo *igerika egin* bezalako kasuetan errepikatzen diren azpigertaerak identifikatzea. Izan ere, gertaera bat errepikatzen dela hautemateko, hura hasi eta bukatu egin behar da, behin eta berriro. Korri egitearen edo igeri egitearen gertaerek ez dutenez berezko bukaera-unerik denotatzen, korrika egitearen bi ekintza errepikatu ez dira ekintza bakar luze baten denotaziotik desberdintzen. Horrelako esapideen gainean, 6. atalean jardungo dugu sakonago.<sup>9</sup>

Badira, baita ere, beste zenbait testuinguru non zailagoa den -KAren ekarpena zein den interpretatzea. Izan ere, predikatuak osatzean, -KA ez zaie gertaera bat adierazten duten oinarriei soilik atxikitzen. Askotan entitateak adierazten dituzten oinarriak ere har ditzake, hala nola, *hagin*, *hatz*, *aizkora*, *harri* edo *ukabil* > *haginka egin*, *hazka egin*, *aizkoraka egin*, *harrika egin* eta *ukabilka egin* aditzetan. Kasu horietan, hartzen duen oinarriak gertaera burutzeko behar den tresna edo gorputz-atala agertzen du, eta horietan errepikatzen den ekintza zein den interpretatzeko, hiltunak bere mundu-ezagutzara jo behar du. -KA oinarriarekin elkartzean, oinarriak adierazten duen entitate horren erabilera prototipikoaren (adibidez, *ukabila jotzeko*; *hagina hozka egiteko*) errepikapena interpretatu behar izaten da, predikatuaren esanahia ulertzeko.<sup>10</sup>

Azkenik, aipatu beharrekoa da, egitura horietako askok -*tu* atzikia ere har dezaketela, eta horrela predikatuak sortu, aditz arinen beharrik gabe: *oihukatu*,

<sup>9</sup> 6. atalean azalduko denez, mota honetako gertaeren errepikapenaren bitartez, era bereko gertaerak sortzen dira eta, ondorioz, ez dago gertaeren arteko trantsiziorik —edo errepikapenik— hautematerik. Hori dela eta, -KA gabeko egituren interpretazio bera jasotzen dute aditzok horrelakoetan. Interpretazioari dagokionez, ez da kasu bakarra ere, non -KAren funtzioak hein batean hutsala ematen duen.

<sup>10</sup> Dena den, kasu batzuetan ematen du, -KA atzikia izenetik aditza erarortzeko marka gisa soilik geratu dela; hala, *txakurrak haginka egin zion hankan* perpausuan, gertaera behin baino ez da geratu (haginkada bat), baina ez dago *hagin egin* bezalako egiturarik euskarazko lexikoan. Horiek, agian, analogiaz osatutako egiturak lirakeke.



*tirokatu*. Horien interpretazioa, eta beraz, *-KAk* egiten duen ekarpen semantikoak, *egin* aditzaz edo aditz aspektualez osatutako egituren interpretazio bera da.

Atal honetan, *-KA* aditzezko oinarriekin konbinatzean, azpigertaera anitzeko gertaera inperfektiboak sortzen direla erakutsi dugu. Hala, *-KA* morfemak testuinguru horretan ere pluraltasuna erakusten du, alegia, aditzezko oinarri batekin elkartzean, oinarriak adierazten duen gertaera errepikatu egiten da eta gertaera iteratibo bihurtu. Hurrengo atalean, *-KA* pluraltasun-marka adposizioekin konbinatzean eratorzen den adiera aztertuko dugu.

## 5. *-KA* atzizkia espazioan

Atal honetan, *-KAk* adlatibo-adposizioari loturik erakusten duen interpretazioa aztertuko dugu eta horretarako bideen ezaugarri eskalarretan arreta jarriko dugu. Izan ere, erdialdeko euskararen aldaera batzuetan, *-KA* adposizio-sintagmei erantsita ere ager daiteke eta, ondorioz, espazioari lotutako adiera izan (21). Zehazki, *-KA* barruan duten adposizio-sintagmek hurbiltze-denotazioa dute, hots, hurbiltze-adlatiboak duen esanahi bera.

### (21) **Etixeraka** noa.

*-KAz* lagundutako adposizioetan sakondu baino lehen, goazen lehenik helburu- eta hurbiltze-adierako bideak aztertzea. Euskaraz, helburu-adierako bideak (ing. *Path*; Svenonius 2006, 2008; Pantcheva 2011) adlatiboaren bitartez adierazten dira, *-ra* atzizkiak, alegia: *etxe-RA* (22a). Hurbiltze-balioa dutenak, aldiz, adposizio-adlatiboari beste atzizki bat gehiturik sortzen dira: *-ra* + *-ntz* (22b), euskalki gehienetan eta, jakina, euskara batuan ere bai (Euskaltzaindia 1991). Sortzen den atzizki berriari (*-rantz*),<sup>11</sup> hurbiltze-adlatiboa deritzo.

### (22) a. **Ettxera** noa.

### b. **Ettxerantz** noa.

Adlatibo sintagmak amaieradun bidea adierazten du, eta mugimenduzko aditzekin batera, predikatu telikoak sorrarazten ditu. Horregatik, aurreko


<sup>11</sup> Edo *-ru(n)tz*, *-rantza* aldaeren arabera (Zuazo 2008, 2017).

atalean gertaeren kasurako azaldu den moduan, ez da iraupena adierazten duten denborazko modifikatzaileekin —*bi minutuz*—<sup>12</sup> bateragarria, baina bai, ordea, denbora-tartea adierazten duten horiekin (ing. *time frame adverbials*) —*bi minutuan*— (Vendler 1967; Dowty 1979), (23a). Hurbiltze-adlatiboak, ordea, kontrako jarrera erakusten du. Bateragarria da iraupena adierazten duten denbora modifikatzaileekin, baina ez denbora-tartea adierazten dutenekin (23b). Izan ere, hurbiltze-adlatibo motako sintagmen denotazioan bideak ez du amaierarik, eta ondorioz, mugimenduzko aditzekin batera sortzen den predikatua atelikoa da.


- (23) a. Jon unibertsitatera joan zen (\**bi minutuz*) / (**bi minutuan**).  
 b. Jon unibertsitaterantz joan zen (**bi minutuz**) / (\**bi minutuan*).

Nanosintaxian proposatu den adposizioen deskonposizioan, helburua adierazten duen adlatiboa eta hurbiltzea adierazten duen hurbiltze-adlatiboa, sintaktikoki bi modutan eratortzen dira (Svenonius 2006, 2008; Pantcheva 2011 besteak beste). Helburua adierazten duen adlatiboak bi geruzako egitura sintaktiko bat lexikalizatzen du: HELBURUA eta LEKUA (Etxepare eta Oihartzabal 2012; Berro 2015a, 2015b; J. Etxeberria 2021, 2023), (24). Hurbiltzea adierazten duen hurbiltze-adlatiboak, berriz, hiru geruzakoa: ESKALA, HELBURUA eta LEKUA (Pantcheva 2011; ikus. Berro 2015a, 2015b eta J. Etxeberria 2021, 2023 euskararako), (25).

## (24) Adlatiboa



## (25) Hurbiltze-adlatiboa



<sup>12</sup> (23a) bezalako adibideak, ipar-ekialdeko hizkeretan onargarriak direla dirudi (Bilbao 2022). Geure ustez, horrelakoetan ez da predikatuaren izaera teliko/atelikoa aldatzen, ezpada denbora modifikatzailearen interpretazioa: -z buru duen modifikatzaileak denbora-tartea adieraziko luke horrelako adibideetan, ez iraupena.

Erdialdeko euskararen aldaera batzuetan, hurbiltze-bidea adierazten duen adposizio sintagma sortzeko, adlatiboari *-KA* eransten zaio *-ntz* atzikiaren ordezt (21) —(26a) adibidean errepikatua—. Orokortuago dagoen hurbiltze-adlatiboak bezala, *-KAz* sorturiko hurbiltze-adposizioak amaierarik gabeko bideak adierazten ditu eta, hortaz, iraupenezko denbora modifikatzaileekin bakarrik bateragarria da (26b).

(26) a. **Etxeraka** noa.

b. Jon **unibertsitateraka** joan zen (bi minutuz) / (\*bi minutuan).

3. atalean, *-KA* gertaera iteratibo atelikoetan agertzen dela ikusi dugu. Atal honetan ikus daitekeenez, gertaeren eremuan ez ezik, *-KA* lekuzko adposizioen eremuan ere aurki daiteke, eta testuinguru horretan ere, balio atelikoa, hots, bukaera-unerik gabekoa, du. Horregatik, espazioaren eremuan *-KAK* egiten duen ekarpena berdintsua dela uste dugu. Hor ere [+ plural] tasuna du, eta ondorioz, esanahi metagarria du (Krifka 1998; Zwarts 2005, 2008). Izan ere, Zwartsen (2005, 2008) arabera, amaieradun eta amaierarik gabeko bideen arteko desberdintasuna metagarritasunean datza. Hurrengo atalean (6. atala) erakutsiko dugunez, Zwartsen ustez, amaierarik gabeko bideak metagarriak dira; amaieradunak, ordea, ez. Ingeleseko *towards the station*, ‘geltokirantz’, bezalako hurbiltze-bidea metagarria da, baina *to the station*, ‘geltokira’, gisako helburu-bidea ez. Laburrean esanda, hauxe azalpena: hurbiltze-adiera duten bi bide berdintsu, adibidez, *geltokirantz*, kateatzen baditugu, bi bideen arteko baturak ere *geltokirantz* adiera bera du: *geltokirantz* doan bide bat badugu, eta *geltokirantz* doan beste bide bat, bi bideak elkartuz, bi bideek *geltokirantz* doan beste bide bat osatzen dutela esan daiteke. Ondorioz, hurbiltze-bidea metagarria da; bideak bata bestearen atzetik metatu daitezke. Bestalde, amaieradun bi bide, adibidez, *geltokira*, ezin dira kateatu eta, horregatik bada, euren arteko baturarik ezin da lortu. Geltokira baldin bagoaz, ezin gaitezke segidan berriro geltokira joan, dagoeneko geltokian gaudelako. Esan genezake, hartara, amaieradun bideen muturrok espazioko eskualde desberdinetan daudela (hasieran [– geltokian] eta ondoren [+ geltokian]). Beraz, abiatze-puntua —hau da, [– geltokian]—, ez dago amaiera-puntuaren —hau da, [+ geltokian]— eskualde berean eta, ondorioz, *geltokiraren* amaiera-puntutik ezin abia gaitezke *geltokiraren* hasiera-puntura (ikus 6. atala).

## 6. *-KA* atzizki bera gertaeretan zein espazioan

2. atalean erakutsi dugunez, lan honen proposamen nagusia da, *KA* atzizkiak ekarpen semantiko bera egiten duela agertzen den gramatika kategoria guztietan eta ezin dela atzizki adberbio-sortzaile soiltzat hartu. Izan ere, multzo-izenekin eta kuantifikatzaileekin, aditzekin eta adposizio-sintagmeekin ere ager daiteke, eta gramatika-kategoria horietan guztietan egiten dituen ekarpenak elkarren antzekoak dira oso, esan nahi baita, bat eta bakarra dela. Kuantifikatzaileen, multzo-izenen eta aditzen eremuan pluraltasuna eta iteratibotasuna eragiten duela ikusi dugu eta bi kontzeptu horiek elkarrekin lotuta dauden iritzia orokorra da gaiaren inguruko literatura.

Adposizioen eremuan, baina, ez dugu iteratibotasunik aurkitu. Gogora dezagun, 3. atalean esan bezala, *-KA* esanahi telikoa duten gertaera izenei eransten zaienean (adibidez, *salto*), adiera errepikakorra edo iteratiboa sortzen dela. Aldiz, *-KA* bide ez-metagarriei —adibidez, *geltokira*, helburu-bide bati— eransten zaienean, ordea, ez da bide errepikakorrik sortzen, ezpada amaierarik gabekoa, alegia, hurbiltze-adiera duen bidea (adibidez, *geltokiraka*). Hori horrela, zenbait galdera sortzen dira: *-KA*ren bi jokabide bereizi dira horiek, eta, ondorioz, bi *-KA* atzizki mota ote daude, bata aditzen eremuan eta beste bat bideen eremuan? Ala, atzizki beraren bi erabilera baino ez dira? Bigarren hipotesi ildoari eutsiko diogu guk lan honetan, eta *-KAK* gertaeren eta espazioaren eremuan ekarpen bera egiten duela aldarrikatuko dugu. Horrela, aditzen eta adposizioen parekotasunaren aldeko analisiekin bat egingo dugu eta ekarria hortik egin, beste lan batzuek egindako moduan (Koopman 2000; Den Dikken 2010; Zwarts 2005, 2008; Berro 2015a, 2015b).

Aditzek eta adposizioek antzekotasun aspektual batzuk dauzkate. Izan ere, aspektuari lotutako nozio batzuk garrantzitsuak dira gertaerak zein bideak definitzeko eta ezaugarritzeko. Esate baterako, gertaerak eta bideak bukaera-unedunak edo bukaera-unerik gabekoak izan daitezke (telikoak edo atelikoak), edota trantsizioa adieraz dezakete, aurreko ataletan ikusi dugun bezala. Horretaz gain, gertaera eta bideak konparatiboak izan daitezke (27).

- (27) a. Zuloa ('are gehiago') handitu da.  
 b. Etxerantz joan da (= 'etxetik gero eta hurbilago dago').

Zwartsek (2005, 2008) eskala algebraiko baten bitartez adierazi zituen nozio horietako batzuk —(28) adibidekoa bezalakoa—. Geu ere eskala algebraiko horietaz baliatuko gara, gertaeretan azaltzen den -KA zein bideetan agertzen den -KA biok ezaugarritzeko.

Baina azalpen horretara jo aurretik, beharrezkoa da, lehenik, adposizioen eremuko oinarrizko beste kontzeptu batzuk azaltzea: hain zuzen, Irudiari eta Eremuari dagozkionak. Talmyk (2000) adposizioek bi entitateren arteko harremana zehazten dutela proposatu zuen, Irudiaren (ing. *Figure*) eta Eremuaren (ing. *Ground*) artekoa, hartan ere. Irudia adposizioaren «subjektua» dela esanenez, mugitu daitezkeen entitateak. Eremua, aldiz, Irudiaren kopakena edo mugimendua zehazteko erreferentziatzat hartzen den bigarren entitatea da, ezin mugitu daitezkeena. *Etxera* bezalako adposizio-sintagma batean, Irudia ez dago zehazturik —hori perpausaren goragoko geruzetan ahoskatuko litzateke (adibidez, *Mikel etxera (doa)* egitura sortzean, *Mikel Irudia litzateke*)— eta Eremua, *etxea* determinatzaile sintagma litzateke. *Etxera* helburu-bidea izanik, Irudiak *etxe* Eremura heltzeko igarotzen duen bidea adieraziko luke.

Horrelako adposizio-sintagma baten ezaugarri eskalarrak, (28) adibideko grafikoan erakutsi ditugu. Grafiko horretan, bidea eskala baten moduan adierazi dugu, Zwartsi (2005, 2008) eta Pantchevari (2011) jarraia. eskala hori  $p$  da (*Path*, 'bidea'), bideen multzo bat;  $p(0)$ -k eta  $p(1)$ -ek bidearen lehen eta azken puntuak adierazten dituzte, hurrenez hurren. (+) plus eta (-) minus zeinu bakoitzak bide horretako puntu bat adierazten du, zeina 0 eta 1 zenbakien artean dagoen, hau da, abiapuntuaren eta amaiera-puntuaren artean. bideak Eremuarekin bat egiten ez duen puntuak minus zeinuaz adierazita daude; eta plus zeinuz, aldiz, bideak eta Eremuak bat egiten duten puntuak. Horrela, *etxera* bidean, hasierako puntuetan bideak ez du Eremuarekin —*etxearekin*— bat egiten, horrexegatik agertzen dira (-) zeinuak; hau da, bidea ez dago *etxean*. Aurrerago, ordea, trantsizio bat gertatzen da eta azkenengo puntuetan bideak Eremuarekin bat egiten du —(+) zeinuak—, hots, bidea *etxean* amaitzen da.

(28) etxera (p)  
 - - - - + + + +  
 0 1

*Etxera* helburu-bideak trantsizio bakarra du, hau da, monotrantsizionala da. Bi fase dauzka: bideak eta Eremuak bat egiten ez duten fasea, (-) zeinuaz adierazi duguna, eta bideak eta Eremuak bat egiten duten fasea, (+) zeinuaz aditzera emana. Beste bide mota batzuetan, ez dago trantsiziorik edota trantsizio bakarra egon beharrean, bi daude. Azken hori da, Zwartzen (2005, 2008) eta Pantchevaren (2011) arabera, *past the tree*, ‘zuhaitzaz gaindi’, edo *across the fence*, ‘hesiaren beste aldean’, bideen egitura eskalarra. Bideak Eremuarekin bat egiten du —zuhaitzarekin edo hesiarekin— tarte batean, baina tarte horretako puntuak ez daude bidearen hasierako edo azkenengo puntuetan, erdikoetan baizik. (29) adibidean ingelesezko *past the tree* ekarri dugu euskarara eta haren egitura eskalarra erakutsi. Ikus daitekeenez, bideak ez du zuhaitzarekin bat egiten hasieran eta amaieran, baina bai erdiko tarte batean.

(29) zuhaitzaz gaindi (p)  
 - - + + + + - -  
 0 1

Bi trantsizioko bide horiei «bide telikoak» (Zwarts 2005, 2008) eta «bide trantsitiboak» (Pantcheva 2011) esan zaie arloko literaturan. (29) adibideko eskalan ikus daitekeenez, mota horretako bideetan, bi tarte (-) negatiboz inguratutako fase (+) positibo bat dago. Horrek zera esan nahi du: *zuhaitzaz gaindi* bezalako bide batean, hasierako puntuak ez daude Eremuan; ondoren bada tarte bat zeinetan bideak Eremuarekin bat egiten duen; eta azkenik, beste fase batean, bidea berriz ere Eremutik kanpo dago.

Gertaerak modu horretara irudikatuz gero, horrelako bideen egitura eskalarra gertaeretan ere aurki daitekeela erreparatuko dugu. Kasu honetan eskala *e* (*event*, ‘gertaera’) da. Hain zuzen, Zwartsek (2005), ingelesezko aditz semelfaktiboek —esate baterako, *jump*, ‘salto egin’ aditzak— eskala-egitura hori berori dutela proposatu zuen. Horrelako gertaerak bitrantsizionalak dira: gertaera horietan, argumentua tarteko egoera batetik igaro eta amaieran hasierako puntura bueltatzen da. Salto egitean, adibidez, oinekin lurra ukitzen ari gara hasieran, gero tarteko denbora batez oinak, airean



bideak: batetik, denotazio bera duten Bideekin lot daitezkeenak edo konektagarriak direnak eta, bestetik, denotazio bereko bideekin ezin lot daitezkeenak edo konektaezinak direnak.

Goian ikusi ditugun bi bideetatik —*etxera* (28) eta *zuhaitzaz gaindi* (29)— eta gertaeratik —*salto* (30)—, bi bakarrik dira lotuak edo konektagarriak: *zuhaitzaz gaindi* eta *salto*, horien hasierako eta bukaerako polaritatea, bera baita. Metagarri bihurtu ahal izateko, [+ plural] tasunaren bitartez, bideak edo gertaerak —predikatuak oro har— konektagarria izan behar du. *Salto* katea daiteke, haren lehen *p* (0) eta azken *p* (1) puntuek polaritate bera dutelako. Horrela, *salto* gertaera gehigarriak aurreko *salto* gertaerekin lot daitezke, salto baten amaiera-puntuak bat egiten duelako beste salto baten hasierako puntuarekin (Rothstein 2004, 2007). Kontrara, *etxera* helburu-bidean, lehen eta azken puntuek polaritate desberdina dute eta, *etxera* bideak ezin dira elkarrekin kateatu, hartara.


Gure proposamena, hortaz, hauxe da: -KA atzizkiaren [+ plural] tasunak konektagarria den bide bat edo gertaera bat aukeratzen du, denotazio bereko beste bide edo gertaera batekin kateatu eta BIDE edo gertaera metagarria sortuz. Baina horrek itxurazko kontraesana dakar aurretik behatutako datu batzuekin: 4. atalean ikusi dugun bezala, -KAK itxuraz helburu-bidea den sintagma batekin bat egiten du, hau da, konektagarria ez den eta, ondorioz, ezin katea daitekeen bide batekin. Itxurazko kontraesan hori azaldu ahal izateko, bi irtenbide daude:

a) Batetik, lehen azalbidearen arabera, [+ plural] tasunak helburu-bidearekin bat egiten duenean, helburu-bidearen bigarren (eta azken) fasea desagertu egiten da; horrela *etxera* bezalako adposizio-sintagma konektagarri bihurtzen da eta [+ plural] tasunarekin bateragarri bilakatu.

b) Bestetik, bigarren azalbidean, eta gure ustez azalbiderik zuzenenean, [+ plural] tasunak helburu-bidearekin bat egitean, helburu-bidea eskala-bide bihurtzen da (Pantcheva 2011). 5. atalean jorratu dugun bezala, nanosintaxian ESKALA buruak hurbiltze-adlatibo erako adposizioak sortzea ahalbidetzen du. Hala, ESKALA burua HELBURU buruaren gainean islatzean (25) —(32) adibidean errepikatuta—, bideak bi aldaketa jasaten ditu: (i) trantsiziorik gabeko bidea bihurtzen da, eta (ii) bidea konparatiboa izatera




igarotzen da. Lehen aldaketaren ondorioz, bidearen bigarren fase positiboa desagertu egiten da; hots, bidea ez da Eremura heltzen, esan nahi baita, ez duela Eremuarekin bat egiten. Bigarren aldaketaren ondorioz, bideko puntu bakoitza Eremutik hurbilago dago.




Pantchevak (2011) honelaxe azaldu ditu formalki hurbiltze-bideok: fase bakarreko bideak dira, non puntu guztiek polaritate bera duten baina puntu bakoitzaren balioa aurreko eta ondorengo puntuaren balioaren desberdina den. Balio-desberdintasuna konparatiboa da. Izan ere, hurbiltze-bideak emendiozkoak dira, hau da,  $p(i_n)$  puntuak  $p(i_{n-1})$  puntuak baino balio handiagoa dauka eta, aldi berean,  $p(i_n)$  puntuak  $p(i_{n+1})$  puntuak baino balio txikiagoa. Beste hitz batzuekin esanda, *etxerantz* bezalako bide batean, bidea  $p(i_n)$  puntuan etxetik hurbilago dago,  $p(i_{n-1})$  puntuan baino. Orobat,  $p(i_n)$  puntuan etxetik urrunago dago,  $p(i_{n+1})$  puntuan baino. Esanahiaren zati hori ESKALA geruzak txertatzen du, Pantchevaren (2011) arabera.

(33) Eskala-bidea (Pantcheva 2011)



Ikus daitekeenez, eskala-bideen lehen eta azken puntuek polaritate bera dute. Horrek esan nahi du, eskala-bideak konektagarriak direla, alegia, eskala-bidearen amaiera-puntua tankera bereko bide baten hasiera-puntua izan litekeela. Hala, -KAren [+ plural] tasunarekin bat egitean, metagarri bihurtzen dira.

(34) *etxera*-KA (p)



Beraz, *etxera* bezalako helburu-bideak -KAekin bat egitean, *etxera* eskala-bide bihurtzen da (33) eta ondoren denotazio bereko beste bide batzue-

kin kateatzen da, eta hortaz adiera metagarria eskuratzen du (34). *Etixeraka* bideak ez du trantsiziorik, puntu guztiek polaritate bera baitute, hala, bideko puntu batek ere ez du Eremuarekin —*etxearekin*— bat egiten. Nolanahi ere, goian esan bezala, (29) adibideko puntuak ez dira berdinak,  $p(i_n)$  puntua  $p(i_{n-1})$  puntua baino hurbilago baitago etxetik. Emendiozko balio hori ESKALA buruak sortzen du eta -KAren [+ plural] tasunak eragiten duen kateatze horretan indarrean dago.

Trantsiziorik ez dagoenez, *etxerakak* ez du ageriko adiera iteratibo edo errepikakorrik, nahiz eta oinarrian elkarrekin kateaturiko bideak dituen. Horren antzeko zerbait gertatzen da jarduera bat adierazten duten oinarriekin, adibidez, *igeri* aditzarekin, 4. atalean aipatu dugun bezala.

$$(35) \text{ igeri (e)}$$

$$+ + + + + + + +$$

$$0 \qquad \qquad \qquad 1$$

*Igeri* bezalako jardueretan, gertaerak denboran zehar hedatzen dira eta ez du amaiera kodifikaturik. Horregatik, grafikoki bata bestearen atzeko puntu positiboz adieraz daiteke, trantsiziorik gabe, argumentuak *igeri* egiten duelako jarduera hasten denetik eta hura amaitu artean (35). -KA atzizkia eranstea, *igeri* gertaera denotazio bereko gertaera batzuekin behin eta berriaz kateatu eta gertaera plurala sortzen da, baina agerian ere, *igeriren* denotazio bera dauka, *igerika* ere trantsiziorik gabeko gertaera baita.

$$(36) \text{ igeri-KA (e)}$$

$$[++++++][++++++][++++++][++++++]$$

$$0 \qquad \qquad \qquad 1$$

-KAren izaera horretatik aurreikuspen bat egin daiteke: -KAren [+ plural] tasuna itzulgarriak diren bideekin bateragarria izango da, baina ez itzulezinekin. Arestian «itzulgarritasuna» aipatu dugu, Zwartzen (2008) bideen hiru bideko tipologia azaldu dugunean. Haren definizioaren arabera, bide bat itzulgarria da baldin eta haren denotazioa berdin mantentzen bada, bidea bera alderantzizkatuta ere. Zwartsek *over the fence*, 'hesiaren beste aldean/aldera', bezalako bideak itzulgarriak direla dio: alderantziz emanda ere, denotazioak bera izaten jarraitzen du. Horrekin lotuta, egile horren



*Sartu-atera* hitz elkartua itzulgarria da, baita konektagarria ere, eta ondorioz *-KA*ekin bat egin dezake.

## 7. *-KA* atzikia eta beste hizkuntzetako plurakzionalak

Aurreko atalean proposatu dugu [+ plural] tasuna bateragarria dela bakarrik konektagarriak diren bide eta predikatuekin. Atal honetan erakutsiko dugu, [+ plural] tasunaren analisiari esker, gaiari buruzko literaturan jaso den gertaera barruko plurakzionalen gaineko orokorpen bat azal genezakeela. Woodek (2007) erakutsi zuen bezala, hizkuntza artean gertaera plurakzionalak sor daitezke aditz mota batzuekin soilik: aditz semelfaktiboekin (40a), lorpen-aditz<sup>13</sup> mota batzuekin (40b) eta jarduera aditzekin (40c). Hona hemen *Eguno Euskararen Hiztegia* lanetik (Sarasola 2008-2023) hartutako hiru aditz mota, horien adibide bana: semelfaktiboa eta jarduera motako gertaera *-KA* atzizkiarekin batera agertzen dira aspektu-aditz baten osagarri gisa, adibidez, *saltoka hasi* (40a) eta *igerika aritu* (40c); bestalde, lorpen-aditzean, oinarriak eta *-KA* atzizkiak osatutako predikatuari partizipioa erantsi zaio, *zatikatu* (40b).

- (40) a. European **saltoka** hasten zelako putzuetan.  
(A. Barandiaran 2005: 49)
- b. Hildakoa **zatikatu** eta East Riverrena bere gorputza botatzea izan zen otu zitzaion lehen gauza. (H. Cano 2000: 137)
- c. Emeki **igerika** aritu ziren eta prestuki uretik atera.  
(R. Etxeberri 2004: 225)

6. atalean esan dugu Zwartsek (2008) bideen hiru bideko tipologia proposatu zuela, zeinetan bideak, lehen ere esandako moduan, konektagarritasunaren, itzulgarritasunaren eta metagarritasunaren arabera banatzen diren. Ezaugarritze hori gertaeren eremura ere eraman zuen eta aditz

<sup>13</sup> Nabarmendu behar dugu, «lorpen» izendapena ingelesezko literaturako *achievement* terminoaren parekotzat hartzen ari garena hemen, ez, ordea, *accomplishment*en parekotzat (euskaraz «burutzapena» litzatekeena). Gertaera barruko plurakzionalak bateragarriak dira lorpen mota batzuekin bakarrik; ez burutzapenekin.

semelfaktiboek, jarduerak eta mailakako lorpenek gertaera konektagarriak adierazten dituztela baieztatu zuen. Guk ere halaxe egin dugu lan honetan. Gainera, atal honetan konektagarritasuna plurakzionalak hizkuntza artean duten banaketarekin lotuko dugu.

Aurreko ataletan esan dugun bezala, bi plurakzional mota daude: «gertaera barrukoak» eta «gertaera kanpokoak» (Cusic 1981; Wood 2007; Tovina and Kihm 2008; Iordăchioaia and Soare 2015). Gertaera barruko plurakzionalak aldi bakarrean jazotzen den gertaera bakarra adierazten dute, zeinak barruan errepikatzen diren faseak dituen (adibidez, *marraskatu*, *horzirikatu*). Gertaera kanpoko plurakzionalak, ordea, aldi bakarrean edo gehiagotan errepikatzen diren etengabeko edo aldizkako gertaerak azaleratzen dituzte (*behin eta berriaz kosk egin* esaera, adibidez). Lan honetan, lehen plurakzional motaz ari gara. Arloko literaturan jaso denaren arabera, bi plurakzional motetan interpretatzen da gertaera errepikatu egiten dela, baina gertaera barruko plurakzionaletan, errepikapenak jarraian eta bata bestearen atzetik gertatzen dira eta, hizkuntza artean ikusi denez, aditz mota batzuekin bakarrik eraiki daitezke. Gertaera-kanpoko plurakzionalak, aldiz, jarraiak edo aldizkakoak diren errepikapenak adierazten dituzte eta, gertaera barrukoak ez bezala, edozein aditz motarekin bateragarriak dira. Esan bezala, gure ikerketa honetan gertaera barruko plurakzionalak erreparatuko diegu batez ere, -KA atzizkiaren ekarpena eremu horretan gertatzen baita.

Wooden (2007) aburuz, gertaera barruko plurakzionalak gertaera bakar baina konplexutzat har daitezke. Testuinguru horretan agertzeko aukera gehien duten aditzak semelfaktiboak eta lorpen-aditz batzuk dira. Izatez, semelfaktiboak agertzen dira maizen plurakzionalekin. Izan ere, semelfaktiboak interpretazio errepikakor eta jarraia erraz ahalbidetzen duten aditzak dira, eta ondorioz, plurakzionalekin bat egitean, interpretazio iteratiboa sorrarazten dute, naturaltasunez. Gure proposamenak Rothsteinen (2004, 2007) eta Zwartsen (2008) lanei jarraitzen die. Semelfaktiboak plurakzionalitatearekin erraz agertzen dira, adierazten duten gertaeren azken puntua gertaera bertan lehen puntutzat erabil daitekeelako, alegia, gertaera konektagarriak adierazten dituztelako. Ondorioz, aditz semelfaktiboek aukera ematen dute, plurakzional batekin bat eginez gero, interpretazio errepikakor jarraia sortzeko.

Lorpen-aditzak bestelakoak dira. Lorpen-aditzek objektu baten gaineko berehalako aldaketak adierazten dituzte (adibidez, *apurtu*, *zaitu*) eta plurakzional batekin batuz gero, objektuak aldaketa horiek metatzen dituela ulertzen da. Ondorioz, lorpenok metagarri bihurtzen dira plurakzionalen eraginpean (Wood 2007). Gure ustea da, testuinguru horretan, lorpenak benetan mailakako lorpenak direla, esate baterako, *gorritu* edo *handitu* bezalakoak.<sup>14</sup> Rothsteini (2007) eta Berrori (2015b) jarraika goazelarik, formulatuko dugu, mailakako lorpenek jarraiak diren eta bata bestearen atzean jazotzen diren egoera-aldaketak adierazten dituztela: aldaketa horietako baten amaierako egoera abiapuntua da jarraian datorren hurrengo egoera-aldaketarentzat. Horrela, *zaitu* bezalako gertaera bat plurakzional baten eraginpean dagoenean, adibidez, euskarazko *zaitkatu* (40b), adiera aldatu egiten da: bitan zatitzea uler daiteke lehenarekin eta, behin eta berriz zatitzea, zati askotan egitea, bigarrenarekin.

Beste hizkuntza batzuetan, lorpenen gainean eraikitako horrelako plurakzionalak aurki daitezke (Wood 2007: 74, 80, 132): yurokeraz (yurok, iparrameriketako hizkuntza algiarra da), *tikwohs* ‘apurtu’ eta *tikwtikwohs* ‘zatitan apurtu’ daude (Robins 1985); yup’ikeraz (yup’ik hizkuntzek «eska-leut» deituriko hizkuntza-familiako azpifamilia bat osatzen dute eta Alaskan eta Errusia ekialdean hitz egiten dira), *alleg-* ‘urratu’ eta *allguraa* ‘zaitkatu’ (Jacobson 1984); Siriako arabieraz, *kasar* ‘(bitan) apurtu’ eta *kasaar* ‘zatitan apurtu’ (Cowell 1964); eta koasatieraz (Louisianan eta Texasen hitz egiten den hizkuntza, muskogear hizkuntza-familiakoa), *pállin* ‘zartatu’ eta *pállí:cín* ‘ezpaletan zaitu’ (Kimball 1991) ezagunak dira. Bikote horietako lehen aditzak plurakzionalik gabeko aditzak dira, adiera errepikakorra ez dutenak; bigarrenak, aldiz, plurakzionalak.

Beste kasu batzuetan, lorpen-aditzak ez dira bateragarriak gertaera barruko plurakzionalekin. Esate baterako, *heldu* edo *hil* bezalakoetatik, mailakako

<sup>14</sup> Hala ere, berriusle batek ohartarazi bezala, ez da \**gorrikatu* edo \**handikatu* bezalako elementurik euskaraz. Honen arrazoia ez da guztiz agerikoa, izan ere, horiek lorpenak izanik -KA atzizkia onartu beharko lukete gure aurreikuspenen arabera. Dena den, esan liteke, -KA atzizkia ez dela (ia) inoiz adjektibo itxurako oinarriekin agertzen (salbuespenak *isilka* eta *gordeka* dirateke). Gure proposamenaren arabera -KA pluralizatzaile lexikoa izanik, ez da guztiz harritzekoa honelako murriztapen idiosinkrasikoak izatea.

lorpenak eraikitzea ez litzateke posible, objektu edo entitate bakar batek ezin baititu metatu behin eta berriz heltzearen edo hiltzearen aldaketak, aldi bakar batean bederen. Beraz, lorpena adierazten duen aditz bat, gertaera barruko plurakzional batekin bateragarria izan dadin, beharrezkoa da, aditz horren adierak eskala irekiaren interpretazioari (Hay eta beste 1999; Kennedy eta McNally 1999, 2005) bide eman ahal izatea, hots, aditzak adierazten duen egoera-aldaketa behin eta berriz gertatu ahal izatea, objektu edo entitate berari bide emanez aldi berean; adiera metagarria posible izatea, azken finean.

Azkenik, jarduera adierazten duten aditzak ere plurakzionalekin batera ager daitezke. Geuk ere horixe erakutsi dugu 4. eta 6. ataletan, *korrika*, *igerika* eta *oihuka* gertaerak aipatu ditugunean. Woodek (2007) dioenez, beste hizkuntza batzuetan plurakzionalak gertaera iraunkorrak edo gertaera hedatuak agertzen dituzte horrelakoetan. Irakurketa horiek bat datoz guk 4. eta 6. atalean *igerikaz* esan dugunarekin, esaterako. Ez da aldaketa edo jarduera errepikakorrik identifikatzen halakoetan, ezpada jarduera iraunkorra.

Burutzapenik eta eskala irekirik ahalbidetzen ez duten lorpenak ez dira plurakzionalekin bateragarriak. Euskaraz ere ez dugu halakorik aurkitu. Izan ere, -KA atzizkiak [+ plural] tasuna gaineratzen du eta konektagarriak diren eskalei erants dakieke bakarrik. Burutzapenek, adibidez, *gutun bat idatzi*, eta eskala irekirik gabeko lorpenek, adibidez, *hil*, adierazten dituzten eskalak ez dira konektagarriak, hots, euren azken aldaketak edo puntuak ezin dira denotazio bereko aldaketen abiapuntutzat erabili.

Nolanahi ere den, gogora ekar dezagun 5. atalean -KA<sub>z</sub> eta hurbiltze-adlatiboaz esandakoa. Kasu horretan, -KA itxuraz konektagarria ez den helburu adposizio sintagma batekin batera agertzen da, *etxera* helburua adierazten duen sintagma *etxeraka* adibidean. Beste hizkuntza batzuetan ere horrekin zerikusia izan dezakeen zerbait identifikatu da, baina ez bideen eremuan, baizik eta plurakzionalen eremuan. Esate baterako, latinez, plurakzionalak konektagarriak ez diruditen gertaera batzuen gainean eraiki zitezkeen, burutzapen batzuen eta lorpen batzuen gainean (Garrett 2001: 12), zehazki. Hala ere, kasu horietan guztietan, aditzon adiera aldatu egiten dela dirudi (Wood 2007: 129-130). Plurakzionalik gabe aditzek burutzapen edo lorpen adiera

dute, hots, egoera/leku aldaketa edo bukaera-unea kodifikatua dute: *advenire* ‘etorri’, *noscere* ‘ezagutu, aurkitu’ eta *capere* ‘harrapatu’. Plurakzionalaren eraginpean, bestalde, amaierarik gabeko predikatuak bihurtzen dira: *adventāre* ‘hurbildu’, *noscitāre* ‘aztertu, ikertu’ eta *captāre* ‘harrapatzen saiatu’. Ikus daitekeenez, adiera errepikakorra sortu beharrean, plurakzionalak aldaketa gertatzeko saiakera («an attempt to change», Wooden 2007: 130 lanaren arabera) agertzen dute (ikus, baita ere, Laca 2006) eta, horrela, gertaerek jatorrizko esanahian zuten amaiera edo trantsizioa galdu. Burutzapen eta lorpen horietan gertatzen den kohertzio hori, euskarazko helburu-adposizioa -KArekin elkartzen denean gertatzen denarekin pareka liteke. -KA *etxera* helburu adposizio sintagmari eranstean, ez da *etxera* adierazten duen trantsizioa errepikatzen. Trantsizio hori galdu eta *etxerakak* trantsizio hori lortzeko saiakera —adibidez, hurbiltzea— azaleratzen du.

Beraz, hizkuntza arteko gertaera barruko plurakzionalak eta euskarazko -KA atzizkiak dituzten adiera semantiko eta murriztapenak elkarren antzekoak direla dirudi. Euskaraz, baina, -KA ez da bakarrik aditzen edo gertaeren eremura mugatzen, bestelako gramatika-kategorietan eta eremu semantikoetan ere aurki baikenezake. Hori horrela bada, -KA nekez lot daiteke gramatika-kategoria zehatz batekin, adibidez, adberbiogile-funtzioarekin. Gure ustez, -KAren zeregina ez da bere osagarriari kategoriatan ezartzea, ezpada [+ plural] tasuna txertatzea eta, horren ondorioz, kuantitate, bide, gertaera edo modifikatzailea metagarri bilakatzea.

## 8. -KA atzizkia modifikatzaileetan

Aurreko ataletan adierazi dugunez, askotan -KA atzizkia adberbiogiletzat deskribatu izan bada ere, atzizki horrek beste hainbat eremutan ere parte har dezake. Dena dela, atzizki horrekin sortutako hitzek modifikatzaile —hau da, adberbio edo adberbiozko osagarri— ere joka dezakete. Modifikatzaileak eratzen dituen ere, -KA atzizkia zenbait oinarri motarekin konbina daiteke. Atal honetan, era horretara sortutako hitzei erreparatuko diegu, -KA atzizkiak egitura horietan betetzen duen funtzioa argitu nahian. Horretarako, bi egitura mota aztertuko ditugu: kuantifikatzaileen gainean



osatutako *-KAdun* modifikatzaileak, eta gertaera predikatuen gainean eraturtako *-KAdun* modifikatzaileak.

### 8.1 Kuantifikatzaileen gaineko *-KAdun* modifikatzaileak

3. atalean jorratu dugunez, *-KA* atzikia kuantifikatzaileekin edo neurri-izenekin konbinatuz gero, kuantifikatzaile zehaztugabeak zein modifikatzaileak sor daitezke. Modifikatzaileak sortzen direnean, horiek hainbat adiera har dezakete. Alde batetik, kuantifikatzaile banatzaileetan oinarritutako modifikatzaile gisa aurkeztu direnak (Etxeberria 2012) sortzen dira. Horietako gehienek, dena dela, adiera banatzailea hartzeko, oinarrian hartutako zenbakiak atzizki distributiboa hartu behar du lehenik: *lau-na-KA*. Hala, kasu horietan, pentsa liteke, balio distributiboa *-na* atzizkiak ematen duela, eta *-KA* atzizkiak kuantifikatzailea modifikatzaile-funtziora bihurtzeko eginkizuna duela: (41) adibidean atzizki distributibodun kuantifikatzaileak izena modifikatzen du; (42) adibidean, aldiz, *-KA* atzizki eta guzti da goela, aditzaren eremua modifikatzen du:

- (41) Launa puxtarri banatu dizkigute.
- (42) Puxtarriak **launaka** banatu dituzte.

Funtzio banatzailea betetzeko, atzizki distributiboa hartzen duten zenbaki kardinalaz gain, talde edo multzo-izenek ere balio dute. Ikus:

- (43) Ikasleak **multzoka** hurbildu ziren.
- (44) Sariak **kurtsoka** banatuko dira.

Kasu horietan, multzo-izenek ez dute aparteko atzizkirik hartzen, *-KAz* gain. Horietan, izenak multzo bat denotatzen duenez, interpretazio distributiboa lexikoki eratorria dela ematen du. *-KA* atzizkia gehitzearekin batera, kuantifikatzaile distributiboa edo multzo-izena gertaera bat modifikatuz interpretatzen da, eta beraz, multzoak osatzea gertaera gauzatzeko modua dela interpretatu ohi da.

Moduzko adieraz gain, *-KA* atzizkia hartzen duten multzo-hitz batzuek ere aditzaren eremuko kuantifikatzaile-adiera har dezakete:

(45) Langileak **saldoka** agertu ziren manifestaziora.

Kasu horietan ere, zenbaki kardinal handiekin ikusi dugun bezala, *saldo* multzo-izena konbentzionalki kantitate handi zehaztugabea adierazteko erabiltzen da. Hala, (45) adibidean, *saldoka* ez litzateke agertzeko modu bat, baizik eta langile-kantitatea adierazteko termino bat (zehazki, ‘kantitate handian’ adierazten duena).<sup>15</sup> Hor ere, -KA atzizkiak multzo-izenari gertae-ra modifikatzeko ahalmena ematen diola dirudi, eta beraz, kasu honetan A-kuantifikatzaile (aditzaren eremuari dagokion kuantifikatzailea, Etxeberria 2012) bilakatzekoa.

Bestalde, oinarrian neurri-hitzak hartuz gero, neurtze-gertaeren erreferentziazko magnitudea adieraz dezake modifikatzaileak:

(46) Dilistak **kiloka** pisatzen dira.

Kasu horietan guztietan, -KA atzizkiak funtzio berezia hartzen duela ematen du: oinarriko kuantifikatzaileak aditzaren modifikatzailea bilakatzeara. Beraz, lehen hurbilketan pentsa liteke, atzizki horrek ez lukeela zerikusirik aurreko ataletan aztertutako -KArekin. Alabaina, begiratu xeheago batek erakusten digu, modifikatzaile guztietan oinarriak adierazten duen kuantifikazio-unitatea beti pluralean interpretatzen dela: hala, (46) adibidean, *kiloka*, ‘hainbat kilotan’ gisa parafrasea daiteke, edo (44) adibideko *kurtsoka* ‘hainbat kurtsotan’ bezala.

Beraz, -KA atzizkiarentzat beste analisi bat hobetsiko dugu guk: hor ere, -KA atzizkiak pluraltasuna adierazten du, banatze-harremana duten multzoen pluraltasuna. Hala, (46a) eta (46b) adibideetako *laua* eta *launaka*, konposizionalki honexetara interpretatuko genituzke:

(47) a. *lau-na*: ‘bakoitzari lau’.

b. *lau-na-KA*: ‘bakoitzari lau, hainbat aldiz’.

Modifikatzaile-interpretazioa, aldiz, morfema isil baten bidez eratorria litzateke. Fernández-Altonagak (2022a) euskararako argudiatu duenez

---

<sup>15</sup> Dena den, *saldo* hitza ere multzokaria izan daitekeelako, moduzko interpretazioa jaso dezake egitura honek. Adiera horretan, langileak saldotan multzokaturik agertu zirela adieraziko luke.

—Rubinen (1994) tesiari jarraikiz—, aditzaren eta perpausaren eremuko hainbat modifikatzailetan, beste kategorietako osagaiak aditz/perpaus eremuko modifikatzaileak bilakatzen dira morfema isil baten bidez (adibidez, *azkar* adjektiboa aditzaren eremuko modifikatzaile bihur daiteke: *azkar etorri*). Fernández-Altonagaren ustez, morfema hau MODIFIKATZAILE buru (MOD) baten adierazle isila<sup>16</sup> izango litzateke eta modifikazio-harremana ezartzea ahalbidetuko luke, argumentutzat hartzen duen osagaiaren tipo semantikoa aldaraziz. Hala, modifikatzaile jokatzaren duden kuantifikatzaileen kasuan ere, MODen gauzaren isila dagoela onartuko dugu.<sup>17</sup> Beraz, *launaka* modifikatzailearen analisisa honelaxe geratuko litzateke:

(48) *launaka*: LAU -NA -KA -Ø

Modifikatzaile-funtzioa morfema isil baten bidez gauzatzen dela berresteko, modifikatzaile jokatzaren duden beste osagai batzuk aztertu behar ditugu: oinarrian gertaerak adierazten dituzten predikatuekin konbinatzen diren -KAdun modifikatzaileak, hartan ere.

## 8.2 Gertaera predikatuen gaineko -KAdun modifikatzaileak

4. atalean aipatu denez, -KA gertaera predikatuekin konbinatzean modifikatzaileak sor daitezke. Askotan, era honetara sortutako formak ez dira predikatu gisa erabilitako formetatik batere bereizten, esanahiari dagokionez. Har ditzagun (49) eta (50) adibideok:

(49) Miren **saltoka** ari da etengabe.

(50) Miren **saltoka** sartu zen gelara.

<sup>16</sup> Dena den, hiztunak askotan aukeran du proiektzio honen adierazlea fonologikoki gauzatzea, adibidez, *-ki* atzikiaren bidez (*azkarki etorri*).

<sup>17</sup> Kasu honetan, sor litekeen galdera da, zergatik modifikatzaile horiek aukeran ez duten MODen gauzaren fonologiko batekin konbinatzea (*\*launaka-ki*, *\*launaka-n*, *\*launaka-z*). Galdera horrenzat erantzun zehatzik ez badugu ere, adierazgarria da, kasu horietan -KA inesibo itxurako morfemaz (*lautan/multzotan banatu*) ordezkatu egin daitekeela; baina modifikatzaileen kasuan, inesibo singularra aurkitzea ohikoa bada ere (*azkenean*, *ziztuan*), kasu horietan mugagabeko forma (*-tan*) erabiltzen da beti.

Kasu bietan *saltoka* hitzak gertaera berari egiten dio erreferentzia eta, hala, kasu bietan denotazio bera duela argudia daiteke. Horrela, -KAren ekarpena ere bera dela pentsa daiteke, alegia, azpigertaeren errepikakortasun metagarria adieraztea. Desberdintasun bakarra hauxe da, beraz: (50) adibidean, *saltoka* beste gertaera bati buruzko informazioa gehitzeko erabiltzen dela. Zehazki, horrela sortutako egiturek bi gertaeren aldibere-kotasuna adierazten dute, baina gertaera nagusitzat aditzak erakusten duen gertaera hartuta. Aditzak adierazitako gertaera (kasu honetan, ‘sartzea’) modifikatzaileak agertzen duen jarduera errepikakorarekin (‘saltoak eginez’) gainjartzen denean, egokia da *saltoka sartu* adierazpena. Hartara, aditzen ganean eraikitako -KA modifikatzaileek bigarren mailako gertaera bat gaineratzen dute, denboran gertaera nagusiarekin gainjartzen dena.

Funtzio hori bera betetzen dute MODSren eremuko adierazle jokatzen duten beste morfema batzuek ere, -an eta -z morfemek: *saltatzen sartu*, *saltatuz sartu*. Biok, ordea, aditz-formak hartzen dituzte oinarri: *saltatze* aditz-izena edo *saltatu* partizipioa. Kasu horietan, gainera, aditzaren denotazioa anbigua da, azpigertaeren errepikapenari dagokionez. *Saltatuz sartu*, salto bat edo gehiago eginez sartzea da. Aldiz, *saltoka sartu*, ezinbestean salto bat baino gehiago eginez sartzea da. Hala, berretsi egiten da, -KA morfemak beti pluraltasunaren denotazioa edo denotazio metagarria gehitzen duela.

Azkenik, bada azken kasu esanguratsu bat analisi honen alde egiten duena. -KA atzizkia duten modifikatzaileen artean, askok «esapide» bat dute oinarrian (*utterance*, De Rijk 2008: 916; Salaburu eta beste 2011-2019; Fernández-Altonaga 2022b: 98): *gora-goraka*, *aieneka*, *badagoka*. Horien interpretazioak beti dakar gertaera-pluraltasuna:

(51) X-KA: ‘X behin eta berriro esanez’.

Hor ere, beraz, -KA morfemak iteratibotasuna adierazteko funtzioa du. Alabaina, gertaera bera inplizitua da (*esatea*) eta bakoitzak duen mundu-*ezagutzaren* bitartez interpretatu behar da (hiztunak baitaki *aiene* edo *gora-gora* bezalakoak erabiltzen diren esamoldeak direla). Bestalde, gertaera iteratiboari modifikatzaile-funtzioa ematen dion morfema isila dela ekarri

nahi dugu hona, adierazpen fonologikorik gabea, alegia, MOD deritzoguna. Beste gertaerak bezala, horiek ere modifikatzaile gisa interpretatzen dira, *-K*Arekin batera aditz nagusia lagunduz agertzen direnean, ageriko morfemen beharrik gabe. Beraz, testuinguru horretan ere, MOD isila ontzat har daitekeela ematen du.

## 9. Ondorioak

Lan honetan, *-K*Aren izaera arakatu dugu kuantifikatzaileen eta multzo izenen, gertaera predikatuen, adposizioen eta modifikatzaileen eremuan. Hauxe proposatu dugu: *-K*Ak [+ plural] tasuna gaineratzen diola bere osagarriari eta, ondorioz, adierazpen sintaktikoa metagarri (Krifka 1998; Zwarts 2005, 2008; Rothstein 2004, 2007, 2008) bihurtzen dela. Kuantifikatzaileen eta kuantifikatzaileen gainean eraikitzen diren modifikatzaileetan lortzen den balioa plurala da; aditzetan eta gertaera bat adierazten duten oinarrien gainean eraikitzen diren modifikatzaileena, gertaera barruko plurakzionala; eta, azkenik, adposizioetan, amaierarik gabeko hurbiltze-bidearena. Bestetik, *-K*Ak bere osagarriari baldintza batzuk ezartzen dizkio: *-K*Ak gertaera edo bide batekin bat egiteko, gertaerak edo bideak konektagarria izan behar du, Zwartsek (2008) azaldutako zentzuan. Hala, denotazio bereko beste gertaera edo bide batekin katea daiteke eta adiera metagarria lortu.

Egin dugun proposamenaren arabera, *-K*Ak ez dio hartzen duen osagarriari gramatika-kategoriarik ezartzen. Modifikatzaileen kasuan, MOD buru isil batek bihurtzen du adierazpen sintaktikoa modifikatzaile, Fernández-Altonagari (2022a) jarraituz.

Lan honek *-K*Aren izaera modu bateratuan aztertu du eta, horrela, aditzen, kuantifikatzaileen eta adposizioen arteko parekotasunak, egon, badi-rela erakutsi digu. Izan ere, *-K*Ak egiten duen ekarpen semantikoa bertsua baita hiru eremuotan.

## Bibliografia

ALEXIADOU, Artemis (2011). «Plural mass nouns and the morpho-syntax of number», in *Proceedings of the 28th West Coast Conference on Formal Linguistics*. Somerville, MA: Cascadilla Proceedings Project: 33-41.

ARTIAGOITIA, Xabier (2002). «The functional structure of Basque noun phrase», in *Erramu Boneta: Festschrift for Rudolf P.G. De Rijk*, ASJUren Gehigarriak bilduma, 44. zenbakia. Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU: 73-90.

——— (2004). «Izen-sintagmaren berziklatzea: IS-tik izenaren inguruko funtzio-buruetera», in *Euskal gramatika XXI mendearen atarian. Arazo zaharrak, azterbi-de berriak*. Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU eta Arabako Foru Aldundia: 11-38.

——— (2006). «Basque adjectives and the functional structure of the noun phrase», ASJU 40 (1), 2006: 107-132.

Eskuragarri: [DOI: <https://doi.org/10.1387/asju.4376>].

——— (2012). «The DP Hypothesis in the grammar of Basque», in *Noun Phrases and nominalization in Basque. Syntax and semantics*. Amsterdam, Philadelphia: John Benjamins: 22-77.

Eskuragarri: [DOI: <https://doi.org/10.1075/la.187>].

BARANDIARAN, Alberto (2005). *Mundu txikia*. Zarautz: Susa.

BERRO, Ane (2015a). «From adpositions to events: the case of location predicates in Basque», in *Approaches to Complex Predicates*. Leiden, Boston: Brill: 20-45. Eskuragarri: [DOI: [https://doi.org/10.1163/9789004307094\\_003](https://doi.org/10.1163/9789004307094_003)].

——— (2015b). *Breaking verbs. From event structure to syntactic categories in Basque*. [Doktorego-tesia, UPV/EHU eta Université Bordeaux Montaigne].

BILBAO, Kristina (2022). «Instrumentalaren eta inesiboaren alternantzia denborazko modifikatzaileetan: instrumentala (-z) [v inesiboa (-n)]», in *Euskara Bariazioan / Basque in Variation. Lehen urratsak / First steps*. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. (3. argitalpena).

Eskuragarri: [<https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=5&e=34&h=eu>].

CABREDO HOFHERR, Patricia (2010). *Verbal plurality and event plurality*. DGFS-CNRS Summer School on Linguistic Typology, Leipzig, 15/08-03/09. (Hitzaldi-oharrak).

CANO, Harkaitz (2000). *Piano gainean gosaltzen*. Donostia: Erein.

COMRIE, Bernard (1976). *Aspect. An Introduction to the study of verbal aspect and related problems*. Cambridge: CUP.

COWELL, Mark W. (1964). *A Reference Grammar of Syrian Arabic*. Washington D.C.: Georgetown University Press.

CUSIC, David (1981). *Verbal plurality and aspect*. [Doktorego-tesia, Stanford University].

DELFITTO, Denis (2006). «Adverb classes and adverb placement», in *The Blackwell companion to syntax*. Oxford: Blackwell Publishing: 83-120.  
Eskuragarri: [DOI: <https://doi.org/10.1002/9780470996591.ch4>].

DEN DIKKEN, Marcel (2010). «On the functional structure of locatives and directional PPs», in *Mapping spatial PPs. The Cartography of Syntactic Structures*, 6. liburukia. New York: OUP: 74-126.  
Eskuragarri: [DOI: <https://doi.org/10.1093/acprof:oso/9780195393675.003.0003>].

DOWTY, David (1979). *Word meaning and Montague grammar*. Dordrecht: Kluwer.  
Eskuragarri: [DOI: <https://doi.org/10.1007/978-94-009-9473-7>].

DRESSLER, Wolfgang (1968). *Studien zur verbalen Pluralität*. Viena: Herman Böhlau.

EUSKALTZAINDIA (1985 [1991]). *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak (EGLU-I)*. Bilbo: Euskaltzaindia.

——— (2021). *Euskararen gramatika*. Bilbo: Euskaltzaindia.

ETXEBERRI, Ramuntxo (2004). *Skyroom*. Donostia: Elkarlanean.

ETXEBERRIA, Jürgen (2021). «Euskal leku adposizioak: buru sintaktikoen egituraketa hierarkikoa», *Lapurdum: Euskal Ikerketen Aldizkaria* 22, 2021: 1-31.  
Eskuragarri: [DOI: <https://doi.org/10.4000/lapurdum.3960>].

——— (2023). «Euskarazko adposizioetan barna, aldakortasuna sailkatzeko proposamen berri bat», in V. IkerGazte. *Nazioarteko ikerketa euskaraz. Kongresuko artikulu-bilduma. Gizarte Zientziak eta Arteak*. Bilbo: UEUren Argitalpen Zerbitzua: 121-128.

ETXEBERRIA, Urtzi (2005). *Quantification and domain restriction in Basque*. [Doktorego-tesia, UPV/EHU].

——— (2012). «Quantification in Basque», in *Handbook of Quantifiers in Natural Languages*. Amsterdam: Springer: 83-164.

Eskuragarri: [DOI: [https://doi.org/10.1007/978-94-007-2681-9\\_3](https://doi.org/10.1007/978-94-007-2681-9_3)].

——— (2012). «Number agreement in Basque: counting vs. measuring», in *Noun Phrase and Nominalizations in Basque*. Amsterdam, Philadelphia: John Benjamins: 149-178.

——— eta ETXEPARE, Ricardo (2008). «Izen eta gertakarien gaineko kuantifikazioa», in *Gramatika jaietan. Patxi Goenagaren omenez*, ASJUren Gehigarriak bilduma, 51. zenbakia. Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU: 259-286.

Eskuragarri: [DOI: <https://doi.org/10.1387/asju.9789>].

ETXEPARE, Ricardo (2003). «Valency and Argument Structure in the Verb», in *A grammar of Basque*. Berlin: De Gruyter Mouton: 369-465.

Eskuragarri: [DOI: <https://doi.org/10.1515/9783110895285.363>].

——— ets OIHARTZABAL, Beñat (2012). «Datives and Adpositions in North-Eastern Basque», in *Variation in Datives. A Micro-Comparative Perspective*. Oxford: OUP: 50-95.

Eskuragarri: [DOI: <https://doi.org/10.1093/acprof:oso/9780199937363.003.0003>].

FERNÁNDEZ-ALTONAGA, Cecilia (2022a). *Searching for adverbs. A look into the nature of adverbial modifiers from Basque manner adverbials*. [Master Amaierako Lana, UPV/EHU].

——— (2022b). «Adberbioak euskaraz: hitz mota bakarra ala gehiago?», *Uztaro: Giza eta Gizarte-Zientzien Aldizkaria* 123, 2022: 81-107.

Eskuragarri: [DOI: <https://dx.doi.org/10.26876/uztaro.123.2022.5>].

GARRETT, Andrew (2001). *The origin of the Latin frequentative*. Berkeley: University of California. (Eskuzkribua).

GOENAGA, Patxi (2022). *Euskal gramatika. Egiturak eta osagaiak*. Bilbo: UPV/EHU-ko Argitalpen Zerbitzua.

Eskuragarri: [<https://egeo.ehu.eus/>].

HALLE, Morris eta MARANTZ, Alex (1993). «Distributed morphology and the pieces of inflection», in *The View From Building 20. Essays in linguistics in honor of Sylvan Bromberger*. Cambridge, MA: MIT Press: 111-176.



——— (1994). «Some key features of distributed morphology», in *Papers on phonology and morphology. Mit Working Papers Linguistics*: MITWPL 21. Cambridge, MA: MITWPL: 275-288.

HARLEY, Heidi eta NOYER, Rolf (1999). «State-of-the-art-article: distributed morphology», *The Second Glot International State-of-the-Article Book 4* (4), 1999: 3-9.

HAY, Jennifer, KENNEDY, Christopher eta LEVIN, Beth (1999). «Scalar structure underlies telicity in degree achievements», in *Proceedings of SALT 9*, 1999: 127-144. Eskuragarri: [DOI: <https://doi.org/10.3765/salt.v9i0.2833>].

HUALDE, Jose Ignacio (2003). «Adverbs», in *A grammar of Basque*. Berlin: De Gruyter Mouton: 196-201. Eskuragarri: [DOI: <https://doi.org/10.1515/9783110895285.190>].

——— eta ORTIZ DE URBINA, Jon (2003). *A grammar of Basque*. Berlin: De Gruyter Mouton. Eskuragarri: [DOI: <https://doi.org/10.1515/9783110895285.328>].

IORDACHIOAIA, Gianina Nicoleta eta SOARE, Elena (2015). «Pluractionality with lexically cumulative verbs: the supine nominalization in Romanian», *Natural Language Semantics* 23, 2015: 307-352. Eskuragarri: [DOI: <https://doi.org/10.1007/s11050-015-9117-9>].

JACOBSON, Steven A. (1984). *Yup'ik Eskimo Dictionary*. Fairbanks: Alaska Native Language Center.

KENNEDY, Christopher eta McNALLY, Louise (1999). «From Event Structure to Scale Structure: Degree Modification in Deverbal Adjectives», *Proceedings of SALT 9*, 1999: 163-180. Eskuragarri: [DOI: <https://doi.org/10.3765/salt.v9i0.2820>].

——— (2005). «Scale Structure, Degree Modification, and the Semantics of Gradable Predicates», *Language* 81, 2005: 345-381. Eskuragarri: [DOI: <https://doi.org/10.1353/lan.2005.0071>].

KIMBALL, Geoffrey D. (1991). *Koasati Grammar*. Lincoln, London: University of Nebraska Press-American Indian Studies Research Institute.

KOOPMAN, Hilda (2000). «Prepositions, postpositions, circumpositions and particles», in *The syntax of specifiers and heads*. London: Routledge: 204-260.

KRIFKA, Manfred (1989). «Nominal reference, temporal constitution and quantification in event semantics», in *Semantics and Contextual Expressions*. Dordrecht: Foris: 75-115.

Eskuragarri: [DOI: <https://doi.org/10.1515/9783110877335-005>].

——— (1998). «The origins of telicity», in *Events and Grammar*. Dordrecht: Kluwer: 197-235.

Eskuragarri: [DOI: [https://doi.org/10.1007/978-94-011-3969-4\\_9](https://doi.org/10.1007/978-94-011-3969-4_9)].

LACA, Brenda (2006). «Indefinites, quantifiers and pluractionals: what scope effects tell us about event pluralities», in *Nondefiniteness and plurality*. Amsterdam: John Benjamins: 191-217.

Eskuragarri: [DOI: <https://doi.org/10.1075/la.95.10lac>].

LASERSOHN, Peter (1995). *Plurality, Conjunction and Events*. Dordrecht: Kluwer. Eskuragarri: [DOI: <https://doi.org/10.1007/978-94-015-8581-1>].

MARATZ, Alec (1997). «No escape from syntax: don't try morphological analysis in the privacy of your own lexicon», *University of Pennsylvania Working Papers in Linguistics* 4 (2), 1997: 201-225.

MATUSHANSKY, Ora eta MARATZ, Alex (2013). *Distributed morphology today. Morphemes for Morris Halle*. Cambridge, MA: MIT Press.

ORTIZ DE URBINA, Jon (2003). «Periphrastic constructions», in *A grammar of Basque*. Berlin: De Gruyter Mouton: 285-290.

Eskuragarri: [DOI: <https://doi.org/10.1515/9783110895285.195>].

PANTCHEVA, Marina Blagoeva (2011). *Decomposing Path. The Nanosyntax of Directional Expressions*. [Doktorego-tesia, University of Tromsø (CASTL)].

PREMINGER, Omer (2012). «The absence of an implicit object in unergatives: new and old evidence from Basque», *Lingua* 122 (3), 2012: 278-288.

Eskuragarri: [DOI: <https://doi.org/10.1016/j.lingua.2011.04.007>].

QUINE, Willard van Orman (1960 [2013]). *Word and Object*. Cambridge, MA: MIT Press.

Eskuragarri: [DOI: <https://doi.org/10.7551/mitpress/9636.001.0001>].

RIJK DE, Rudolf P.G. (2008). *Standard Basque. A Progressive Grammar*. Cambridge, London: MIT Press.

Eskuragarri: [DOI: <https://doi.org/10.7551/mitpress/7444.001.0001>].

ROBINS, Robert H. (1985). *The Yurok Language. Grammars, texts, lexicon*, University of California Publications in Linguistics bilduma, 15. liburukia. Berkley, Los Angeles: University of California Press.

ROTHSTEIN, Susan (2004). *Structuring events. A study in the semantics of lexical aspect*. Oxford: Blackwell.

Eskuragarri: [DOI: <https://doi.org/10.1002/9780470759127>].

——— (2007). «Two puzzles for a theory of lexical aspect: semelfactives and degree achievements», in *Event Structures in Linguistic Form and Interpretation*, Language, Context and Cognition bilduma, 5. liburukia. Berlin: De Gruyter Mouton: 175-198. Eskuragarri: [DOI: <https://doi.org/10.1515/9783110925449.175>].

——— (2008). «Telicity, atomicity and the Vendler classification of verbs», in *Theoretical and cross-linguistic approaches to the semantics of aspect*. Amsterdam, Philadelphia: John Benjamins: 43-77.

Eskuragarri: [DOI: <https://doi.org/10.1075/la.110.04rot>].

RUBIN, Edward (1994). *Modification. A Syntactic Analysis and its Consequences*. [Doktorego-tesia, Cornell University (Ithaca, NY)].

SALABURU, Pello, GOENAGA, Patxi eta SARASOLA, Ibon (2011-2019). *Sareko Euskal Gramatika*. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. Eskuragarri: [[www.ehu.eus/seg](http://www.ehu.eus/seg)].

SARASOLA, Ibon (2008-2023). *Egungo euskararen hiztegia*. Bilbo: Euskara Institutua-UPV/EHU.

Eskuragarri: [<https://www.ehu.eus/eeh/>].

SVENONIUS, Peter (2006). «The Emergence of Axial Parts», *Special issue on adpositions. Nordlyd: Tromsø University Working Papers on Language and Linguistics* 33 (1), 2006: 49-77.

Eskuragarri: [DOI: <https://doi.org/10.7557/12.85>].

——— (2008). «Spatial P in English», in *Mapping spatial PPs. The Cartography of Syntactic Structures*, 6. liburukia. New York: OUP: 127-160.

Eskuragarri: [DOI: <https://doi.org/10.1093/acprof:oso/9780195393675.003.0004>].

TALMY, Leonard (2000). *Toward a cognitive semantics, 1. liburukia: Concept Structuring Systems*. Cambridge, MA: MIT Press.

Eskuragarri: [DOI: <https://doi.org/10.7551/mitpress/6847.001.0001>].

TOVENA, Lucia M. eta KIHM, Alain (2008). «Event internal pluractional verbs in some Romance languages», *Recherches linguistique de Vincennes* 37, 2008: 9-30. Eskuragarri: [DOI: <https://doi.org/10.4000/rlv.1687>].

VAN GEENHOVEN, Veerle (2004). «For-adverbials, frequentative aspect, and pluractionality», *Natural Language Semantics* 12 (2), 2004: 135-190. Eskuragarri: [DOI: <https://doi.org/10.1023/B:NALS.0000031389.36427.af>].

——— (2005). «Atelicity, pluractionality, and adverbial quantification», in *Perspectives on Aspect*. Berlin: Springer: 107-124. Eskuragarri: [DOI: [https://doi.org/10.1007/1-4020-3232-3\\_6](https://doi.org/10.1007/1-4020-3232-3_6)].

VENDLER, Zeno (1967). «Verbs and times», in *Linguistics in philosophy*. Ithaca, NY: Cornell University Press: 97-121. Eskuragarri: [DOI: <https://doi.org/10.7591/9781501743726>].

WOOD, Esther (2007). *The semantic typology of pluractionality*. [Doktorego-tesia, University of California (Berkeley)].

ZUAZO, Koldo (2008). *Euskalkiak. Euskararen dialektoak*. Donostia: Elkar.

——— (2017). *Mendebaleko euskara*. Donostia: Elkar.

ZWARTS, Joost (2005). «Prepositional Aspect and the Algebra of Paths», *Linguistics and Philosophy* 28, 2005: 739-779. Eskuragarri: [DOI: <https://doi.org/10.1007/s10988-005-2466-y>].

——— (2008). «Aspects of a typology of direction», in *Theoretical and cross-linguistic approaches to the semantics of aspect*. Amsterdam, Philadelphia: John Benjamins: 79-105. Eskuragarri: [DOI: <https://doi.org/10.1075/la.110.05zwa>].



# Urtaroak: ikuspegi etnolinguistikoa

Las estaciones del año: punto de vista etnolingüístico

Les saisons: une vision ethnolinguistique

Seasons: an ethnolinguistic perspective

DIÉGUEZ BARAHONA, Kepa

Ikertzaile beregaina

kepa.diegez@gmail.com

DOI: <https://doi.org/10.59866/eia.v69i2.287>

Noiz jaso: 2024-02-04

Noiz onartuta: 2024-04-05

Urtaroen izendapenek beti eman izan dute zeresan handia hizkuntzalari eta bestelako ikertzaileen artean. Euskal kulturaren hain kontu errotua izanda, jende askok plazaratu izan du bere iritzia era batera edo bestera. Gai honi behar bezalako egituraketa ematekotan, egileak metodologia etnolinguistikoz baliatzea proposatzen du, hau da, lexikoaren eta kulturaren arteko ezinbesteko zubi-adarra azaleratzea. Horretarako, nozio orokorretan oinarrituriko sailkapena du ikerlan honek gidari.

**Gako-hitzak:** urtaroak, etnolinguistika, kultura, lexikoa, egutegia, nozio orokorrak eta espezifikokoak.

Las denominaciones estacionales siempre han dado mucho que hablar entre lingüistas y demás investigadores. Es una cuestión tan arraigada en la cultura vasca, que mucha gente ha expresado su opinión de un modo u otro. Con la intención de dar a este tema una adecuada estructuración, el autor propone utilizar una metodología etnolingüística, es decir, hacer aflorar el imprescindible nexo de unión entre léxico y cultura. Para ello, este estudio se guía por una clasificación basada en nociones generales.

**Palabras clave:** estaciones, etnolingüística, cultura, léxico, calendario, nociones generales y específicas.

Les dénominations saisonnières ont toujours joué un rôle important entre le linguiste et d'autres chercheurs. Si profondément enracinées dans la culture basque, beaucoup de gens ont exprimé leur opinion d'une manière ou d'une autre. Afin de donner à ce sujet une structuration adéquate, l'auteur propose d'utiliser la méthodologie ethnolinguistique, c'est-à-dire de faire émerger le lien indispensable entre le lexique et la culture. Pour ce faire, cette étude est guidée par une classification fondée sur des notions générales.

**Mots-clés** : saisons, ethnolinguistique, culture, lexique, calendrier, notions générales et spécifiques.

The names of the seasons have always given a great deal of importance to linguists and other scholars. So deeply rooted in Basque culture, many people have expressed their views in one way or another. In order to give a proper structure to this subject, the author proposes to use ethnolinguistic methodology, that is, to bring out the indispensable bridge between lexicon and culture. To this end, this study is guided by a classification based on general notions.

**Keywords**: seasons, ethnolinguistics, culture, lexicon, calendar, general and specific notions.

DIÉGUEZ BARAHONA, Kepa (2024). «Seasons: an ethnolinguistic perspective», *Euskera Ikerketa Aldizkaria*, 69, 2: 93-122.

## 1. Sarrera

«Etnolinguistika» hitza inoiz gutxitan azaldu izan da azken urteotako hizkuntzalaritzaren ikerlanetan. Euskarazkoetan, 2012. urtekoa da azken aipamena, Jose Maria Etxebarriak idatzitakoa (Etxebarria 2012): «Etnolinguistika: izen berria, eduki zaharra». Artikulu horretan Etxebarriak «etnolinguistika» hitzaren beraren nondik norakoa azaltzeaz gain, jakintza-aren historiaren laburpen txiki bat egin zuen. Harrezkero inork ere ez du berriz ere erabili «etnolinguistika» hitza izen gisa euskaraz, bai, ordea, ize-nondo gisa; adibidez, *bizindar etnolinguistikoa*, *bizitasun etnolinguistikoa*, *Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa* edo *identitate etnolinguistikoa*. Gaur egun, oraindik ere, Euskal Herrian soziolinguistikaren adartzat jo ohi da zenbait adituren arabera. Esaterako, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikaren webgunean<sup>1</sup> etnolinguistika da, «idazkerarik gabeko herrien edo taldeen hizkuntza, eta herri horien hizkuntza, kultura eta gizartearen arteko harremanak aztertzen dituen soziolinguistikaren alorra»; zaharki-zaharki eginda dago definizio hori, ez baitu gaur egungo etnolinguistikaren ildo nagusia aintzakotzat hartzen. Euskara-hiztegitan ere definizio bertsua ageri da: «Hizkuntza baten eta hizkuntza horretaz mintzatzen direnen kulturaren arteko harremanak aztertzen dituen soziolinguistikaren adarra» (*Harluxet Hiztegi Entziklopedikoa*).<sup>2</sup> Definizio horretan osagaririk garrantzitsuenak azaleratzen badira ere —«hizkuntza» eta «kultura»—, etnolinguistikak behar besteko garrantzia dauka diziplina bakartzat hartzeko, eta ez beste baten mende egoteko. Adierazi eta adierazle gailenak dauzka bere baitan esparru espezializatutzat jo ahal izateko, kulturak eta hizkuntzak bat egiten duten jakintza-arlo horretan.

Ezin uka daiteke hizkuntzaren eta kulturaren uztardura agerikoa dela, begi-bistakoa. Garai honetara ezkerro, inork ere ez du hori kolokan jartzen. Aditu guztiek onesten dute ez dagoela kulturarik gabeko hizkuntzarik, eta ez dagoela hizkuntzarik gabeko kulturarik. Elkarren beharrean daude bizirik

<sup>1</sup> [https://www.euskara.euskadi.eus/r59-738/eu/contenidos/termino/\\_c02028/eu\\_e\\_4190/e4190.html](https://www.euskara.euskadi.eus/r59-738/eu/contenidos/termino/_c02028/eu_e_4190/e4190.html).

<sup>2</sup> <http://www1.euskadi.net/harluxet/>.



irauteko. Hala ere, esparru biok txirikordatzen dituzten ikergaiak oraindik ere ez daude toki bakar batean bildurik, baizik eta beste jakintza batzuetan sakabanaturik, han-hemenka: antropologian, etnografian, soziologian, semantikan, hizkuntzaren filosofian... Bestalde, beste hizkuntza-zientzia batzuen «senide behartsutzat» jo daiteke etnolinguistika, bereziki, aipatu bezala, soziolinguistikarena; izan ere, etnolinguistikaren garapena hutsaren hurrengoa izan da, motel-motela eta geldoa, hizkuntzen izaera soziologikoa aztertu eta ikertu duen ildo zientifikoaren aldean. Beharbada, «etno-» aurrikiak irudipen okerrak sorrarazi dizkie hainbat adituri, eta nahiago izan dute beren lanak soziolinguistikaren bidetik aurrera eraman.

Guziarekin ere, ikerlanetan, etnolinguistika soziolinguistikaz edo antropologia linguistikoz at definitzeko saiakerak, joan den mendeko Coseriu-ren (1981) lanetara eta Casado Velarden (1991) obran izan zuen garapenera mugatuta daude. Funtsezko horietaz gain, mende honen hasieran aipagarriak dira, halaber, honako lan hauek: *Etnolinguística* (Morant Marco eta Díaz Rojo 2005) eta *Llenguatge i cultura* (Morant Marco 1996); nahiz eta biek ere diziplinaren aztergaiak deskribatu besterik ez zuten egin, adibide eta gogoeta interesgarriekin, baina definizioaren arazo epistemologikoei heldu gabe (hori esplizituki esanda jaso da Morant Marco, 2005: 125 lanean). Etnolinguistikaren nondik norakoari aurre eginez, beste proposamen batzuek, aurreko mendean, antropologia linguistikoarekin parekatu zutela esan behar dugu, hala nola Cardonak (1976) eta Fernández Guizzettik (1957); azken hauek hizkuntzalaritzaren eta etnolinguistikaren arteko parekatzea planteatu zuten (esan bezala, antropologia linguistikokoaren zentzuan ulertuta). Antropologia linguistikokoaren eta etnolinguistikokoaren arteko berdintze hori etengabea da eremu anglosaxoian eta harekin lotutako lanetan, eta parekatze hori agerikoa da Garvin eta Lastra de Suárezen (1974) bilduman ere, adibide adierazgarri batzuk baino ez erakutsiagatik; izan ere, *Antología de estudios de etnolingüística y sociolingüística* izenburua izan arren, «Etnolingüística» atalean, «antropología» izeneko terminoak bilduta daude funtsean. Azkenik, Pottierren (1970) tratamendua aipa daiteke, zeinak etnolinguistikari taxonomia lexiko eta gramatikalen deskribapena egotzi zion, kultura bakoitzak errealtateari buruz duen ikuskera islatzen baitu, baina baita beste azterketa-

-eremu batzuk ere, hizkuntzalaritza deskribatzailearen zurruntasunetik ihes egiten duen komunikazio-fenomeno ororekiko interesa duen diziplina bihurtzen dutenak, haren arabera «bereizgarriaz» bakarrik arduratua (Martín Camacho 2016: 183).

Martín Camachok etnolinguistikaren ikergai guzti-guztiak aipatu eta garatu egin zituen artikulu gogoangarri horretan. Azken urteotan etnolinguistikaren aldeko aldarrikapen behinena dugu, ezbairik gabe: gramatikaren ikerketa etnolinguistikoa, fonologiaren ikerketa etnolinguistikoa, diskurtsoaren ikerketa etnolinguistikoa, lexikoaren ikerketa etnolinguistikoa eta hizkuntzaren beste alderdi batzuen ikerketa etnolinguistikoa. Biziki erakargarria da lexikoaren ikerketaren aldeko aldarrikapena: «El léxico —entendido como el repertorio constituido tanto por las palabras como por las unidades que conforman lo que Coseriu (1977: 113-118) denominó discurso repetido— es sin duda el ámbito lingüístico donde más directamente se observa la repercusión de la cultura, de ahí que sean muchos los aspectos concretos en los que se puede constatar y, por ende, analizar esa influencia» (Martín Camacho 2016: 198).

Martín Camachoren iritziz, etnolinguistika eta antropologia linguistikoa ez dira berdinak; abiapuntu desberdina daukate: antropologia linguistikoak egintza antropologikoak ikertzea du helburu, ta etnolinguistikak, ostera, egintza linguistikoak. Badirudi begi-bistakoa dela, baina ez omen dago beti kontua hain garbi: antropologia linguistikoaz baliatzen da kultur ekintzak ikertzeko, eta etnolinguistikak kulturaren bitartez ondorio linguistikoetara heltzea du xede.

Beraz:

Antropologia linguistikoa → antropologia + linguistika = egintza antropologikoak.  
 Etnolinguistika → linguistika + antropologia = ondorio linguistikoak.

Ikuspegi etnolinguistikoaren arabera —hots, kulturaren eta hizkuntzaren zubi-lana egiten duen jakintza baztertu samartuaren arabera—, ondoko ikergai hauek azaltzen dira bere baitan:

- a) Lehenik, lexikoa ezinbestez ingurunearen arabera eratzen dela aldarrikatzen du.
- b) Bigarrenik, bereizketa semantiko ugari azaltzen da lexikoan, eta ez da hori kasualitate hutsa.
- c) Hirugarrenik, kultura bilakatuz doan heinean, lexikoa ere bilakatuz doa halaberharrez, elkarrekin estu-estu loturik baitaude.
- d) Laugarrenik, ikerketa etnolinguistikoak aditzera ematen du, lexikoa komunitate baten mundu-ikuskeraren isla dela.
- e) Bosgarrenik, hitzen etimologia ikertzeak antzinako kultur egintzak argitara eman ditzake, hala, erabilgarriak izan litezke behialako gizarteentzako ezaupideak izateko; hitzek «hitz egiten» dute.
- f) Seigarrenik, maileguak aztertzearekin batera, gizarteak erabili eta ezartzen dituen kulturarteko ezagutza-iturriak ere azal ditzake (Martín Camacho 2016: 201).

Martín Camachoren lekuko interesgarria oinarri harturik, artikulua honetan, DENBORA esparru etnometeorologikoaren barruan, urtaroen lexikoa aztertu da, kulturaren bitartez ondorio linguistikoetara iristeko. Horretarako, *Euskal lexiko etnometeorologikoaren azterketa* deritzon tesiaren ildo eta azterbide bera erabiliko da (Diéguez 2021). Ikergaiaren esparrua egoki zedarrizteko asmoz, lehenengo eta behin zer ote den etnometeorologia atzeman nahi eta, jo dezagun Murdocken definiziora muga zehatzez jabetzeko:

ETHNO-METEOROLOGY: Ideas about night and day, dawn and twilight, rising and setting of the sun, phases of the moon, eclipses, solstices and equinoxes, and the succession of seasons; notions about heavenly bodies (e. g., *sun, moon, stars, constellations planets, comets, meteorites*); ideas about meteorological phenomena (e. g., *clouds and fog, frosts and drought, rain and snow, ice, hail and sleet, winds and whirlwinds, storms, thunder and lightning, rainbow, perihelion and aurora*); associated behavior patterns (e. g., *greeting the dawn, dispelling an eclipse*).

(Murdock eta beste 1987: 187)

Nabarienez, oso eremu zabala hartzen du bere gain etnometeorologiak. Artikulu honen egileak fenomeno atmosferikoen izendapenak aztertu zi-

tuen bere tesian, Murdocken definizioaren bigarren esparrua, alegia: «Euskal lexiko etnometeorologikoaren azterketa» (Diéguez 2021). Oraingoan, definizioaren lehenengo esparruari helduko dio, denborari hain zuzen ere; eta horren barruan, azterlan honetan, urtaroak jorratuko ditu.<sup>3</sup> Gainerako alorrek beste ikerlan bat merezi dute (ortzia, esaterako, geroan landu behar-ko da; aztertzeke dago).

Nahiz eta denboraren esparrua biziki zabala eta oparoa den, azpiero bereizgarrietariko bat kontuan hartu da eginkizun honetarako: urtaroak (hilabeteak ere arrunt bereziak dira, baina ez daukate azterlan honetan to-kirik). Izan ere, bi horiexek dira hitzunek eguraldiaren inguruan irudikatzen duten ikuskerarekin lotura handiena daukatenak. Halandaze, zenbaitetan eremu honetan zeharka aipatuak badira ere, honako kontzeptu hauek ez dira artikulu honetan aztertuko: astegunak eta egunaren gaineko denbora-erreferentziak —*gaur, bihar, eguerdia, bart* eta abar—.

Aztertzekeoa den lehendabiziko azpiero, horrenbestez, *urtaroak* da, *negua, udaberria, uda* eta *udazkena*, alegia.

Behin esparrua zedarriturik, metodologia batez baliatu behar da hitzak sailkatzeko. Horretarako oso baliagarria da Wilkinsek proposaturiko hura: edozein hizkuntzatan sei nozio edo kontzeptu nagusi daude, eta nozio edo kontzeptu espezifikoak (hitzak) horien arabera multzokaturik daude (Wilkins 1976: 25-54). Hori dela eta, eremu bateko hitz guztiak (nozio espezifikoak), nozio orokorretan sailkatzeko modua dago —«nozio etnosemanti-koak» baliokidetzat hartuko da ikerlan honetan—. Beraz, Wilkinsen teoriak ahalbideratuko du berba guztiak zerrendatu eta sailkatzea. Hona hemen, bada, edozein hizkuntzaren lexikoa sailkatzeko sei nozio orokorrok: IZAKIAK, KANTITATEA, KALITATEA, JARDUERA, DENBORA eta ESPAZIOA (Wilkins 1976). Nozio orokor bakoitzaren barruan nozio espezifikoak (hitzak) pila-tzeko, ardatz-kontzeptu batzuk erabiltzen dira. Hurrengo taulak erakusten digu zeintzuk diren:

<sup>3</sup> Hurrengo saio batean hilabeteak aztertuko dira.

### 1. Taula. Nozio orokorrak eta kontzeptuak

Izakiak	Kantitatea	Kalitatea	Jarduera	Denbora	Espazioa
EXISTENTZIA	KOPURU	KALITATEEN	PARTE	UNEA	POSIZIOA
JABETASUNA	ABSOLUTUA	NEURKETA	HARTZEA	SEKUENTZIA	HIGIDURA
IDENTITATEA	KOPURU	KALITATE	MODUA		KOKAMENDU
IZAKI ETA	ERLATIBOA	KONKRETUA	JARDUERA		ERLATIBOA
FENOMENO			ZEHATZAK		TOKI
KONKRETUAK					GEOGRAFIKOA

### 2. Urtaroak

Urtaroen sinbolismoari dagokionez, kulturarekin uztarturik dagoela esan behar dugu berriz ere, hertsiki egon ere. Juan Eduardo Cirlotek honako hau dio:

Urtaroak eguzki-ibilbidearen lau faseak dira eta, beraz, ilargiaren eta giza bizitzaren adinekin bat datoz. Grekoek lau emakume irudikatzen zituzten: lehena, lore-koroarekin eta kimuak botatzen ari den zuhaixka baten ondoan; uda, galburu-koroarekin, esku batean sorta bat eta bestean igitia zeramatzala; udazkenak mahats-sortak eta fruta-otarre bat ditu; negua, burua estali gabe eta historik gabeko zuhaitzen ondoan. Animalien irudiekin ere irudikatu dira: udaberria, aharia; uda, herensugea; udazkena, erbia; eta negua, arrabioa.

(Cirlot 1988: 197) (*Egileak itzulia*)

Sinbolismoz gain, urtaroak banatzeak kalendario edo egutegia eratzea ekarri zuen: *calendas* erromatarren kalendarioko hilabeteen lehenengo egunak ziren. Izena hortixe datorkio, hain zuzen ere. Egunak antolatzeko sistema bat sortu beharra zegoen, eta egutegia asmatu zen: helburu praktikoak zituen, erlijio, merkataritza eta administrazioari lotuak. Hori erdiesteko, denbora-tarteak mugarrizten hasi ziren, eta, oro har, egun, aste, hilabete, urtaroak eta urteak zehaztu zituzten. Egutegiek zenbaitetan fenomeno astronomikoekin bat egiten dute; adibidez, eguzkiaren edo ilargiaren zikloekin, baina ez beti. Egipto Zaharrean hiru urtaro bereizten ziren: uholde-, ereintza- eta uzta-garaiak. Nilo ibaiak berebiziko garrantzia du banatze horretan. Beste herri batzuek, aldiz, berezko egutegi bat atondu dute, sarritan

beste egutegi batetik eratorria dena, baina beren beharrizanetara moldatua, jakina. Egun egutegi gregorianoa (eguzki-egutegia) dugu zabalduen munduan: egun bakoitzari zenbaki bat ematen zaio, eta taula gisa antolatuta dago.

Antzinakoak ohartu ziren, eguzkiaren eta ilargiaren nondik norakoak direla berezko gertaera errepikakor nabarmen eta begi-bistakoenak denborari tamaina hartzeko; hortaz, mundu osoko gizarte aurre-modernoetan, ilargialdiak eta urtea erabili izan dira denbora-unitatetzat. Euskal Herrian, ilargialdiaren iraupenez baliatu bide ziren gure arbasoak egutegia eratzeko. Argi eta garbi antzeman dakioke hilabeteen izendapenari: *urtarrIL*, *otsalL*... Behialako euskal asteak hiru egun zituen, antza: *asteLEHEN*, *asteARTE* eta *asteAZKEN*. Nolanahi ere, aspalditik ezarrita daukagu bestelakoa, eta makurturik gaude Mendebaldeko denbora-banatzeko sistemara, erromatartzeak eta kristautzeak aurrera egin ahala zabaldu zena, hain justu ere. Lehendabizi, kalendario julianoa (K.a. 46. urtea) izan zen; geroago, 1582an, gregorianoa eratu zen 10 eguneko jauzia eginik: urriaren 4aren hurrengo eguna 15a. Beraz, solstizioak eta ekinokzioak ez dira beti martxoaren, ekainaren, irailaren eta abenduaren 21ean izaten.

Urtaroen banaketa dela eta, ezagun da euskaraz egiten denak, oro har, eta salbuespenak salbuespen, bi multzo handi dauzkala: alde batetik, *negua* eta bestetik, *uda*. Azken horrextatik eratorriak dira gainerako beste biak, *udaberria* eta *udazkena*, hartan ere. Antza denez, euskaldunaren adimenaren *begiak*<sup>4</sup> garai bateko aroaren berri eman nahi du, hau da, aurreko sasoi epe-lago bat irudikatu nahian zebilen. Nolanahi ere, hori ez dela guztiz egia ikusiko da, euskalkietan erabiltzen diren —ziren— terminoak aztertzen direnean. Izan ere, *udaberriarekin* eta *udazkenarekin* zerikusia daukaten izendapen guztiak ez datoz *uda* hitzetik, batzuek berezko nortasuna daukate, eta, beste batzuek, aldiz, harrigarria bada ere, *negu* hitza daukate oinarri eta funtsa: aurrerago azalduko da, urtaroz urtaro, baina udazkenari, *negu-aitzin*, *negu-antx* eta *negu-lehen* ere baderitzo, hitz elkartuak erabilia.

---

<sup>4</sup> Palmerren ikuspuntuaren arabera, hizkuntza adimenaren iruditerian erabilitako hitzeko sinbolo-jokoa da. Adimenaren *begiaz* ikusten duguna da iruditeria, baina, baita laranjaren zaporea eta euritan ibilita sortzen zaigun sentipena ere... (Palmer 1996).

*Orotariko Euskal Hiztegi*an agertuz gero, «(OEH)» marka hartuko du hitzak, eta *Euskaltzaindiaren Hiztegiak* badakar, «(EH)» markaz lagundurik etorriko da. Horrela, irakurleak jakingo du zein den iturria. Zenbaitetan, ordea, ez daude ez batean ez bestean jasota; kasu horietan bestelako iturria aipatuko da, baita ahozkoetan ere, gehienbat, *Euskararen Herri Hizkeraren Atlasetik* (EHHA) hartuak baitira. OEHn eta EHn azalduz gero, nahiz EHHA-n ere egon, ez da «(EHHA)» erreferentzia-markarik jarriko. Azkenik, kasu bakanetan «(FP)» marka azalduko da tauletan: *Fedearen propagacioneco urtecaria...*<sup>5</sup> deritzon aldizkaritik eskuratuta daudelako.

## 2.1 Udaberria

«Lau urtaroetan lehena, Ipar hemisferioan martxoko ekinokziotik ekaineko solstiziora hedatzen dena eta lurralde epeletan landareak hostatzen eta loratzen direna» (EH).

*Udaberria* izendatzeko izakiak eta denbora-nozio orokorrak baino ez dira aurkitu. Horrek pentsatzera garamatza, *udaberria* euskaldunen buru-iruditerian, kontzeptu bezala, berankorra dela; izan ere, badirudi, antzina, negua eta uda baizik ez zirela, eta denboraren joanean, *uda* hitzaren bitartez beste bi urtaroen izendapenak sortu zirela: *udaberria* eta *udazkena*. Guztiarekin ere, batek baino gehiagok pentsa lezake, euskal hiztunek garai jakin batean latin arruntean erabiltzen zen *prima vera*, ‘lehen uda’, hitz elkartuaren itzulpena eginez sortua izan litekeela *udaberria* ere.

Aurrerago aipatuko den neguaren kasuan bezalaxe,aldiak argi samar be-reizita omen zeuzkaten lehenagoko euskaldunek: izan ere, *udaberria* tarteko urte-sasoia dugu, neguaren eta udaren arteko zubi-lana egiten duena, pixka bat denetarik duena, alegia, negutik zein udatik. Eta azken honetatik gehi-go duela ematen du, uda delako abiapuntu nagusia izendapenak sortzeko. Denboraren kariaz, hasiera eta erdia (*bihotza*) adierazten dira, baina ez, ordea, amaiera; beste urtaro-mota batzuetan, bai, amaiera azaldu egiten da.

---

<sup>5</sup> XIX. mendearen erdialdetik XX. mendearen 30eko hamarkadara bitartean argitaratutako testuak dira. Zehaztapen gehiago, «Bibliografia» ataleko berorren aipamenean.

Corpusetan, behintzat, ez dago beste nozio orokorren aztarnarik: ez KANTITATEA, ez KALITATEA, ez JARDUERA, ez ESPAZIOA noziorik ez dago.

**2. Taula.** *Udaberria*: nozio espezifikokoak

Izakiak	Kantitatea	Kalitatea
[Udaberria: izendapena] <i>bedats(e)</i> (OEH) <i>belartze</i> (OEH) <i>eralora</i> (OEH) <i>primadera</i> (OEH-EH) <i>primabera, primadara, primader,</i> <i>primedera, primaera</i> (EHHA) <i>udabarri</i> (OEH) <i>udaberri</i> (OEH-EH) <i>udebarri</i> (EHHA) <i>uda-hasiera</i> (OEH) <i>uda-haspen</i> (OEH) <i>uda-haste</i> (OEH) <i>uda-hats / udats</i> (FP) <i>udakhail</i> (OEH) <i>uda-lehen</i> (OEH-EH) <i>urebarri</i> (EHHA)		
Jarduera	Denbora	Espazioa
	<i>udaberri-alde</i> <i>udaberri-aldi</i> <i>primadera-giro</i> (OEH) [Udaberriaren aldiak] – Hasiera: <i>udaberri-haste</i> (OEH) <i>udaberri-garai</i> (OEH) – Bihotza: <i>udaberri bete</i> (OEH)	



Taulan ageri diren izendapenak ordena alfabetikoz ezarrita daude; nozio orokorren kontzeptuak hartu dira kontuan: izakietan, existentzia, eta denboran, unea eta sekuentziak. Erraz suma daitekeenez, lehen esan bezala, *udatik* datozenak nagusi dira: *badirudi*, euskal hiztunek udarekin lotu nahia-go izan dutela, neguarekin baino: *uda hats*, *udaberri*, *uda-hasiera*, *-haspen*, *-haste*, *udakhail*, *uda-lehen* (EHn *udalehen* formaz jasota), eta bestelako aldaerak. Beste multzo batean nekazaritzarekin zerikusia bide dutenak dira, *bedats*, *belartz*e eta *eralora*; *bedats* eta *belartz*e izendapenok belarraren aroari lotuta daude, eta *eraloraren* jatorria lauso samarra da.<sup>6</sup> Antza denez, azken horiek ez dute lorratzik utzi egungo ahozko euskarari, EHHAREN arabera: ez da islatu, behintzat, galdetegietan. Azkenik, mailegu bat dugu, *primadera*, eta horren aldaera ugari, gehienbat Nafarroan eta Ipar Euskal Herriko hizkereztan. Hurrengo taula honetan jatorriaren araberrako sailkapena egin da.

### 3. Taula. *Udaberria*: izendapenen jatorria

Udari lotuak	Nekazaritzari lotuak	Maileguak
<i>udabarri</i> (OEH)	<i>bedats(e)</i> (OEH)	<i>primadera</i> (OEH-EH)
<i>udaberri</i> (OEH-EH)	<i>belartz</i> e (OEH)	<i>primabera</i> (EHHA)
<i>udebarri</i> (EHHA)	<i>eralora</i> (OEH)	<i>primadara</i> (EHHA)
<i>uda-hasiera</i> (OEH)		<i>primader</i> (EHHA)
<i>uda-haspen</i> (OEH)		<i>primadera</i> (EHHA)
<i>uda-haste</i> (OEH)		<i>primaera</i> (EHHA)
<i>uda-hats</i> / <i>udats</i> (FP)		
<i>udakhail</i> (OEH)		
<i>uda-lehen</i> (OEH-EH)		
<i>urebarri</i> (EHHA)		
<i>udaberri-alde</i> (OEH)		
<i>udaberri-aldi</i> (OEH)		
<i>udaberri-haste</i> (OEH)		
<i>udaberri-garai</i> (OEH)		
<i>udaberri bete</i> (OEH)		

<sup>6</sup> «*primavera*. Saison des fleurs, printemps» H. Cf. Dv: «J. Manterola aura pris dans Larramendi ce mot qui probablement ne se dit nulle part» (OEH).

## 2.2 Uda

«Lau urtaroetan bigarrena eta beroena, Ipar hemisferioan ekaineko solstiziotik iraileko ekinokziora hedatzen dena» (EH).

Neguarekin batera, «jatorrizkoetarikoa» dugu uda ere, eta, gainera, beste biri, udaberriari eta udazkenari, sortzeko bide ematen die izendapenetan. *Sortzailea* izateak adierazten du, nolako garrantzia daukan udak, kontzeptu gisa, euskal hiztunen buru-iruditerian: oro har, euskal hiztunek tarteko bi urtarook, udaberria eta udazkena, udarekin uztartu nahiago izan dute, eta ez neguarekin, nahiz salbuespenen bat edo beste ere den; adibidez, *negu-aitzin* (OEH) eta *negu-antz* (OEH) berbek udazkena dute erreferentziatzat.

Corpusetatik bildurikoak honako hauek dira, ordena alfabetikoz emanda: uda txikia, udaren amaiera, udaren bihotza, udaren garaia, udaren hasiera, udaren izendapena eta udaren solstizioa.

### 4. Taula. Uda: nozio espezifikokoak

Izakiak	Kantitatea	Kalitatea
[Uda: izendapena] <i>euda</i> (OEH) <i>uda</i> (OEH-EH) <i>udaa</i> (EHHA) <i>uda-parte</i> (OEH-EH) <i>udara</i> (OEH-EH) <i>ude</i> (EHHA) <i>ura</i> (EHHA) <i>ure</i> (EHHA) <i>üda</i> (EHHA)		<i>uda gorri</i> (OEH)

Jarduera	Denbora	Espazioa
[Izendapenari loturikoa] <i>udaratu</i> (OEH) <i>udatu</i> (OEH)	[Udaren garaia] <i>uda-denbora</i> (OEH) <i>uda-giro</i> (OEH) <i>uda(ra)ldi</i> (OEH) <i>udaro</i> (OEH)  [Udaren aldiak] – Hasiera: <i>udalein</i> (OEH) <i>uda-sarrera</i> (OEH) <i>uda-hastapen</i> (OEH)  – Bihotza: <i>uda bihotz</i> (OEH) <i>uda-erdi</i> (OEH) <i>uda gorri</i> (OEH) <i>uda min</i> (OEH-EH)  – Amaiera: <i>uda-hondar</i> (OEH) <i>udazken</i> (OEH)  [Solstizioa] <i>udaburu</i> (OEH-EH)  [Uda txikia] <i>San Migeldi</i> ( <i>Mokoroa</i> ) <i>udaratzxo</i> (OEH-EH)	

Wilkinsen (1976) nozio orokorren arabera, izakietan, jakina, existentziari buruzko kontzeptuan bederatziz izendapen dira; gutxien bilakatu dena Mikoletak erabilitako *euda* da, baina gaur egun ez dirudi haren arrastorik dagoenik. *Udak* aldaera franko dauka, hizkeren arabera: *uda(r)a*, *ude*, *ura*, *ure* eta *üda* (EHHA); *uda-parte*, izendapenetan sartu da, baina DENBORA nozioan ere egon liteke, *parte* hitzak denbora adierazi ohi du eta. Kantitate

nozio orokorrik ez dago. KALITATEA nozioan, *uda gorri* kalitate zehatza sailkatu da —*negu gorri*ren antzera—, nahiz eta batzuetan udaren aldirik berotsuenari esateko ere erabilia izan. JARDUERA nozioan, bi ekintza zehatz sailkatu dira: *udaratu* ('udara iristea') eta *udatu* ('uda pasatu'). DENBORA nozioa, ordea, oparoena da, euskal hiztunek uda zatikatu beharra izan baitute: udaren garaia, *uda-denbora*, *uda-giro uda(ra)ldi* eta *udaro*; aldiak (hasiera, bihottza eta amaiera), «iraupena» kontzeptuaren gainekoak dira, hala nola, *uda-lehen*, *uda-sarrera*, *uda-hastapen*; *uda-erdi*, *uda gorri*, *uda min*; eta *uda-hondar*, *udazken*. Azken hori, beregain bihurtu da egungo udazken urte-sasioari esateko; solstizioa eta garai zehatz bateko uda txikia —une zehatz bati buruzkoak— izendatzeko, *udaburu*, *sanmigeldi* (< *San Migeldi*, irailaren 29aren inguruko udalditxo) eta *udaratxo* hitzak jaso dira. Bukatzeko, *espazio* nozio orokorrik ez dela esan beharra dago.

Hitzen jatorria dela eta, badakigu etnolinguistikak esanda, etimologia ikertzeak antzinako kultur egintzak argitara eman ditzakeela. Gaur egun, *Euskal hiztegi historiko-etimologikoa* (EHHE) tresna ezin hobea daukagu horrelako egintzak are ageriago gera daitezen. EHHEra joz gero, hauxe dakar *uda* hitzari buruz:

Mikioletaren adibide bakarrean oinarrituta —zaharragoa izan daiteke, Mitxelenaren ustez (FHV 100)—, proposa liteke *egun* dela lehen osagaia, elkartu-eratorrietako *egu-* forman (cf. *eguberri*, *egubakoitz*). Hala balitz, pentsa daiteke *-da* dela bigarren osagaia, eta osaeraz *\*egu-da* litzateke hitza; *\*eguda* > *euda* > *uda* bilakaera bat proposatu behar da, cf. *\*egorten* > *\*eurten* > *urten*. Gertakari horiek aski zaharrak behar dute, hitzaren adibide baldin badira Erdi Aroko ustezko lekukotasunak. [...]

Esanahiari dagokionez, gogoan har bedi «zeru argi» edo «zeruko argi, eguzki» izango zela *egumen* jatorrizko esanahia: zerua garbi, eguzkitsu, dagoen sasoia izango litzateke, «eguzkiaren denbora», funtsean. Ik. Halere *udamin* eratorriaz esandakoa. Paralelo moduan, cf. tamil *enru* «eguzki», *enr ũr*. «eguzki, eguzki argi, uda» (BurrEmen s.v., 869).

*Udara* aldaerarako, *udaro* eratorri eta sinonimoa aintzat har daiteke, eta hortik azaldu *udaro* > *udara*, asimilazioz; aukera honen alde egingen du bi aldaeron banaketak ere.

(EHHE)

Hortaz, zentzuzkoa da pentsatzea, *uda* urtaroaren izena \**egutik* etor litekeela, urteko sasoi argitsuenetik, hain zuzen ere. Antzinako euskal hiztunaren adimen-begiak \**egu* zabaldu zuen naturaren eta denboraren inguruko alor guztietara: *eguazten*, *eguberri*, *eguen*, *egun*, *eguraldi*, *eguzki*...

### 2.3 Udazkena

«Lau urtaroetan hirugarrena, Ipar hemisferioan iraileko ekinokziotik abenduko solstiziora hedatzen dena» (EH).

Udaberriaren kasuan bezalaxe, *uda* izena hartu behar da oinarri nagusizat. Udaren luzapentzat hartzen duten euskalkiak nagusi badira ere, badira beste batzuk neguaren hasieratzat jotzen dutenak; adibidez, *negu-lehen*. Euskal hiztunek, non bizi diren, honelako edo halako iruditeria dute beren barnean: hala, batzuek udak iraun dirauela uste dute tertzio horretaraino, eta, beste batzuek, aldiz, negua hasteko sasoa dela.

Corpusetatik bilduriko kontzeptuak hauexek dira: udazkenaren izendapena (existentzia); udazkenaren aldiak eta udazkeneko soroen bigarren be-lardia (denboraren une zehatza).

#### 5. Taula. *Udazkena*: nozio espezifikoak

Izakiak	Kantitatea	Kalitatea
[Udazkena: izendapena] <i>errediall</i> (Lhande 1926) <i>iaitze</i> (OEH) <i>igartze</i> (OEH) <i>larrazken</i> (OEH-EH) <i>negu-aitzin</i> (OEH) <i>negu-antz</i> (OEH) <i>negule(i)n</i> (OEH) <i>udaizken</i> (OEH) <i>uda-asken</i> (OEH)		

Izakiak	Kantitatea	Kalitatea
<i>udaraitzen</i> (OEH) <i>udatzzen</i> (OEH) <i>udagoen</i> (OEH) <i>udagoien</i> (OEH) <i>udazken</i> (OEH-EH) <i>udazken-parte</i> (OEH) <i>udeazken</i> (OEH) <i>urriaro</i> (OEH) <i>urriero</i> (OEH) <i>urrieta</i> (OEH)		
Jarduera	Denbora	Espazioa
	<i>udazken-giro</i> [Udazkenaren aldia] – Hasiera: <i>udazken-hasiera</i> <i>udazken-hatsarre</i> – Amaiera: <i>udagoen-azken</i> <i>udazken-amaiera</i> <i>udazken-buru</i> <i>udazken-hondar</i> [Udazkeneko soroen bigarren belardia] <i>bibedar</i> (OEH-EH) <i>bibelar</i> (OEH-EH) <i>bilbelar</i> (OEH-EH) <i>birbelar</i> (OEH-EH) <i>bidedar</i> (OEH-EH) <i>erradalla</i> (Harriet)	

Arestian egin bezala, Wilkinsen (1976) nozio orokorrak oinarritzat hartuko ditugu izendapenen nondik norakoak emateko. Izakietan, udazkena-

ren izendapenak hamasei dira, sei multzotan bana daitezkeenak: *errediall*<sup>7</sup> eta *larrazken* adierazpen bakan bitxi gisa; «ihartzea» kontzeptuari loturikoak, *iartze* eta *igartze*; *neguari* loturikoak, *negu-aitzin*, *negu-antx* eta *negu-le(i)n*; *uda* hitzaren gainean eraikitakoak, *udaizken*, *uda-asken*, *udaraitzen*, *udatzen*, *udagoen*, *udagoien*, *udazken*, *udazken parte* (DENBORA nozioan ere egon litekeela badakigu) eta *udeazken*; *urri* berbari atxikitakoak, *urriaro*, *urriero* eta *urrieta*, ziurrenik, «urritasuna» kontzeptuari edo *urri* hilaren izenari dagozkionak. DENBORA nozio orokorraren barruan: hitz elkartu bakar bat, *udazken-giro*, sasoiaren aroari buruzkoa; *udazkenaren aldiak* ere islatzen dira, eta adimen-begiak denbora hutsa oinarritzat hartzen du; hasiera, *udazken-hasiera* eta *udazken-hatsarre*; amaiera, *udagoen-azken*, *udazken-buru* eta *udazken-hondar*; une zehatz bati buruzko kontzeptua, hots, udazkeneko so-roen bigarren belardia: *bibedar*, *bibelar*, *bilbelar*, *birbelar*, *bidedar* eta *erradalla*. *Errediall* eta *erradalla* jatorri berekoak omen dira, Agud eta Tovarren arabera (M. Agud eta A. Tovar 1989-1995: 909). *Bibelar* terminoa eta aldaerak aski «deskriptiboak» dira, bigarren belarra adierazten baitute.

Antza denez, *udaberri* eta *udazken* izendapenak *uda* eta *negu* adierazpenak baino geroago sortuak dirateke, inguruko hizkuntzen mundu-ikuskeraren antzo. Badirudi, udazkenak hartzen duen aldia izendatzeko beharra sortu zenean, euskaldunek bide bakarra barik, askotarikoak hautatu bide zituztela, euskalki bakoitzaren formei erreparatuz gero. Hona hemen udazkenari esateko berben sailkapena:

## 6. Taula. *Udazkena*: izendapenen jatorria

ERREDIALL > ARRADAIL	IHAR	LARRE
<i>errediall</i> (Lhande 1926)	<i>iartze</i> (OEH) <i>igartze</i> (OEH)	<i>larrazken</i> (OEH-EH)

<sup>7</sup> «ARDAILLA 2 S, *ardall(a)* S, *arradail* L, BN, S, *errediall* S 'la segunda cosecha del heno'. Lh. y Larrasquet 63 han señalado bien su origen en el bearn. *arredalh* (o *ardalh*) (cf. aran. *arredalh*, cat. *redall*, arag. (Broto) *redallo*): la raíz corresponde al cat. *dall*, occit. *dalh*, esp. *dalle* (de un lat. *daculum*, de origen desconocido: Corominas 2, 105). Formas occit. *redaia*, *redalha* (Mistral) significan 'segar por segunda vez'. Corominas señala bearn. *ar(re)dalha* 'cortar al redall' y este de *dalhà* 'guadañar'» (M. Agud eta A. Tovar 1989-1995: 909).

NEGU	UDA	URRI
<i>negu-aitzin</i> (OEH) <i>negu-antz</i> (OEH) <i>negule(i)n</i> (OEH)	<i>udaizken</i> (OEH) <i>uda-asken</i> (OEH) <i>udaraitzen</i> (OEH) <i>udatzen</i> (OEH) <i>udagoen</i> (OEH) <i>udagoien</i> (OEH) <i>udazken</i> (OEH-EH) <i>udazken-parte</i> (OEH) <i>udeazken</i> (OEH)	<i>urriaro</i> (OEH) <i>urriero</i> (OEH) <i>urrieta</i> (OEH)

6. taulan ikus daitekeenez, euskara batuan *udazken* nagusitu bada ere, hau da, *udari* loturikoa, *negua* oinarritzat dutenak ez dira bazter uztekoak. Horrek hiztunen zalantza aditzera ematen du; batzuen adimen-begiak udarekin uztartuago ikusiko zuen, eta beste batzuenak neguarekin... Bi ikuspegi kontrajarrita dauzkagu: batetik, «ezezkorra» litzatekeena, neguaren aurrerapentzat hartzen baita (*aitzin*, *antz*, *lehen*); eta bestetik, «baiezkorra» dena, udaren luzatzetzat jotzen delako (*atzen*, *goen*, *azken*). Hitz horiek nondik jasorik dauden (OEH) aztertuko da, hitz-elkarketok sorrarazterakoan, ba ote du tokian tokiko mikroklimak zerikusirik? Ikus dezagun...

### 7. Taula. *Negu* hitza, udazkenari lotua

<i>negu-aitzin</i>	NEGU-AITZIN. (L, BN, S <i>ap. Lh.</i> ).
<i>negu-antz</i>	NEGU-ANTZ. b) «(V, AN), <i>traza de invierno</i> » A.
<i>negu-le(i)n</i>	NEGU-LEHEN. a) (AN, L- <i>ain ap. A</i> ; <i>negu-lein Sal, R ap. A</i> ).

*Negu-aitzin* hitz-elkarketa Ipar Euskal Herriko euskalkietatik jasota dago, eta bortu aldeko klima gogorra da, baina gainerako eskualdeetan ez da hain zakarra, euritsua eta epela baino; beraz, ez dirudi eguraldiari zor zaionik hitz horren sorrera, baizik eta euskal hiztunaren adimen-begiaren oharrenari: adimen-begiak udazkena neguaren aurrerapena dela hautemango zuen eta halakoxea izena ere jarri. *Negu-lehen* hitzari dagokionez, Tolosa aldean bil-



du zuen Azkuek, eta hango eguraldia ez da biziki gogorra; beraz, *negu-aitzin* elkarketari buruz aipatutakoak ere balio du hitz horretarako: adimen-begiak neguarekiko joera sumatu du. Dena den, *negu-lehen* terminoa neguaren hasierari deitzeko, beste euskalki batzuetan ere erabili izan da (OEH: AN, L-ain ap. A; *negu-lein* Sal, R ap. A). Eskualde horietako mikroklimak desberdin samarrak dira; adibidez, ez dute klima bera Ainhoa harriak eta Piriñoetako haranek. Hortaz, euskal hiztunaren adimen-begiak batera edo bestera jokatu izan du zein eskualdetan den.

### 8. Taula. Uda hitza, udazkenari lotua

<b>udaraitzen</b>	<i>udaraitzen</i> . (G-to ap. A ). Otoño. v. <i>udazken</i> .
<b>udatzen</b>	<i>udatzen</i> . (V-ger-och-m-gip, G-to-nav, AN-larr-araq; Lar, Añ, H), <i>uda-atzen</i> (V gip). Ref.: A; Ond Bac 403; Echaide Nav 69; Iz To ( <i>udara</i> ); Elexp Berg ( <i>udazken</i> ).
<b>udagoen</b> <b>udagoien</b>	<i>udagoien</i> . (V-ger-ple-oroz-gip; Añ (V), Iz 85v, Zam Voc), <i>udagoen</i> , <i>udaguen</i> (V-m), <i>uragoien</i> . Ref.: A; Holmer ApuntV; Vill ( <i>comunicación personal</i> ).
<b>udazken</b> <b>uda-azken</b> <b>uda-asken</b> <b>udaižken</b>	(V-m-gip, G-azp-bet-nav, AN-larr-5vill-ulz, L; Lar, Añ, Iz 85v, Lecl, Dv, H, Zam Voc (G)), <i>uda azken</i> (V-gip, AN-gip-5vill, S; VocCB, Dv), <i>uda-asken</i> (ü-Foix), <i>udaižken</i> (G-nav), <i>udeazken</i> . Ref.: A; Lh ( <i>üda-azken</i> ); Echaide Nav 69; Iz Als ( <i>udaižkena</i> ); Etxba Eib ( <i>uda-azkena</i> ); Gkex Loliola ( <i>uso-pasa</i> ); Elexp Berg.

Askoz gehiago dira udarekin zerikusia duten terminoak. Hasieran, hitz-elkarketak izango ziratekeen, baina, azkenik, lexikalizatu eta hitz soil bihurtuko ziratekeen. Bi multzotan bana daitezke corpusetatik ateratako hitzok: batetik, udaren bukaeraren ingurukoak, *-azken* edo *-atzen* osagaiez eraikitakoak, eta hamaikatxo aldaera daukatenak (*udaraitzen*, *udatzen*, *udazken*, *uda-azken*, *uda-asken* eta *udaižken*); eta bestetik, *-goen/-goien* osagaia dutenak (*udagoen* eta *udagoien*). Lehendabizikoak lineala ematen du, hau da, prozesu baten amaiera (*atzen*, *azken*) erakusten du; bigarrena, ordea, pentsa liteke goitik beherakoa dela, ez lineala, gorenera heltzen baita uda (*-goen/-goien*).

Bi kontzeptu horiek modu grafikoan azaleratuko bagenu, honexetara irudikatuko genituzke:

- a) lineala [udazkena]  
 (uda) ————— > UDAZKENA
- b) goitik beherakoa [udagoiena]  
 UDAGOIENA  
 ^  
 ^  
 ^  
 ^  
 (uda)

Nolanahi ere, biek bat egiten dute euskaldunen buru-iruditeriaren gune berean, abiapuntua desberdina izan arren: udaren bukaera edo muturra adierazi nahi dute.

Gainerako berbek nekazaritzarekin zerikusia dute: *errediall* > *arradail* maileguak, 7. oin-oharrean azaldu bezala, udazkeneko soroen bigarren belardiari lotua dagoela ematen du: *ihartzea* eta *urriari* lotutakoak udazkenaren hasieran gertatu ohi den eskasialdiari buruzkoak bide dira eta azkenik, *larrazken* berbak, dirudienez, azken larre edo landa adierazten du, esan nahi baita, balia daitekeen urteko azken larrea.

## 2.4 **Negua**

«Lau urtaroetan laugarrena eta hotzena, Ipar hemisferioan abenduko solstiziotik martxoko ekinokziora hedatzen dena» (EH).

Corpusetatik erdietsitako termino guztiak aintzakotzat harturik, bilduriko kontzeptuak honako hauek dira ordena alfabetikoz erakutsita: neguaren amaiera; neguaren antza; neguaren bihotza; neguaren garaia; neguaren hasiera; neguaren izendapena; neguaren solstizioa eta negu txarra.

Wilkinsen nozio orokorren arabera, honako sailkapen hau egiten da: izakiak, neguaren izendapena eta neguaren antza (existentzia); jarduera (izen-

dapenari atxikitakoa); kalitatea (kalitate konkretua); denbora (denboraren unea), garaia, aldiak eta solstizioa.

### 9. Taula. *Negua*: nozio espezifikokoak

Izakiak	Kantitatea	Kalitatea
[Negua: izendapena] <i>nego</i> (EHHA) <i>negu</i> (OEH) <i>negu-aro</i> / <i>negaro</i> (OEH) <i>negu-parte</i> (OEH) <i>negü</i> (EHHA) [Neguaren antza] <i>negu-antx</i> (OEH)		[Negu txarra] <i>negu beltz</i> (OEH-EH) <i>negu biluzi</i> (OEH) <i>negu gorri</i> (OEH-EH)
Jarduera	Denbora	Espazioa
[Izendapenari loturikoa] <i>negu(tu)</i> (OEH) <i>negu egin</i> (OEH)	[Neguaren aurreko garaia] <i>negu-aitzin</i> (OEH) [Neguaren garaia] <i>negu-alde</i> (OEH-EH) <i>negu-garai</i> (OEH) <i>negu-giro</i> (OEH) <i>negugo</i> (OEH) <i>negu-aldi</i> / <i>negutaldi</i> (OEH) <i>negute</i> (OEH-EH) [Neguaren aldiak] – Hasiera: <i>negu-aurren</i> (OEH) <i>negu-buru</i> (OEH-EH) <i>negu-lehen</i> (OEH)	

Jarduera	Denbora	Espazioa
	– Bihotza: <i>negu bete</i> (OEH) <i>negu-bihotz</i> (OEH) <i>negu-erdi</i> (OEH) <i>neguaren gerri-gerri</i> (OEH) <i>negu-hile</i> (OEH) <i>negu min</i> (OEH-EH)  – Amaiera: <i>negu-azken</i> (OEH) <i>negu-buru</i> (OEH-EH) <i>negu-hondar</i> (OEH)  [Solstizioa]  <i>negu-buru</i> (OEH-EH) <i>negumega</i> (Lhande 1926) <i>negu-muga</i> (OEH)	

9. taulan begi-bistakoa da DENBORA nozioak hartzen dituela kontzeptu eta hitz gehien. Ez da batere harritzekoa, lehenengo eremu etnometeorologikoa DENBORA nozioari baitagokio; beraz, nahitaez oroz gainetik gailendu behar luke. Gainera, neguaren hiru aldiak betetzen dira: hasiera eta amaiera izendatzeko izenak logikoak badira ere, erdiko aldiari dagozkionak denborazkoak zein metaforikoak dira: metaforikoak, *bihotz*, *bete*, *gerri* eta *min*; denborazkoak, *erdi* eta *hile*, azken hau zalantzazkoa bada ere. *Neguburu* hitzak, berriz, hiru adiera dauzka: neguaren hasiera, neguaren amaiera eta solstizioa. Izendapenetan ahozko *nego* (EHHA: Aramaio, Beruete eta Igoa) eta *negü* (EHHA: Zuberoa) nabarmendu behar dira; gainerakoetan, *negu* da erabiliena. KALITATEA nozioari dagokionez, «negu txarra» kontzeptua azpimarratzekoa da: koloreak erabiliz adierazten da, *beltz* eta *gorri*, edo metafora baten bidez, *biluzi*. Metaforak lexiko berria sortzeko eragile behinenetarikoa bat da, bizi-bizia esparru etnometeorologikoan; adibidez, *ostadar*. Azkenik, KANTITATEA eta ESPAZIOA nozioek ez daukate terminorik: ez bide dago «negu-kantitaterik», ezta «negu-espaziorik» ere.

*Negu* hitzaren jatorria dela eta, batzuek *neguk* elurra esan nahi zuela defendatu dute, baina, itxura denez, ez da kausitu inguruko erromantzeetan *elur* → *negu* esanguraren aldaketarik:

Esanahiari dagokionez, ez dugu inguruko erromantzeetan ‘elur’ ← ‘negu’ esanahi aldaketaren lekukorik aurkitu (FEW 7, 156a-157b, NĪX; DECat 5, 918b-920a, NEU; DCECH 4, 227ab, NIEVE), baina hizk. indoeuroparretarako cf. Pokornyk dakarren *ǵhei-* erroa, ‘negu, elur’ esanahiarekin (s. v. 2. *ǵhei-* : *ǵhi-*). Bestalde, elurraren izen indoeuroparrek ere lotu izan da *negu* (cf. eslav. zah. *sněǵŭ*, etab.); proposamen hauetan guztietan, antz formal hutsaren gainean eraikiak gehienak, elurraren eta neguaren arteko identifikazioa arrazoitzen da (ik. Lafon 1948c: 84, besteak beste).

Larraine eta Santa Grazi arteko *Négumendy* mendiaren izenean *neguk* ‘elur’ esanahia izan behar zuela argudiatzen du Corominesek (DECat 5, 920a, 6. oh.), ezin baita “muntanya d’hivern” izan, mendia “urte osoan” bertan dagoelakoan edo; hor izango genuke, bere arabera, *neguk* inoiz ‘elur’ esanahia izan zuelako froga. Baina ez dirudi argudio sendoa denik: erraz azaltzen da pentsatuz ‘neguan erabiltzen den mendi’ dela (cf. *Negueyeta*, eta *Negusaroy*, goian; cf. halaber *negu-mutil*). Kontuan hartzekoa da, gainera, inguruko hainbat mendik elurra lehenago duketela, eta *Negümendi*, apal xamarra izanik (1.300 metro inguru), ez dela horregatik nabarmenduko.

Hitzaren osaeran *egu* egon ote litekeen ere galdetu izan da (Knörr 2001: 408); baina *egun*, *eguraldi* eta halakoen aldean *neguk* ez du osagai hori hitzaren hasieran, eta *n-* zer litzatekeen ere ez dakigu.

(EHHE)

Beraz, *uda* berbaren gainean adostasuna ba omen dago, baina neguari buruz, kontuak ez daude batere garbi: ez bide da zilegi *negu* hitza *elur* berbaren esanahiarekin erkatzea, argudioak ahul-ahulak baitira. Halarik ere, *neguren* barrenean \**egu* osagaia egoteak zer pentsatu ematen du, hasierako *n-* horren ostean dagoen aztarna ilun samarra izanik ere.

### 3. Ondorioak

Urtaroen banakako azterketa egin bada ere, ikuspegi oso eta sendoa izango badugu, multzo berean sartu behar dira nozio orokor eta izendapen guztiak, ondorio nagusiak ateratzeko: begi-bistakoa da elkarrri eragiten diotela. Lau urte-sasoiek zalantzarik gabeko batasuna osatzen dute, bata bestearen menpe bizi dira.

Sarritan esan izan da antzinako euskaldunen adimenaren begiak bi urtaro baizik ez zituela ikusten, *negua* eta *uda*, eta horrelaxe dela ematen du corpusetatik ateratako izenei begiratuta. Bitzuok izango lirateke, hain zuzen ere, itxuraz «arbitrarioak». Gaur egun, oraindik ere, Ekuatorearen inguruko herrialdeetan batik bat, bi urtaro baino ez dira, *bustia* eta *lehorra*; aitzitik, Australiako zenbait herri aborigenek sei urtaro dituzte eta Txinan, esate baterako, neguko ekinokzioek eta udako solstizioek ez dute sasoiaren hasierarik adierazten, erdia baizik. Beste bi izendapen nagusiak ere, *udaberri* eta *udazken*, arbitrariotzat har litezke, euskaldunen adimen-begiak *uda* berba oinarritzat hartzen baitu, salbuespenak salbuespen; batetik, ikuspegi baiko-rra euskal hiztunena, *uda* beti eguzkiarekin eta beroarekin uztarturik egon da; bestetik, behinolako eguraldiaren isla izan litezke bi izendapen horiek, klimaren bilakaera nolakoa izan den jakitera emango luketenak.

Nozio orokorren eskema aplikaturik, IZAERA nozioa, jakina, guztiek daukatela ikusi dugu, eta *neguak* eta *udak* dute beren baitan nozio orokorrik gehien: IZAERA, KALITATEA, JARDUERA eta DENBORA. Bestalde, *udaberriak* dauka gutxien, IZAERA nozioa baino ez, eta berorrek dauka, hain zuzen ere, idoro den mailegu bakarra —formalki bederen—, *primadera*, eta horrek udaberriaren izaeraren berritasuna adierazten bide du; izan ere, beste urtaroez ez daukate horietariko mailegu formalik. Hala ere, baliteke mailegu kontzeptualen bat edukitzea. Gorago esan bezala, *negua* eta *uda* jatorrizko urtaroak izan direla ematen du, eta geroenean, Mendebaldeko zibilizaziora egindako «egokitzapenaren» bitartez, *udaberria* eta *udazkena* sortuak izan direla.

Neguari dagokionez, izendapen bakarra aurkitu da euskalki guztietan: *negu*. Eta ez dago beste izendapenik, ezta beste nozioetan ere. Ez dago ne-

kazaritzarekin zerikusia daukan ezer. Bitxia gertatzen da izenaren osaera \**n-* + *-egu*, gorago aipatu den bezala. Bestalde, KALITATEA eta JARDUERA nozioak dauzkan sasoi bakarra da —udak ere badauka JARDUERA nozioa— eta, gainera, konnotazio negatibo samarrak, *negu beltza* eta *negu gorria*.

Negua eta uda jatorrizko sasoiak direlako beste froga bat, hauxe da: biek ala biek sasoiak hiru alditan banaturik daukate: hasiera, erdia/bihotza eta amaiera. Garbi dago euskaldunen adimenaren begiak bi aldi horiek bereizten zituela eta «berezko» udaberririk ez zegoenez gero, baliteke amaierakoa udaberriari egokitzea. Udak berdin-berdin egiten du, horrek ere hiru aldi ditu eta.

Udaberria dela eta, nozioetan IZAKIAK eta DENBORA baizik ez dauzkala bere baitan ikusi dugu. IZAKIAK nozioa bi multzotan bana daitezke: ustez *belar* izenari loturikoak eta *uda* izendunak. Beste bi izendapen geratzen dira: alde batetik, *eralora* eta beste aldetik, aipaturiko *primadera* mailegua. *Belar*-dun izenek nekazaritzarekin uztartuak dirudite, oker handirik gabe, hasi ere, udaberriari hasten da-eta belarra hazten eta gurintzen. Beste eratorpenak ere badira: *uda* + *berri*, *uda* + *has(i)/lehen...* Halandaze, euskal hiztunak udaberria nolabaiteko udatzat jotzen du, ez da inondik inora, izenen arabera, jakina, neguaren jarraipena. Ildo horretatik, gogora ekar dezagun bildutako atsotitz batek dioena: «Udaberria, odol berria».

Uda da «berezko» bigarren urte-sasoiak, ez dago zalantza-izpirik ere, izendapen bakarria baita euskalkietan: *uda(ra)*. Neguak bezalaxe, hiru aldi bereizten ditu udak ere: hasiera, erdia/bihotza eta amaiera. Eta, agian, udaren «amaiera» horretatik eratorria izango da gaur egungo udazkenari esateko *udazken* izendapena bera ere.

Azken urtaroa udazkena da, eta izen gehienek udarekin dute zerikusirik, baina batzuek neguarekin ere bai. Adibidez, *negu-aitzin*, *neguantz*, *negu-lehen*. Beste izen batzuek nekazaritzari loturikoak dira: *ihartze*, *larrazken*. Eta beste batzuek, *urri* hilabetearekin edo «urritasuna» kontzeptuarekin zerikusia dutela dirudi, hauek ere nolabait nekazaritzarekin uztartuta: *urriaro* eta *urrieta*. Urtaro horretan beste nozio orokor bat ageri da, *denbora*, udazkeneko soroen bigarren belardia izendatzeko. Izen horietariko bat ere, *erradiall* > *arradail*, sasoiari esateko erabiltzen da.

Hori guztia azterturik, ondorio batzuk atera daitezke:

- i) Aipatu bezala, jatorrizko urtaroak bi bide dira, munduko hainbat bazterretan bezalaxe: *negua* eta *uda*. *Udaberria* eta *udazkena* udaren inguruan sortu izan dira, salbuespenak salbuespen.
- ii) Nekazaritzak berebiziko garrantzia dauka izenen sorreran, eta horrek antzinako baserriari loturiko gizartearen berri ematen digu. Gogora ditzagun *bedats*, *ihartze* eta *larrazken* izendapenak.
- iii) Antza denez, bi mailegu besterik ez dago: *erradiall* > *arradail* eta *primadera* (aldaerak ere bai). Hala ere, mailegu semantikoak gehiago izan litezke, hots, itxuraz ez, baina, bai, adieraziz; adibidez, *udaberri* eta horren inguruko hitz elkartuak (*primavera* hitzak latinez ‘lehendabiziko uda’ esan nahi duela eta, horrek zerikusia izan lezake *udaberri* eta horren kideko hitzak sortzean). Bada beste mailegu bat, *autono*, bakana eta horregatik sailkapenera batu ere egin ez dena: udazkenari deitzeko barik, irailari esateko erabilia (Getxon jaso zuen Azkuek, eta ikertzeko dago egun Getxoko hiztunek erabiltzen dutenetz).
- iv) Nozio orokorrei dagokienez, IZAKIAK nozioa erabiltzen da gehien: ageri-agerikoa da izendapen hutsek daukatela garrantzirik handiena. Izakien ondoren, DENBORA nozio orokorra ere erabili izan dute erruz hiztunek; *negua* dela eta, askoz gehiago dira denborari loturikoak, izakiei dagozkienak baino. Nekazaritza-gizartearen zantzuak eta negu luzea bizi izan beharrak eragindakoak ditugu horren erantzule, zalanztarik gabe. Ez KANTITATEA, ez ESPAZIOA nozio orokorrik ez dago; eta KALITATE eta JARDUERA nozioei buruzkoak ere gutxi dira.

Azkenik, azpimarratu nahi da, euskal hiztunen adimen-begia inguruaren eta kulturaren beharrianetara egokituz joan dela urtaroei buruzko lexikoa sortzen: erarik sinpleenetik —bi izendapen eta ziurrenik IZAKIAK nozio orokorra baino ez zutela— era konplexuagora jauzi eginda —lau izendapen eta lau nozio orokor, hau da, IZAKIAK, KALITATEA, JARDUERA eta DENBORA, dituztela—. Izendapenez gain, urtaroen gaineko zahar-hitzak edo atsotitzak ere azter litezke ondoriook osatzeko eta sendotzeko asmoz; berbarako, Goizon Garateren *Atsotitzak* (1998) bildumak neguari buruz 34 esaera zahar dakartza eta, udaberriari eta udazkenari buruz, 23. Horrelako ahozko lite-



ratura-lanetan, ezbairik gabe, euskaldunen adimen-begiak ezin ederkiago adierazita dauka bere mundu-ikuskerara.

## Bibliografia

AGUD, Manuel eta Antonio Tovar (1988-1994). *Materiales para un diccionario etimológico de la lengua vasca*, I-XXI, ASJU 22 (1), 23 (2 eta 3), 24 (1, 2, eta 3), 25 (1, 2 eta 3), 26 (1, 2 eta 3), 27 (1, 2 eta 3) eta 28 (1, 2, eta 3).

AZKUE, Resurrección María (1905-1906). *Diccionario vasco-español-francés* (DVEF). Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca.

BIGOT, Margot (2010). «Apuntes de lingüística antropológica». (Facultad de Humanidades y Artes de la Universidad Nacional de Rosario, Argentina). (Argitalpen digitala).

Eskuragarri: [<http://hdl.handle.net/2133/1367>].

CARO BAROJA, Julio (1984). *Sobre la religión antigua y el calendario del Pueblo Vasco*. Donostia: Txertoa Argitaletxea.

CARDONA, Giorgio Raimondo (1976). *Introduzione all'etnolinguistica*. Bolonia: Il Mulino.

CIRLOT, Juan Eduardo (1988). *Diccionario de símbolos*. Barcelona: Nueva Colección Labor.

CASADO VELARDE, Manuel (1991). *Lenguaje y cultura. La etnolingüística*. Madril: Síntesis.

COSERIU, Eugeniu (1981). «La socio- y la etno-lingüística: sus fundamentos y sus tareas», *Anuario de Letras* XIX, 1981: 5-30.

DIÉGUEZ, Kepa (2008). *Eguraldia eta kultura euskaldunen artean*. Donostia: Gaiak.

——— (2021). *Euskal lexiko etnometeorologikoaren azterketa*. [Doktorego-tesia (UPV/EHU)].

Eskuragarri: [<https://addi.ehu.es/handle/10810/536666>].

——— (2022). «Euskal lexiko etnometeorologikoaren azterketa: kultura eta kognizioa», ASJU 56, 2022: 271-299.

DURANTI, Alessandro (2000). *Antropología lingüística*. Cambridge: Cambridge University Press.

ETXEBARRIA, Jose María (2012). «Etnolinguistika: izen berria, eduki zaharra», *Euskonews* 612 (2012-02-10 / 2012-02-17).

Eskuragarri: [<https://www.euskonews.eus/0612zkb/gaia61202eu.html>].

ETXEBARRIA AIESTA, Juan Manuel (1991). *Zeberio haraneko euskeraren azterketa etnolinguistikoa*. Zornotza (Bizkaia): Ibaizabal Argitaletxea. [Doktorego-tesia (Deustuko Unibertsitatea)].

——— (1995). *Gorbeia inguruko etno-ipuin eta esaundak I*. Bilbo: Labayru Ikastegia.

——— (2003). *Euskal urtea, ohituraz bete*. Zornotza (Bizkaia): Ibaizabal Argitaletxea.

——— (2016). *Gorbeia inguruko etno-ipuin eta esaundak II*. Bilbo: Euskaltzaindia eta Deustuko Unibertsitatea.

EUSKALTZAINDIA. *Orotariko Euskal Hiztegia*.

Eskuragarri: [[https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com\\_oehberria&task=bilaketa&Itemid=1694&lang=eu](https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_oehberria&task=bilaketa&Itemid=1694&lang=eu)].

——— *Euskaltzaindiaren Hiztegia*.

Eskuragarri: [[https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com\\_hiztegiانبilatu&task=hasiera&Itemid=1693&lang=eu](https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_hiztegiانبilatu&task=hasiera&Itemid=1693&lang=eu)].

——— *Euskararen Herri Hizkeren Atlas*.

Eskuragarri: [[https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com\\_ehha&Itemid=466&lang=eu&layout](https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_ehha&Itemid=466&lang=eu&layout)].

FERNÁNDEZ GUIZZETTI, Germán (1957). «La etnolingüística: del mundo del idioma al mundo de la cultura», *Revista de Antropología* 5 (1), 1957: 75-93.

GARATE, Gotzon (1998). 27.173. *Atsotitzak. Refranes. Proverbs. Proverbia*. Bilbo: Mensajero.

Eskuragarri: [<http://www.ametza.com/bbk/htdocs/garate.htm>].

GARVIN, Paul eta LASTRA DE SUÁREZ, Yolanda (1974). *Antología de estudios y sociolingüística*. Mexiko (D.F.): Universidad Nacional Autónoma de México eta Instituto de Investigaciones Antropológicas.

LAKARRA, Joseba Andoni (zuz.) (2019). *Euskal hiztegi historiko-etimologikoa (EHHE-200)*, J. Manterola (koord.). Bilbo: Euskaltzaindia.

LANDERRECHE, Martin eta beste (1877-1936): *Fedearen propagacioneco urtecaria edo fedearen propagacioneco berriac urteca ematen dituenena*. (1877tik 1936ra arte argitaratutako aldizkaria). Baiona: E. Lasserre.

MARTIN CAMACHO, Juan Carlos (2016): «Hacia una caracterización de una disciplina lingüística (casi) olvidada: la etnolingüística», *ELUA* 30, 2016: 181-212.

MITXELENA, Koldo (1972/2011): «Lengua y cultura», in *Obras Completas. Lingüística General II*, ASJUren Gehigarriak bilduma, 55. zenbakia. Bilbo: UPV/EHU: 81-108.

MORANT MARCO, Ricard eta PEÑARROYA, Miquel (1996). *Llenguatge i cultura. Per a una ecologia lingüística*. Valentzia: Universitat de València

——— eta DÍAZ ROJO, José Antonio (2005). *Etnolingüística*. Eskuragarri: [<http://www.liceus.com>].

MURDOCK, George Peter, FORD, Clellan S., HUDSON, Alfred, KENNEDY, Raymond, SIMMONS, Leo eta WHITING, John W. M. (1987-2000). *Outline of cultural materials*. New Haven (Connecticut): Human Relations Area Files.

PALMER, Gary B (1996): *Towards a theory of cultural linguistics*. Austin: University of Texas Press. (Gaztelaniazko argitalpena, 2000: *Lingüística cultural*. Madril: Alianza Editorial).

POTTIER, Berbard (1970): *Lingüística moderna y filología hispánica*. Madril: Gredos.

WILKINS, David (1976). *Notional syllabuses: A taxonomy and its relevance to foreign language curriculum development*. Londres, Oxford: University Press.

ZABALA, Pello (2000): *Naturaren mintzoa*. Donostia: Alberdania.

## Laburdurak

EH: *Euskaltzaindiaren Hiztegia*.

EHHA: *Euskararen Herri Hizkeren Atlas*.

FP: *Fedearen propagacioneco urtecaria edo fedearen propagacioneco berriac urteca ematen dituenena*.

OEH: *Orotariko Euskal Hiztegia*.

# Itzulpen-estrategia pedagogikoak euskal irakaskuntzaren ardatzekin bat<sup>1</sup>

Estrategias de traducción pedagógica alineadas con los ejes de la enseñanza vasca

Stratégies de traduction pédagogique selon les axes de l'enseignement du basque

Pedagogical translation strategies according to the axes of Basque teaching

IBARLUZEA SANTISTEBAN, Miren

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

miren.ibarluzea@ehu.eus

DOI: <https://doi.org/10.59866/eia.v69i2.285>

ORCID: <http://orcid.org/0000-0002-2377-2922>

Noiz jaso: 2024-03-05

Noiz onartua: 2024-04-29

Hezkuntza eleaniztunaren ikuspegi arabera, itzulpena estrategia pedagogiko egokia da ikasleen eleaniztasuna kudeatu, baliatu eta balioesteko. *Translanguaging*aren eta Hizkuntza Trataera Bateratuaren oinarriak gogoratu eta itzulpen-ariketa pedagogikoei buruzko lanak aintzatetsita, estrategien sailkapen bat proposatuko dugu, eta horietariko bederatzi adibide eman; hala, Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-markoaren ardatzak bete egiten dituztela erakutsiko dugu.

**Gako-hitzak:** hezkuntza eleaniztuna, Hizkuntzen Trataera Bateratua, *translanguaging*, itzulpena.

Las perspectivas de educación multilingüe consideran que la traducción es una estrategia pedagógica adecuada para gestionar, utilizar y valorar el multilingüismo de los discentes.

---

<sup>1</sup> Lan hau MHLI ikertaldearen proiektuon baitan egin da: Eusko Jaurlaritza IT1579-22 eta MI-NECO PID2021-125952NB-I00.

Tras repasar los principios del *translanguaging* y el Tratamiento Integrado de Lenguas, y revisar trabajos sobre el uso de la traducción en el aula, proponemos una clasificación de estrategias y describimos nueve de ellas, para demostrar que respetan los pilares del marco educativo actual de la Comunidad Autónoma Vasca.

**Palabras clave:** educación multilingüe, Tratamiento Integrado de Lenguas, *translanguaging*, traducción.

Selon les perspectives éducatives axées sur le multilinguisme, la traduction est une stratégie pédagogique utile pour gérer, exploiter et valoriser le multilinguisme des élèves. En rappelant les fondements du *translanguaging* et du Traitement Intégré des Langues, et en révisant des travaux sur les exercices axés sur la traduction, nous proposerons une classification et donnerons des exemples des neuf stratégies, montrant qu'elles répondent aux critères du cadre pour l'éducation de la Communauté Autonome Basque.

**Mots-clés :** éducation multilingue, Traitement Unifié des Langues, *translanguaging*, traduction.

Multilingual educational approaches consider translation as a useful pedagogical strategy to manage, use and value students' multilingualism. We present here the principles of *translanguaging* and Integrated Language Treatment, and revise some works on the use of translation in class. Then, we propose a classification of strategies and present nine examples showing to what extent they do respect the principles of the framework for education in the Basque Autonomous Community.

**Keywords:** multilingual education, Integrated Treatment of Languages, *translanguaging*, translation.

IBARLUZEA SANTISTEBAN, Miren (2024). «Pedagogical translation strategies according to the axes of Basque teaching», *Euskera Ikerketa Aldizkaria*, 69, 2: 123-157.

## 1. Itzulpenaren bideragarritasuna euskararen esparruko hizkuntzen irakaskuntzan

Itzulpena erabiltzea ez zaio irakaskuntzari arrotz: askotariko testuinguruetan eta helburuekin erabili izan da; halere, itzulpena baliatzeko moldeak aldatuz joan dira (Garrote 2019, Larsen-Freeman 2000).<sup>2</sup> Eraldatu dira, halaber, erabileraren abantailen/desabantailen edo baliagarritasunari buruzko usteak (Cook 2010). Egun, irizpide jakin batzuk erabilia egiten bada, itzulpena ontzat jotzen da eskolan (Cook 2010, Gasca 2017); adibidez, helburu komunikatiboekin erabiltzen bada (Guillén 1990, 2009), jardueretan hizkuntzen alderdi kulturalak eta sozialak azpimarratzen badira, ikasleen berezko ikasketa-estrategiak ikusarazten badira, edo hizkuntzen arteko berdintasunak eta ezberdintasunak bistartzeko tresna moduan baliatzen bada (Cuéllar 2004). Zenbait adituk itzulpenaren abantaila praktikoak eta kognitiboak nabarmendu dituzte, jakintzaren transmisiorako tresna izateaz gainera, itzulpena bizimodu pertsonal zein profesionalerako gaitasuna dela, hizkuntzen ekologiaren ikuspegitik gizartearen eraldaketarako praktika iraunkorra dela eta ikasketa-teknika zein ikasleen ongizaterako tresna ere badela adierazita (Cook 2010).

Euskal irakaskuntzara etorrita, Etxezarragak (2016) dio hiru mailatan ekarpena egin diezaiokeela itzulpenak hizkuntzen didaktikari:

- i) ikasteko estrategiak bideratuz (irakaskuntza-estrategia);
- ii) hizkuntzak ikasteko baliabideak eskainiz (testualtasuna eta gramatika) eta;
- iii) hizkuntzaren estatusaz eta erabileraz jabetzeko baliabide izanik (soziolinguistika).

Hiru maila horiek lotuta daude Idiazabal, Manterola eta Diaz de Geñeñuk (2015) zehaztutako hezkuntza elebidunaren nahiz eleaniztunaren hiru helburu nagusiokin, hau da:

- i) hizkuntzen erabilerarako gaitasuna garatzea;

---

<sup>2</sup> Gaiari buruzko euskarazko laburpena nahi izanez gero, ikus Ibarluzea 2021.

- ii) gaitasun metalinguistikoa jadestea eta;
- iii) hizkuntza gutxituen eta aniztasun linguistikoaren aldeko jarrerak sustatzea.

Idea horiek indarrean dauden hezkuntza-ardatzekin eta hizkuntzen irakaskuntzaren ikuspegi eleaniztunekin bat datoz eta, hortaz, itzulpena bitarteko duten hainbat estrategiaren berri eman eta eztabaidatuko dira artikuluhonetan. Lanaren helburu nagusia, bada, itzulpenarekin lotura duten irakaskuntza-estrategiak eta horiei buruzko hausnarketa eskaintzea da. Hala, hizkuntzen irakaskuntza eleaniztunaren, *translanguaginga* deritzonaren eta EAEko hizkuntza-irakaskuntza ardatzen duen Hizkuntzen Trataera Bateratuaren (aurrerantzean HTB) ildo nagusiak laburbilduko dira. Itzulpena uneko eskola-markoan txertatzeko tresna baliagarritzat jota, gaiari buruzko zenbait lan berrikusi ondotik, teknika eta jardueren sailkapen bat proposatuko da. Azkenik, sailkapenari jarraitzen dioten bederatziti adibide aztertuko dira, eurok HTBren eta *translanguaging* pedagogikoaren printzipio edo oinarriak betetzen dituztela frogatzeko.

## 2. *Translanguagingaren* eta Hizkuntzen Trataera Bateratuaren oinarriak

### 2.1 *Focus on multilingualism* ikuspegia eta *translanguaging* pedagogikoa

*The multilingual turn* (May 2014) lanaren argitan, hizkuntzak ez dira entitate isolatuak eta hizkuntzen arteko mugak gero eta malguagoak dira irakaskuntzaren zein ikerketaren esparruetan. Hala, hizkuntza gehigarrien irakaskuntzan, ikasleen hizkuntza guztiak ustiatu behar dira, alde batera utzita, hizkuntzen arteko interferentziak ekidin nahia edo gelan ikasgai den hizkuntza soilik erabiltzeko grina; izan ere, hizkuntzen arteko transferentzia funtsezkoa da ikaste-prozesuan jarduteko. Orobat, iskin egin behar zaio jaiotzetiko hiztunaren kompetentzia helburu eta eredu izateari (Cenoz eta Gorter 2015). Gainera, eleaniztasuna ez dagokio soilik maila indibidualerako jakintzari, hizkuntzen erabilerari eta hiztunen identitateari zein kolektibo

eraikitzeko eta mundu globalizatuan kokatzeko moduari ere badagokie: lotuta dago, beraz, estu-estu, hizkuntzen estatusarekin (Cenoz eta Gorter 2015).

Esparru horrexetan proposatzen da *focus on multilingualism* ikuspegia (Cenoz eta Gorter 2011, 2014, 2015), hots: testuinguru eleaniztunetarako irakaskuntza-, ikaskuntza- eta ikerketa-ikuspegi holistikoa, besteak beste «elebitasunaren malgutasuna» eta *translanguaging* kontzeptuei lotua, eta eleaniztun bihurtzea eta izatea elkar batzen dituen, egiazko komunikazioaren eta eskolako irakaskuntza-hizkuntzen artean zubiak bilatzen dituen, hiztunen praktiketako hizkuntza guztiak kontuan hartuz. Era berean, jakintza metalinguistikoa eta beste hizkuntzetan lortutako gaitasun komunikati-boa modu eraginkorrean erabiltzea xede du ikuspegi horrek, esan nahi baita, hiztun eleaniztunaren jakintzaren abantaila kognitiboak baliatzea.

Funtsean, *focus on multilingualism*ak kontuan hartu beharreko hiru dimentsio ditu (Cenoz eta Gorter 2014):

- a) hiztun eleaniztuna,
- b) hiztunaren hizkuntza-errepertorio osoa eta,
- c) gizarte-testuingurua.

Bada, *translanguaging* kontzeptuak ere hiru dimentsio horiek barne hartzen ditu (Cenoz eta Gorter 2014). Aterki-kontzeptua da *translanguaginga*, eta horren baitan txertatzekoa da *translanguaging* pedagogikoa, irakasleak ikasgelan modu planifikatuan *input* eta *output* gisa hizkuntza ezberdinak erabiltzeari dagokiona edo, ikasleen errepertorio linguistikoa osoa erabiltzeko, ikasleen baliabideen erabileran oinarritutako estrategia planifikatuei dagokiena (Cenoz eta Gorter 2021).

*Translanguaging* pedagogikoaren oinarritzko ezaugarriak dira: hezkuntza eleaniztunean eta bigarren hizkuntza gehigarriaren hezkuntza-plangintzetan erabilia izatea, ikasle eleaniztunekin, eta ikasle horien garapen linguistikoa eta akademikoa izatea helburu, eta modu planifikatuan praktikatzea, diseinu-hurbilketa eleaniztuna/heteroglosikoa izanik. Ezaugarri jakin horiek mugatua den arren, aski zabala ere bada: ikasle elebidunetatik haragoko komunitateari dagokio, *translanguaging* espontaneoa darabilenari ere bai,



eta bi hizkuntza erabiltzearen kontzeptuaz at doa; orobat, hainbat mailatan diseina liteke: fonetikoan, lexikoan, morfosintaktikoan, diskurtsiboan..., eta hizkuntza-eskoletan zein hizkuntzakoak ez direnetan ere aplikatu liteke (Cenoz eta Gorter 2021).

Baina hizkuntza gutxituen esparruan modu jasangarrian baliatu behar da. Nola, baina? hizkuntza gutxitua erabiltzeko arnagune funtzionalak diseinatu, *translanguaging*aren bidez hizkuntza gutxituak erabiltzeko beharra garatuta, hiztun eleaniztunen baliabideak erabilia jakintza metalinguistikoa garatzeko, hizkuntza-aniztasunarekin lotutako jarrera egokiak sustatuta, eta bat-bateko *translanguaging*a eta jarduera pedagogikoak uztartuta (Cenoz eta Gorter 2017).

Lau abantaila nagusi ditu eskolan *translanguaging* baliatzeak (Baker 2001):

- i) gaiaren ulermen sakonagoa sustatzen du;
- ii) hizkuntza ahulena garatzeko laguntza izan daiteke;
- iii) «etxea ↔ eskola» harremanak eta kooperazioa erraz ditzake eta;
- iv) hiztun aritu eta adituak hasiberriekin integratzea ahalbide dezake.

García eta Weik (2014) zazpi funtzio esleitu dizkiote *translanguaging*aren erabilera pedagogikoari:

- i) ikasleen hizkuntza-maila askotarikoak kontuan hartuta instrukzioak egokitzea;
- ii) irakasten diren edukien ulermenean sakontzea;
- iii) pentsamendu kritikoa garatzea, jakintza berriak sakonduz, garatuz eta zabalduz;
- iv) hizkuntzen arteko transferentzia eta jakintza metalinguistikoa sustatzea;
- v) hizkuntzen arteko malgutasuna sustatzea, hizkuntza-praktikak modu eraginkorrean baliatzeko;
- vi) hiztunak engaiatzeko hizkuntza-identitatea lantzea;
- vii) hizkuntzen arteko berdintasun ezaren inguruko gogoeta sustatzea gizarte-egiturak eta hizkuntza-hierarkiak ikusaraziz.

*Translanguaging* pedagogikoa modu egokian bideratzeko estrategien artean daude, besteak beste, hurrengo hauek: ulermenean arreta jartzea, tes-

tu eleaniztunak eta multimodalak erabiltzea eta ekoiztea askotariko testu-generoetan, baliabide teknologikoak erabiltzea eta paisaia linguistiko eleaniztuna eta multimodala sortzea (bai eskolan, bai hortik haragoko testuinguruan), curriculumean eta eskola-egituretan ama-hizkuntzen arabera ko taldekatzeak txertatzea, proiektu eta atazen bidezko irakaskuntzan oinarrituta jardutea, ikasleei, lanak burutzeko, informazioa bilatzeko beharrezana sorraraztea, bestelako ikasgaiekin lotutako edukietan sakontzeko unitateak diseinatzea, hizkuntzen arteko erkatzea ahalbidetzen duten ariketak egitea eta abar.

Hala, García eta Weik (2014) proposatu zuten, ahozko zein idatzizko ekoizpenetan hizkuntza-aniztasuna baliatzea, hitz-hodeiak, kognatuak ikusaraztea, baliabide eleaniztunak erabiltzea, talde eta proiektu kolaboratiiboak praktikan jartzea eta itzulpenari sendo eustea.

Hain zuzen, azken estrategia horren ustiaketari arreta jarriko diogu gure lan honetako hurren datozen azpiataletan.

## **2.2 Hizkuntzen Trataera Bateratutik (HTB) Hizkuntzen Trataera Integral eta Integratura (HTII)**

Ikastetxeetan presente dauden hizkuntzak balioesteko, kudeatzeko eta irakasteko ikuspegia da HTB, 17/2023 EAEko hezkuntza-legean Trataera Integral eta Integratua izendapena duena (aurrerantzean HTII). Programazio, metodologia eta ebaluazio-irizpide bateratuak berekin dakartza, eta irakaskuntza eleaniztun eraginkorra eta konpetentzia eleaniztuna garatzea ditu helburu (Ruiz Pérez 2008). Idiazabal eta Manterolak (2009), gainera, hizkuntza bakoitzean lortu beharreko trebetasunak hizkuntza horren egoera soziolinguistikoari loturik orekatzeko bidetzat ere jo dute.

Ez da berria HTBren kontzeptualizazioa eta ezarpena: ikaslearen hizkuntza guztietako baliabideak erabiltzea Europako hizkuntzen marko bateratuan zehaztu zen (2001), baina lehenago pausoak emanak ziren (Ruiz Pérez 2008). LOGSE legetik (1993) eratorritako zenbait curriculum elebidunetan aurki daitezke aurrekariak, hizkuntza ofizialak metodologia eta kontzeptu-sare berberen bidez lantzeko aipamena egin baitzuten (Ruiz Bikandi eta

Tusón Valls 2008; Guasch 2008; Ruiz Pérez 2008; Apraiz, Pérez eta Ruiz 2012). Geroztik, hizkuntzen departamentuen arteko koordinazio behar-rako aipamenak hasi ziren (Ruiz Bikandi eta Tusón Valls 2008, Noguerol 2008), eta hizkuntza ofizialen eta atzerriko hizkuntzaren didaktikarako iriz-pide eta jokamolde komunitararako proposamenak (Guasch 2008). 2013ko hezkuntza-legeak ekarritako aldaketek ere eragina izan zuten HTBren aldeko pausoa egin zedin, ingelesa eskolako hizkuntzen artean txertatu behar izan zenez gero (8/2013 Lege Organikoa).

Euskarazko irakaskuntzaren esparruan, ikastolen sareak 90eko hamarkadaz geroztik dihardu bere hizkuntza-proiektu eleaniztun integral eta integratuan lanean, ikastetxeetako hizkuntza-planak eremu pedagogikoan zein instituzionalean eragina izan dezan (Elorza eta Muñoa 2008). Bestalde, EAEn, hezkuntzaren lege-aldaketa bizi den garaiotan, 2015eko hezkuntza-legeek diotena gogoratu behar da: gizarte eleaniztuna jarri zuen xede nagusi EAeko hezkuntza-sistemak, konpetentzietan oinarritutako irakaskuntza eta HTB sustatutako zuena. Halaber, euskarak lehentasuna izanik, transferentziak gakoa izan behar zuen curriculum-plangintzan, eta, tokiko hizkuntzen oreka bilatuta, atzerriko hizkuntzen irakaskuntza txertatu behar zuen (236/2015 eta 237/2015 Dekretuak). EAeko hezkuntza hobetzeko, Heziberri planak (2020)<sup>3</sup> zentzu horretan eragin gura zion euskal irakaskuntza-curriculumari, konpetentzietan oinarritutako hezkuntza-eredua sustatuta.

Aurreko legearen bidetik, euskara ardatz duen hezkuntza eleaniztuna du jomuga 2023ko EAeko Hezkuntzaren Legeak (17/2023 Legea), eta ikasleek lortu beharreko profilak «eleaniztuna eta kulturartekoa, multimodala» behar duela zehazten du. Euskararen erabilera formalean ez ezik, ez-formalean ere euskararen suspertzea jadetsi nahi du eta, halaber, atzeritar jatorriko ikasleen inklusioa dela eta, haien hizkuntzak eta kulturak agerrarazi nahi dira ikastetxeetan, «elkarrekiko aitortza bultzatu, aniztasunaren balio kulturala eta ekonomikoa nabarmendu eta hezkuntza-integrazioa sustatu, ikasleengan beste hizkuntza eta kultura batzuekiko jakin-mina pizteko eta

---

<sup>3</sup> Heziberri 2020ri eskainitako atala Eusko Jaurlaritzaren webgunean:  
<http://www.euskadi.eus/heziberri-2020-plana-faq/web01-a2h2020/eu/>.

hizkuntza eta kultura horien ezaugarriari eta funtzionamenduari buruzko ezagutza emateko» (17/2023 Legea). Hain zuzen ere, Legearen IV. Tituluan, I. Kapituluari, «Euskal Hezkuntza Sistemaren Esparru Eleaniztuna eta Kulturartekoa» zehaztuta dator, eta II. Kapituluari hizkuntza-proiektuaz, HTIIz eta aurrekoen alderdi metodologikoez ari da, helburu gisa ezarririk, besteak beste, «bi hizkuntza ofizialetan eta, gutxienez, atzerriko hizkuntza batean kompetentzia eleaniztuna lortzea» eta «komunikazio- eta hizkuntza-kompetentzia zeharkakotasunez lantzea». Horrez gainera, EAetik kanpoko ikasleen hizkuntza eta kulturak sustatzeko neurri espezifiko batzuk jasota dakartza 2023ko Legeak, zera adieraziz, «tratamendu inklusiboa eta egokia» emango zaiola aniztasun horri eta «ikasgelan integratzeko neurriak hartze-ari ere» bide emango diola. IV. Kapituluari, euskararen ingurune-erabileraz ari dela, 74. Artikuluari, euskararekiko jarrera positiboak aipatzen dira: «Euskararekiko, eleaniztasunarekiko eta hizkuntzen arteko elkarbizitzarekiko jarrera positiboak sustatuko dira» (17/2023 Legea).

Bada, 236/2015 Dekretuko 10. Artikuluari zedarritu ziren HTBren printzipioak (izendapen ezberdinekin bada ere, 2023ko HTIIk ere bere baitan jasoak ditu): inklusioa —soziala eta linguistikoa—, hizkuntza-aniztasunarekiko eta beste hizkuntza batzuekiko hiztunekiko balio eta jarrera positiboa, komunikazioa lehenestea eta hizkuntzak modu errealean erabiltzeko espazioak sortzea eta sustatzea.

HTB loturik dago Cenoz eta Gorterrekin (2021) Hizkuntza Curriculum Integratua (aurrerantzean HCI) deritzotenarekin, zeina *translanguaging* pedagogikoaren praktikatzat jo duten, *translanguaging* pedagogiko ahulagotzat balioesten badute ere: «This practice implies that even if there are two or more languages in the school curriculum, they are used separately in different classes» (Cenoz eta Gorter 2021: 32). Cenoz eta Gorteren hitzetan (2021), HCIk berekin dakar irakasgai diren hizkuntzak loturik egotea, elkarren antzeko ikuspegi metodologikoen bidez irakatsirik, eta hizkuntza ezberdineko irakasleen arteko koordinazioa egotea, hala nola, hizkuntzen arteko antzekotasun eta ezberdintasunetan arreta jartzeko eta hizkuntza ezberdineko eskoletan jarduera koordinatuak egiteko, adibidez, komunikazio-proiektuen bidetik.

Idiazabalek eta Manterolak diote, ildo beretik, hiru mailatan egin behar dela lan koordinatua eta koherentea HTBren bidean: «... irakaskuntzarako programen mailan, hizkuntzak irakasterakoan gelan erabili beharreko terminologian eta baita irakasleek prestatutako jardueretan ere» (2009: 494).

Noguerolek (2008) baieztu zuen, programazio bateratuaz gain, HTBk barne hartzen dituela familia bereko hizkuntzen arteko gutxieneko ulermena lortzeko jarduerak, eta horiek beste estrategia eta jakintza batzuen transferentzia ustiatzea dakartela nahitaez. Halaber, konpetentzia eleaniztuna eta kulturantzuna sustatu behar dela dio, eta horrek eskatzen duela, ikaslearen hizkuntzak, ikastetxearen testuingurukoak, minorizatuak eta baita exotikoak eta ezezagunak ere geletan txertatzea, horietatik eta euren hiztunetatik ikasteko. Azkenik, Noguerolek (2008) dio ikastetxeetan egiten diren hizkuntzazko zein ez-hizkuntzazko ikaskuntza-prozesu guztietan arreta jartzea eskatzen duela HTBk.

Guaschek (2008), planifikazio integratua egiteko, kontuan hartu beharreko esparruak zerrendatu zituen; hots: lau gaitasunen garapena (ahozkoaren eta idatzikoaren ulermena eta adierazpena, alegia), egoera diskurtsiboen eta testu-generoen ezagutza, erabileraren eta gogoeta metalinguistikoaren arteko interdependetzia, ikasleek ezagutzen dituzten hizkuntzen arteko eraketa eta hizkuntza-aniztasunari buruzko ezagutza eta hizkuntza-jarrerak. Gainera, hizkuntzen arteko gramatika-erkaketan pausoak aurrera egin beharra ere nabarmentzen zuen.

Bide horretan pauso nabarmena egin da euskal irakaskuntzan: eredu egoiak izan daitezkeen sekuentzia didaktikoak diseinatu eta testatu dira (adib., Ortega eta Anakabe 2015; Apraiz, Pérez eta Ruiz 2012). Bada, materialaren analisirako zenbait alderdiri begiratu behar zaiela adierazi du Ruiz Pérezek (2008): materialen egiturari, unitate didaktikoaren helburuari, edukiei, testu-motei, jarduerari eta ebaluazioari.

Xehetasun gehiago erantsiko diegu alderdiori, banan-banan joanez, Ruiz Pérezi jarraituz beti (2008):

- Materialen egiturari dagokienez, hizkuntzaren erabilera erreflexiboa eskatzen duten atazak planteatu beharko lirateke, hizkuntzaren asotariko alderdiak beren artean erlazionatzeko bide emateko.

- Unitate didaktikoen helburuei dagokienez, arreta gaitasun komunikatiboaren garapenean jarri beharko litzateke, beste hizkuntza batzuetako helburuak partekatzen direnean, batez ere.
- Edukiei dagokienez, hizkuntzari buruzko jakintza eta erabilera jagoenez hautatu behar lirateke, hizkuntza guztietako osagarritasunean edota errepikapenean oinarrituta.
- Testuei dagokienez, testu-genero errentagarrienak probestu beharko lirateke, testu-tipologiaren eta erabilera-esparruen arabera sailkatuta eta orekatuta.
- Jardueri dagokienez, hizkuntzen arteko transferentzia eta ikuspegi komunikatiboa betetzen ote duten berrikusi beharko litzateke.
- Azkenik, ebaluazioari dagokionez, helburuen, edukien eta ebaluazioaren artean koherentziarik ote den begiratu beharko litzateke, HTBren ildoan lan eginez gero.

### 3. Itzulpen-estrategia pedagogikoei buruzko lanez

Itzulpena ardatz duten estrategia pedagogikoez ari diren lanen artean, batetik eskolan itzulpena baliatzearen aldeko eta kontrako arrazoiketak biltzen dituztenak daude, eta bestetik, jarduerak modu orokorrean azaltzen dituztenak (Zabalbeaskoa 1990, Niño 2009, Leonardi 2011, Lee 2013, Cornago 2017, Pérez de Obanos 2017, Briggs 2018). Batzuetan, jardueren ondotik, irakasleei/ikasleei eginiko inkestak aztertzen dira, edo jardueren zein ikasleen aurrerapenak ebaluatzen dira. Beste batzuetan, itzulpena egokiro baliatzeko gomendioak ematen dira, bai eta lantzen diren hizkuntza-alderdiei buruzko zehaztapenak eman ere (adib., Etxezarraga 2016). Izan ere, itzulpena gako duten teknika eta jardueren helburuak askotarikoak izan daitezke, eta testu-generoak, hizkuntza-egiturak, hizkuntza-konbinazioak..., unean uneko beharrianen arabera hautatzekoak. Bleyhesh Al-Amri eta Abdoul-Raofek (2014) laburbildutako helburuen artean aipagai dira, ikaslearen lau hizkuntza-trebetasunak garatzea, testuinguruaren, kulturaren nahiz testu-ezaugarrien kontzientzia piztea, gramatika-kontzientzia ernatzea, analisi kontrastiboa bereganatzea, hiztegiari testuingurua ipintzea eta itzulpen-gaitasuna hobetzea.

Bestetik, badira proposamen zehatzagoak, itzulpengintza-ikasketak egiten dituzten ikasleei bideratutakoak (adib., Sánchez 2005; Tonín 2017). Horiek, oro har, itzulpen-proiektuak dira. Horietan egileek nabarmendu egiten dute bai testuaren alderdi funtzionalari, bai soziodiskurtsiboari erreparratu beharra eta elementu kulturelei ere arreta egin beharra.

Horiez gain, itzulpena ardatz duten estrategia pedagogikoak aurkezten dituzten lanen artean, bigarren hizkuntzarekin edo atzerriko hizkuntzarekin lotutako jarduerak plazaratu izan dira, batez ere lehen aipatutako proiektu gisa aurkezten direnak eta atzerriko hizkuntzaren alderdi jakin bati atxikitakoak (adib., Alcarazo eta Lopez 2014; Amin 2018). Atzerriko hizkuntzakoak ez ezik, ikasleen ama-hizkuntza jakin bat lantzekoak ere badira (adib., Gierden 2002-2003; Castro 2015; Gasca 2017; Reig 2017; Soler 2017).

Nabarmentzekoa da Gagnon eta Deschouxek (2008) egin zuten proposamena: HTB oinarri zela, lehen irakurleentzat jarduera franko proposatu zuten album elebidunetatik abiatuta Genovako eskola-testuinguru eleaniztunetarako. Kasu horretan, sekuentzia bera «eleaniztasuna» kontzeptua modu malguan ulertuz diseinatua da, eta proposatu den testu-generoa erabat lotua zaio tokiko gizarte eleaniztunari.

Komeni da, gisa horretakoak bakanak direla gogoratzea, eta itzulpena bitarteko duten esku-hartzeak batez ere Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako proposatu izan direla. Esate baterako, eta euskal irakaskuntzari dagokionez, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntza Unibertsitate Masterraren esparruan izan dira ildo horretako proposamenak.<sup>4</sup> Aipatzekoa da, halaber, eskolan itzulpenaz baliatzeko proposamenetan,

---

<sup>4</sup> Adibide batzuk ekarri nahi ditugu. Zurutuzak 2018ko MAL (Master Amaierako Lana) argitaragabeen, film-kritika bat itzultzeko sekuentzia didaktikoa proposatu zuen; Urabaienek 2019ko MAL argitaragabeen, argudiozko testuak lantzeko sekuentzia eleaniztun batean, ingeles arloan itzulpena baliatzea proposatu zuen, gaztelaniazko esapide ezagunetatik abiatuta, ingelesez iritzia emateko esapideak lantzeko. Mantxolak 2023ko MAL argitaragabeen, ikastetxeko irakurketa-planarekin bat eginez, euskaraz irakurritako literatur lan baten erreseina (gaztelaniaz), *booktube* bideoa (euskaraz) eta azpidatziak (ingelesez) sortzeko sekuentzia didaktikoa proposatu du, itzulpena ardatz duten jarduerak ere erabilita.

hautatutako testu-moten artean ikus-entzunezkoak nabarmentzen direla. Hala, ikus, esaterako, Lertolaren (2019) liburukia, osotasunean ikus-entzunezko itzulpena hizkuntzen irakaskuntzan aplikatzeari buruzkoa, zein Tonín (2017), Castro (2015), Contreras (2020) eta Sánchezen (2005) proposamenak ere.

Itzulpenaren eskola-erabileraren sailkapenei dagokienez, autoreen azterketa- eta ikerketa-eremuen araberakoak dira. Esan nahi baita, itzulpen profesionalaren eta pedagogikoaren arteko aldea ikusarazten dela (Pegenaute 1996): alde batetik, itzultzaileen formakuntzarako jarduerak eta, beste alde batetik, itzulpena bera helburutzat dutenak, emaitzatik haragoko helburura iristekoak direnak.

De Arribak (1996), itzulpen didaktikoaren jarduerak hirutan banatu zituen: *a*) azalpenerako itzulpena (irakasleak egina), *b*) barneratutako itzulpena (ikasleak egina, bigarren hizkuntzaren ulermenera iristeko), eta *c*) itzulpen didaktikoa *per se*, bigarren hizkuntzaren ulermena eta lehen hizkuntzaren ekoizpena lantzeko baliatzen dena. Cuéllarrek (2004), ostera, proposatu zuen, atzerriko hizkuntzaren zentzura iristeko mekanismo modura edota eraketarako tresna didaktiko gisa itzul daitekeela eskolan, beti ere ikuspegi komunikatiboari jarraikiz. Hizkuntzak erkatzeak interferentziak identifikatzeko balio behar du beti, eta hitzez hitzeko itzulpena gaindituta, testuinguruari erreparatu behar dio ikasleak (Cuéllar 2004).

Gierdenek (2002-2003), bere aldetik, itzulpen pedagogikoaren baitan itzulpen zuzena (ulermena egiaztatzeko eta berrikusteko) eta alderantzizkoa (ekoizpen-gaitasunak aktibatzeko eta alemanaren eta gaztelaniaren arteko kontrasteak azalarazteko) aurkeztu zituen.

Azkenik, itzulpena bitarteko duten eskolako ariketa-motei dagokienez, Cookek (2010) hurrengo hauek aditzera eman zituen: *a*) gertuko itzulpena (normalean arazoak ematen dituzten esamoldeekin), *b*) hitzez hitzeko itzulpena (egiturazko ezaugarriak nabarmendu nahi direnean), *c*) lexiko itzulia-zen zerrendak (hiztegi berria aurkezteko), *d*) itzulpen-arazoei buruzko eztabaida (adibidez, azpidatzen inguruan, izenburuen inguruan, pasarte zehatzen inguruan...), *e*) testuinguru komunikatibo jakinetan egindako itzulpen-jarduerak (esate baterako, testu elebidunak sortzea, bideoi azpida-



tziak ipintzea), f) hitz-jarioa ez eteteko hiztunari bere hizkuntzaren bateko hitzak baliatzen utzi eta beste batek itzultzea, g) ikasleak bata bestearentzat itzultzen aritzea eta h) hiztegi eta material eleaniztunak erabiltzea.

#### **4. Itzulpen-jarduerak aztergai EAEko hezkuntza-markoaren kariatara**

Aurreko ataletan aletutako ikuspegi eta lanen argitan, gure helburua da, EAEko hezkuntza-markoan itzulpenak aukera didaktikoak eskaintzen dituela erakustea. Bide horretatik joanda, estrategia-bilduma bat osatzea, sailkatzea eta aztertzea izan dugu xede, bi galderok gogoan ditugula:

- a) Nolakoak ote dira itzulpena bitarteko duten ikasteko eta irakasteko estrategiak?
- b) Betetzen al dituzte egungo irakaskuntza-markoaren oinarriak?

Atal teorikoan nabarmendutako alderdiei begiratu zaie itzulpen pedagogikorako estrategien sailkapena egiteko eta azterketa kualitatiboaren bidez bederatzi estrategia deskribatu eta aztertzeko. Estrategiak hautatzeko irizpide nagusia izan da, askotariko hizkuntza- eta jakintza-mailetara egokitze modukoak izatea. Azterketarako txantilo bat erabili da, eta bertan oharrak jaso dira hurrengo alderdi hauek aintzat harturik: García eta Weik (2014), zehaztutako *translanguaging*aren funtzioak eta jarraibide egokiak, Noguerolek (2008) eta Guashek (2008) HTBren aplikaziorako emandako jarraibideak, Ruiz Pérezek HTBrako materialak aztertze proposatutako aztergaiak (2008) eta Bleyhesh Al-Amri eta Abdoul-Raofek (2014) itzulpen-ariketei esleitu dizkieten helburuak.

#### **5. Itzulpen-estrategia pedagogikoen sailkapen-proposamena EAEko hezkuntza-markorako**

Pegenauteren (1996) sailkapena gainditu beharrez, azpimarratzekoa da, itzulpena azken ekoizpentzat duten proiektuak ere pedagogikoak izan daitezkeela, haiek sekuentzia didaktiko egituratuaren emaitza direnean (adib.,

Zurutuza 2018). Bestalde, De Arribaren (1996) sailkapenari egotz dakioke, azalpenerako itzulpena irakasleak praktikatzat jotzetik harago joanda, ikasleek ere egin ditzaketela itzulpenak helburu pedagogikoz —horixe Cookek (2010) proposatutakoa—, adibidez, ikaskideen artean zein irakasleari zuzenduta, azken horrek ikasleen hizkuntzaren bat ez duenean. Hala, sailkapen hori ere gainditzekoa da.

*Focus on multilingualism*arekin (Cenoz eta Gorter 2011, 2014, 2105) batera etorrira, itzulpen-estrategia pedagogikoak sailkatzean, eta «eleaniztasunaren malgutasun» kontzeptuari men egin behar zaiola uste izanik, proposatuko dugun sailkapenean, ez diegu izendapenetan hizkuntza osagarrien aldagaiei begiratuko, ikaslez ikasle aldatu egiten baitira. Beraz, «lehen hizkuntza» edota «atzerriko hizkuntza» gisako izendapenak bazterrean utziko ditugu, ikasleen hizkuntza-errepertorioak oso ezberdinak direla kontuan harturik.

Bestalde, *translanguaging* pedagogikoa hizkuntza-irakasgaietan ez ezik, bestelako irakasgaietan ere erabiltzekoa dela gogoan izanik; eta EAEko hizkuntzen irakaskuntzan komunikazio-proiektuez gainera, proiektuen baitako komunikazio-jarduerak ere egiten direla ikusita; eta, halaber, azken horiek hizkuntzazkoak ez diren irakasgaietako sekuentzietan ere ageri direnez gero, bai hizkuntza irakasgaietan, bai hizkuntzazkoak ez direnetan ere txertatzeko moduko estrategiak barne hartzen dituen sailkapena proposatu nahi izan dugu.

Berebat, ulermena eta ekoizpena, ahozkoa nahiz idatzizkoa, kontuan hartu gura izan dira, bai eta ikasteko eta komunikatzeko estrategiak aintzatetsi ere. Halaber, sailkapenaren parte egin nahi izan ditugu jakintza metalinguistikoa garatzeko modukoak, zein itzulpenari berari buruzko gogoeta egitekoak eta itzulpenaren eta hizkuntzaren erabilera erreala jasotzen dutenak.

Hona hemen, beraz, EAEko uneko eskola-testuinguruan balia daitekeen itzulpen-estrategia pedagogikoen sailkapen-proposamen bat:

- A. Azken ekoizpentzat itzulpen bat egitea xede duten sekuentziak edo proiektuak

- B. Itzulpenenarekin lotutako teknikak eta jarduerak bestelako sekuentzien baitan
  - B.1 *Itzulpena ulermena bermatzeko estrategia gisa*
  - B.2 *Itzulpena jarioa bermatzeko estrategia gisa*
  - B.3 *Itzulpena ikasteko eta ekoizteko estrategia gisa*
    - i. Itzulpen-tresnen bilketa eta ustiaketa
    - ii. Itzulpen-tresnei buruzko hausnarketarako jarduerak
  - B.4 *Itzulpena hizkuntzaren alderdi jakinak lantzeko estrategia gisa (hizkuntzaren askotariko mailetan)*
    - iii. Hitzez hitzeko itzulpena
    - iv. Gertuko itzulpena
  - B.5 *Ahozko eta idatzizko itzulpena ustiatzea: praktika, behaketa eta hausnarketa*
    - v. Itzulitako testuei buruzko hausnarketarako jarduerak
    - vi. Interpretazioari buruzko hausnarketarako jarduerak

Itzulpen-estrategion nolakotasunari begiratzeko, sailkapeneko atal bakoitzeko adibide bat aurkeztuko da jarraian, eta strategiak eztabaidatu, atal metodologikoan deskribatu txantiloiaaren arabera oharrak oinarri hartuta.

## 6. Itzulpen-estrategia pedagogikoen adibideak

### 6.1 Azken ekoizpentzat itzulpen bat egitea xede duten sekuentziak eta proiektuak (*A puntua*)

→ [Bideoklip baterako azpidatziak sortzeko elkarlaneko proiektua]

ITURRIA: Reig 2017: 119

Hainbat saiotako sekuentzia. Giroitze-saioan bideoklip bat aurkeztu zaie ikasleei katalanez (hizkuntza osagarria), eta huraxe partekatzeko helburuz abiarazi da proiektua. Kantua, eskolan lantzen den hizkuntza osagarritik eskolako hizkuntza nagusira (frantsesa) ekarri da, azpidatziak egin, bideoan txertatu eta bideoa frantses komunitatearekin partekatzeko. Bideoa musi-

ka-taldeari ere bidali zaio. Saioz saio, honako jarduera hauek egin dituzte ikasleek: kantuaren letrari erreparatu eta aztertu (generoa, testuaren ezau-garriak, mezua...); banaka, norberari esleitutako esaldiak itzuli eta ikastal-dearen wikian bi zutabeko testu batean (zutabe batean jatorrizkoa eta bes-tean itzulpena ageri dira) itsatsi; talde txikietan abestiaren pasarte baten azterketaz arduratu; etxerako lan gisa, banaka zuzenketak eta hobetzekoak proposatu; eta wikiko foro edo eztabaida-lekuaren atalean, itzulpen-arazoei buruzko hausnarketa idatzi, eta besteren hausnarketa bati erantzun. Beste saio batzuetan, foroetan agertutako gramatika, lexiko, estilo eta abarretako arloko zalantzak argitzeko dinamika errepikatu da; azken saioan azpidatziak sortu dituzte, bideoan kode irekiko programa baten bidez txertatzeko. Ho-rretarako, irakasleak jarraibide-bilduma banatu du katalanez. Bukaeran, bideoa Youtuben partekatu da. Proiektuaren jarduera osagarri legez, artis-tari mezu bat helarazi zaio, bideoaren frantsesezko azpidatxidun bertsioa sareratu izanaren berri emanez eta proiektuaren eta motibazioen jakitun eginez.

## 6.2 Itzulpena ulermena bermatzeko estrategia gisa (B.1 puntua)

→ [Hizkuntzen «sandwicha»]

ITURRIA: Kerr 2014: 21

Irakasleak, hizkuntza jakin batean ahoz ari delarik, ikaslearen beste hiz-kuntza batean ulermenerako gakotzat jotako hitz, esaldi zein pasarte bat txertatzen du, ikaslearentzat ulergaitza delakoan edo ulermenerako makulu delakoan. Jarraian, berriz errepikatzen du, landu nahi den hizkuntzan. Ira-kaslea isiltasun-tarteez edo keinuez balia daiteke, «sandwicha» egiten ari dela adierazteko. Proposamena da, irakasleak aurrera egin ahala, «sandwich» kopurua eta tartekatutako hizkuntza-egiturak aldatzen joatea modu esan-guratsu eta gradualean. Gogorarazi beharrekoa da jarduera ez datzala ira-kasleak esaten duen guztia itzultzean, baizik eta helburua, langai den hiz-kuntzan trebatzea dela.

### 6.3 Itzulpena jarria bermatzeko estrategia gisa (B.2 puntua)

→ [Antzezlearen papera berritzen (recasting)]

ITURRIA: Kerr 2014: 32

Ikasle batek hizkuntza batetik bestera jauzi egiten duenean, irakaslearen erantzuna kode-aldaketaren arazoien arabera izaten da, bai eta unean-unean lehentasuna duten helburu didaktikoen arabera ere. Batzuek ikasleari entzungor egiten diote, beste batzuek ikaskideei eskatzen diete mezua langai den hizkuntzan esan dezaten... Testuinguru horretan, estrategia hau honexetan datza: esan duena ulertu egin duela adieraziko dio irakasleak ikasleari, eta ikasleak esandakoa langai den hizkuntzan birformulatuko du.

### 6.4 Itzulpena ikasteko eta ekoizteko estrategia gisa (B.3 puntua). Itzulpen-tresnen bilaketa eta ustiaketa: glosarioak

ITURRIAK: Kerr 2014: 103 eta Cornago 2017: 38

Ikasleek landuko duten testu jakin bati jarraitu ahal izateko bidea da. Ikasleentzat ezezagunak diren zenbait hitz eta egitura hautatu eta glosarioak sortzen dira, ikasleen hizkuntzetako itzulpenak eskainita. Glosarioa osorik eman daiteke, edo hitz-zerrenda bat ikasleari eskaini menderatzen duen hizkuntzan, testuan dagozkion itzulpenak bila ditzan, glosarioa osatzeko; edota ikasleek eurek sortzen dituzte glosarioak hutsetik abiatuta, gai jakin bati buruzko hiztegiaren aurreikuspena eginez. Glosarioak eskuz eta pape-rean idatzita egin daitezke, zein tresna digitalen zein analogikoen bidez hitz-hodeiak sortuta.

### 6.5 Itzulpena ikasteko eta ekoizteko estrategia gisa (B.3 puntua). Itzulpen-tresnei buruzko hausnarketarako jarduerak

→ [Online itzultzaile automatikoen testuak erkatzen]

ITURRIA: Kerr 2014: 57

Eskolan langai den testua bakarka irakurri ondoren, testuaren ulergarritasuna bermatu behar da, hots, ulermen-arazoak talde handian konpondu. Ostean, online itzultzaileen bidez lortutako testuaren bertsio itzuliak erakutsiko dira (dela eskolan lantzen diren hizkuntzetan, dela ikasleen etxeko hizkuntzetan). Nabarmen dezagun, akats/desbideratze batzuk agerikoak izan daitezkeela hizkuntza ezagutu gabe ere. Bikoteka, testuak aztertu eta akatsak/desbideratzeak topatuko dituzte (asmoa ez da denak topatzea, pare batekin nahikoa izan daiteke). Akatsen/desbideratzeen jatorriari buruzko eztabaida sustatuko da. Talde handian, ikasleek gogoeta egingo dute topatutako akatsei buruz: identifikatu, ikasleek esandakoez gainera, bestelakoak ere. Komentatu zein itzultzaile automatiko izan daitekeen erabilgarriena eta zertarako. Beste hizkuntza-norabidean egingo da jarduera bera, hizkuntzaren nolakotasunaren arabera aldeei erreparatzeko.

#### 6.6 Itzulpena hizkuntzaren alderdi jakinak lantzeko estrategia gisa (B.4 puntua). Hitzek hitzeko itzulpena

→ [Zazpikiak jarduera:5 hitzek hitzeko itzulpenari buruzko hausnarketa eta zuzenketa]

ITURRIA: Cornago 2017: 36

Hitzek hitzeko itzulpena dela-eta, oker emandako testu elebidun errealak (afixak, errotuluak eta abar) aurkezten zaizkie ikasleei (esaterako, jattetxe batean, plater baten gaineko etiketa bat: «*al punto/to dot*»; edota pintatu berri den horma bateko afixa: «*pintura fresca/paint fresh*»). Ikasleek okerrak identifikatu behar dituzte, eta okerrok eginaren arrazoi eta azalpenak eman. Ondoren, itzulpen egokia sortuko dute.<sup>6</sup>

<sup>5</sup> Izena K. Amonarriz soziolinguistak zuzendutako EITBren Mihiluze saioan ematen ziren adibideen atalari zor zaio.

<sup>6</sup> EITB kateko Mihiluze saioan afixa ugari erakutsi zen Zazpikiak atalean, eta gutxieneko materiala eskuragarri dago bertan. Bestalde, ikus hurrengo esteka hauek ere:

1: <https://www.argia.eus/blogak/kike-amonarriz/2013/05/28/mihiluzeren-ondarea-2-zazpikiak/>.

2: <https://www.youtube.com/watch?v=G8-6j9qIIcE>.

3: <http://euskara4.blogspot.com/2017/12/zazpikiak.html>.

### 6.7 Itzulpena hizkuntzaren alderdi jakinak lantzeko estrategia gisa (B.4 *puntu*). Gertuko itzulpena

→ [Gertuko itzulpena, hizkuntza-egitura jakinei erreparatzeko]

ITURRIA: Gierden 2002-2003

Hizkuntzan berariaz fokuratzeko ariketa da, bestelako sekuentzia komunikatiboen osagarri. Unean-unean landutako egitura morfosintaxikoak kontuan hartuta, esaldi errazak (hasiera batean testuinguru jakinik gabe egon daitezkeenak baina aurrerantzean pasarte luzeagoetan txerta daitezkeenak) ematen zaizkie ikasleei, eurok itzul ditzan.

### 6.8 Ahozko eta idatzizko itzulpena ustiatzea: praktika, behaketa eta hausnarketa (B.5 *puntu*). Itzultako testuei buruzko hausnarketarako jarduerak

→ [Album elebidunak irakurketaren hastapenean]

ITURRIAK: Gagnon eta Deschoux 2008

Album elebidun baten diskurtso-analisan oinarritutako jarduera-segida. Liburua objektu kultural eta grafiko gisa lantzeaz gainera, testu-generoari begiratzen zaio, bai eta idazketaren dimentsioei eta hizkuntzen eta kulturen arteko harremanei ere. Liburu elebidunaren paratestuari eta edizioaren antolaketari buruz hausnartzen da ikasleekin, letraeraren edo posizio ezberdinetan ematen diren testuen zergatiaren gainean gogoeta eginenez (zein hizkuntza agertzen den lehenbizi eta zergatik, zertarako diren baliagarriak bi hizkuntzetan emandako ipuinak...); idazlearen eta itzultzailearen izenari ere erreparatzen zaie, haurrei itzultzailearen lana agerikoa dela ikusarazteko eta abar. Albumaren hari narratiboa lantzeaz gainera, idazketaren dimentsioaz ere hausnartuko da ikasleen biografia linguistikotik abiatuta (ikasleen araberako hizkuntza-konbinazio elebiduna hautatu). Haur txikienekin, nahikoa da letrak edo hitzak identifikatzea (pertsonei izenak, adibidez), eta korrespondentzia grafofonikoren bat lantzea. Haur nagusitxoagoekin, hitz beraren ordaina beste hizkuntzaren

batean topatzeko ariketak egin daitezke eta jarduera hiztegia ikasteko bide bihurtu. Ahoskera-ezberdintasunei eta hizkuntza-egiturei buruzko (artikulu-luen kokapena, aditzarena, hitzen luze-laburra eta abar) hausnarketak ere jorra ditzakete. Adibidez, onomatopeien erkaketak hizkuntza-aniztasuna lantzeko bide eman dezake eta, albumean landutako hizkuntzetatik harago eginez, haurren familia-hizkuntzetako doinuak eta soinuak gelara ekartzeko abagunea ere izan daiteke. Jarduera osagarri legez, ikasleek eurek album eleaniztun bat sortzea proposatzen da, nor bere etxeko hizkuntza balia dezan. Bestalde, album elebidunak etxeetara eramanda, familiak ere partaide bihurtzen dira.

### 6.9 Ahozko eta idatzizko itzulpena ustiatzea: praktika, behaketa eta hausnarketa (B.5 puntua). Interpretazioari buruzko hausnarketarako jarduerak

→ [Interpretearen rol-playinga]

ITURRIA: Kerr 2014: 115

Interprete-eredu baten jarduna ikusi ostean, antzeko egoeretan aritzeko erabilgarri izan daitezkeen esaldi batzuk biltzen dira estrategia honetan. Klasea hiruko taldetan banatzen da (A, B eta C). A eta B kideei rolak banatzen zaizkie, adibidez, bezeroa eta dendaria izango dira. C, ostera, bien arteko interpretea izango da. Eman diezaiegun tartea ikasleei beren antzezpena prestatzeko. Adierazi behar zaie, A eta B kideei dagokien hizkuntza bakarrik balia dezaketela. C-k egingo du interprete-lana. Talde guztiek beren antzezpena egin ostean, talde handian zailtasunen gainean eztabaidatuko dute eta esplizitu egin zailtasun horiei aurre egiteko proposamenak. Ikasleen artean A-, B- eta C-rolak trukatu eta berriz *rol-playinga* errepikatuko dute.

## 7. Eztabaida eta ondorioak

Hasteko, ohartarazi nahi genuke, estrategien iturri nagusia Kerren (2014) *Translation and own-language activities* izan dela (bederatziotatik bost dira bertan): agerikoa da ezaugarri jakineko jarduera-bilketa sistematizatuek transmisioan laguntzen dutela. Bada, gure sailkapena ere itzulpen-estrategia



pedagogikoen katalogo baterako abiapuntua izan daiteke, Ruiz Pérezek (2008) proposatu bezala HTBren ildoko materialak berritu eta egokitzeke.

Jakitun izanik aurkeztu diren estrategietako batzuk dagoeneko erabili eta praktikatzen dituztela bai irakasleek, bai ikasleek,<sup>7</sup> garrantzitsua da, praktika eraginkorra lortu nahi bada, kontzienteki landu eta planifikatzea. Izan ere, eleaniztun izatea eta bihurtzea bateratuz, ikasteko moduei arreta jarriz, eta berez egindako hizkuntza-jauziak eskola-helburuekin lotuz etekina ateratzea da *translanguaging* pedagogikoaren gakoa (Cenoz eta Gorter 2014, 2015).

Ruiz Pérezek (2008) HTBren ildoko material-azterketarako proposatutako aztergaien kariatara, aurkeztutako estrategien helburuei dagokienez, ohar gaitzke Bleyhesh Al-Amri eta Abdoul-Raofek (2014) itzulpena bitarteko dituztenentzat aipatu guztiak landu daitezkeela: batetik, lau hizkuntza-trebetasunak garatzeko aukera ematen dute, Guashek (2008) ere aipatutako moduan. Batzuetan ahozko gaitasunak lantzen dira (antzezlearen paperarenean edo interpretearen *rol-playingean*), besteetan idatzizko gaitasunak (album elebidunaren azterketa), eta inoiz baita biak ere (azpidatzen proiektua). Bigarrenik, testuinguruaren, kulturaren zein testu-ezaugarrien kontzientzia pizteko baliagarri dira (horren adierazgarri da, album elebidunen azterketarako proiektua bere osotasunean). Batzuetan, arreta testuinguru komunikatiboan jartzen da, besteetan, testuaren egitura, aldian-aldian hizkuntza-egituretan..., betiere kontzientzia gramatikalari eta kontrastiboari eraginez, hiztegiari testuingurua ipiniz edo itzulpen-gaitasunaren inguruan gogoeta eginenez nahiz gaitasun hori berori trebatuz. Orobat, itzulpena azken ekoizpentzat duten proiektuan, aurreko guztiei erreparatze-ko modua dago. Hala, Guaschekin (2008) batera etorrita, egoera diskurtsiboan lanketa eta erabileraren eta gogoetaren interdependentzia bultzatzen da itzulpen-estrategion bidez. Berebat, kontuan harturik, eskolan landu

---

<sup>7</sup> Esate baterako, euskararen erabilera sustatzeko *Eman giltza* proiektuaren baitan, «Hezitzaile berritsua» izeneko gidan lehen aipatutakoak bezalako estrategia aipatzen da: euskararen erabilera «aginduz» eskatu ordez, mezua egokitu eta irakasleak laguntzaile-papera har dezala gomendatzen da. Ikus hemen, 4. or.: [http://www.emangiltza.eus/e-liburuak/Gu\\_Bai\\_Hezitzaile\\_Berritsuak/mobile/index.html#p=6](http://www.emangiltza.eus/e-liburuak/Gu_Bai_Hezitzaile_Berritsuak/mobile/index.html#p=6).

gura diren hizkuntzen arteko erkatzea zein norberak darabiltzan hizkuntzen artekoak sustatzen direla (itzulpen-proiektuko hausnarketarako uneak, gertuko itzulpena egitea eskatzen denekoa, itzultzaile automatikoak baliatzeko jarduera, Zazpikiak eta abar), gramatika-kontzientzia zolitu egiten da (Bleyhesh Al-Amri eta Abdoul-Raof 2014) eta analisi kontrastiborako gaitasunak bereganatzen dira (Guash 2008). Glosarioak egitea eskatzen duen jarduera, hiztegiari testuingurua ezartzeko (Bleyhesh Al-Amri eta Abdoul-Raof 2014) bide aproposa da eta, horiez landara, itzulpen-gaitasuna erdies-teko bidean ere jartzen dira ikasleak (Bleyhesh Al-Amri eta Abdoul-Raof 2014), dela itzulpen-proiektuen bidez (azpidatzen proiektua), dela itzulpen-prozesuei berariaz begiratuta (ahozko eta idatzizko itzulpena ustiatzeko estrategiak).

Testu-generoei eta -motei dagokienez (Ruiz Pérez 2008), askotarikoak landu daitezke (Guash 2008 lanean HTBrako proposatu bezala), eta aletu-tako jarduera batzuk bestelako testu-generoetara eraman daitezkeela ageri-agerikoa da. Aurkeztutakoetan, azpidatziak, elkarrizketa laburrak, iragar-kiak, afixak, eskolako testu-generoak eta abar agertu dira, besteak beste; bada, unean uneko beharrianen arabera, irakasleak bestelakoetara ere jo dezake. Bideoklipari azpidatziak txertatzeko proiektua mamitu zuen auto-reak berak (Reig 2017) zehaztu zuen, proiektua beste testu-generoetan ere aplikagarria zela: kantuaz at joanda, iragarkiak eta sukalde-errezetei azpida-tziak jartzeko aukera aipatu zuen.

Gainera, aurreko horrek bide ematen digu nabarmentzeko, hizkuntza-irakasgaietan ez ezik, bestelako irakasgaietan txertatzeko modukoak ere badirela bildutako jardueretako zenbait, *translanguaging* pedagogiko egoki-rako jarraibideekin (García eta Weik 2014) eta 2023ko lege-testuek zehaz-tutako HTIIren oinarriekin bat eginik. Gogora bedi, bideokliparen azpida-tzien proiektua beste edozein irakasgaitako edukien araberako testu-generoetara eraman daitekeela; demagun, kasurako, esperimendu baten berri emateko jarraibideen azalpenetara, eta arlo horretan diziplinar-teko proiektuak diseina daitezkeela.

Testu-generoaren azterketak, inondik ere, hizkuntzaren funtzio sozialean arretra jartzeko era ona opatzen du (Cantero eta Aarli 2012 lanean gomen-

datua), testu-generoen bidez egikaritzen baitira beharrian komunikatiboak. Hala, hizkuntza-edukiak lantzeaz gainera, jarduteko eta aritzeko diren estrategiak transmititzeko modua ere eskaintzen dute azaldutako estrategiok. Hein batean, hizkuntza-egiturak erkatzekoa da guztien artean testuinguru komunikatibo errealetik aldentzen dena; baina ahaztu gabe eduki dezagun, batzuetan komeni dela forman fokua jartzea, eta ikasle bakoitzaren hizkuntza-konbinazioaren arabera okerrak zuzentzeko balio dezakeela estrategiak. Ildo horretatik aurrera eginez, gainera, gogora bedi ikasleak ardatz izaten jarraitzen duela, bere praktikatik ateratako akatsak baldin badira berariaz landutakoak.

Bada, bistan da, aurreko ataleko estrategiak testuinguru eleaniztunetarako egoerak eta hizkuntza-aniztasuna ikusarazteko, balioesteko eta baliatze-ko moduko jarduerak direla. Kasu batzuetan, berriz, testu-genero elebidunak aplikatzeak askoz ere ageriago egiten ditu eleaniztasuna eta testuinguru eleaniztutarako egoeretako hizkuntza-kudeaketa eta testu-ekoizpena. Ohartarazi nahi genuke, eleaniztasuna bistaratzeko ez eze, aldaera-aniztasuna ikusarazteko ere baliagarri direla estrategietako batzuk; glosarioek, adibidez, aldaera bateko eta besteko hitzak jasotzeko modua ematen dute. Horretara, hizkuntza-aniztasunaren ezagutza eta haren aldeko jarrerak sustatzen direlakoan gaude —Guaschek (2008) HTBrako proposatu bezala eta *focus on multilingualism*aren (Cenoz eta Gorter 2011, 2014, 2014) ildoari jarraituta—, hizkuntzen estatusean eta gizarte-testuinguruan ardura ipinita bide batez.

Hizkuntzen estatusaren eta egoera soziolinguistikoaren inguruko hausnarketarako estrategia egokiak dira, besteak beste, online itzultzailea baliatze-ko proposatu duena, afixetako itzulpen okerrak aurkeztu dituen zein album elebidunak ekarri dituen. Esate baterako, afixen jardueran paisaia linguistikoari erreparatzeko abagunea da. Baina hizkuntzaren bestelako dimentsioak, esan nahi baita, kulturala, generoari lotutakoa, paratestuarekin lotutakoa eta abar ere jorra litezke itzulpen-estrategia pedagogikoen bidez. Hori guztiori erabat atxikita dago hizkuntzaren erabilera erreala egiteari eta komunikazio-egoerak ardatz izateari.

Horri loturik, gogoratu nahi dugu, adibidez, Lehen Hezkuntzako eta Haur Hezkuntzako Unibertsitate Graduko *Practicum* gidaritzak direla-eta ikastetxetara egindako bisitetan behatu ahal izan dugunez, ikasle batzuek testuak libreki idazteko tartea ematen zaienean, itzultzaile automatikoetara jotzeko joera dutela. Erabat praktika erreala denez gero ikasleen artean, interesgarria deritzogu, irakaslearen aldetik hizkuntza bakoitzerako tresna egokiei eta erabilera egokiei eusteari. Bada, itzulpen-tresnei buruz hausnartzeko jardueraren bidez egin daiteke hori, adibidez, tresnen mugez eta abantailaz jardun daitekeelako, eta tresnak egoki erabiltzeko jarraibideak eman. Hala, hiztun eleaniztunaren errekursoak bizkortzen egongo ginateke, modu kontzientean pedagogikoki eurok baliaitzeko (Cenoz eta Gorter 2014, 2015).

Komunikazio-egoera errealekin lotutako jarduera da, halaber, «Zazpikiak» deitu duguna, hitzez hitzeko itzulpenari begiratzeko inguruneke paisaia linguistikoaan aurki daitezkeen testuetatik abiatzen dena. Izan ere, hizkuntzen egoera ezberdina den gizarteetan, sarri bila daitezke hizkuntza-paisaian afixa, errotulu, ohar eta gainerakoetan hizkuntza akatsak, berbaz berbako itzulpena egitetik eratorritakoak, gehienetan. Hortaz, bada, testu errealak mentatzen dira eskolako materialen artean, bai hizkuntza bera lantzeko, bai hizkuntzen egoera soziolinguistikoari buruz hausnartzeko.

Jardueretarako erabilitako materialez ari garela, nabarmentzekoa da ia estrategiarik gehienetarako, eskuragarriak direla ikasleek eta irakasleek behar dituzten materialak, gehienetan ez da apartekorik behar. Testu elebidunak direla eta, gure ingurunean askotarikoak ditugu eskuragarri. Balia-tzen edo topatzen gaitzago izan daitezke, beharbada, ikus-entzunezko ekoiz-pena eta itzulpen automatikorako zein online kontsultarako aplikazioak behar dituzten jarduera-materialak zenbait testuingurutan, baina, bestalde, jarduerak aukera ere ematen dute pantailaka paperezko euskarrian eman ahal izateko, edo bestelako moduz partekatzeko. Aurkeztutako estrategiak moldagarriak dira eta, kasu baterako, glosarioak sortzeko, hitz-zerrenda arruntaz gainera, hitz-hodeiak, horma-irudiak, arbela eta abar ere erabil daitezke.

Proposamen didaktiko nabarmen batzuk ikus-entzunezko testuei hertsiki atxikita garatu direla ikusirik, IKTak (Informazioaren eta Komunikazioaren

Teknologiak) integratzeko bide ematen dute aurkeztutako estrategiek, García eta Weik (2014) *translanguagingaren* erazko aplikazio pedagogikora-ko azaldutako ildotik joanda. Bide hori gure testuinguru soziolinguistikoa ezarri gero, ikusiko dugu, euskararen hizkuntza-teknologiak ikusgarriago egiteko eta ikasleen eskura jartzeko abaguneak direla aurreko estrategietako batzuk, hizkuntza-aniztasuna ikusarazteko ez ezik, hizkuntza gutxituei ikusgaitasuna emateko ere balio dutenak (Baker 2001; Cenoz eta Gorter 2014, 2015).

Ikasle-irakasleek eta eskolek partekatzen ez dituzten hizkuntzak baliatze-ko modua ere ematen dute hizkuntza-teknologiek, inklusio sozial eta linguistikora bidean. Hala, egun eskura ditugun hizkuntza-teknologiarako baliabideei esker, irakasleak ezagutzen ez duen hizkuntza bateko glosario bat sor dezake, edota ikasleari eskolakoa ez den beste hizkuntza bateko materiala erabili dezan aukera eman, aldazio moduan hizkuntza gutxitua den horretara iristeko (Paulsrud eta beste 2017).

Era berean, online itzultzaileen jardura gogoan hartuta, ikasleen hizkuntzak ezagutzen ez badira ere, jarduerak balio lezake, ikasleei beren hizkuntzetako itzultzaile automatikoekin ere antzeko jardunbideak izan behar litzuketela ohartarazteko: testuak halaberrez posteditatu behar direla, jardura jakin batzuetarako baliagarriak izanik ere, beste batzuetarako itzulpen automatikoa zuzenketarik gabe erabiltzea ekidin beharreko praktika dela eta abar. Bide horretan, ama-hizkuntzei begira eginiko taldekatzei eta gogoeta zein testu-ekoizpenei ere bide eman dakieke, García eta Weik (2014) esandako moduan, eskolako hiztun guztien hizkuntzak kontuan hartuz. Era hartan, ikasgelako hizkuntza-paisaia ere aberats daiteke eta hizkuntza-aniztasuna ikusgai egin, Guash 2008 lanaz geroztik gaur egungo hezkuntza-legeek jasota daukaten gisa, hizkuntza-aniztasuna aberastasuntzat hartzeko bidean (Unesco 2003).

Taldekatzeetara itzulita, ikusi dugunez, ikasleak talde handian, talde txikian eta modu indibidualean lantzekoak dira aurkeztutako estrategia-adibideetako prozedurak; hiruretarik erakutsi da.

Ebaluazioa da, ordea, aletu ditugun estrategiak ageri diren lanetako autoren gehienek aipatu gabe utzi duten alderdia. Alde horretatik, hutsunea

nabarmena da, eta garbi dago, lantzeko bideak urratu behar direla itzulpen-estrategia pedagogikoak ebaluatzeko, eta neurtzeko irizpide eta moduei buruzko jakingarrietan sakontzeko; izan ere, Ruiz Pérezek (2008) materialen analisirako funtsezko elementutzat jo zuen ebaluazioa.

Aurretik aipatutakoen argitan, ondoriozta daiteke, itzulpena ardatz duten estrategiak, *translanguaging* pedagogikoaren estrategiatzat edukita, batera datozela *focus on multilingualism*aren oinarri nagusiekin: ikasleen hizkuntza guztiak ustiatzeko aukera ematen dute; hizkuntzak ikasteko moduan arreta jartzen da eta transferentzia ahalbidetzen da; jakintza indibiduala eraikitzeko ez eze, izate kolektiboa eraikitzeko tresna ere badira, bai eta hizkuntzen estatusaren inguruko hausnarketarako bidea ere. Berebat, gisa honetako jardueren bitartez kontuan hartzen da, hiztunak askotariko mailak izan ditza-keela gaitasun batzuetan edo besteetan nahiz hizkuntza batean edo bestean. Halaber, eskolako hizkuntzak ez ezik, etxeoak ere jardueren parte dira, eta horietatik abiatutako ikas-estrategiak proposatzen dira. Gainera, gizarte-testuinguruari erreparatzen zaio itzulpena tarteko denean. Horretara, Bakerrren (2001) *translanguaging*aren abantailak itzulpen-estrategia pedagogikoentzat ere baliagarri lirateke: gaiaren ulermen sakonagoa sustatzen dute, hizkuntza ahulena garatzeko laguntza izan daitezke, «etxea» ↔ «eskola» harremanak eta kooperazioa erraz ditzake, eta hiztun hasiberriak hiztun aritu eta adituen artean integratzea ahalbide dezake. Adibidez, haiei aldamiotresnak eskaintzen zaizkie etxeko hizkuntzen edota ezagutzen dituzten hizkuntzen bidez eskolako hizkuntzan jarraibideak ulertzeko, ahoz nahiz idatziz, glosarioen eta hizkuntzen «sandwicharen» adibideetan ikusi bezala.

Azken horiek batera datoz García eta Weik (2014) *translanguaging*aren erabilera pedagogikoari esleitu dizkioten lehenbiziko bi funtzioekin;<sup>8</sup> baina, ikusi dugunez, gainerakoak<sup>9</sup> jorratzeko lanabesak ere badira itzulpen pedagogikoaren estrategiak. Berbarako, hizkuntza-identitatea lantzeko eta hizkun-

---

<sup>8</sup> 1) Ikasleen hizkuntza-maila askotarikoak kontuan hartuta aginduak egokitzea eta 2) irakasten diren edukien ulermenean sakontzea (García eta Wei 2014).

<sup>9</sup> 3) Pentsamendu kritikoa garatzea jakintza berriak sakonduz, garatuz eta zabalduz; 4) hizkuntzen arteko transferentzia eta jakintza metalinguistikoa piztea; 5) hizkuntzen arteko malgutasuna sustatzea, 6) hiztunak engaiatzeko hizkuntza-identitatea lantzea; eta, azkenik, 7) hizkuntzen arteko

tzen arteko transferentziari begiratzeko modu bat da, besteak beste, «Zazpikiak» jarduera edota itzultzaile automatikoa gelara ekartzeko proposatu duen estrategia. Izan ere, azken jarduera hori gogoan dugula, esan dezagun, hizkuntzen arteko erkaketa zuzenean egiten dela, jakintza metalinguistikoa aktibatzea xede izanik. Gainera, hizkuntza-teknologiek eskaintzen dituzten abantailen eta desabantailen inguruko gogoeta kritikoa egin gura da, dela hizkuntza-pareei erreparatuta, dela akatsen nolakotasunei buruz hausnartuta. Halaber, jarduera horren bidez hizkuntzen hierarkiei buruzko gogoeta ere bultzatzen da, itzultzaile automatikoa probatzeko eskatzen zaielarik, eskolako hizkuntzen artean baina baita bestelako hizkuntzekin ere; izan ere, ikasleek hizkuntza-teknologiaren garapena ez dela bertsua hizkuntza eta gizarte gutxietan ikusteko aukera dute. Beste adibide bat aipatze aldera, «Antzezlearen papera berritzen (*recasting*)» estrategiaz mintzatuko gara; estrategia horren bidez lortzen da, hiztunaren jarioa ez etetea, ikaslearen beste hizkuntza komunikazio-egoeran txertatuta hizkuntzen arteko malgutasuna bizkortzea, irakaslea unean bertan erabiltzen ari den tokiko hizkuntza gutxitua menderatzen ez duen ikaslea taldeko partaide bihurtzea, eta hizkuntza gutxituari espazioa ematea. Beraz, *translanguaging*-estrategia balia daiteke testuinguru jakin batean hizkuntza ahularen alde, Cenoz eta Gortterek (2017) proposatu bezala eta Bakerrek (2001) *translanguaging*aren abantaila gisa aurkeztutako moduan. Aipatutako strategiaren bidez, hizkuntzen arteko erkaketari zuzenean arretarik jartzen ez bazaio ere, ikaslea dakienetik ez dakienera abiatzen da, eta esapide edo egitura berriak erabiltzeko gonbita egiten zaio, berak ekarritako esapideak eta proposatu haiek parezka entzuten dituelarik.

Labur esanik, beraz, azpimarra dezagun, itzulpen-estrategiek hiztun eleantiztuna, hizkuntza-errepertorio osoa eta gizarte-testuingurua kontuan hartzen dutela (Cenoz eta Gorter 2014), eta aurkeztutako estrategiak bezalakoak diseinu planifikatu eta eleaniztunetan eginez gero, hizkuntza-maila askotarikoetan eta hizkuntza-eskoletan zein hizkuntzazkoak ez direnetan aplikatzekoak direla (Cenoz eta Gorter, 2021). Ikusi bezala, itzulpen-estrategia pedagogikoen medioz hizkuntzazko edukiez gain, bestelako arloak eta

---

berdintasun ezaren inguruko gogoeta bultzatzea, gizarte-egiturak eta hizkuntza-hierarkiak ikusaraziz (García eta Wei 2014).

bestelako arloetako edukiak ere integra daitezke, eta sekuentzia didaktiko eleaniztunak nahiz diziplinarteko proiektuak sortu. Gakoa da hori HTBn, baina horrek, noski, atal teorikoan azaldutako moduan, koordinazioa eskatzen du (Idiazabal eta Manterola 2009), irakaskuntzaren ekonomia lortuko bada (Sagasta eta Etxeberria 2008).

Ikusi dugunez, oro har ulertze- eta adierazte-estrategia gisa, hizkuntza-gaitasunetan trebatzeko bide gisa zein hizkuntzaren askotariko alderdi soziolinguistiko eta kulturalen hausnartzeko tresna gisa balia litezke itzulpen-estrategiak eta, hari horretatik, Etxezarragak (2016) itzulpena eskolan erabiltzeko aipatu zituen mailak landu daitezke. Horregatik, esan dezakegu, itzulpenak ekarpena egin dezakeela ikasteko baliabide gisa, hizkuntza ikasteko bitarteko gisa eta hizkuntzen egoeraz eta estatusaz gogoeta egiteko lanabes gisa. Berebat, euskal irakaskuntza eleaniztunaren markoan, aurreko atalean aurkeztutako estrategiek bat egiten dute EAEko curriculumean proposatutako HTBren oinarriekin, inklusioa ahalbidetzen duten aldetik, hizkuntzaren erabilera errealekin lotuta komunikazioa ardatz duten tesuinguruetan mentatzen direlako, eta hizkuntza-aniztasunaren aldeko jarre-  
rak sustatzeko baliagarriak direlako.

Burutzeko, gogora dezagun, gramatika-itzulpena metodoen ikuspegiak eragindako itzulpenaren ospe txarra alboratu beharrez ari zela Cook (2001), eta argitu dugun moduan, itzulpena metodo eskusiboan izan gabe, eta hizkuntzen irakaskuntzarako ikuspegi berriekin bat eginda eta irizpide egokiei jarraituta aplikatuz gero, euskal irakaskuntza eleaniztunak maila eta helburu anitzetarako balia ditzakeela itzulpen-estrategiak eskolan, *translanguagin-*garen abantailei onura ateraz.

## Bibliografia

ALCARAZO, Noelia eta LÓPEZ, Nuria (2014). «Aplicaciones prácticas de la traducción pedagógica en clase de ELE», *redELE: Revista Electrónica de Didáctica ELE* 26, 2014.

AMIN, Gihane (2018). «La quinta destreza: la traducción pedagógica herramienta didáctica en el aula ELE (MCR). Aplicaciones prácticas según un enfoque por



tarefas (árabe-castellano)», in *Actas del I Congreso de Español como Lengua Extranjera de Oriente Medio (CELEOM)*. El Cairo: Instituto Cervantes de El Cairo.

APRAIZ, M.<sup>a</sup> Victoria, PÉREZ, M.<sup>a</sup> Mar eta RUIZ, Teresa (2012). «La enseñanza integrada de las lenguas en la escuela plurilingüe», *Revista Iberoamericana de Educación* 59, 2012: 119-137.

ARRIBA, Clara de (1996). «Introducción a la traducción pedagógica», *Lenguaje y Textos* 8, 1996: 269-283.

BAKER, Colin (2001). *Foundations of bilingual education and bilingualism*. Clevedon: Multilingual Matters.

BLEYHESH AL-AMRI, Waleed eta ABDOUL-RAOF, Hussein (2014). «Translation in teaching and learning a foreign language: a methodological approach», *International Journal of Humanities and Cultural Studies* 1 (2), 2014.

BRIGGS, Neil (2018). «Neural machine translation tools in the language learning classroom: students use, perceptions, and analyses», *The Jalt Call Journal* 14 (1), 2018: 3-24.

CANTERO, Víctor eta AARLI, Gunn (2012). «El Proyecto Lingüístico de Centro y el Currículo Integrado de Lenguas: dos instrumentos pedagógicos indispensables en la educación bilingüe», *Didáctica Lengua y Literatura* 24, 2012: 107-135.

CASTRO, Carolina (2015). *The role of translation in foreign language learning and teaching*. (Master Amaierako Lana, Universidad de Jaén).

CENOS, Jasone eta GORTER, Durk (2011). «Focus on multilingualism: a study of trilingual writing», *The Modern Language Journal* 95, 2011: 356-369.

——— (2014). «Focus on multilingualism as an approach in educational contexts», in *Heteroglossia as practice and pedagogy*. Dordrecht: Springer: 239-254.

——— (2015). *Multilingual education between language learning and translanguaging*. Cambridge: Cambridge University Press.

——— (2017). «Minority languages and sustainable translanguaging: threat or opportunity?», *Journal of Multilingual and Multicultural Development* 38 10, 2017: 901-912.

——— (2021). *Pedagogical translanguaging*. Cambridge: Cambridge University Press.

CONTRERAS DE LA LLAVE, Natalia (2020). «Azpitoluzioa eta bikoizketa: bigarren hizkuntzak ikasteko estrategia motibagarriak», *e-Hizpide: Helduen Euskalduntzearen Aldizkaria* 96, 2020: 1-8.

COOK, Guy (2001). «Use of translation in language teaching», in *Routledge Encyclopedia of Translation Studies*, M. Baker (ed.). London eta New York: Routledge: 117-120.

——— (2010). *Translation in language teaching*. Oxford: Oxford University Press.

CORNAGO, Lorena (2017). *El uso de la lengua materna en el aula de idiomas mediante la traducción*. (Master Amaierako Lana, Universidad Jaume I.)

CUÉLLAR, Carmen (2004). «Un nuevo enfoque de la traducción en la enseñanza comunicativa de las lenguas», *Hermeneus: Revista de Traducción e Interpretación* 6, 2004: 1-11.

DÍAZ, Soledad eta MENOR, Esther (2013). «La traducción inversa: instrumento didáctico olvidado en el aprendizaje de lenguas extranjeras», *Lenguaje y Textos* 38, 2013: 169-178.

DI SABATO, Bruna eta HUGHES, Bronwen (2017). «Translation and foreign language teaching, a theoretical and practical point of view: the Italian scenario», *Revista EntreLinguas* 3 2, 2017: 300-317.

ELORZA, Itziar eta MUÑOZA, Inmaculada (2008). «Promoting the minority language through integrated plurilingual language planning: the case of the “Ikastolas”», *Language, Culture and Curriculum* 21 1, 2008: 85-101.

ETXEZARRAGA, Nere (2016). «Nola erabili itzulpena euskarazko irakaskuntza elebi/eleaniztunean: testuliburu bateko adibideen azterketa eta proposamen didaktiko zenbait», *Fontes Linguae Vasconum: FLV* 121, 2016: 141-163.

EUROPAKO KONTSEILUA (2001). *Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako Erreferentzia Markoa*. Gasteiz: HABE eta Eusko Jaurlaritzak.

EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN KONFEDERAZIOA (2009). *Ikastolen Hizkuntz Proiektua*. Zamudio: Ikastolen Konfederazioa.

EUSKO JAURLARITZA (Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila) (2016). *Ikastetxearen Hizkuntza Proiektua egiteko gida*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

GAGNON, Roxane eta DESCHOUX, Carole-Anne (2008). «L'album bilingue et l'enseignement de la lecture», *Babylonia* 1 XVI, 2008: 46-53.

GARCÍA, Ofelia eta WEI, Li (2014). *Translanguaging: language, bilingualism and education*. London: Palgrave Macmillan.

GARROTE, Marta (2019). *Didáctica de segundas lenguas extranjeras en Educación Infantil y Primaria*. Madrid: Ediciones Paraninfo.

GASCA, Laura (2017). «Las posibilidades de la traducción pedagógica en la enseñanza del español como segunda lengua», *Estudios de Lingüística Aplicada* 66, 2017: 205-232.

GIERDEN, Carmen (2002-2003). «La traducción pedagógica como ejercicio integrativo en la didáctica del alemán como LE», *Encuentro: Revista de Investigación e Innovación en la Clase de Idiomas* 13-14, 2002-2003: 90-100.

GUASCH, Oriol (2008). «Reflexión interlingüística y enseñanza integrada de lenguas», *Textos* 47, 2008: 20-32.

GUILLÉN, Carmen (1990). «La práctica de la traducción en la metodología comunicativa», in *I Congreso de la Sociedad Española de Didáctica de la Lengua y la Literatura*. Sevilla: Universidad de Sevilla: 147-150.

——— (2009). «La concepción y la organización del currículo de las lenguas en el sistema educativo español y el plurilingüismo como competencia», *Lenguaje y Textos* 29, 2009: 47-62.

IBARLUZEA, Miren (2021). «Itzulpena (hizkuntzen) irakaskuntzara itzulita», *Senex* 52, 2021: 155-164.

IDIAZABAL, Itziar eta MANTEROLA, Ibon (2009). «Euskal eredu elebidunak, murgilketa eta hizkuntzen irakaskuntza bateratua: kontzeptuen berrikusketa», *Euskera* 54 (2), 2009: 463-504.

———, MANTEROLA, Ibon eta DIAZ DE GEREÑU, Leire (2015). «Objetivos y recursos didácticos para la educación plurilingüe», in *La educación plurilingüe. Una aproximación desde el interaccionismo sociodiscursivo*. Bilbo: UPV/EHU: 39-59.

KERR, Philip (2014). *Translation and own-language activities*. Cambridge: Cambridge University Press.

LABARCA, María Leonor (2016). «El valor de la traducción como herramienta didáctica en la enseñanza del latín», *Educere: Revista Venezolana de Educación* 67, 2016: 443-450.

LARSEN-FREEMAN, Diane (2000). *Techniques and principles in language teaching*. Oxford: Oxford University Press.

LEE, Tzu-yi (2013). «Incorporating translation into the language classroom and its potential impacts upon L2 learners», in *Translation in language teaching and assessment*. Cambridge: Cambridge Scholars Publishing: 3-22.

LEONARDI, Vanessa (2011). «Pedagogical translation as a naturally-occurring cognitive and linguistic activity in foreign language learning», *Annali Online dell'Universit di Ferrara. Sezione di Lettere* 1-2, 2011: 17-28.

LERTOLA, Jennifer (2009). *Audiovisual translation in the foreign language classroom: applications in the teaching of English and other foreign languages*. Research-publishing.net (Frantzia).

MANTXOLA, Sara (2023). *Hizkuntzen Trataera Bateratua eta itzulpena hizkuntzen irakaskuntzan. Batxilergoko bigarren mailarako sekuentzia didaktiko bat*. (Master Amaierako Lan argitaragabea, UPV/EHU).

MAY, Stephen (ed.) (2014). *The multilingual turn: Implications for SLA, TESOL and Bilingual Education*. Oxfordshire: Routledge.

NIÑO, Ana (2009). «Machine translation in foreign language learning: language teacher's and tutor's perception of its advantages and disadvantages», *ReCALL* 21 (2), 2009: 105-122.

NOGUEROL, Artur (2008). «El tratamiento integrado de las lenguas en el marco europeo», *Textos* 47: 10-19.

ORTEGA, Ane eta ANAKABE, María Jesús (2015). «Integración de lenguas y áreas desde los proyectos globales: una propuesta de integración de las materias “Conocimiento del Medio”, “Euskera”, “Lengua castellana” e “Inglés”», in *Para una ingeniería didáctica de la educación plurilingüe*. Bilbo: UPV/EHU: 291-319.

PAULSRUD, Beth Anne, ROSÉN, Jenny, STRASZER, Boglárka eta WEDIN, Åsa (2017). *New perspectives on translanguaging and education*. Clevedon: Multilingual Matters.

PEGENAUTE, Luis (1996). «La traducción como herramienta didáctica», *Contextos* 27-28, 1996: 107-125.

PÉREZ DE ORBANOS, Gregorio (2017). «La traducción pedagógica y la reflexión contrastiva como estrategias de aprendizaje en la didáctica de las lenguas afines: un

estudio experimental con aprendices brasileños», *Anuario Brasileño de Estudios Hispánicos XXVII*, 2017: 21-40.

REIG, Aina (2017). «Traducción didáctica, subtítulo y TIC: proyectos de colaboración en el aula de L2», *Lenguaje y Textos* 46, 2017: 115-123.

RUIZ BIKANDI, Uri eta TUSÓN VALLS, Amparo (2008). «El tratamiento integrado de lenguas», *Textos* 47, 2008: 7-9.

RUIZ PÉREZ, Teresa (2008). «El tratamiento integrado de lenguas: construir una programación conjunta» *Textos* 47, 2008: 46-58.

SAGASTA, María Pilar eta ETXEBERRIA, Lourdes (2008). «¿Qué transfieren los alumnos al castellano cuando el aprendizaje lo realizan en euskara?», in *25 años de lingüística en España. Hitos y retos*. Murtzia: Universidad de Murcia: 171-178.

SÁNCHEZ, Jorge (2005). «Los otros textos: aplicaciones didácticas de la traducción audiovisual en el aula de lengua materna», in *Transvases culturales. Literatura, cine y traducción*, R. Merino, J. M. Santamaría eta E. Pajares (ed.), IV. liburukia. Bilbo: UPV/EHU: 261-270.

SOLER, Betlem (2017). «La traducción audiovisual en la enseñanza de una LE: la subtítulo como herramienta metodológica para la adquisición del léxico», *Tejuelo: Didáctica de la Lengua y la Educación* 26: 163-192.

TONÍN, Raffaella (2017). «La traducción colectiva de un álbum ilustrado como experiencia didáctica: de la propuesta editorial a la publicación italiana de “Tu corazón en un cofre”», *Anuario de Investigación en Literatura Infantil y Juvenil: AILIJ* 15, 2017: 153-170.

UNESCO (2003). *La educación en un mundo plurilingüe*. Organización de las Naciones Unidas para la Educación, la Ciencia y la Cultura: Unesco Digital Library.

URABAIEN, Natalia (2019). *Itzulpena hizkuntzen trataera bateraturako baliabide gisa*. (Master Amaierako Lan argitaragabea, UPV/EHU).

ZABALBEASKOA, Patrick (1990). «Aplicaciones de la traducción en la enseñanza de lenguas extranjeras», *Sintagma* 2, 1990: 75-86.

ZURUTUZA, Ane (2018). *Itzulpena hizkuntzen irakaskuntzan. Proposamen didaktiko bat*. (Master Amaierako Lan argitaragabea, UPV/EHU).

## **Aipatutako hezkuntza-lege eta dekretuak**

LEY ORGÁNICA de Ordenación General del Sistema Educativo y normativa complementaria (1993). Ministerio de Educación y Ciencia y BOE.

Eskuragarri: <https://sede.educacion.gob.es/publiventa/d/663/19/0>.

LEY ORGÁNICA 8/2013 de 9 de diciembre, para la mejora de la calidad educativa. LOMCE. BOE.

Eskuragarri: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2013-12886>.

236/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Oinarritzko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa. EHAA.

Eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2016/01/1600141e.pdf>.

237/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa. EHAA.

Eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2016/01/1600142e.shtml>.

17/2023 LEGEA, abenduaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzarena. EHAA.

Eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurларitza/-/eli/es-pv/l/2023/12/21/17/dof/eus/html/>.



# Euskara zinema elkariaren hasmentan (1930-1936): debateak, ametsak eta praktikak<sup>1</sup>

La lengua vasca en los primeros años del cine parlante  
(1930-1936): debates, sueños y prácticas

La langue basque dans les premières années du cinéma  
parlant (1930-1936) : débats, rêves et pratiques

The Basque language in the early years of sound  
cinema (1930-1936): debates, dreams and practices

MARTINEZ, Josu  
Nor Ikerketa Taldea (UPV/EHU)  
josu.martinez@ehu.eus  
<https://orcid.org/0000-0001-5167-8485>  
DOI: <https://doi.org/10.59866/eia.v.69i2.288>

Noiz jaso: 2023-11-23  
Noiz onartua: 2024-03-11

Lan honek zinema elkariaren lehen urteetan euskarak zinemarekin izan zuen harremana aztergai du. 1930eko hamarkadan zinemako hizkuntza-aniztasunaren ganean sortutako eztabaidak bildu dira, bai eta estatuko beste hizkuntzek pantailan ukan zuten presentzia ere. Hortik aurrera, prentsan euskarazko zinemaren alde mobilizatu ziren diskurtsoetan arreta jarri da, eta euskarazko zinema sortzeko ezina egiaztatu ondoren, euskaraz entzun ahal izan zen lehen hiru filmak aztertu dira.

**Gako-hitzak:** euskara, zinema elkaria, Espainiako Bigarren Errepublika, exotismoa, abertzaletasuna.

---

<sup>1</sup> Lan honek Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren laguntza jaso du (IT-1438-22).



Este trabajo analiza la relación del euskera con el cine en los primeros años de la etapa parlante de este. Primeramente, se exponen los debates surgidos en la década de 1930 en torno a la diversidad lingüística en el cine y la presencia en pantalla de otras lenguas del estado español. A partir de ahí, se pone el foco en los discursos que se movilizaron a favor del cine en euskera, y tras comprobar la imposibilidad de crear cine en euskera, se analizan las tres primeras películas en las que se pudo escuchar la lengua vasca.

**Palabras clave:** euskera, cine sonoro, Segunda República española, exotismo, nacionalismo vasco.

Cet article analyse la relation entre l'euskara et le cinéma dans les premières années du cinéma parlant. Tout d'abord, les débats apparus dans les années 1930 autour de la diversité linguistique au cinéma et de la présence d'autres langues de l'État espagnol à l'écran sont présentés. À partir de là, l'accent est mis sur les discours mobilisés en faveur du cinéma en basque, et après avoir vérifié l'impossibilité de créer un cinéma bascophone, on analyse les trois premiers films dans lesquels la langue basque a pu être entendue.

**Mots-clés :** langue basque, film sonore, Seconde République espagnole, exotisme, nationalisme basque.

This article analyzes the relationship between Basque and cinema in the early years of talking cinema. Firstly, the debates that emerged in the 1930s around linguistic diversity in cinema and the presence of other languages of the Spanish state on screen are presented. From there, the focus is placed on the discourses that were mobilized in favor of cinema in Basque, and after verifying the impossibility of creating Basque cinema, the first three films in which the Basque language could be heard are analyzed.

**Keywords:** Basque language, sound film, Second Spanish Republic, exoticism, Basque nationalism.

MARTINEZ, J. (2024). «The Basque language in the early years of sound cinema (1930-1936): debates, dreams and practices», *Euskera Ikerketa Aldizkaria*, 69, 2: 159-186.

## 1. Sarrera

Aurreko mendeko 20ko hamarkadaren amaieran, zinema elekariaren hedapenak erabat irauli zuen mundu osoko ekoizpen eta erakusketa zinematografikoa. Ordura arte, zinema irudiaren hizkuntza unibertsalean egindako arte transnazonala bazen, elekariaren zabalpena erronka handia bilakatu zen Europako herrialdeendako Hollywoodeen nagusitasun zinematografikoaren aurrean birkokatu behar izan zuten, baina, aldi berean, norbere hizkuntzaz elekatutako zinema nazionalak sortzeko aukera ere ireki zien. Espainian, zinema-ekoizpenak zirkinik egin gabe eman zituen lehen urteak, industria berrorientatzeko zailtasunengatik, baina 1931tik aurrera, Bigarren Errepublikak espainiar zinemaren «urrezko aro» bat bultzatzen lagundu zuen (Gubern 1977). Bertoko hizkuntzaz egindako zinema defendatzeko testuinguru horretan, Katalunian ere, katalanezko zinemaren lehen esperientziak izan ziren; baina Euskal Herrian, euskarak berpizkunde kulturala bizi bazuen ere, ez zen inolako proiekturik ernatu.

Artikulu honek zinema elekariaren lehen urteetan euskarak zinemarekin izan zuen harremana ikertuko du. Garai hori, 1930etik 1936ra arte mugatu da, hots, zinema elekaria Espainian eta Frantzia sartu zen unetik, Espainian Gerra Zibila piztu arte. Izan ere, ordutik aurrera, eta bereziki Franco-ren garaipenetik aurrera, euskarazko zinema egiteko aukerarik ez zegoen batere, egokiera guztiak desagertuak ziren.

Testuinguru historiko eta kulturalari loturik, Espainian zinemaren hizkuntza-aniztasunari buruz sortu ziren eztabaidak aztertuko dira, bai eta gaztelaniaz gain beste hizkuntza batzuek pantailan izan zuten presentzia ere, Katalunian emandako esperientziak azalduz. Hortik aurrera, zinemaren gainean euskal prentsan agertu ziren idatziei erreparatuko diegu, euskarazko zinemaren alde mobilizatu ziren diskurtsoak nabarmenduz.

Azkenik, pantailan euskara baliatu zuten filmak xerkatu eta identifikatuko dira, eta soinu-bandan hizkuntza horri lekua egin zioten hiru produkzioak aztertuko dira: *Au Pays des Basques* (1930), *Euzkadi* (1933) eta *Sinfonía vasca* (1936) dokumentalak. Hondarrean, zenbait ondorio aterako dira, hipotesi batzuk planteatzearekin batera.

## 2. Gaiaren egungo egoera eta metodologia

80ko hamarkadaz geroztik, hainbat aldiz ikertu dira Euskal Herriko zinema elekariaren lehen urteak. López Etxebarrietaren lehen lanen (1984) ondoren, 1985ean José María Unsainen *El cine y los vascos* eta Santos Zunzunegiren *El cine en el País Vasco* (1985) monografiak argitaratu ziren: biek ala biek hemen aztertzen ari garen garaiari buruzko ezinbesteko datuak eskaintzen dituzte. Ildo beretik, azken urteetan, Santiago de Pablo (2012), Joxean Fernandez (2014) edo Bob Stone eta Maria Pilar Rodríguez (2015) ikerlariak Euskal Herriko zinemaren gainean lan mardulak argitaratu dituzte, historiaren aldi ezberdinak aztertuz, ikuspuntu ezberdinetatik.

Bestalde, euskarazko zinema bera ere, hainbat egileren ikerketa-objektu bilakatu da azken hamarkadan. Ikuspegi linguistikotik (Baranbones 2011; Manterola 2019), ekonomikotik (Azpillaga 2015; Manias-Muñoz 2015), soziologikotik (Doxandabaratx 2019) edota historikotik (Sojo Gil 2019; Martinez 2022) aztertu dute gaia, baina ia beti, perspektiba orokor batetik abiatuta, edo 2005etik aurrera ekoiztutako zinemagintzari lotuta. Hala, ikerketa horietako batek ere ez du sakondu, zinema elekariaren hasmentagaria zinemak eta euskarak elkarrekin izandako harremanean.

Gure lana ikuspegi historikotik eta kulturaren soziologiatik abiatu da. Erabilitako metodologia nagusia dokumentu-iturrien azterketa izan da. Bilaketa bibliografiko eta hemerografiko sakona egin da; garaiko filmak xehe aztertu dira, eta ahal izan den guztietan, lehen mailako iturrietara jo da.

Iturri idatziei doakienez, 1930etik 1936ra arteko tartean, euskal prentsan eta Espainia eta Frantziako aldizkari zinematografikoetan argitaratutako artikuluak eta albisteak aztertu dira. Bereziki, *Euzkadi* eta *El día* egunkari abertzaleak eta *Argia* astekaria hustiatu dira, egunez egun. Aipagarri da euskaraz ekoiztutako literatura oso gutxi aintzat hartu dela gaurdaino Euskal Herriko zinemari buruzko ikerketetan. Hori dela eta, orain arte ezezagunak ziren datu berriak lortu ditugu.

Iturri filmikoei doakionez, aztertutako denbora-tartean euskaraz izan zitekeen edozein film bilatu da Euskadiko Filmategia, Cinémathèque Française eta Filmoteca Española artxibategietan. Hala, elkarrizketaren batean

euskara baliatu zuten hiru film identifikatu dira, hiruak dokumentalak: *Au pays des Basques* film frantsesa (Maurice Champreux 1930), *Sinfonía vasca* (Adolf Trotz 1936), eta *Euzkadi* (Teodoro Hernandorena 1933).

*Au Pays des Basques* eta *Sinfonía vasca* Euskadiko Filmategiko ikerketagelan ikusi ahal ditugu. *Euzkadi*, aldiz, ezin izan dugu inon ikusi, ez baita ezagutzen gaur egunera arte iritsi den kopiarik. Alta, 1983an Santos Zunuznegik argitaratu zuen gidoiari eta prentsako artikulu ugarietan aurkitu ziren zenbait transkripziori esker, filmaren edukia azterketa xehea egin ahal izan dugu. Horiek horrela, hiru filmon edukia aztertu dugu, bai eta haien sorburua eta errezeptioa ere, azterketa hemerografikoaren bitartez.

Azken lan horretarako, zenbait dokumentu argitaragabe ere jorratu dira. Bereziki aipagarri dira, artikulu honen egileak Maurice Champreuxen seme den Jacques Champreuxi Parisen egindako elkarrizketa (2014), eta Martin Ugaldek data ezezagun batean (baina itxura guztien arabera, 70ko edo 80ko hamarkadan) Teodoro Hernandorenari egindako elkarrizketa, Andoaineko Udalak gordetzen duen Martin Ugaldere funtsean aurkitua, bi audio-zintatan, eta propio digitalizatu izan duguna aztertu ahal izateko.

### 3. Hizkuntzari buruzko debateak Espainian zinema elekariaren lehen urteetan

Zinema elekaria aldaketa sozial eta politiko handiko garai batean iritsi zen Espainiara. 1931tik goiti, Espainiako Bigarren Errepublikak kultura-kontsumoa eta aisiaren industria bultzatuko zituen askatasun-giroa ekarri zuen. Hala ere, Espainiako industria zinematografikoari kosta egin zitzaion egoera berrira egokitzea, eta lehen urteetan, AEBko eta Alemaniako zinemaren hedapen hegemonikoak espainiar ekoizpenaren mugiezintasuna eragin zuen. Zinema-gelak, atzerriko hizkuntzetan elekatutako filmez bete ziren, edo Estatu Batuetan edo Joinvilleko estudio frantsesetan ekoiztako espainierazko filmez (Gubern 1977: 10-11).

Espainiar zinema-ekoizpen nazionala 1932tik aurrera hasi zen nola edo hala egonkortzen, baina filma elekarien erakusketa askoz ere erritmo han-

diagoan orokortu zen. Hego Euskal Herrian, adibidez, 1934rako, soinudun zinema-gelen inplantazioa ia erabatekoa zen hiriburuetan eta herri ertainetan, nahiz eta 5.000 biztanletik beherako herrietan oraindik ez zen arras nagusitua (Zunzunegi 1985: 115).

Testuinguru horretan, zinema iparramerikarraren kontrako kritika-giroa ernatu zen. Zenbait ahotsendako, zinema elekaria, iparramerikar kultura inperialismoa inposatzeko estrategiaren parte zen, eta haren aurrean, gainerako herrialdeek beren nortasun nazionala, kulturala eta linguistikoa defendatu behar zuten. Horiek horrela, egoera paradoxikoa ekarri zuen zinema elekariak gaztelaniarendako: munduan ehun milioi hiztun izanki, komunitate iberoamerikarra sendotzeko aukera handia izan baitzitekeen, baina aldi berean, industria zinematografikoaren ahulezia zela medio, baita mehatxu azkarra ere. García Carriónnek halaxe azaldu du (2013: 224): «Se planteaba el problema de cómo estaba afectando el cine sonoro a la nación española: España era, cinematográficamente, una colonia de otras potencias cuando debería ser la metrópoli de los países de habla española de su antiguo imperio». Kezka hori, hainbat zutabe eta iritzi-artikuluren gai bilakatu zen 30eko hamarkadaren lehen urteetan, bai prentsa zinematografikoan, bai prentsa orokorrean. Giro nahasi horrek bultzatuta, 1931ko urrian, Zinematografia Kongresu Hispanoamerikarra (Congreso Hispanoamericano de Cinematografía) antolatu zen Bartzelonan, Espainiaren eta Latinoamerikaren arteko lankidetzaz zinematografikoa sustatzea helburu zela. Oihartzun handia ukan zuen horrek zinema-munduan: intelektual eta zinemagile anitz bildu zituen, eta beste ezeren gainetik, filmetako hizkuntza bilakatu zen hitzaldi eta eztabaiden gai nagusi. Hainbatetan, zinema elekariak zekarren «inperialismo linguistikoa» salatu zen, zinemetan erakusten ziren atzerriko filmen kasuan, soinurik gabe proiektatzea aldarrikatzeraino, film mutuak balira bezala: «... la proyección de películas en lenguas extranjeras, como espectáculo libre y general, envuelve cierta desconsideración de los derechos y cultura del público» (*Congreso Hispanoamericano de Cinematografía* 1932: 149). Aitzitik, eleaniztasunaren defentsak ez zuen guztiendako berdin funtzionatzen. Gaztelania ingelesa adina bazela defendatzen zen aldi berean, hizkuntza horretan egindako zinema aldarrikatzeko orduan, herrialde ezberdinetako gaztelaniaren hizkuntza-barrietateak hierarkizatzen ziren. Filmetan azentu latinoame-

rikarrak eskualde horretako pertsonaien ahotan baino ez ziren erabili behar, gaztelania «neutroa» eta, beraz, Latinoamerikako pantaila guztietarako ego-kia, Iberiar penintsulakoa baitzen (García Carrión 2013: 280).

Espainiako Estatuan mintzo diren hizkuntza guztiak ere ez zuten begirune bera merezi. Gaztelania ingelesaren aurrean defendatzen zen bezala, «hizkuntza erregionalen» zinema deitoratzen zen. Euskaraz, katalanez, galizieraz, edo are Latinoamerikako gaztelania ezberdinetan filmak egitea, «Babelera itzultzea» izango litzatekeela adierazi zuen Angel Antemek, esaterako (*Congreso...* 1932: 151). Navarro Tomás haratago joan zen, eta «hizkuntza erregionalek» atzerriko hizkuntzen eragozpen guztiak zituztela azaldu zuen, eta gutxi balitz, ez zutela haien «inportantzia» bera.

La película en lengua regional, fuera de los límites de su reducido campo de acción y de su indiscutible interés desde el punto de vista folclórico y filológico, ofrece todos los inconvenientes de la película en un idioma extranjero, acrecentados por el hecho de que el público soporta con menor paciencia y consideración una lengua regional que una importante lengua extranjera, aunque no pueda comprender ni una ni otra.

(*Congreso...* 1932: 150)

Egia da, gaztelaniazko filmen ekoizpena jadanik aski apala eta garestia bazen, are eta nekezagoa zela zinema hizkuntza minorizatueta egitea. Horren adibide dugu Kataluniako adibidea: Kataluniak espainiar Estatuko zinema-industria oparoena bazuen ere, lekuko ekoiztetxe gehienek filmak gaztelaniaz egin zitezten bideratu zituzten ahalegin guztiak (are gehiago, 1932an estatu osoan ekoitzi ziren sei film elekkariak, denak gaztelaniazkoak, Bartzelonan ekoitziak izan ziren). Nolanahi, herrialde hartan izan ziren bestelako saiakerak ere; eta sektore abertzale eta katalanisten eskutik, katalana pantailara eramateko proiektu eta esperientzia zenbait gauzatu ziren.

1932an, Autonomia Estatutua estreinatu berrian, Generalitateak zinema-komitea sortu zuen, Ventura Gassol poetaren gidaritzapean, film atzerriarrak katalanera itzultzeko helburuaz. Hala, katalanera ekarriak izan ziren zenbait film, kasurako, *Fernandel* aktore frantses ezagunarenak eta beste (Romaguera 1992) asko. Halaber, Zinema Katalanaren Astea (Sema-

na del Cinema Català) antolatu zen, Francesc Macià presidenteak parte hartu zuela, eta serie dokumental bat ekoitzi zen katalanez. Urtebete geroago, 1933an, katalanez elekatutako lehen fikzio luzea iritsi zen pantailetara: *El Café de la Marina*. Román Guberneren ustez, film hori sektore katalanazaleen pario anbiziotsua izan zen hizkuntza pantailetan normalizatzeko bidean: «El proyecto supuso una respuesta militante de la *intelligentia* catalana para crear un cine autóctono y dotado de una vitalidad artística comparable a la del francés» (1977: 76). Alta, zinema-geletan ez zuen espero bezalako ikusle saldirik bildu, eta agian horregatik, burgesia katalanak ere ez zuen proiektu berrietan inbertitzeko interes handirik agertu. Handik hilabete gutxiren buruan, 1934ko iraultza gertatu zen: Errepublika Katalanaren aldarrikapena, eta ondoren Companys presidentearen espetxeratzea eta autonomia bertan behera uztea. Gertakari horien zurrunbiloak ezerezean utzi zituen proiektu kultural gehienak, eta hala, kasik hasi orduko itzali zen katalanez elekatutako zinemaren ametsa.

#### 4. Zinema euskaraz: irudipen zoroa?

Zinema elekariak hizkuntza-egoerari eragingo ote zion kezka Euskal Herrian ere zabaldu zen fite. Euskaltzaleendako, baina, arazoa ez zen ingelesak gaztelaniari gain hartzea, baizik eta gaztelaniazko filmek euskara are eta gehiago zokoratzea. Garai hartako euskal prentsan zinemari buruz aurki daitezkeen artikulu gehienak gaitzespenekoak dira (Martinez 2022). Bernardo Garro *Otxulua* idazlearendako, adibidez, euskararen etsai zen zinema: «Badiria beste arerio batzuk. Zine eletaria edo *parlantea*. Bizkai'ko uri azitxoetan erderearen zabaltzale andienetarikoa da...» (*apud* Izagirre 1996: 31).

Zinemarko mesfidantza film mutuen garaitik zetorren. Hamarkada bat lehenago, esaterako, *Aberri* egunkariak editorial oso bat eskaini zion komunikabide berriari: «El Ideal-Cinema irrumpe en el *baserri* con toda su secuela de *erderismo*» (*Exotismo...* 1923). Moralaren izenean Elizak zinemaren kontra zeraman gerrak bazuen ikustekorik, naski, euskal idazleen artean zuen izen txarrarekin; 1926an Zabaleta bertsolariak jarri bertso hau da lekuko: «Bai eta ere esan digute oraingo gazte jendiai / gorroto aundiya arren

artzeko ifernurako bidiai / alde batera firme uzteko zine txar eta bailiai (sic) / anima garbi entregatzeko zero ta lurren jabiai» (1967: 50).

Zinema elekariaren nagusitzeak luma aurrerazaleagoengan ere kezka sortu zuen. Jean Etxepare Aldudeko medikua inkiet zen filmen kontsumoen masifikazioak euskaldunengan izanen zuen eraginaz: «Beha nola doan jende xehia trumilka hirirat, teatre arrotzetarat; beha nola gure herrietan gaindi dabilzan komediant, teatre, zinema, zonbat holako jostagailu, zorigaitzez ez batere guri eman direnak, zorigaitzez oro frantses edo españolezkoak, zorigaitzez oro gure sosaren norapait eremaiak» (Etxepare 1984: 80).

Haatik, gehiengoaren kontra izanik ere, izan zen zinema elekaria euskararendako aukera gisa ikusi zuena euskaltzaleen artean. Lehenetarik, Ander Arzelus *Luzear Argiako* zuzendaria, 1931n bertan: «Len zinea mutua zalarik, antzertizaleak “itza” aitatztea naikoa zuten guziak aozpera antzerti gurtzale biurtzeko. Ni orduan ere zinezalea izanik, gaur zeñen alde egongo naizen esan bearrik ez det noski» (*Zineaz* 1931).

Luzear dugu 1931tik aurrera hasi zen berpizkunde kulturalaren izen eza-gunenetako bat. Orixe, Lizardi edo Lauaxeta buru zituen gazte abertzale belaunaldiko kide zen; «Pizkundera» deitu mugimenduan aritu zen buru-belarri. Giro hartan hasi zen euskara ordura arte zapaldu gabeko lurraldeetan sartzen: lehen bertso-txapelketak antolatu ziren hirietako antzokietan; euskarazko egunkariaren proiektua diseinatu zen; euskarazko lehen irrati-emanaldiak hasi ziren... Zinemara jauzi egiteak beste konplexutasun bat zuen, naski. Haatik, Joseba Zubimendi euskarazko irratiairen aitzindariari zuzendutako gutun publiko batean, Luzearrek honako hau idatzi zuen 1931n:

Atzo, zinean izana nauk. Gabero, radio entzun oi diat. Eta antzoki, zine ta radio nastu dituk cocktailik biurrienean; burua zoratu zidatek. Eta irudipenik zalapartarienak irten nai bizian zebizkiat. Irudipen zoro oiek, Euzko Gaztediari eskeñi nai zizkioat. ¿Zoro batek, eun zintzo zoratu oi dituala etziotek ba? Ia ba zorakeri abek, norbaitek egi biurtzen ote dizkiken.

(*Irudipen zoroak* 1931)

Hedabide modernoetan euskararen presentzia bermatzea zen, dudarik gabe, Luzearrek aipatu «irudipen zoro» hura: euskaraz elekatutako filmak



sortzea barne. Kronika berdinean, hitzez hitz azalduko zuen berak: «Antzokia! (Teatroa). Irudi-biltegia!! (Zinea). Irratizkiña!!! (Radioa). A zer iru lagun, gure zabalkunderako! Ta irurok, gure deiaren zai-zai bezela dauzkagunak» (*Irudipen zoroak* 1931). Alta, Luzearren asmoek ez zuten arrakastarik ukan. Gero ikusiko dugunez, mugimendu abertzaleko zenbait buruzagi, zinemak ideiak zabaltzeko zituen potentzialitateez ohartuak baziren ere, euskarazko zinema egitea, «irudipen zorotzat» hartua zen Errepublikaren urteetan. Etorkizunerako hipotesi huts. Baina *Argiako* zuzendariak ez zuen hondarrera arte amore eman. «Zinea lagun» izenburupean, 1935eko beste artikulua batean, berriz ere zinema euskararendako aliatu izan zitekeela aldarrikatu zuen, eta parioa egiteko momentua huraxe zela, inoiz izatekotan:

Iñoiz euskal zinerik egin al izatekotan oraintxe egin ditekete ba. Ingeles eta aleman ortxe entzuten ditugu egunero, ta gaztelar izkiarekin azaltze utsa asko degu mintz edo pelikulak atsegin biziz ikusteko. Konplikazio aundirik gabekoak dira nagusitxo bezela azaltzen zaizkigunak: eresi, abesti ta maitasun gaiekikoak. Ereslari ta abeslariak ez ditugu palta. Zine antzezleri bezela jarriko lirake gureak ere noski. Ta Schubert'en «Ene abestiak egaz» bezin gauza politik ez ote genuke ba asmatuko? Orrelako bat naikoa berriz ludiko bideak irikitzeke. Ta euskera, irudibilmintzetan (zine pelikulatan) «etxeokandre». Alemana baño goxoagoa litzake behintzat, gaztelar belarrientzako izan ezik. Ametsetan ari al naizen? Zer eginen zaio ba? Ezpaitu gizonak bizitzeko ogia bakarrik asko.

(*Zinea lagun* 1935)

Proiekturik ernatu ez bazen ere, iduri luke euskarak zinema irabazi behararen kontzientziaz ohartuak zirela euskaltzale zenbait. Garai hartan euskararen urrentzearen inguruan publikatu zen lanik ezezagunenetakoa batean, Justo Mokoroa *Ibaren Genio y lengua* liburuan, argiki azaldu zen, hizkuntza bizi zedin, komunikabideak euskaldundu beharra zegoela. Eta haien artean, zinema ere aipatu zuen: «Es de todo punto necesario poner al servicio de la civilización vasca este resorte formidable de nuestros días, si no queremos que, monopolizado por el exotismo invasor junto con los demás adelantos modernos, acabe de deformar y destruir el espíritu de nuestra cultura» (1936: 260).

Bai Luzear, bai Ibar kontziente ziren zinemaren izaera industrialak zekar-tzan zailtasunez: fikziozko film luzeak euskaraz egitea oso zaila zela memento hartan. Baina maila apalagoan izanik ere, zineman zango bat sartzen hasi beharra zegoela ikusten zuten biek. «Amets goi oietatik jetxita ere zerbait egin diteke», zioen Luzearrek. «Badakit nik etxetako zinemintz saltzalle bat, Paris'ko olarekin tratuan ibillia dala. Illean onenbesteko bat saltzea eskatu diote: ortan ezin gindezke saiatu? Lenengo oinkada auxe izan diteke, "zinea" gure lagun egiteko. Ta zinea lagun izanik...» (*Zinea lagun* 1935). Ibarren ustez ere, zailtasunak zailtasun, dena ez zegoen euskaldunen aukerera-tik at. Proiektu batzuk egingarriak ziren:

Modestos ensayos de cine vasco, mudo y sonoro, a base de escenas de ambiente euskaldun, tomadas del natural o reconstituidas, de danzas, juegos y prácticas tradicionales de todo el País (el poema de «Orixe» sería una fuente de inspiración inagotable), de composiciones dramáticas ya existentes o que se produjeren en el porvenir, de noticias gráficas de actualidad, de cintas instructivas de interés práctico.

(*Genio y lengua* 1936: 260-261)

Bion idatziak irakurrita, bistan da Luzearrek eta Ibarrek euskararendako zinema-arloan zituzten ametsak ez zirela arras berdinak. Filmek, euskarari falta zitzaion modernotasuna eman ziezaioketela pentsatzen zuen Luzearrek eta alemanaren, gaztelaniaren edo ingelesaren antza zuen zinemagintza euskalduna amesten zuen. Ibarrek, aldiz, bestelako programa proposatzen zuen. Landa-arkadia idealizatu bat pantailaratu nahi zuen, ordurako gizarte-dinamismoa hirietan eta industriaguneetan garatua zela kontuan hartu gabe.

## 5. Euskara 30eko hamarkadako zineman

Artxibategi ezberdinetan dauden filmak eta dokumentuak aztertuta, *Gure sorlekua*<sup>2</sup> da historian euskaraz elekatutako lehen filma. 1956an estrei-

---

<sup>2</sup> Filmaren jatorrizko grafia-izenburua: *Gure sor lekua*. Aipamen guztietan gaurko grafia-ekarri-ta idatzi dugu.

natu zen Hazparneko Haritz Barne zineman, eta André Madré hazpandarra izan zuen egile eta bultzatzaile nagusi (Martinez 2014).

Mugarri hori aitzin, aztergai dugun garaian, zinema elekariaren lehen urteetan, euskarak leku zinez tipia ukan zuen pantailetan, soinu-bandan euskal kantak erabiltzen zituzten filmak alde batera utzita. Luzear eta Ibar euskal *intelligentiaren* barruan gizon ospetsuak izan arren, ez bata ez besteak ez zuten lortu euskal berpizkunde kulturalaren mugimendua beren asmoetara biltzea, ezta proiektu bakar bat altxatzeko asmoa martxan jartze hutsa ere.

Horiek horrela, hurrengo lerroetan ikusiko dugunez, urte haietan euskara mintzatua (kantuetatik haratago) hiru film dokumentaletan agertu zen bakarrik. Beti subalternitate-egoeran.

### 5.1 *Au Pays des Basques*: euskara atzerriko zineman (1930)

1930eko lehen hilabeteetan, Frantzia lehen film elekariak estreinatu berri zirela, Gaumont Film Aubert ekoiztetxe paristarrak, proiektu dokumental anbiziotsu bat martxan jarri zuen, *cinéma parlant* sortu berria promozionatzeko asmoz. Asmakizun berriari txinpartak ateratzeko, Euskal Herria eskualde egokia zela pentsatu zuten, bertan aurki zitezkeen soinu exotikoen aberastasunak kontuan hartuz (kantu, irrintzi, itsaso, txori, hizkuntza bitxia...), eta hala, Gaetan de Bernoville donibandarrak jatorriko idazle katolikoaren *Le Pays Basque* liburua oinarri harturik, euskaldunei buruzko film bat prestatzeari ekin zioten.

Gaumonten pelikula, estudiantik kanpora, lokalizazio naturaletan osoki filmatutako lehen film soinudun frantsesa izan zen. *Au Pays des Basques* izenarekin, «chantant et parlant» gisa aurkeztua izan zen, film elekatu eta kantatu gisa. Alta, artean zinema mututik elekarirako trantsizioa guztiz burutu gabea baitzen, elkarrizketak filmatzea ez zen oraindik guztiz arrunta, eta beraz, funtsean, batez ere «chantant» da filmaren soinu-banda, «parlant» baino gehiago. Elkarrizketarik ez izateaz gain, off ahotsik ere ez du, eta narrazioa, zinema mutuan ohikoak ziren intertitulu idatzien bitartez gauzatu da. Intertitulu guztiak frantsesez dira.

Gaumontek Maurice Champreux etxeko zuzendari gazteari enkargatu zion filmaren errealizazioa. Champreuxek ez zuen erlazio berezirik Euskal Herriarekin (ez bada, aitaginarreba zuen Louis Feuilladek *Un drame au Pays Basque* film mutua zuzendu zuela 1913an), baina filmaren estreinaldi-denboran prentsari adierazi zionez, Euskal Herriaren «exotismoak» lehen mementotik liluratu zuen. Harendako, euskaldunak miresgarriak ziren, naturarekin armonian bizi zirelako:

Un soir que je contemplais Ascain, je vis apparaître, descendant une des collines qui entourent le village, un paysan précédant son attelage de boeufs. L'homme portait son aiguillon en travers de ses épaules, suivant un geste familier. Les bras en croix semblaient embrasser tout le paysage et, de l'homme, se dégageait l'impression de force calme, dont toute la nature était imprégnée. Son chant s'éleva, musique, langage des sentiments. Je ne saisisais pas ses paroles, et cependant je sentais tout ce qu'il décrivait. Je compris quels artistes incomparables avaient été tous ces paysans, qui en exprimant leur âme dans des chants, avaient si heureusement su exprimer l'âme même de leur pays.

(*Les artistes...* 1931)

Zuzendariaren semearekin 2014an Parisen izan genuen elkarrizketan, aitak euskaldunei buruzko film bat egiteko arrazoiaz galdetzeko aukera izan genuen. Jacques Champreuxek eman zigun erantzun laburra argigarria da, arrunt: «Il avait vu Nanook» (Champreux 2014). Alegia, Robert Flahertyk 1923an zuzendutako *Nanook of the North* ikusia zuela Maurice Champreuxek, inuit jator baten bizitza exotikoa kontatzen duen maisulana, historiako lehen dokumentaltzat hartzen dena. Eta horrexek piztu ziola esan zigun semeak, euskaldunak filmatzeko gogoia.

Iruditeria horretatik abiatuta, 40 minutu luzeko dokumental dotorea osatu zuen Champreuxek, zazpi euskal probintziak kurrituz, kantu, erritu, paisaia eta tradizioen karta postalak bailiran. Parisko prentsa zinatografikoan oihartzun bikainak ukan zituen, eta behin eta berriz azpimarratu zen filmaren «egiazkotasuna», bertan ageri zirenak «egiazko euskaldunak» zi-rela azpimarratuz, eta ez aktore mozorrotuak: «Ce petit peuple est si naturellement lui-même que, devant l'objectif, comme devant le microphone,

il n'a pas "posé". Il a continué de faire ce qu'il fait chaque jour» (*Les artistes* 1931).

Funtsean, *Au Pays des Basques*ek desagertzera zihoan herri «puru» baten erretratu malenkoniatsua egin zuen, Gernikako arbolapean, kapelak erantsita kantuz ari zen gizon saldoaren lehen eszenatik hasi eta filmaren bukarako Kantauri itsasoaren olatu harroetaraino. Gernikako arbolaren ondotik, zuzendariak prentsari aipatu zion Azkaineko artzaina ageri da, mendi-hegaletan behera, makila beso artean gurutzatuta duela, *Ikusten duzu goizean* Elizanbururen poema kantatuz, eta frantsesezko azpigitulu idatziek halaxe aurkeztu zigan: «L'âme des Basques est de ligne simple, fière et vigoureuse, comme leurs montagnes». Segidan, artzainaren begien irudia, Kantauriko uhainetan urtuko da.

Estilo bereko estanpen bitartez eraikia dago film osoa, Ramiro Arrue euskal margolari ezagunaren olio-pinturen segida balitz bezala. Dantzak, pilota-partidak, baserri-giroa, heriotza-errituak... Beti euskarazko kantuz lagunduak, eta frantsesezko ele idatziz komentatuak. Ez da entzunezko narraziorik. Haatik, eszena batean, euskara entzun daiteke, pertsonaia baten ahotik, eta ez kantuz. Baserri bateko ugazaba pausatzean, haren segida hartuko duen premuak, erleei nagusiaren heriotzaren berri eman behar diela esplikatzeko dute intertituluak, frantsesez. Hala, nagusi gaztea ikusiko dugu, etxetik atera eta erlauntzaraino oinez, eta han, esaldi haxe esango die erleei: «Erleak! Zuen na(g)usia hila izan duk. Orain ni izain ['izanen'] n(a)uk bere ordaina».

Film batean euskara entzun zen lehen aldia da. Horrek eta soinu-banda osoki euskal kantuz osatuta egoteak, liluratu egin zuten Aita Donostia filma Parisen ikusi zuenean, eta miresmenez betetako hitzak idatzi zituen Champreuxen lanaz: «No se oye en esta película ni una palabra en *erdera* durante la hora y media que corre ante nuestros ojos. Todo en euskera, cantado y hablado» (1983: 115).

Ordutik, beharbada Aita Donostiaren idatziek nahasita, eta seguraski filma ikusi gabe, hainbat monografia eta prentsa artikulutan, *Au Pays des Basques* euskarazko lehen filma izan zela publikatu izan da. Haatik, bertan entzun daitezkeen kantu, bertso eta esaldi erritualetan, ez dute balore komunikatiborik. Filmaren pertsonaia «indigenen» soinu exotikoak dira, eta fil-

maren diskurtsoa eta narrazioa, azaldu dugun bezala, frantsesez egituraturik dago osoki. Josetxo Cerdánek ere, zorrotz esplikatu du, euskara entzuten den filmen eta euskarazko filmen arteko aldea zein den:

Si bien es cierto que la copia que ha llegado hasta nuestros días contiene algunos ambientes en los que se puede distinguir el euskera e, incluso, hay un fragmento de una pastoral de Zuberoa con sonido, ello no es suficiente para afirmar que nos encontramos ante una película (la primera) dialogada en euskera. Efectivamente, se puede oír euskera por primera vez en el cine, pero eso es algo muy diferente a lo que se entiende por una película hablada.

(Cerdán 1998: 89)

## 5.2 **Euzkadi: euskara zinema abertzalean (1933)**

30eko hamarkadan euskal kulturak bizi izan zuen berpizkunde kulturala, neurri handi batean, euskal abertzaletasunaren eskutik etorri zen. 1930ean, mugimendu abertzaleko bi adarrak (Comuni6n Nacionalista Vasca eta Aberri) berriz ere batu ziren EAJ/PNV izenarekin, eta Primo de Riveraren diktaduraren akitzeak eta Errepublikaren etorrerak, buruzagi abertzale gazteen belaunaldi berri bati bide eman zion, haien artean, besteak beste, Jose Antonio Agirre, Telesforo Monzon, Jesus Maria Leizaola eta Manuel Irujo nabarmentzen zirelarik.

Zabalkunde-giro hartan, «euskal nazioari» lotutako berpizkunde kulturalaz hitz egiten hasi zen gero eta gehiago. Hala agertu ziren plazara idazle gazteak (Lizardi, Lauaxeta, Orixe, Lopez Mendizabal, Luzear, Zubimendi...), Basarri bezalako bertsolari eskolatuak, euskal opera-egileak, dantza- eta antzerki-taldeak... Mugimenduaren eragile nagusienetakoa Joxe Ariztimuño *Aitzol* elizgizona izan zen. Bere inguruan ekintzaile-lana egiten zuten laguntzaile-sarea sortu zuen, eta horien artean, laster nabarmendu zen Teodoro Godofredo Hernandorena jatorri nafarreko odontologo zizurkildarra, Gipuzkoako Euzko Gaztediko lehendakaria ere bazena. Euskaldun berria zen Hernandorena, hizkuntza helduaroan ikasitakoa, eta agian horregatik, mira berezia zion euskarari. 1931n, Agirre eta Monzonekin batera Azkoitian eman zuen mitin publi-

ko batean, halaxe zin egin omen zuen: «... de hoy en adelante no hablaré más que en euskera» (*apud* Lasa Bergara 2008: 143).

Hernandorenaren kultura-ekintzaitzari zor zaizkio, Luzearrekin eta Zubimendirekin batera, euskarazko lehen irratsaioak; eta, horrez gain, teatro handietara eraman zituen euskarazko antzezlanak, bertsolaritza sustatu zuen, *Amaya* opera taularatu... Baina ororen buru, *Euzkadi* film dokumental luzea ekoizteagatik da ezagun. Berak ere, hainbat urte geroago Martin Ugalderekin izandako elkarriketa argitaragabe batean, *Euzkadi* nabarmendu zuen bere beste ekintza guztien ginetik:

Gu ginen irrati baten atzetikan. Eta nik hori planteatu nun, «orduan eskrito bat egin behar degu hemengo irratiari, hasteko astean ordu bat», eta eman ziguten. [...] Amaya euskaraz eskribituta zegoen opera ere nik eraman nuen Bartzelonara... Guridik orduan pasatzen zituen udak Donostian, eta eskatu zion Bartzelonan Euzko Gaztediren orfeoia errepresentatzea opera. Gauza asko egin genitun. Baina printzipalena badakizu zein izan zan? Nik egin nun filma. Hori nik egin dedan gauzarik printzipalenetakoa da. Nere aurretik ez zun inork egin filma bat, ez zan atrebitzen, edo ez zitzaion burura etortzen, ez dakit zer. Baina inork ez zuen filma bat egin euzko istorioa kanpora eramateko.

(Ugalde d.g.)

Ugalderi kontatu zionez, Euzko Gaztedirekin Irlandara egin zuen bidaia politiko batean hasi zen harremanetan zinemarekin. 16 mm-ko kamera bat eraman zuen, eta han hartutako irudiak, itzuleran, batzoki eta elkarteetan proiektatu zituen, abertzaletasunaren ideien zabalpena ilustratzeko. Pantailan ikusitakoak ikusleak liluratu egiten zituela ohartzean, Euskal Herriari buruzko film bat egitea deliberatu zuen. Halere, film profesionala behar zuen, faktura bikainekoa, kanpoko filmen maila berean ikusiko zena zinema-gela handietan. Hala, 1933ko apirilean Donostian ospatutako lehen Aberri Eguna haritzat hartuta, abertzaletasunak gizarte-masen mugimendu gisa zuen indarra erakusteko, 110 minutuko propaganda-filma sortu zuen, interbentzio politikoak hainbat kultur adierazpiderekin batera tartekatuz.

Gaur egun filma ikustea ezinezkoa da, ezagutzen den kopia bakarra, iduriz, 1936an tropa frankistek suntsitu baitzuten, Donostia mendean hartu ondo-

ren. Haatik, 1983an, Hernandorenak Santos Zunzunegiri filmaren edukia xehe-xeheki deskribatu zion, eta prentsa abertzalean agertu ziren artikulua ugariekin erkatuta, egile hark gidoiaren erreproduzioa publikatu zuen. Zunzunegiren bertsiorearen arabera, beraz, *Euzkadi* bost zatitan banatuta dago:

- i) Euskal Herriko paisaiak eta ikuspegiak
- ii) Euskal kirola eta dantzak
- iii) Euskal kultura
- iv) Euskal abertzaletasuna
- v) Euskal estatutua

Filma 1933ko abenduan estreinatu zen, eta arrakasta handia erdietsi zuen istantean. Prentsa abertzaleak berehalako babesa eskaini zion: «Un documento vivo, valioso, moderno, de un pueblo en pie», zioten eguneroko iragarki eta guzti; eta estreinaldia baino bi egun geroago, Aitzolek testu luzea sinatu zuen *Euzkadi* egunkarian, Hernandorenaren filma aitzakia hartuta, zinemak euskal nazioarendako izan zezakeen garrantziaz gogoetatuz.

Quien ha descollado como un coloso en el arte de la propaganda popular, utilizándola como un vehículo del noble ideal y haciéndola correr por las arterias con celeridad pasmosa hasta llegar al último individuo distanciado de los círculos nerviosos de la emoción patriótica, ha sido el hitlerismo. [...] Hitler, celoso de la fuerza subyugadora del cine, crea la sociedad «Svastika Tonfilm» para infiltrar en el pueblo alemán el espíritu de la patria que resurge. [...] Como prólogo a lo que puede ser el cine como medio de propaganda patriótica —propaganda de ideas y conocimientos raciales— entre nosotros y los vascos esparcidos por el mundo, es la película *Euzkadi*.

(Aitzol 1933)

Aitzolek nazien zinemari egiten dizkion laudorioak testuinguruan jarri beharra dago. Urte hartan bertan, *Der Sieg des Glaubens* (Fedearen garaipena) dokumentala estreinatu berri zuen Leni Riefenstahlek, alderdi naziaren kongresuari buruzkoa, eta laster filmatuko zuen *Triumph des Willens* (Borondatearen garaipena). Riefenstahlen dokumentaletan Hitler eta alemaniar populua erretratatzeko moduak lilura sortu zuen Europa osoko ikusleengan (Veneziako Festibaleko Urrezko Lehoia eta Pariseko Erakusketa Unibertsa-



leko Urrezko Domina irabazi zituen, besteak beste), eta ez da harritzekoa, beraz, euskal abertzaleek ere, beren nazioaren berpizkundera irudikatzeke, alemaniarren ispiluan begiratu nahi izatea. Zentzu horretan, 1933ko Aberri Egunean iritsi zaizkigun argazkiek, bai eta Hernandorenak Zunzuneguiari xeheki deskribatutako eszena batzuek ere (San Inazio egunez San Mamesen egindako 2.000 ezpata-dantzariren agerraldia, kasu), *Euzkadik* garaiko propaganda-filmaren iturritik edaten zuela pentsatzera garamatzate.

Nolanahi dela, euskal berpizkunderaren irudi izan nahia, eta Hernandorenaren beraren euskaltzaletasuna gorabehera, espainolez elekatutako filma izan zen *Euzkadik*. Off ahotsa, Bernardo Estornés Lasak idatzia, espainolez mintzo zen osoki, eta hizkuntza berean ziren Aberri Egunean entzuten ziren buruzagi abertzaleen hitzartzeak ere.

Aukera hura euskarazko film bat egiteko ez baliatzea harritzeko gauza da, filmaren ekoizpenean garai hartan euskararen suspertzean engaiatuenak ziren ekintzaileetarik askok jardun zutelako. Aitzol, esaterako, filmaketa osoan kameralarien gidari ibili zen, eta Lauaxetak Bizkaiko filmaketen harriera antolatu zuen. Hernandorenaren kasuan, euskarekin zuen mira aipatua dugu lehenago, baina haratago joanez, zinema euskaldundu beharraz ere adierazpen publikoak egin zituen hainbat aldiz. 1935ean, hauxe idatzi zuen *El día* egunkarian: «Askotan entzun dit euskeraren etsai aundiak dirala izparringiak, zinia eta irratsaiuak. Nere erantzuna beti izan dek auxe: txarrak diran bezela onak biurtu litezkela» (Hernandorena 1935). 1956an, berriz, Parisen, Euskararen Egunaren kariaz eginiko hitzaldi batean, hizkuntza bizi zedin, zinema ere euskaraz egin beharra zegoela aldarrikatu zuen, eta preseski, horrexek piztu zuen André Madrérangan *Gure sorlekua* euskarazko filmaren ekoizpenari ekiteko pindarra. Madreren beraren hitzetan:

Au cours de la réunion annuelle de l'Eskuararen Eguna à Paris, le D. Hernandorena exprimait dans un discours ardent, le voeu de voir écrire et diffuser toujours plus de publications en langue basque. Il suggérait même la réalisation d'un film en basque à l'intention de nos compatriotes dispersés à travers le monde. [...] En sortant de la réunion de l'Eskuararen Eguna, ma décision était prise: j'allais essayer le film basque réclaté par le Docteur Hernandorena.

(Lahina 1965: 248)

Aitzitik, orain arte uste izan denaren kontra, pelikulan euskara entzun zitekeen. Orain arte argitaratutako ikerketek filmaren lokuzioa espainolez zela egiaztatu besterik ez zuten egin. Baina prentsa zehatz-mehatz aztertuz gero, eszena batzuetan hizlariak euskaraz elekatzen zirela antzeman dugu.

Gidoiaren arabera, filmaren une gorena Aberri Egunaren ospakizuna da, harako Atotxan 60.000 laguneko mitin jendetsua bildu zuena. Oholtzatik, Matxin Irabola bertsolari lapurtarrak zenbait bertso kantatu zituen, eta Kataluniako diputatu batek, Galiziako beste diputatu batek, Europako gutxiengo kongresuko lehendakariak, Agirrek, Monzonek eta Hernandorenak hitza hartu zuten.

Bada, *Euzkadi* egunkaria goitik behera ustiatuta atzeman dugu, filmaren estreinaldiaren ondoren Ibon Uribitarte idazleak argitaratutako kronikan, hitzaldietako bat euskaraz zela: «Lenengo itzaldija euzkeraz entzun dogu. Bigarrena prantzerazkoa ixan da. Irugarrena berriz, katalaneraz» (Buenos Airesen, 1933). Beste kronika batek argitzen duenez, Hernandorenarena berarena zen, justuki, filmaren euskarazko eszena hori, eta bere esanak nola edo hala laburtu zituen:

Habló en euzkera este entusiasta abertzale miembro del GBB y presidente de Donosti'ko Euzko Etxea. [...] Euzkadi quiere la libertad de todos los pueblos, y esta aspiración, extensiva a todos, se concreta con toda la fuerza en un imperativo categórico en la expresión del deseo de que Euzkadi recobre sus libertades. Hoy se levanta el pueblo vasco ante Europa a pedir de un modo oficial que si España y Francia tienen derecho a ser Estados, Euzkadi lo tiene también tanto como dichas naciones. Por eso —añadió—, con más empuje, con más entusiasmo que nunca hoy alzamos el grito de «Gora Euzkadi Azkatuta!». Añadió que a los organizadores del acto se les habían puesto muchos impedimentos, y que ello forzaba a todos los oradores a ser breves en sus discursos, que serían pronunciados en la lengua nativa de cada uno de los mismos. Entre los presentes habrá muchos —dijo— que no entiendan bien el euzkera: para estos se hará a la terminación de cada uno de los discursos un breve resumen erdérico.

(«El doctor Erandorena», *Euzkadi* 1933)

Laburbilduz, *Euzkadi* mugimendu abertzalearen baitako ekintzaile euskaltzaleen proiektua izan arren, espainolez eleketatutako filma izan zen. Haatik, orain arte uste izan denaren kontra, euskarak ukan zuen tokirik bertan; eta preseski, egilearen beraren ahotsean. Zentzu horretan, erleei mintzatzeko ez ezik, funtzio erritualetatik haratago, Hernandorenaren filmean, Hernandorenaren bozean, lehen aldikoz entzuten zen euskara filma batean, funtzio komunikatibo batekin, mezu politiko bat barreiatzeko helburuarekin.

### 5.3 *Sinfonía vasca*: euskara zinema eskuindarrean (1936)

1936ko gerra hasi aurretik, Euskal Herrian filmatutako azken filma *Sinfonía vasca* izan zen; lurraldeari buruzko beste dokumental bat. Adolf Trotz alemaniar zinemagileak enkarguz zuzendua, Bizkaiko eskuin espainolistaren giroan sortutako Producciones Hispánicas ekoiztetxearen azken lana izan zen. Filmaren bultzatzaileen artean, José Luis Duro ekintzaile antiestatutista, Tomás de Zubiria oligarka monarkikoa (Bizkaiko Labe Garaietako lehen presidentea), Antonio Obregón Falangeko militantea eta Joaquín Goyanes zeuden, besteak beste; eta azken horren hitzetan, ekoiztetxea gerra hasi bezain laster itxi zuten, errepublikanoek Zubiria fusilatu zutelako (Elezkano Roqueñí 2013: 61-93).

20ko hamarkadan ospea hartu zuten Hirien Sinfonia generoaren estilokoa lirudike filmak. Haatik, ideia poetikotik haratago, Trotzen lanak ez du deus ikustekorik banguardiako zinemarekin, arras kontserbadorea da forma aldetik. Filmak ez du narraziorik; Jesus García Leoz nafar konpositorearen musikak eta kantu tradizionalak sostengatutako Euskal Herriko eszena tipikoen collage bat da. Hala, musika eta irudi hutsen elkarrizketa mutu horrek, bidea ematen dio ikusleek irakurketa ezberdinak egiteari. Halaxe dio Cerdánek ere:

*Sinfonía vasca* fue, pues, un proyecto realizado desde posiciones de la más exaltada derecha española y, por lo tanto, sus planteamientos eran los opuestos a los de *Euzkadi*, aunque al tratarse de una impecable ilustración en imágenes de la partitura musical de Jesús García Leoz, dejaba la puerta abierta a cualquier interpretación.

(Cerdán 1998: 109)

Funtsean, *Sinfonía vasca* Euskal Herriaz ematen duen irudia, ez da *Au Pays des Basques* eskainitakoaren oso ezberdina: mendiak, ardiak, Kantauri itsasoa, pilota, arrantza, artzainak, dantza... XIX. mendetik euskalduntasunari buruz nagusitutako iruditeria erromantiko eta exotikoa barnebiltzen du, atzerriko idazle eta antropologoek eta lekuko margolarien iturritik edanez (Zulaika 1996). Elezcano Roqueñik ere uste du, filmaren irudi bukoliko horrek, hitzik gabe, hots, narrazio elekturik gabe proiektatzean, esanahi posible ugari hartu zituela estreinatu zenean: «un carácter políticamente aséptico y polisémico» (2013: 70).

Hala ere, filmaren memento batean, hitzak gaina hartzen dio musikari. Eszena bakar batean, bi pertsonaien arteko elkarrizketa entzuten da. Eta euskaraz ari dira, hain zuzen. Iparragirrereren ereserkia entzuten den bitartean, Gernikako arbola zaharrari begira ikusten ditugu agure bat eta mutiko bat. Aitatzik haurrari txapela erantsi, eta film osoan entzun daitekeen esaldi bakarra esan dio: «Gure semia, ikasi maitatuten geure zahar, zintzo eta sendo Gernikako haritza, hau dalako euskaldun herriko bidea».

Filmak ez zuen oihartzun handirik izan euskal prentsan, eta *El día* egunkariko kronistak, egiazkotasuna ments zuela atzeman zuen: «De haber tenido un asesoramiento indígena inteligente *Sinfonía vasca* hubiera podido ser una cosa mucho más superior y perfecta». Haatik, euskarazko elkarrizketa zuen eszena hura beste ororen gainetik nabarmendu zuen bere idatzian. Horrexek, bakarrik, salbatu zuen film osoa: «... sólo por ella vale la pena ver *Sinfonía vasca*» («Hoy sábado...», *El día* 1936).

*El día*ko artikuluak pentsarazten digu, bazela zinema ikusle goaren parte bat euskara zinema-geletan entzuteko gosez zena. Finean, Aita Donostiak *Au Pays des Basques*i buruz idatzi zuen gisan, beharbada *Sinfonía vasca*n euskara baizik ez zela entzuten pentsatu zuten ikusle zenbaitek. Dudaezina dena da, eskuin espainolstatik ere, leku —txiki bat— egin zitzaiola euskarari zinema-geletan. Azken finean, Esparza Zabalegik dioen gisan (2020), Gernikako arbolaren sinboloa euskal familia politiko guztiek partekatzen zuten, eta haren itzalpean, euskara, gorde beharreko ondarea zen, foruak, erlijioa eta espainolotasunarekin batera.

Film horren bidez, euskal nortasunaren defentsa ez zela euskal abertzaleen monopolioa erakutsi nahi izan zuten, beharbada, Producciones Hispánicasetik. Izan ere, lehen orduko zinema frankistak ildo horri jarraitu zion tarte labur batean. Falange Española Tradicionalistak Bizkaia erori berritan ekoitzi zuen *Frente de Vizcaya* y *18 de julio* dokumentalean, esatariak barre egiten die mendigoizale abertzaleei («las juventudes nacionalistas que disfrazaban intenciones con el atletismo y el amor a la montaña, con la indumentaria del casero, a quien ridiculizaban»), Bizkaia salbatu duten egiazko euskaldunekin alderatuz, eta filmaren bukaeran, Gernikako arbolaren azpian, berriz ere Iparragirrereren ereserkia entzuten dela, nafar erreketegazteek haritzaren aurrean guardia egiten dute, offeko ahotsak honako hau kontatzearekin batera: «Árbol santo de las tradiciones vascas, el viejo tronco secular, fuerte e inquebrantable como el alma de la legítima Vasconia, religiosa y española».

Orobat, *Sinfonía vasca* filmean, euskalduntasunari buruzko iruditeria erromantiko denek gure hizkuntzari oniritzia emandako elementu gisa ageri da euskara bera. Belaunaldiz belaunaldi transmititutako konnotazio politikorik gabeko iraganaren azterna bezala, aitonaren ahotik bilobaren belarrietara igarotzen dena, dantzak bezala, pilota bezala, eta Gernikako arbolarekiko atxikimendua bezala.

## 6. Ondorioak

Artikulu honetan, zinema elekariaren lehen urteetan euskarak zinemarekin izandako harremana ikertu da. Espainian hizkuntza-aniztasunari buruz eman ziren eztabaidak aztertu ondoren, garai hartako prentsan eta bibliografian agertu ziren euskarazko zinemaren inguruko testuak bilatu dira, eta haren alde mobilizatu ziren diskurtsoak aurkeztu dira. Finean, soinudun zinemaren lehen hamarkadan euskara entzun zen lehen hiru filmak jorratu dira: *Au Pays des Basques* (1930), *Euzkadi* (1933) eta *Sinfonía vasca* (1936).

30eko hamarkadaren hasieran, zinema elekariaren hedapenak eta sendotzeak iraultza ekarri zuen mundu osora, eta eragina izan zuen bai ekoizpean, bai filmen erakusketan. Europako herrialde gehienendako zinema

elekariaren zabaltzeak erronka handia ekarri zuen, mehatxu eta aukera gisa, aldi berean: batetik, Hollywoodeko zinemagintzaren nagusitasunari aurre egin behar izan zioten; baina, bestetik, nazioa eraiki, komunitatea kohesio-natu eta hizkuntza biziberritzeko ateak ere ireki zizkien.

Garaiko artikulu eta hitzaldiak arakaturik, Espainian ere pantailako hizkuntza eztabaidagai garrantzitsu bihurtu zela egiaztatzeko modua izan dugu, inperialismo linguistikoa eta hizkuntzaren beraren defentsa ardatz nagusitzat hartuta. Hala ere, espainiar intelektualek, gaztelaniaren defentsan satlatzen zituzten botere-harreman berdinak erreproduzitu zituzten, hizkuntza gutxituak eta gaztelaniaren hegoamerikar hizkuntza-barietateak mespretxatzean. Hots, ingelesezko zinemaren aurrean gaztelaniazko zinema aldarrikatzean kultura-aniztasuna defendatzen zen, baina era berean, gaztelania ez beste hizkuntzetan filmak egitea «Babelera itzultzea» litzatekeela aipatzen zen; eta hizkuntza-barietateen balioa hierarkizatzen zen, zinematik Espainiako gaztelaniaz hitz egin behar zuela aldarrikatuz eta azentu latinoamerikarrak saihestuz.

Hala eta guztiz ere, pantailako hizkuntzaren problematika, espainiar Estatuako hizkuntza-komunitate minorizatuetera ere iritsi zen, hala nola katalanera edo euskaldunera, nahiz eta bilakaera desberdina izan. Katalunian, instituzioetatik katalanezko zinema martxan jartzen entseatu zen, atzerriko filmak bikoiztuz eta fikziozko dokumentalak zein film luzeak ekoiztuz. Euskal Herrian, aldiz, euskarazko zinematik ez zuen ametsen eremua gainditu.

Azterketa hemerografiko xehe batek erakutsi digu, mende hasieratik, prentsa euskaltzale eta abertzalean zinemarekiko mesfidantza edo konfrontazio-jarrerak nagusi izan zirela, euskararen «etsaia» zelakoan; baina 30eko hamarkadatik aurrera, joera horrek indartsu segitu bazuen ere, euskal *intelligentiako* idazle esanguratsu batzuk euskararendako zinema irabazi beharraz ohartu zirela. Ander Arzelus *Luzear* buruzagi abertzale eta *Argia* aldizkari-ko zuzendariak euskarazko zinemaren alde idatzitako artikuluek, edo Justo Mokoroa *Ibaren Genio y lengua* liburu-manifestuak erakusten dute, kultura-elite euskaltzalearen zati batek, bederen, ulertu zuela, zinema ere Pizkunde kultura-mugimenduaren parte bilakatu beharra zegoela. Hala ere, idazle bi horiek balizko asmo eta proiektuak aipatu arren, euskaraz elekatu-

tako filmik ez zen gauzatu, ezta urrundik ere. Gaztelaniazko zinema bera izan zedin borrokatzen bazen, badirudi euskaraz elekatutako film bakar bat ekoiztea ere, Luzeurrek idatzi zuen bezala, «irudipen zoroa» besterik ezin izan zitekeela garai hartan.

Alta, 30eko hamarkadan, euskara hiru film dokumentaletan entzun ahal izan zela frogatu dugu: frantses dokumental batean (*Au Pays des Basques*), euskal dokumental abertzale batean (*Euzkadi*) eta euskal eskuin espainolista-tako pertsona ezagunek bultzatutako dokumental batean (*Sinfonia vasca*). Ikerlan honetan, hiru film horien sorburua, edukia eta harrera aztertu dira, euskarak haietan zuen presentzia eta narrazioan jokatzeko funtzioan arreta jarritz, alde batetik, eta prentsan ukan zituzten oihartzunak aztertuz, bestetik.

Filma eta testuak aztertuta, *Au Pays des Basques*en kasuan, euskara soinu elementu exotiko bat besterik ez dela ondorioztatu dugu, eta, euskal kantuak, olatuen soinuak edo irrintziek bezala, zinema soinudunak ematen zituena aukera «teknikoak» erakusteko aitzakia izan zela. Izan ere, euskara entzuten zen lehen filma izateaz gain, dokumental hori kanpoan filmatutako lehen film frantsesa zen. Era berean, *Sinfonia vasca*n ere film osoan entzuten ziren hitz bakarrak euskaraz ziren: agure batek bere bilobari Gernikako arbolaren aurrean esandako esaldi bat, euskaldunek jarraitu beharreko tradizio-bidearekin identifikatuz. Horrela, frantses dokumentalean bezala, oraingoan ere euskara euskal egoerari buruzko iruditeriaren elementutzat joda, nolabaiteko arkadia anakroniko batean zentratua. Bi filmotan, beraz, elementu erritual soil gisa erabilia izan zen hizkuntza.

*Euzkadiren* kasuan, filmaren izaera eta helburu politiko nabarmenak berorren edukiari eta hizkuntza-hautuari buruzko interpretazio ezberdina egitera garamatza. Lehenik eta behin, paradoxa bat badagoelako: Teodoro Hernandorena zuzendaria euskararen propagandista suhar eta ezaguna zen arren, bai filmaren narrazioa bai entzuten ziren diskurtso nagusiak gaztelaniaz dira. Horiek horrela, hizkuntza-hautuaren zergatia ulertzeko hipotesi gisa pentsa genezake, abertzale gehienek film bat egitea hutsa ameskeriatzat zuten garai hartan, Hernandorenari filma euskaraz elekatzea asumitu ezina suertatutako zitzaiola. Gastu guztiak berak ordaindu zituen diruok bere sake-

letik harturik, eta beharbada, filma amortizatu beharrak eraman zuen ikusle potentzial gehiago izan zezakeen hizkuntza bat aukeratzera. Hipotesi berari jarraituz, azpitulak-eta garatu gabe zeuden testuinguru hartan, gaztelaniazko narrazioa egokiagoa izan zitekeen filmaren propaganda-helburuetarako ere, are gehiago kontuan hartuz gero, handik hilabete gutxira, 1934an, Latinoamerikan erakutsia izan zela, hainbat euskal etxe eta zinematan.

Hala ere, orain arte uste zenaren kontra, artikulua honetan egiaztatu dugu, eszena batean bederen euskaraz hitz egin zela *Euzkadin*, hain zuzen, Hernandorena zuzendariaren beraren ahotik. 1933ko Aberri Egunean milaka lagun aurrean emandako hitzaldi politikoa, euskaraz elekatuta erakutsi nahi zuen filmak, eta zentzu horretan, *Au Pays des Basques* eta *Sinfonía vasca* filmetako eszenetan ez bezala, euskarak *Euzkadin* funtzio komunikatiboa zuela esan genezake; ideia eta sentimenduak transmititzeko tresna gisa erabilia izan zela, eta ez kode erritual gisa bakarrik.

Laburbilduz esan dezagun, 30eko hamarkadan, euskarak berpizkunde kulturala bizi bazuen ere eta zinemako hizkuntza-aniztasunari buruzko eztabaidak gai-zerrendan bazeuden ere, ez ziren euskarazko zinema sortzeko baldintzak izan, eta hizkuntza horren presentzia pantailan hiru dokumentaletan laburki agertzeraz mugatu zen. Hala eta guztiz ere, André Madrék Hernandorenarengandik jasotako ideiak aditzera eman duen gisan, lehen urrats horiek urte batzuk geroago proiektu berriak ernamuntzen lagundu zuten, nahiz eta oraindik ere hamarkada asko itxaron behar izan ziren euskarazko zinema normalizatzen hasteko, beste edozein hizkuntza gutxitutakoaren pare.

Hausnarketa bat ekarriz finituko dugu atal hau: 30eko hamarkada hartan, euskarazko istorioak —filmetan— ikusteko gosez ziren intelektual haiek, hein batean, antzerkigintzan aterpetu behar izan zuten, euskarazko zinema ekoizteko ezintasunaren aurrean... Izan ere, 20ko hamarkadatik goiti, zinemaren hedatzeak akuilaturik, antzerkiak ireki ziren herri askotan, Hegoaldean zein Iparraldean; euskal antzerkigintzak gorakada nabarmena izan zuen. Artikuluan landu dugun gaiaren albo-ondoriotzat azal daiteke azken fenomeno hori ere, arras interesgarria, eta sakonago azertzea merezi duena, gure aburuz.



## Bibliografia

AZPILLAGA, Patxi (2015). «Euskal zinema industria gisa: begiratu bat euskal zinemagintzaren ibilbideari ekonomiaren ikuspuntutik», *Euskal zinema. Hiru zinemagile-belaraldi*. Donostia: Filmoteca Vasca.

——— «Buenos Airesen». *Euzkadi*, 1933-12-29.

BARANBONES, Josu (2011). «Una mirada telescópica al cine en euskera: versiones originales, dobladas y subtituladas», *Hermeneus* 13-1, 2011: 25-59.

CERDÁN, Josetxo (1998). «El cine sonoro y la Segunda República», *Los cineastas. Historia del cine en Euskal Herria. 1896-1998*. Gasteiz: Sancho el Sabio Fundazioa.

DOXANDABARATZ, Beñat (2020). *Landa eta hiri identitateak talkan Euskal Zinema Berria*. Leioa: UPV/EHU.

ELEZKANO ROQUEÑÍ, Andoni (2013). «*Sinfonía vasca* (1936), un documental con historia: de película comercial a instrumento político», *Sancho el Sabio: Revista de Cultura e Investigación Vasca* 36, 2013: 61-93.  
Eskuragarri: DOI: <https://doi.org/10.55698/ss.v0i36.55>.

ESPARZA, Joxemari (2020). *Gernikako arbolaren biografia*. Tafalla: Txalaparta.

ETXEPARE, Jean (1984). *Jean Etchepare Mirikuaren (1877-1935) idazlanak*. Donostia: Elkar.

EZEZAGUNA [Kronistak].

——— «Exotismo y esperanzas de liberación», *Aberri*, 1923-07-20.

——— «El doctor Ernandorena», *Euzkadi*, 1933-04-18.

——— «Hoy sábado las maravillas del País Vasco en la pantalla del Príncipe», *El día*, 1936-05-30.

FERNANDEZ, Joxean (2014). *Euskal zinema*. Donostia: Etxepare Euskal Institutua.

GARCÍA CARRIÓN, Marta (2013). *Por un cine patrio. Cultura cinematográfica y nacionalismo español (1926-1936)*. Valentzia: Universitat de València.

GIPUZKO PELOTA BATZA: «Atarreneri: Tolosa, Zarautz eta Oreretatik», *El día*, 1935-12-21.

GUBERN, Román (2014). *El cine sonoro en la II República (1929-1936)*. Barcelona: Lumen.

HERNANDORENA, Teodoro. «Zineaz», *El día*, 03-03-1931.

——— «Zinea lagun», *El día*, 1935-03-21.

MANIAS-MUÑOZ, Miren (2015). *Euskarazko zinemaren produkzioa eta finantziakzioa (2005-2012)*. Leioa: UPV/EHU. (Doktorego-tesia).

MANTEROLA, Elixabete (2019). «Evolución del cine en euskera y su traducción». *Multilingüismo y representación de las identidades en textos audiovisuales*. Castelló: Universitat Jaume I: 113-144.

MARTINEZ, Josu (2014a). *Gure (zinemaren) sorlekua. Euskarazko lehen filmaren aurkikuntza, historia eta analisisa*. Leioa: UPV/EHU.

——— (2014b). [Jacques Champreauxekin elkarrizketa pertsonala].

——— (2022). *Irudiz eta euskaraz. Gure hizkuntzaren zinema. Gure zinemaren hizkuntza*. Bilbo: UEU.

IZAGIRRE, Koldo (1996). *Gure zinemaren historia petrala*. Donostia: Susa.

LAHINA, E. (1956). «Sorlekua», *Gure Herria: Bulletin de l'Association Gure Herria*, XXV zenbakia: 247-252.

LARZABAL, Piarres (1996). *Hitzaldi eta mintzaldi. Piarres Xarritonen edizioa*. Donostia: Elkar.

LASA BERGARA, Xabier (2008). *Begi-kolpea. Teodoro Hernandorenaren biografia*. Andoain: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna.

LÓPEZ ETXEBARRIETA, Alberto (1984). *Cine vasco, de ayer a hoy. Época sonora*. Bilbo: Editorial Mensajero.

MOKOROA, Justo (1936). *Genio y lengua*. Tolosa: Librería de Moco-roa Hermanos.

PABLO, Santiago de (2012). *The Basque Nation On-Screen. Cinema, Nationalism, and Political Violence*. Nevada: University of Reno.

ROMAGUERA, Josep (1992). *Quan el cinema començà a parlar en català (1927-1934)*. Barcelona: Institut del Cinema Català.

SOJO GIL, Kepa (2019). «The evolution of Euskera in Basque Cinema», *Linguistic Minorities in Europe Online*.

STONE, Bob eta RODRÍGUEZ, María Pilar (2015). *Cine vasco. Una historia política y cultural*. Salamanca: Comunicación Social.

UGALDE, Martin (d.g.). [Teodoro Hernandorenari egindako audio-elkarrizketa].

UNSAIN, José María (1985). *El cine y los vascos*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.

ZABALETA LEKUONA, Juan (1967). *Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak*. Tolosa: Auspoa.

ZENBAITEN ARTEAN (1932). *Congreso Hispanoamericano de Cinematografía*. Madrid: Hijos de M.G. Hernández.

ZULAIKA ARREGI, José Gonzalo (*Aita Donostia*) (1983). *Obras completas*. Tomo III. Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca.

ZULAIKA IRURETA, Joseba (1996). *Del Cromañón al Carnaval. Los vascos como museo antropológico*. Donostia: Erein.

ZUNZUNEGI, Santos (1983). *Euzkadi. Una película de Teodoro Ermandorena*. Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia.

——— (1985). *El cine en el País Vasco*. Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia.

# **Euskaldunen euskara-gaitasunaren eragina *euskara-gaztelania* kode-alternantziaren erabileran**

**Influencia de la competencia del euskera de los  
vascohablantes en el uso de la alternancia de código  
*euskera-castellano***

**Influence de la compétence en langue basque des  
bascophones sur l'utilisation du code-switching  
*basque-espagnol***

**Influence of the Basque language competence of  
Basque speakers on the use of *Basque-Spanish*  
code-switching**

PÉREZ GÓNZALEZ, Mikel

(Lanaren kontzeptualizazioa, metodologiaren garapena, datuak jaso eta aztertea eta artikuluaren idazketa)

EMUN kooperatibako euskara-aholkularia

mikelp22@ni.eus

ORCID: 0000-0002-4366-8006

MUNARRIZ-IBARROLA, Amaia

(Lanaren kontzeptualizazioa, metodologiaren garapena, gainbegiraketa eta artikuluaren idazketa)

UPV/EHUko irakaslea (Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila)

amaia.munarriz@ehu.eus

ORCID: 0000-0002-1272-1142

DOI: <https://doi.org/10.59866/eia.v69i2.286>

Noiz jaso: 2024-04-26

Noiz onartua: 2024-05-28

Lan honetan, euskaldunen «euskara-gaztelania» kode-alternantziaren erabileraren eta euskaldunen euskara-gaitasunaren arteko harremanean sakondu dugu, galdetegi bidez jasotako 305 euskaldunen emaitzetan oinarrituz. Azterketa kuantitatiboak aukera eman du, batetik, kode-alternantziaren erabilera euskaldunen artean oso zabalduta dagoela frogatzeko, euskara-gaitasun baxuagoa zein euskara-gaitasun altuagoa duten euskaldunetan. Eta bestetik, emaitzek erakutsi dute, oro har, kode-alternantziaren erabileran hizkuntza-gaitasunari loturiko hainbat aldagaik (gaitasun osoa, erregistroen erabilera, euskararen erabilera) eragina dutela, harremanak konplexuak izan arren. Emaitza horiek eztabaidatu egin ditugu euskal soziolinguistikako lanen argitan, eta aurrera begirako ildoak ere proposatu ditugu, euskaldunen kode-alternantziaren erabilera eta jarrerak hobeto ezagutzeko bidean.

**Gako-hitzak:** kode-alternantzia, elebitasuna, hizkuntza-gaitasuna, euskara.

Este trabajo profundiza en la relación entre el uso de la alternancia de código «euskera-castellano» en individuos vascohablantes y la competencia en euskera de los mismos, basándose para ello en las respuestas de 305 participantes recogidas mediante cuestionario. El análisis cuantitativo ha permitido, por un lado, demostrar que el uso de la alternancia de código está muy extendido entre la población euskaldun, tanto entre aquellos vascohablantes que tienen menor competencia en euskera como entre los que tienen mayor competencia en esta lengua. Y por otro lado, los resultados muestran que, en general, el uso de la alternancia de código está sujeto a una serie de variables relacionadas con la competencia lingüística (competencia total, uso de registros, uso del euskera), a pesar de la complejidad de las relaciones. Nuestros resultados han sido analizados a la luz de los trabajos de sociolingüística vasca actual, y también se han propuesto líneas de avance para un mejor conocimiento de los usos y actitudes de la alternancia de código de la población vascófona.

**Palabras clave:** alternancia de código, bilingüismo, competencia lingüística, euskera.

Dans cet article, nous avons étudié la relation entre l'utilisation de l'alternance codique «basque-espagnol» par les bascophones et leur niveau de compétence en basque, en nous basant sur les résultats de 305 questionnaires recueillis auprès des participants. L'analyse quantitative a permis, d'une part, de montrer que l'utilisation de l'alternance codique est très répandue au sein de la population bascophone, aussi bien chez les moins compétents que chez les plus compétents. Et d'autre part, les résultats montrent qu'en général, l'utilisation de l'alternance codique est affectée par un certain nombre de variables liées à la compétence linguistique (compétence totale, utilisation du registre, utilisation du basque), malgré la complexité des relations. Ces résultats sont discutés à la lumière des travaux en sociolinguistique basque, et des pistes sont également proposées pour mieux comprendre les usages et les attitudes de l'alternance codique dans la population bascophone.

**Mots-clés :** changement de code, bilinguisme, compétence linguistique, basque.

In this paper we have examined the relationship between the use of «Basque-Spanish» code-switching by Basque speakers and their proficiency in Basque, based on the results of 305 participants collected by means of a questionnaire. The quantitative analysis has made it possible, on the one hand, to show that the use of code-switching is very widespread among the Basque-speaking population, both among those who are less proficient in Basque and among those who are more proficient in this language. And on the other hand, the results reveal that, in general, the use of code-switching is affected by a number of variables related to language proficiency (total proficiency, register use, use of Basque), despite the complexity of the relationships. These results are discussed in light of studies on Basque sociolinguistics, and further research is also proposed for a better understanding of the uses and attitudes of code-switching in the Basque-speaking population.

**Keywords:** code-switching, bilingualism, language proficiency, Basque.

PÉREZ GONZÁLEZ, Mikel eta MUNARRIZ-IBARROLA, Amaia (2024). «Influence of the Basque language competence of Basque speakers on the use of “Basque-Spanish” code-switching», *Euskera Ikerketa Aldizkaria*, 69, 2: 187-219.

## 1. Sarrera<sup>1</sup>

Kode-alternantzia (aurrerantzean KA) hizkuntza-ukipenaren ohiko fenomeno da hizkuntza-komunitate elebidunetan, eta elebidunek beren bi hizkuntzen artean naturaltasunez eta erraztasunez txandakatzeko duten gaitasunaren isla (Bullock eta Toribio 2009: 1).<sup>2</sup> Hona hemen, adibidez, «euskara-gaztelania» KAdun ekoizpen bat: «Nengoen *al lado del ambulatorio* joateko» (Ibarra 2011a: 287). Hainbat ikerketak erakutsi dute, hiztunek ez dituztela KAdun esaldietan hizkuntzak nolnahi konbinatzen eta ez dituztela denek KAdun esaldiak berdin baloratzen/epaitzen (Anderson eta Toribio 2007; Bullock eta Toribio 2009; Deuchar 2020; Gardner-Chloros 2009; Ibarra 2020; Liceras eta beste 2008; Mad'arová 2020; Poplack 1980; Zulaika 2019).

KAren ikerketetan hiru hurbilketa dira nagusi (Bullock eta Toribio 2009): hurbilketa linguistiko-teorikoa, hurbilketa soziolinguistikoa eta hurbilketa psikolinguistikoa. Hurbilketa linguistikoaren helburu nagusia da, hizkuntza-osagai desberdinetan (fonologia, morfologia, sintaxia, semantika) alternantzia duten egituren ezaugarri gramatikalak aztertzea. Hurbilketa soziolinguistikoak KAn eragina duten gizarte-alderdiak arakatzea du helburu (erabilera gutxitzea edo areagotzea eragiten duten aldagaiak, etab.), bosterea eta prestigioa bezalako eraikuntza sozialak aintzat hartuz. Azkenik, hurbilketa psikolinguistikoak KA aztertzen du elebidunen ekoizpen-, ulermen- eta jabekuntza-mekanismoak hobeto ulertzeko asmoz. Lan honek ikuspegi soziolinguistikoa eta psikolinguistikoa uztartu nahi izan ditu.

---

<sup>1</sup> Ikerketa honek Euskaltzaindiaren Mintzola beka jaso zuen eta horri esker buruta da. Bestalde, lan hau Master Amaierako Lana egiteko Henrike Knörr ikerketa-bekaren jarraipena izan denez, Arabako Foru Aldundiari ere eskerrak eman nahi dizkiogu. Era berean, lanak honako proiektu hauen laguntza jaso du: Eusko Jaurilaritza: IT-983-16 eta IT-167-22, eta MICIU PID-2023-148030NB-100. Amaitzeko, ez genituzke ahaztu nahi ikerketa-lanean online galdetegia betez parte hartu dutenak. Geure esker ona, beraz, Euskaltzaindiari, Arabako Foru Aldundiari, ELEBILABi eta parte-hartzaile guztiei.

<sup>2</sup> Beti ez da erraza KAren eta hizkuntzazko bestelako kontaktu-fenomenoen artean bereiztea (Muñoa 2002; Sinner 2008; Bullock eta Toribio 2009; Gardner-Chloros 2009; Aiestaran 2023); KAren beraren esanahiaren inguruan ere eztabaida dago (Bullock eta Toribio 2009). Edonola ere, eztabaida hori lan honen helburuetatik kanpo geratu da.

KA 70eko hamarkadatik aurrera hasi zen ikergai bihurtzen (Muñoa 2002), eta lehen lan ezagunak 80ko hamarkadan egin ziren ingelesari eta gaztelaniari buruz (adb., Poplack 1980). Izan ere, hizkuntzalarien artean KA gaitasun elebidunaren indize gisa har badaiteke ere, publiko orokorrak maizago jotzen du, edo jo izan du, KA hizkuntzaren endekapen edo degenerazioaren adierazletzat, edo hizkuntza ondo ez menderatzearen ondorioztat (Bullock eta Toribio 2009).

Euskal Herrian ere KAren erabilera arrunta da. Hain zuzen, Pérezek (2022, 2023a, 2023b) «euskara-gaztelania» KAren erabilera eta jarrerak aztertuta, hizkuntza-gaitasunaren eta KAren erabileraren arteko harremanak konplexuak direla ikusi zuen (2022, 2023a, 2023b).

Lan honen helburua, Pérezen lana (2022, 2023a, 2023b) osatzea da, euskaldunen euskara-gaitasunaren eta KAren erabileraren arteko eragina orain arte baino zorrotzago arakatuz. Horretarako, azterketa kuantitatiboan egin da Pérezen (2022) galdetegiko 305 euskaldunen erantzunak oinarri hartuta.<sup>3</sup> Pérezen galdetegia, oro har euskara-gaitasun handia duten 18-24 urte bitarteko gazteek bete zuten.

Artikuluaren egiturari dagokionez, 2. atalean KAren eta hizkuntza-gaitasunaren harremana azertu duten ikerlanei buruz jardungo dugu, labur. Ondoren, 3. atalean, «euskara-gaztelania» hizkuntza-ukipenaren inguruan mintzatuko gara, euskararen egoera soziolinguistikoaren gaineko zertzelada batzuk emanez eta «euskara-gaztelania» KAren inguruko ikuspegi orokorra partekatuz. 4. atalean, lan honen ikerketa galderak eta horien araberako aurreikuspenak zehaztuko ditugu. Jarraian, 5. atalean ikerketa helburuei begira erabili dugun metodologia eta jasotako laginaren zehaztasunak eskainiko ditugu. 6. atalean emaitzen berri emango da. Ostean, literatura zientifikoa eta emaitzak esku artean dauzkagula, horien arteko eztabaida zientifikoa garatuko dugu 7. atalean. Amaitzeko, 8. atalean, lanaren ondorioak eta aurrera begirakoak xehetuko ditugu.

---

<sup>3</sup> Artikulu honek Pérezen (2024) txostena du abiapuntu, hango ideia nagusienak bildu baititu.



## 2. Hizkuntza-gaitasunaren eragina kode-alternantziaren erabileran

Ikuspegi pragmatikotik abiatuta, badakigu KA erabiltzearen funtzioak askotarikoak direla elebidunen artean; nagusiki honako hauek aipatzen dira: enfasirako, hizketaren rolak nabarmentzeko, errepikatzeko, esaldiren bat itzultzeko/zuzentzeko, rol-aldaketaren bat markatzeko edo gai-hasiera azpimarratzeko, hizkuntza-gaitasun eza konpentsatzeko eta abar (Bullock eta Toribio 2009; Mad'arová 2020; Bereziartua eta beste 2023).

Esan bezala, elebidunen edo eleaniztunen ohiko praktika dugu KA, eta praktika horren funtzioak eta horretan eragiten duten aldagai psikolinguistikoagoak edo soziolinguistikoagoak ugari dira. Faktore eragileen artean, esparru honetako literatura teknikoan hasieratik eztabaida handia ekarri du hiztunen hizkuntza-gaitasunak, esan nahi baita, zenbateraino eragiten duen KAren erabileran hiztunen hizkuntza-gaitasunaren mailak. Ikertzaile batzuek KA bi hizkuntzak bereizteko ezintasunaren adierazletzat hartu izan dute (Volterra eta Taeschner 1978; Mad'arová 2020) eta beste batzuen ustez, aldiz, KA elebidunen gaitasun handiaren ezaugarri da (Poplack 1980; Oktavia eta Trisnawati 2020). Adibidez, Yowek eta bestek (2018) proposatu dute haurrek KA hizkuntza-garapenerako laguntza gisa erabiltzen dutela, beren hizkuntza ahulagoaren mesedetan (hiztegia, gramatika-garapena, ulermen-gaitasuna). Beste azterketa batzuek, berriz, iradoki dute haur elebidunen KA-ereduetan, inguruan dituzten praktika soziolinguistikoek eragina dutela eta ez hizkuntza-gaitasunak (Hofweber eta beste 2023). Halaz, KAren erabilerak gutxienez bi hizkuntzatan nolabaiteko hizkuntza-gaitasuna izatea adierazten duela argi dago, baina hizkuntza bakoitzeko hizkuntza-gaitasunaren eta KAren erabileraren arteko harremanak nola garatzen diren azaltzea konplexua da oraindik ere (Schächinger Tenés eta beste 2023).

Hizkuntza-gaitasuna aldagai garrantzitsua da elebidunek ekoizten duten KA-moten nagusitasunari begira ere (adb., Poplack 1980; Lantto 2012; Epelde eta Oihartzabal 2010): hizkuntza-gaitasun apalagoa dutenek esaldi arteko KA edo etiketa bidezko KA gehiago ekoizteko joera dute, eta gaitasun handiagoa dutenek, ordea, esaldi barneko KA gehiago.

Bestalde, KAren erabileran egoera komunikatiboaren ezaugarriek berebiziko eragina dutela erakutsi dute ikerketek. Adibidez, elebidunek hizkuntza-identitate bikoitza duten beste elebidun batzuekin soilik erabiltzen dute KA (Bullock eta Toribio 2009). Halaber, KA gehien egoera komunikatibo lasaietan edota informaletan erabiltzen da (Gardner-Chloros 2009), hala erakutsi dute Brdarević-Čelĵok eta bestek (2021): parte-hartzaileek kodez aldatzeko joera handiena lagunekin agertu zuten, gero lankideekin eta eskolakoekin, eta gutxiagotan familiakoekin. Lan horretan, gainera, ikusi zuten KA maizago erabiltzen dutela ingurune eleaniztunean edo atzerrian bizi diren edo hizkuntzaren/kulturaren aldetik plurala den ingurunean hazi diren eleaniztunek (Brdarević-Čelĵo eta beste 2021). Hizkuntza-estatusari lotuta, bestalde, esate baterako, Sardinian elebidun orekatuenak KA gehien erabiltzen dutenak dira, hizkuntza gutxitua den sardoari eusteko (Gardner-Chloros 2009).

### 3. «Euskara-gaztelania» hizkuntza-ukipena

Hego Euskal Herrian dagoen euskararen eta gaztelaniaren arteko hizkuntza-ukipena asimetrikoa da, bien artean botere-harremana dagoelako: gaztelania hizkuntza hegemonikoa da eta euskara hizkuntza gutxi(ago)tua (Moreno Cabrera 2015; Torrealdei 2018). Bertako hiztunen artean ere asimetria dago: euskaldun guztiak elebidunak dira, baina hiztun askok, ostera, euskaraz ez dakite. Hizkuntza bi horien harremana eta estatusa nolakoa den ulertzea funtsezkoa da bi hizkuntza horien arteko KA-fenomenoa ulertu ahal izateko. Hortaz, jarraian euskararen egoera soziolinguistikoaren berri emango dugu eta gero, «euskara-gaztelania» KAri buruzko ikerlanen berri.

#### 3.1 Euskararen zenbait datu soziolinguistiko

16 urtetik gorako euskal herritarren % 30,2 euskalduna da eta % 16,1 euskaldun hartzailea, azken inkesta soziolinguistikoaren arabera (Euskararen Erakunde Publikoa 2021; Nafarroako Gobernua 2021; Eusko Jaurlaritza 2023). Euskal Autonomia Erkidegoan (aurrerantzean EAE) euskaldunak % 36,2 dira

eta euskaldun hartzaileak % 18,6: Gipuzkoan dago euskaldun gehien (% 51,8), gero Bizkaian (% 30,6) eta, azkenik, Araban (% 22,4). Adinari dagokionez, euskaldun gehien gazteenetan dago, 16-24 urte bitartean (% 74,5).

Euskaldunen profila asko aldatu da azken urteotan; gaur egun EAEko euskaldunen % 55,4 lehenengo eta bigarren guneko soziolinguistikoetan bizi dira (euskaldunak % 50etik behera diren herrietan), lehen ez bezala, hau da, egun euskaldun gehienak testuinguru erdaldunagoetan bizi dira, euskaldunagoetan baino (hots, euskaldunak % 50etik gora diren herrietan). Beste ezaugarri azpimarragarri bat hizkuntza-gaitasunean dugu: Euskal Herrian euskaraz erdaraz baino errazago egiten dutenak % 7,9 dira gaur egun, 212.838 hiztun, alegia; euskaraz egiteko gai diren artean, bestalde, % 26 inguru da euskaraz erdaraz baino hobeto egiteko gai (Iurrebaso 2023).<sup>4</sup> Hizkuntza-maila edo -gaitasuna eta hizkuntza-erabilera elkarreraginean dauden aldagaiak dira. Horregatik, euskaraz erdaraz baino errazago egiten dutenek ageri dute euskararen erabilerarik handiena —euskara nagusi den auzo-udalerrietan biltzen dira, beste inon baino gehiago, profil horretako hiztunak— (Iurrebaso 2023).

Euskararen erabilera aitortuari dagokionez, euskararen erabilera trinkoa (euskaraz erdaraz beste edo gehiago hitz egiten dutenak) % 22koa da. Gazteek erabiltzen dute euskara gehien (%33,5) eta gutxien 65 urtetik gorakoek (% 16,7); duela 30 urte alderantzizkoa zen. Esan behar da, azken 30 urteetan orotara 6,4 puntu egin duela gora euskararen erabilera aitortuak; gora egin du erabilerak esparru guztietan eta eremu formalean, bereziki.

Euskararen azken kale-erabilerako neurketaren arabera (Soziolinguistika Klusterra 2022), Euskal Herriko kaleetan elkarrizketen % 12,6 euskaraz dira, 2016an bezala. 1989tik aurrera, euskararen kale-erabilerak gora egin du adin-tarte guztietan (haurren eta gazteen adinean batik bat), salbu eta adinekoen artean.

Euskararen erabileran eragiten duten faktorerik aipatuena hurrengo hauek dira: erabilera-eremuan dagoen euskararen ezagutza; testuinguru soziolinguistikoa; euskara erabiltzeko erraztasuna eta harreman-sarea. Ildo

---

<sup>4</sup> Datuok direla-eta esan beharra dago, Pérezen (2024) txostenean ez dela argi gelditu % 7,9 hori Euskal Herriko biztanle guztien gainekoa dela, eta ez euskaldunen gainekoa soilik.

beretik, hizkuntza-erraztasunaren eta lehen hizkuntzaren arteko korrelazioa oso handia dela azpimarratu behar da (Bereziartua eta beste 2023).

### 3.2 «Euskara-gaztelania» kode-alternantzia<sup>5</sup>

Euskaldunen KAri buruzko ikerketetan, KAren arrazoietan (Ortega eta beste 2016; Ibarra 2020) arreta handia jarri da, nahiz eta hurbilketa psikolinguistikoko lanak (Iriondo 2017; De Bruin eta beste 2018; Munarriz-Ibarrola eta beste 2022) eta linguistiko-teorikokoak ere egin diren (Epelde eta Oihartzabal 2010). Hurbilketa soziolinguistikoko lanek aditzera eman dute euskara eta gaztelania konbinatzea ez dela soilik testuinguru erdaldunagoetan gertatzen den fenomeno (Etxabe 2005; Euskaltzaindia 2008: 135), esan nahi baita, ez dela bakarrik euskara-gaitasun urria duten hiztunen hizkera-ezaugarria (Euskaltzaindia 2008; Ibarra 2011b, 2014; Lantto 2015, 2016; Ibarra 2020); eta bestetik, ezin dela gazteekin soilik lotu (Igartzabal 2014; Goirigolzarri eta beste 2018), egia bada ere, gazteek euskara eta gaztelania hitz-txanda berean elkar josteko joera oso nabarmena dutela (Etxabe 2005; Ortega eta beste 2016, Eusko Jaurlaritz 2016; Portal Molinera 2022; Altuna 2023).

Hizkuntza-praktika hau egoera formalagoetan ere gertatzen da (Rodrigo 2020; Portal Molinera 2022; Torralba-Rubinos 2023), baina badirudi egoera informalagoetan arruntena dela «euskara-gaztelania» KA (Pérez 2022; Aiestaran 2023; Altuna 2023). Aiestaranek dio (2023), gainera, lagunarteko solas-egoeretan familiartekoetan baino KAren erabilerarako joera handiagoa egoteaz gain, egoera horietan KA-kasu (baliabide) gehiago ere bada-goela familiartekoetan baino.

Gazteen artean «euskara-gaztelania» KA gazte-hizkera propiotzat hartzen da, eta, zentzu horretan, gazteen identitatea markatzeko ere balio dezake KAK (Ibarra 2011; Elordui 2016; Lantto 2018). Erdararen erabilera sistematikoa da gazte euskal hiztunen lagunarteko elkarrizketetan (Balda 2022). Betiere ezin

---

<sup>5</sup> Euskara gaztelaniarekin bat egiteaz gain, frantsesarekin eta ingelesarekin ere elkar josten da (adb., Rodrigo 2020). Lan honetan, ordea, «euskara-gaztelania» konbinazioari erreparatu diogu, zehazkiago (nagusiki) euskarazko jardunean gaztelania txertatzeari.

dugu ahaztu, baina, gazteen hizkeraz baino, gazteen hizkerez hitz egitea ego-kiagoa dela (Amonarriz 2008; Perez eta Zulaika 2016). Gazteek euskarazko elkarrizketetan erdaretako hainbat esamolde txertatzen dituzte (Amonarriz 2008; Igartzabal 2014; Perez eta Zulaika 2016; Legarra 2019; Balda 2022). Nerabeek edo gazteek abiapuntu ezberdina izanda ere, euskarak eta gaztelania (eta zenbaitetan ingelesak ere) eskaintzen dizkien baliabideak erabiltzen dituzte (Altuna 2023). Nerabeek eta gazteek garbi identifikatzen dute KAren erabilera, eta nolabaiteko kontraesanean-edo bizi dute KAren erabilera hori, hizkuntza-zuentasunaren aurkako praktika dela iruditzen zaielako, eta era berean, euren hizkeraren beharrezko elementutzat ere jotzen dutelako (Altuna 2023). Hain zuzen, KAren erabilera gazteen euskara arruntaren ezaugarritzat hartzen da beste ezaugarri batzuekin batera, besteak beste, euskalkien arteko konbinazioa, batuaren eta euskalkiaren/euskalkien konbinazioa, erdarazko egi-turen ordena, aditz-formen erabilera okerra, azentuaren aldaketa, forma lin-guistikoko berriak eta abar (Amonarriz 2018; Euskaltzaindia 2008).

Bestalde, euskarazko jardunean gaztelaniara jotzeko eman diren arrazoi edo helburu komunikatiboen artean, askotarikoak izan dira, lexikoan dau-den hutsuneak betetzetik hasi eta diskurtso-mailako funtzio konplexuagoe-tara jo arterainokoak (Muñoa 2002; Etxabe 2005; Euskaltzaindia 2008; Igartzabal 2014; Lantto 2015; Zulaika 2019; Ibarra 2020; Altuna 2023). Horien artean, hizkera informal bihurtu beharrak indarra dauka; gazteek gaztelania hizkera informalagoarekin eta euskara hizkera formalagoarekin lotzen dute, eta informaltasun hori lortzeko KA baliatzen dute. Beste zen-bait arrazoi eta zertarako ere jaso dira alorreko literatura espezializatuan (ikus bereziki Ibarra 2020), esate baterako: hainbat egoeraren inguruko azalpenak emateko erabili ohi da KA, lehenago bizi izandako egoerak gogo-ra ekartzeko (batak edo besteak esandako hitzak gogoratzeko), txantxa- edo haserre-esamoldeak sartzeko, eremu informaleko hizkuntza-jolasak egiteko; gaztelania hiztunen artean duen eragin/presentzia nabarmenaren ondo-rioz, adierazi nahi denari konnotazio berezia emateko; esandakoari adieraz-kortasuna emateko, hitzak leuntzeko, indartzeko, kutsu negatiboa emateko edota denbora irabazteko, oso barneratuta dauden gaztelaniazko esapide jakin batzuk sartzeko, zerbaiten izen berezia mantentzeko, emozio-esapi-deak txertatzeko; konplizitateagatik, umorerako zein irainetarako...

Lanttok (2015, 2016), Ortegak eta bestek (2016), eta Amorrortuk eta bestek (2019) erakutsi dutenez, euskara barra-barra egiten ez den testuinguru soziolinguistikoetan edo euskara erabiltzeko babesa behar duten hiztunentzat (hiztun askok duten euskarari zerbait falta zaielako autopertzepzioa dute —Altuna 2023—), KA erabiltzea edo elkarrizketa elebidunak izatea estrategia mesedegarria edo lagungarria izan daiteke euskaraz hitz egiten jarraitzeko edo euskarari eusteko. Zenbait gazteren euskara-mailarekiko autopertzepzioa negatibo samarra da, eta horrela, askok norbere euskalkian hitz egiten dutenei «inbidia» diete (Goirigolzarri eta beste 2018), esan gura da, behetik gora begiratzen dietela, irrika handiz. Lanttok dio (2015, 2016, 2018), euskara batuan hitz egiten duten hiztunak beren hizkera estigmatizatuaren kontziente direla eta hizkuntzak banatuta eutsi nahi izatearen ideia (elebakartasunaren ideologia) indartsu samarra dela profil horretako hiztun askoren artean. Hiztun askori edozein aldaera edo hizkera naturala eta autentikoa iruditzen zaie, halere, beste askok euskalkiak euskara batua baino naturalagoak direla pentsatzen dute, eta zenbaitentzat euskara batua, euskararen forma estandarra, artifiziala da (Gaspar 2020). Edonola ere, euskara batuaren eta euskalkien arteko egungo kontrakotasuna ez da euskara batua sortu zenekoa bezain handia, baina, arestian esandakoari lotuta, badira kezkarriak diren jarrerak gaur egun ere: euskara batua behartzen den hizkeratzat hartzea; euskara batua dutenek euren burua estu eta larri ikustea euskalkidun hiztunekin aritzean; hizkeraz/hizkerez lotsatzea eta abar (Gaspar 2020).

Aurrekari horiek guztiak aintzat hartuta, Pérezek (2022, 2023a, 2023b) euskaldunen KAren erabilera eta jarrerak aztertu zituen inkesta bidez jasotako datuetan oinarrituta, eta honako ondorio hauek atera zituen, 250-300 bat erantzunek osatutako lagin zabalarekin: batetik, KA oso fenomeno zabaldua da, euskaldun gehienek erabiltzen dute KA, (nagusiki) euskaraz dabiltzala zein (nagusiki) gaztelaniaz dihardutela.<sup>6</sup> Edonola ere, euskaldun

<sup>6</sup> «(Nagusiki) euskaraz jardutean KAren erabilerak» eta «(nagusiki) gaztelaniaz jardutean KAren erabilerak» zehazki hauxe esan nahi dute: lehenengoak (nagusiki) euskarazko jardutean gaztelania txertatzeari egiten dio erreferentzia, eta bigarrenak, (nagusiki) gaztelaniazko jardutean euskara txertatzeari.

gehiagok erabiltzen du KA (nagusiki) euskaraz berba egitean, (nagusiki) gaztelaniaz aritzean baino. Bestetik, egoera komunikatiboak ere eragina daukala ikusi zuen Pérezek: gehienek (% 74,6) kalean/jai-giroan erabiltzen dute KA; gero, ikaskideen artean (% 48,9) eta lankideen artean (% 42,3), eta gutxien (% 3,7) gelako ahozko jardunetan erabiltzen dute. Gaztetzoeekin jarduerak egiten dituztenen % 32,3k erabiltzen dute KA. Euskaraz dabiltzala gaztelania txertatzean eragina duten aldagai hauek ere identifikatu zituen Pérezek (2022, 2023a, 2023b): euskara-gaitasunaren maila, testuinguru soziolinguistikoa eta lehen hizkuntza.

- a) Euskara-gaitasunik altuena dutenek esan dute, (nagusiki) euskaraz dihardutela erabiltzen dutela gutxien KA, eta oro har gaitasun baxuagoa dutenek baino egoera komunikatibo gutxiagotan erabiltzen dute. Gainera, gaitasun-mailak ere jarreran eragina dauka: euskaraz gaitasun handiena dutenek gaitzesten dute gehien euskaraz aritzean KA egitea.
- b) Testuinguru erdaldunagoetako euskaldunek, testuinguru euskaldunagoetakoek baino ugariago erabiltzen dute KA (nagusiki) euskaraz aritzean, eta egoera komunikatibo gehiagotan onartzen dute.
- c) Euskara H1 dutenek dute, KAren erabilera egoera komunikatibo gehiagotan ekiditeko joera (nagusiki) euskaraz dabiltzala.

Beste emaitza bat, erabilera eta jarreraren arteko harremana izan dugu: lehenik eta behin aipatzekoa da, (nagusiki) euskaraz jardutean gaztelania txertatzea okerren baloratzen dutenek, baloratzen dutela okerren ere (nagusiki) gaztelaniaz ibiltzean euskara txertatzea. Bestalde, harrigarria bada ere, gaztelaniaz aritzean KArekiko jarrera okerragoa dutenek erabiltzen dute gehien KA gaztelaniazko jardunean ere. Azkenik, hizkuntza-ideologiak ere zerikusi handia du: zenbat eta hobeto euskara baloratu, orduan eta okerrago KA ikusi, eta hainbat eta gutxiago hura erabiltzen dute euskaraz hitz egitean. Eta, aldiz, euskararekiko atxikimendu hain handia ez dutenek egiten dute gehien KA euskarazko jardunean eta jarrera ere hobea dute KArekikoa.

Oraindik hainbat aldagai aztertzeke gelditu ziren, eta horietako batzuetan sakontzera dator lan hau.

#### 4. Ikerketa-galderak eta aurreikuspenak

Lan honen helburua «euskara-gaztelania» elebidunen euskara-gaitasunak KAren erabileran eraginik ote duen jakitea, eta baldin badu zer-nolako duen arakatzea da, horretarako, 305 parte-hartzailearen emaitzetan oinarritutako ebidentzia izango da abiapuntua. Honako hauek dira gure ikerketa-galderak eta aurreikuspenak:

- 1) *Nolakoa da KArik erabiltzen ez dutenen euskara-gaitasuna, KA erabiltzen dutenenarekin alderatuta?*

Hauxe gure aurreikuspena: orain arte ikusi bezala (Pérez 2023b), euskara-gaitasun txikiagoa dutenek gehiagotan erabiliko dute KA kallean/jai-giroan, gaitasun handiagoa dutenek baino. Era berean, oro har, KArik erabiltzen ez dutela diotenen euskara-gaitasuna handiago izango da, gainerakoekin alderatuta.

- 2) *Zer harreman dago euskaldunen euskararen erregistro-kompetentziaren/erabileraren eta KAren erabileraren artean?*

Hauxe gure aurreikuspena: harremana egon dago bi horien artean, eta euskara batuan hitz egiten baino ez dakitenek —edo euskara batua bakarrik erabiltzen dutenek— baliatuko dute gehien KA (Lantto 2015, 2016, 2019; Ortega eta beste 2016).

- 3) *Ba al dago euskaldunen euskara-mailaren autopertzepzioaren eta KAren erabileraren arteko harremanik?*

Hauxe gure aurreikuspena: baietz uste dugu, bi horien artean harremana egongo dela aurreikusi dugu, eta duten euskara(-maila) apaltzat, ez-naturaltatzat... jotzen dutenek, KA egoera komunikatibo gehiagotan erabiliko dutelakoan gaude (Lantto 2015, 2016, 2019; Ortega eta beste 2016).

- 4) *Ba ote dago loturarik euskararen erabilera-mailaren eta KAren erabileraren artean?*

Euskara-gaitasuna euskararen erabileran eragiten duen faktoreetako bat dela kontuan hartuta (adb., Ortega eta beste 2016; Eusko Jaurlaritza 2023), eta gaitasunak KAren erabileran eragina izango duela aurreikusita, pentsatzekoa da euskararen erabilerak ere KAren erabi-



leran eragina izatea: hala, KA gehiago erabiliko dute euskararen erabilera-maila baxuagoa dutenek, eta KA gutxiago erabiliko dute, beraz, euskara gehiago egiten dutenek.

## 5. Metodologia

Datuak biltzeko, Master Amaierako Lanerako online galdetegi bat diseinatu zuen Pérezek (2022) euskaraz, hiztunen profil psikosoziolinguistikoa jasotzeko, behin elebitasunari eta KAri buruzko hainbat galdetegi, lan edota autoinforme/neurketa estandarizatu aztertu ondoren. Galdetegian 4 bloketan egituraturutako 45 galdera zeuden. Esku artean duzun azterlan honetarako galdetegi hartako zenbait galdera baliatu ditugu, euskara-gaitasunari eta KAren erabilerari hertsiki lotutakoak, hain zuzen. Hots: *a)* elebidunen profil psikosoziolinguistikoa ezaugarritzeko galderak, eta *b)* KAren erabilera aitortua eta KArekiko jarrerak eta usteak jasotzeko galderak.

### 5.1 Parte-hartzaileak

*Encuesta fácil* programaren bidez egindako online galdetegian, guztira 880 lagun hartu ziren, eta horietatik 421ek galdetegia hasi bazuten ere, gutxieneko filtraketak egin ostean (aurrera begira baimenik eman ez zutenak, 18 urtetik beherakoak, ia erantzun guztiak hutsik utzi zituztenak eta horrelakoak kenduta, esan nahi da), artikulu honetarako 305 euskaldunen datuak aztertu ditugu.<sup>7</sup>

1. taulan ikus daitekeen bezala, parte-hartzailerik gehienak 18-24 urte bitartekoak dira; gehixeago dira emakumeak gizonak baino; gehienak tesuinguru erdaldunagoetakoak dira; lehen hizkuntza euskara (ere) dutenak; eta, oro har, euskara-gaitasun handikoak.

---


<sup>7</sup> Master Amaierako Lanerako 18-30 urte bitarteko 244 gazteren erantzunak aztertu zituen Pérezek (2022), eta, oraingoan, 18 urtetik gorako inkestatu guztien erantzunak aintzat hartu dira (betiere gutxieneko fitroak igarota).

1. Taula. Parte-hartzaileak

		N	X (%)
ADINA	18-24	161	% 52,8
	25-30	116	% 38
	> 30	28	% 9,2
GENEROA	Emakumea	174	% 57
	Gizona	124	% 40,7
	Ez-binarioa	7	% 2,3
JAIOLEKUA	Testuinguru euskaldunagoetakoak	106	% 34,8
	Testuinguru erdaldunagoetakoak	186	% 61
	EHTik kanpokoak	5	% 1,6
BIZILEKUA	Testuinguru euskaldunagoetakoak	110	% 36,1
	Testuinguru erdaldunagoetakoak	172	% 56,3
	EHTik kanpokoak	21	% 6,9
LEHEN HIZKUNTZA	Euskara	127	% 41,6
	Gaztelania	58	% 19
	Euskara eta gaztelania	102	% 33,4

*Iturria:* Geuk egina.

Lan honetan euskara-gaitasunean arreta berezia jarri dugunez, zinez ai-pagarria da parte-hartzaileek euskaraz eta gaztelaniaz duten hizkuntza-gaitasun aitortua, 1. irudian ikusten duguna. Oro har, parte-hartzaileek gaitasun handiagoa dute euskaraz, gaztelaniaz baino (Wilcoxonon azterketan oinarri hartuta:  $n = 283 = Z = -3,352, p < 0,001$ ), irakurmenean ez beste trebetasun guztietan.

**1. Irudia.** Parte-hartzaileen euskararen eta gaztelaniaren gaitasun aitortua

Iturria: Geuk egina.<sup>8</sup>

**5.2 Datuen analisia**

Datuen analisi estatistikoak egiteko SPSS programa erabili dugu. Horren bidez, Pearsonen Chi-karratua, Mann-Whitneyren U-a, horren luzapena den Kruskal-Wallisen froga eta Wilcoxonon eta Spearmanen analisi estatistikoak burutu ditugu. Datuak ez dira normaltasunez banatzen eta, beraz, test ez-parametrikoak baliatu ditugu. Aldagaien tratamenduari dagokionez, zenbait aldagai birkalkulatu ditugu edo batzuetan eskaletara jo dugu, horrek hainbat aldagai kuantifikatzeko aukera ematen duelako, adibidez, KArean erabilera.

**6. Emaitzak**

Emaitzak ikerketa-galderen hurrenkera berean antolatu ditugu.

<sup>8</sup> Irudietan esanguratasun-maila adierazteko, izartxoak erabili dira, hurrengo  $p$  balioen arabera:

\*  $p < 0,05$ ;

\*\*  $p < 0,01$ ;

\*\*\*  $p < 0,001$ .

### 6.1 Nolakoa da KArik erabiltzen ez dutenen euskara-gaitasuna, KA erabiltzen dutenenarekin alderatuta?

KAren eta euskara-gaitasunaren arteko harremana aztertzeko, gaitasuna neurtzeko galdera-mota desberdinak arakatu genituen. Batetik, gaitasun aitortuari buruzko datuak aztertu genituen, alegia, trebetasunez trebetasun (mintzamina, ulermena, idazmena, irakurmena) joanda partaideek zer-nolako gaitasuna zutela aitortzen zuten (1 = maila apala; 5 = goi-maila). Bestetik, nahi izanez gero, euskara hutsean egiteko gaitasunaz ere galdetu zitzairen honako erantzunen artean hautatzeko emanez: «bai», «ez», «bai, baina asko kostata». Jarraian azalduko dugunez, gaitasunaz galdetzeko moduak ere emaitzetan eragina du.


Oro har, KA erabiltzen duten euskaldunen euskara-gaitasun aitortuaren (4,61) eta erabiltzen ez dutenen euskara-gaitasun aitortuaren (4,69) artean ez da alde esanguratsurik (U Mann-Whitney = 7109,500 ( $n = 283$ ) =  $Z = -1,939$ ,  $p = 0,052$ ). Dena dela, KAren erabilera egoera komunikatibo ba-koitzean aztertuta, egoera jakin batean euskara-gaitasun aitortuaren eragina esanguratsua zela ikusi zen, hain zuzen, kalean/jai-giroan. Hau da, kalean/jai-giroan KA erabiltzen dutela esaten dutenen euskara-gaitasun aitortua, KArik erabiltzen ez dutela esaten dutenena baino baxuagoa da (4,60 vs 4,75 = U Mann-Whitney = 4936 = ( $n = 252$ ) =  $Z = -2,286$ ,  $p = 0,022$ ).

Bestalde, KA erabiltzen dutenen artean, euskara-gaitasunak eraginik duen ala ez aztertuta, bi aldagaion artean erlazio adierazgarririk ez dagoela atzeman genuen (Rho Spearman ( $n = 201$ ) =  $-0,055$ ,  $p = 0,436$ ): hots, KA erabiltzen dutela esaten duten euskaldunen artean, zenbat eta euskara gaitasun altuagoa izan, KAren erabilera-maiztasuna ez da handiagoa, ez txikiagoa.

Dena dela, euskara-gaitasunaz ohiko trebetasunen arabera eta eskala bidez galdetu beharrean, euskara hutsean jarduteko ahalmenez ere galdetu zitzairen, eta emaitza horiek KAren erabilerean parean ezarrita, ondorioak bestelakoak dira. 2. irudian ikusten denez, KA erabiltzen dutela aitortzen duten guztien artean, % 84,1 ( $n = 169$ ) gai dira euskara hutsean hitz egiteko, eta euskara hutsean hitz egiteko gauza bai, baina asko kostata, % 14,9

( $n = 30$ ); gainerakoak ez dira gai ( $n = 2$ ). Aitzitik, KArik erabiltzen ez dutela adierazten duten guztien artean, % 96,6 euskara hutsean egiteko gai dira ( $n = 56$ ) eta % 1,7 euskara hutsean berba egiteko gauza bai, baina asko kostata ( $n = 1$ ); gainerakoak ez dira gai ( $n = 1$ ); bi taldeen arteko aldea esanguratsua da ( $X^2 = 7,566$  ( $2, n = 259$ ) =  $p = 0,023$ ). Bestalde, euskara hutsean egiteko gai direnen artean, KA % 75,1ek erabiltzen du, euskara hutsean egiteko gai ez direnen artean % 66,7k, eta euskara hutsean bai, baina asko kostata egiten dutenen artean % 96,8k; berez, euskara hutsean asko kostata egiten dutenek erabiltzen dute gehien KA (Kruskal-Wallis ( $n = 259$ ) = 11,723,  $p = 0,003$ ).

**2. Irudia.** KAren erabilera euskara hutsean jarduteko gaitasunaren arabera



*Iturria:* Geuk egina.

Horien antzeko emaitzak ageri dira KA egoera komunikatiboaren arabera aztertuz gero. 5 egoeretatik (kalea/jai-giroa, ikaskideen artekoa, ahozko aurkezpenak, lankideen artekoa, gaztetxoekin jardunikoa), 3tan da aldea nabarmentzeko modukoa: kalean/jai-giroan (Kruskal-Wallis ( $2, n = 252$ ) = 11,146,  $p = 0,004$ ), gelako ahozko jardunetan (Kruskal-Wallis ( $2, n = 241$ ) = 11,834,  $p = 0,003$ ) eta ikaskideen artean (Kruskal-Wallis ( $2, n = 221$ ) = 7,416,  $p = 0,025$ ); hiru egoera horietan, euskara hutsean egiteko


gaitasun handiagoa dutela diote KArik erabiltzen ez dutela adierazi dutenek, eta alderantziz.

### 6.2 Zer harreman dago euskaldunen euskararen erregistro-kompetentziaren/erabileraren eta KAren erabileraren artean?

KAren erabilera aitortua duten euskaldunek euskara-erregistro desberdinak erabiltzen dituzte (3. irudia):

- Egoera komunikatiboaren arabera euskara batu formala(goa) edo informala(goa) erabiltzen dutenak, KA-erabiltzaileen % 33,3 dira.
- Euskalkia egoera informaletarako eta euskara batua egoera formaletarako erabiltzen dituztenak, KA-erabiltzaileen % 24,9 dira.
- Beti berdin, beti euskara batuan berba egiten dutenak, % 24,9 dira.
- Eta beti berdin, beti euskalkian hitz egiten dutenak, % 16,9.

### 3. Irudia. Euskaldunen KAren erabilera, menderatzen edo erabiltzen duten euskararen erregistroaren arabera




Iturria: Geuk egina.

Aldiz, KArik erabiltzen ez dutela esaten dutenen artean, % 40,2k euskalkia eta euskara batua erabiltzen ditu, % 23,2k beti euskalkia, % 22k euska-

ra batu formalagoa eta informalagoa, eta % 14,6k, beti euskara batua. Hor-taz, KArik erabiltzen ez dutenak KA erabiltzen dutenak baino hurbilago daude euskalkitik, euskara batutik edo «euskara batu hutsetik» baino ( $X^2 = 11,207 (3, n = 283) = p = 0,011$ ).

Bestetik, erregistroaren erabilera dela eta, beste emaitza bat ageri da 4. irudian.

**4. Irudia.** Euskararen erregistro-erabilerearen araberako KAren erabilera (zenbait egoera komunikatibotan)



*Iturria:* Geuk egina.

Hor jasota dagoenez:

- Egoera komunikatibo gehiagotan erabiltzen dute KA, oro har eta salbuespenak salbuespen, euskara batutik gertuago dabilzanek, euskara batutik urrunago daudenek baino. Hain zuzen, euskalkia eta euskara batua modu esanguratsuan erabiltzen dituztela adierazi dutenek, egoera komunikatibo gutxiagotan baliatzen dute KA, besteek baino.
- Beti euskara batuan berba egiten dutenek, euskalkian eta euskara batuan hitz egiten dutenek baino egoera gehiagotan erabiltzen dute KA (U Mann-Whitnety ( $n = 201$ ) =  $U = 814,000$ ,  $Z = -3,129$ ,  $p = 0,002$ ).


- c) Euskara batu formala(goa) eta informala(goa) erabiltzen dutenek, euskalkia eta euskara batua erabiltzen dituztenek baino egoera gehiagotan erabiltzen dute KA (U Mann-Whitney ( $n = 201$ ) =  $U = 1248,500$ ,  $Z = -2,448$ ,  $p = 0,014$ ).
- d) Eta azkenik, beti euskalkian hitz egiten dutenek, euskalkia eta euskara batua erabiltzen dituztenek baino egoera gehiagotan erabiltzen dute KA (U Mann-Whitney ( $n = 201$ ) =  $U = 640,000$ ,  $Z = -2,012$ ,  $p = 0,044$ ).

### 6.3 Ba al dago euskaldunen euskara-mailaren autopertzepzioaren eta KAren erabileraren arteko harremanik?

5. irudian ikusten denez, egoera komunikatiboren batean KA erabiltzen dutela aitortu dutenen artean, % 82,1 ( $n = 201$ ) eroso sentitzen da duen euskara-mailarekin eta edozein hiztunekin noiznahi hitz egiteko gaitasuna duelakoan dago. Era berean, % 71,1k duten euskara «naturala» dela sentitzen du, baina % 7,5ek espresuki aditzera eman du, duen euskara ez dela «naturala»; gero, % 21,9k uste du duen euskara beste edozeinen euskararen parekoa dela, baina % 23,9k pentsatzen/sentitzen du duen euskarak zerbait falta duela; eta azkenik, % 6,5 ez da euskaraz hitz egitean eroso sentitzen. KArik erabiltzen ez dutela adierazi dutenen artean, ordea, % 93,9 ( $n = 82$ ) eroso sentitzen da duen euskara-mailarekin eta edozein hiztunekin noiznahi hitz egiteko gaitasuna duela sentitzen du; % 80,5ek euskara naturala duela sentitzen/uste du, % 1,2k baino ez du espresuki adierazi, duen euskara ez dela naturala; gero, % 32,9k esan du, duen euskara beste edozeinenaren parekoa dela, eta % 3,7k baino ez du agertu, duen euskarak zerbait falta duela; azkenik, % 2,4k onartu du ez dela euskaraz jardutean eroso sentitzen. Gurutzaketa horien artean, hurrengo hiru hauek dira esanguratsuak: duten euskara-mailarekin eroso(ago) sentitzen direnen artean, gehiago dira KArik erabiltzen ez dutenak ( $X^2(1, n = 283) = 6,560$ ,  $p = 0,010$ ); duten euskara ez-naturaltzat jotzen dutenen artean, gehiago dira KA erabiltzen dutenak ( $X^2(1, n = 283) = 4,256$ ,  $p = 0,039$ ), eta duten euskarari zerbait falta zaiola uste dutenen artean, gehiago dira KAz baliatzen direnak ( $X^2(1, n = 283) = 16,121$ ,  $p < 0,001$ ).



**5. Irudia.** KA erabiltzen dutenen (n = 201) eta KArik erabiltzen ez dutela diotenen autopertzepzioa beren euskara-mailarekiko



Iturria: Geuk egina.

Euskaraz eroso sentitzen direnen artean, % 68,2k KA erabiltzen du, eta % 31,8k ez ( $X^2(1, n = 283) = 6,560, p < 0,010$ ), hau da, euskaldunak duten euskara-mailarekin eroso badaude ere, KA erabiltzen dutela diote. Bestalde, egoera komunikatibo gehiagotan erabiltzen dute KA duten euskararekin eroso ez dauden euskaldunek, duten euskararekin eroso dauden euskaldunek baino (1,52 VS 2,17, U Mann-Whitney = 3609, Z = -2,864 ( $n = 283$ ) =  $p = 0,004$ ).

**6.4 Ba ote dago loturarik euskararen erabilera-mailaren eta KAren erabileraren artean?**

Euskaldunen hizkuntza-erabilerari dagokionez, 10 egoeratan erabiltzen duten hizkuntzaz galdetu zitzaaien parte-hartzaileei (1 = dena gaztelaniaz; 5 = dena euskaraz); erantzunik gehien jaso zuten 5 egoerak hauexek izan ziren: i) gurasoekin, ii) gainerako senideekin, iii) lagunekin, iv) sare sozialetan eta v) administrazio publikoan. Balio duten 266 erantzun bildu dira

hizkuntza-erabilera osoan; guztira, batez beste, 3,06ko hizkuntza-erabilera adierazi zuten (3 = euskaraz eta gaztelaniaz).

Euskaldunen euskara-erabilerak hainbat faktoreekin elkarreagina due-la ikusi dugu: euskara-gaitasunarekin, euskarari esleitzen dioten balioarekin eta KAren erabilerarekin. Hain zuzen, euskara-erabileraren eta euskara-gaitasunaren artean korrelazio nabarmena dago: zenbat eta euskaldunen euskara-erabilera handiagoa izan, hainbat eta euskara-gaitasun altuagoa dute horiek ere (Rho Spearman ( $n = 266$ ) = 0,260,  $p < 0,001$ ).

Era berean, 1etik 5era doan puntuazioan, euskarari balio handiena esleitzen diotenean dute euskara-erabilerarik handiena (Rho Spearman ( $n = 266$ ) = 0,550,  $p < 0,001$ ), eta, euskarari esleitutako balioaren eta euskara-gaitasunaren artean ere bada harreman zuzena: zenbat eta euskaldunen euskara-gaitasun osoa handiagoa izan, orduan eta euskarari ere balio handiagoa esleitua diote (Rho Spearman ( $n = 283$ ) = 0,398,  $p < 0,001$ ).

Amaitzeko beste datu bat: zenbat eta euskaldunen euskara-erabilera txikiagoa izan, hainbat eta egoera komunikatibo gehiagotan erabiltzen dute KA ere, eta alderantziz (Rho Spearman ( $n = 266$ ) = -0,371,  $p < 0,001$ ). Galdetegiko egoera komunikatibo denetan joera bera, esanguratasun-maila berarekin, atzeman dugu, salbu eta gelako ahozko jardunetan, non egoera horren eta euskara-erabileraren artean ez dagoen erlazio adierazgarririk.

## 7. Eztatbaida

Lan honen helburua euskaldunen «euskara-gaztelania» KAren erabileraren eta hizkuntza-gaitasunaren arteko harremanean sakontzea da, eta horretarako analisi kuantitatiboa eskaini da, galdetegi bidez lortutako ebidentzia enpirikoa oinarri hartuta. Lehenik eta behin, gure lan honetan, euskaldun gehienek KA erabiltzen dutela berretsi dugu. Halere, batzuek ez dutela KArik erabiltzen adierazi dute. Parte-hartzaile horien kasuan, sortzen den galdera da: egia ote ez dutela egiten, ala (horietako batzuek) KAren erabilera egin bai, baina ez dutela onartzen, dela kontzienteak ez dire-

lako (Parafita Couto eta beste 2015), dela KAren praktika euskara-gaitasun faltarekin edo euskararen endekapen edo degenerazioarekin lortzen dutelako? (Bullock eta Toribio 2009; Ortega eta beste 2016).

Gure lehen ikerketa-galdera KAren erabileraren eta aitortutako euskara-gaitasunaren arteko harremanaren ingurukoa izan da. Lan honetan ikusi da hizkuntza-gaitasun aitortuak baduela eragina KAren erabileran, eta harreman hori ere konplexua dela. Oro har, egoera komunikatibo guztiak aintzat hartuta, KArik erabiltzen ez dutela diotenen euskara-gaitasun osoa, ez da KA erabiltzen dutela esaten dutenena baino handiagoa; hori ez dator bat aurreikusi dugunarekin. Alabaina, kalean/jai-giroan KA erabiltzen dutela esaten dutenen euskara-gaitasun osoa, KArik erabiltzen ez dutela esaten dutenena baino txikiagoa da. Beraz, gaitasunak badu eragina kalean/jai-giroan KA erabiltzearekin (Pérez 2022). Euskara-gaitasunaz beste era batera galdetzean ere, sortzen den harremana azpimarratzeko modukoa da. Hain zuzen, euskara hutsean egiteko ahalmenaz galdetuta, ikusi dugu gehiago direla euskara hutsean egiteko gai KArik erabiltzen ez dutenetan, KA erabiltzen dutenetan baino; bereziki kalean/jai-giroan eta gelako ahozko jardunetan, eta azkenik ikaskideen artean. Emaitza horiek, alde batetik, berresten dute, KAren erabilerara ohikoagoa dela egoera informalagoetan gauzatzea, formalagoetan baino (Pérez 2022, Aiestaran 2023, Altuna 2023), eta, bestetik, zalantzan jartzen dute, euskaldunen artean gaitasun handiko elebiduna izateak baldintzatzen duela KAren erabilerara (cf. Poplack 1980; Oktavia eta Trisnawati 2020).

Bigarrenik, euskararen erregistroak KAren erabileran eraginik ote duen ere aztertu nahi izan dugu. Emaitzek erakutsi digutenez, euskara batutik hurbilago dabiltzanek dute KA baliatzeko joera handixeagoa, eta emaitza hori kalean/jai-giroan azaleratzen da nabarmenen. Ñabardurak ñabardura, eta modu batean edo bestean, esan daiteke, beraz, aurreikuspena bete egin dela (Lantto 2015, 2016, 2019; Ortega eta beste 2016). Euskara batutik hurbilago daudenak dira, eremu erdaldunagoetakoak eta euren buruari euskara-maila baxuagoa esleitzen diotenak (Ortega eta beste 2016, 2019). Edonola ere, lan honetan ere ikusia dugu, KA ez dela bakarrik euskara batua erabiltzen dutenen hizkuntza-praktika, euskalkia berezkoa daukatenean ere badelako.

Hirugarrenik, euskaldunen euskara-mailaren/-motaren autopertzepzioaren eta KAren erabileraren arteko harremana zer-nolakoa den aztertu gura izan dugu. KA gutxiago erabiltzen dute honako hauek: duten euskara-mailarekin eroso(ago) sentitzen direnek, duten euskarari ezer ez zaiola falta uste dutenek, eta duten euskara naturala dela uste/sentitzen dutenek. Hortaz, gure aurreikuspena bete egin da. Oro har, duten euskara-mailarekin gustura daudenek, gainerakoek baino gutxiago(tan) txertatzen dute gaztelania euren euskarazko diskurtsoan, euskaldunen gaineko beste lan batzuek iradoki duten moduan (Lantto 2015, 2016, 2019; Ortega eta beste 2016).

Laugarrenik, euskararen erabileraren eta KAren erabileraren arteko harremanaren inguruan ere sakondu da artikulu honetan. Emaitzetan frogatu dugu zenbat eta euskaldunen euskara-erabilera apalagoa izan, orduan eta egoera gehiagotan erabiltzen dutela KA, eta alderantziz. Hortaz, gure aurreikuspena, puntu honetan ere, bete egin da. Gainera, egoera komunikatibo guztietan joera bera eta esanguratasun-maila berarekin detektatu da, gelako ahozko jardunetan izan ezik, azkeneko egoera horren eta euskararen erabileraren artean ez baitago erlazio adierazgarririk. Orain arte esandakoarekin bat datoz emaitzak: izan ere, zenbat ere euskararen aldekoagoak izan euskararen erabilera aitortua, euskara-gaitasun aitortua eta euskarari esleitutako balioa, orduan eta KAren erabilera ere urriagoa dela ikusi dugu. Arestian aipatu bezala, egoera komunikatibo bakarrean ez da erlazio esanguratsurik izan, egoera formalean, hain zuzen ere: gelako ahozko aurkezpenetan, alegia (Pérez 2022; Aiestaran 2023, Altuna 2023). Horrek erakusten du, euskaldun askok badutela euskara hutsean egiteko gaitasuna egoera komunikatibo formalenetan, eta, hala ere, egoera informalean/informalenetan KA erabiltzen dutela, beste ikertzaile batzuek erakutsi duten bezala (Gardner-Chloros 2009; Brdarević-Čeljo eta beste 2021).

Badaude KA-erabiltzaileetan bi hizkuntzak elkar josteko gaitasun handia duten hiztunak, eta horiek berez-berez aldatzen dute hizkuntzaz. Beste kasu batzuetan, ordea, arrazoia kontrakoa izan daiteke: euskaraz gaitasun apalagoa izan eta hizkuntza horretan dabilzala, une batzuetan hobeto menperatzen duten gaztelaniara jo behar izatea. Horri, gainera, egoera komunikatiboaren araberrako hizkuntza-erosotasunaren eta -egokitasunaren aldagaia ere gehitu behar zaion ebidentzia dakar gure lan honek.

Emaitzok interpretatzerakoan, laginaren nolakotasuna aintzat hartu behar da. Esan nahi baita: lan honetako parte-hartzaile gehienak euskara-gaitasun handikoak dira, horietako asko lehen hizkuntza euskara (ere) dutenak, eta beraz, eskuratutako emaitzak agian euskal komunitatearen parte baten isla besterik ez dira. Alde horretatik, interesgarria izango litzateke, bestelako elebitasun-profila duten parte-hartzaile gehiagoren berri jasotzea.

## 8. Ondorioak eta aurrera begirakoak

Lan honek «euskara-gaztelania» KAren erabilera hegoaldeko euskaldunen artean oso zabaldua dagoela frogatu du, aztertutako parte-hartzaile gehienek adierazi duten bezala.

Halaber, ikerketa honetako emaitza nagusietako bat da euskaldunen hizkuntza-gaitasunaren eta KAren erabileraren arteko harremana konplexua dela; gaitasunak badu eragina, baina ez beti eta ez edonola:

1. KArik erabiltzen ez dutela diotenen euskara-gaitasun osoa, ez da KA erabiltzen dutela esaten dutenena baino handiagoa oro har, baina bai, ordea, kalean/jai-giroan. Bestalde, KArik erabiltzen ez dutenek, KA erabiltzen dutenek baino gaitasun handiagoa dute euskara hutsean jarduteko, bereziki kalean/jai-giroan eta gelako ahozko jardunetan, eta azkenik ikaskideen artean.
2. Oro har, euskara batutik hurbilago daudenek dute KA erabiltzeko joera handixeagoa.
3. Duten euskara-mailarekin gustura daudenek, ez daudenek baino gutxiago erabiltzen dute KA.
4. Zenbat eta euskaldunen euskara-erabilera txikiagoa izan, hainbat eta egoera gehiagotan erabiltzen dute KA, eta alderantziz.

Aurrera begira, lan honetako parte-hartzaileen profila zabaltzea litzateke erronketako bat, izan ere, aztertutako parte-hartzaile gehienak euskara-gaitasun eta -erabilera handiko euskaldunak dira, eta hala, egungo egoera soziolinguistikoak eskaintzen dituen askotariko «koloreak» ez dira islatu (ikus VII. Inkesta Soziolinguistikoa). Bestalde, interesgarria litzateke, eus-

kaldunen erantzun kontzienteak (hain) kontzienteak ez diren ekoizpen errealeko datuekin alderatzea edo osatzea, euskaldunen KAn sakontzen jarraitzeko eta KAren erabilerari lotutako ezaugarri psikosoziolinguistikoak xehetasun handiagoz aztertzeko.

Halaber, Pérezen (2022) galdetegi eta laginak, aurrera begira, KAren erabileran eta jarreretan eragina duten aldagai gehiago aztertzeko aukera ematen du oraindik ere. Besteak beste:

- Adinaren, ikasketa-mailaren eta generoaren eragina KAren erabileran / KArekiko jarreran.
- Euskararen eta gaztelaniaren jabekuntza-adinaren edota jabekuntza-moduaren eragina KAren erabileran / KArekiko jarreran.
- Hizkuntza-erabileran izandako aldaketen eragina KAren erabileran / KArekiko jarreran.
- Ikasketetako hizkuntzaren eragina KAren erabileran / KArekiko jarreran.
- KA zenbateraino erabiltzen den ustearen eta KAren benetako erabileraren arteko aldea.

Artikulu honetan KAren erabilera izan dugu ikergai nagusi, baina aldagai horiek KArekiko jarreretan ere eragina ote duten aztertzeko dago. Horiekin batera, azterketa kualitatiboago bat egiteko bidea ematen duten galdetegiko galdera irekiak ere aztertzeko daude; adibidez, «Galdetegiarekin lotutako zerbait komentatu edo gehitu nahiko zenuke?» galderari, 45ek «bai/ez» erantzunetik harago doazen oharrak egin dituzte, euskalkiekiko, KArekiko eta abarrekiko esperientziak eta iritziak partekatuz...

Beste alde batetik, ikerlan honetarako egin diren gurutzaketetan, euskara-gaitasunarekin batera, balegoke kontuan hartzea euskaldunen testuinguru soziolinguistikoa eta H1 ere bai. Era berean, (nagusiki) gaztelaniaz jardutean jasotako KAren erabilera-emaitzak eta (nagusiki) euskaraz aritzean bildutako KAren erabilera-emaitzak aldera litezke, Pérezen (2022) Master Amaierako Lanean hasitakoaren bidetik, emaitzak ez baitziren han ere berdinak izan.

Azkenik, euskaldunen artean KA ohikoa den fenomeno delako jakinda, komenigarria izan daiteke euskaldunen KAren erabileran arakatzen jarrai-

tzea, besteak beste, argitzen joateko, euskararen biziberritze-prozesuan KAren erabilerak zer paper jokatzten duen edo joka dezakeen: arriskuak, kez-  
kak, «aplikazio» posibleak, onurak eta abar aintzat hartuta betiere (adb.,  
Amonarriz 2018; Euskaltzaindia 2008; Euskararen Aholku Batzordea 2004;  
Lerman eta beste 2019; Mad'arová 2020). KAren inguruan eraikitako ebi-  
dientzietan oinarri hartu duten diskurtsoak ehuntzea eta garatzea interesga-  
rria eta baliagarria da, oso, euskararen biziberritze-prozesuari begira nahiz  
euskararen ahozko komunikazioari begira. Oro har, ebidentzia sendoagoa  
falta dugu euskaldunen KAren nondik norakoetan sakontzen jarraitzeko...  
Baina horrelako azterketak egin eta aintzat hartzea funtsezkoa da, fenome-  
noa bera ahalik eta ondoen eta aurreiritzi gabe ezagutzeko, hizkuntza-  
-praktika honetan «esku hartzen» edota okerreko diskurtso publikoak egi-  
turatzen hasi baino lehen.

## Bibliografia

AIESTARAN, Maddi (2023). «Beasaingo gazte-hizkera aztergai: testuinguruaren eragina kode-alternantzian», *Euskera Ikerketa Aldizkaria*, 69 (1), 2023: 11-47.

ALTUNA, Jaime (2023). *Hizkuntzaren funanbulistak Hizkuntza-sozializazioa kirol eremuan adin eta generoan ardaztuta*. (Donostia: UPV/EHU. Doktorego-tesia).

AMONARRIZ, Kike (2008). «Gazte-hizkerak / Hizkera gazteak». Eskuragari: [<https://www.argia.eus/albiste/euskararen-erabilera-12-grafiko-kezkagari> 68: 167-183].

——— (2018). *Gazteen euskara erabilera. Hizkuntza kalitatea*. Donostia: Asmoz Fundazioa eta UPV/EHU. (HIZNET Hizkuntza Plangintza Graduondoko irakasgaia).

AMORRORTU, Estibaliz, ORTEGA, Ane eta GOIRIGOLZARRI, Jone (2019). «Euskal hiztun berri gazteak muda-prozesuan: ekintza-ikerketa baten behin-behineko emaitzak», in *Fontes Linguae Vasconum 50 urte. Ekarpen berriak euskararen ikerketari*. Iruñea: Nafarroako Gobernuak: 47-61.

ANDERSON, Tyler Kimball eta TORIBIO, Almeida Jacqueline (2007). «Attitudes towards lexical borrowing and intra-sentential code-switching among “spanish-english” bilinguals», *Spanish in Context* 4 (2), 2007: 217-240.

BALDA, Oier (2022). *Gazteen hizkeraren ezaugarriak. Euskaraz «gaizki» hitz egiten ikasten.* (Master Amaierako Lana, NUP/UPNA).

BARRIOS, Mikel, OSA, Erramun, MUÑO, Inma, ELORZA, Itziar eta BOAN, Kristina (2008). *Zenbait orientabide erregistroen trataeraz*, Jagon Saila bilduma, 6. zenbakia. Bilbo: Euskaltzaindia-Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa.

BEREZIARTU, Aritz, GUIRADO, Odei eta ALONSO, Idurre (2023). «Lehen Hezkuntzako haurren lagunarteko hizkera aisialdian: erdaren eragina bat-bateko adierazkortasunean», *Euskera Ikerketa Aldizkaria* 68 (2), 2023: 11-39.

BRDAREVIĆ-ČELJO, Amna, AHMETOVIĆ, Emnijeta eta BAJIĆ, Enisa (2021). «Variation in attitudes towards codeswitching and codeswitching frequency among multilingual speakers», *Journal of Multilingual and Multicultural Development* 43, 2021: 1-16.

BRUIN de, Angela, SAMUEL, Arthur G. eta DUÑABEITIA, Jon Andoni (2018). «Voluntary language switching: when and why do bilinguals switch between their languages?», *Journal of Memory and Language* 103, 2018: 28-43.

BULLOCK, Barbara eta TORIBIO, Almeida Jacqueline (ed.) (2009). *The Cambridge handbook of linguistic code-switching*. Cambridge: Cambridge University Press. Eskuragarri: [<https://doi.org/10.1017/CBO9780511576331>].

DEUCHAR, Margaret (2020). «Code-switching in linguistics: a position paper», *Languages* 5 (2)-22, 2020: 1-19.

ELORDUI, Agurtzane (2016). «Elebakartasunetik heteroglosiara: Gaztea Irratia, bernakulizazioa gazte-komunikabideen diseinu sozioestilistikoan», *Uztaro: Giza eta Gizarte-Zientzien Aldizkaria* 97, 2016: 31-52.

EPELDE, Irantzu eta OIHARTZABAL, Beñat (2010). «Perpau barneko hizkuntza lerratzeak (HL) ekialdeko euskal elebidunetan», in *Euskara eta euskarak. Aldakortasun sintaktikoa aztergai*, ASJUren Gehigarriak bilduma, 52. zenbakia. Bilbo: UPV/EHU: 55-64.

ETXABE, Amets (2005). *Kode-alternantzia lagun arteko gazte-hizkeran.* (HIZNET Hizkuntza Plangintza Graduondoko Sakontze-egitasmoa).

EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA (2004). *Euskararen kalitatea. Zertaz ari garen, zertatik eta zertarako.* Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.



EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOA (2023). 7. Inkesta Soziolinguistikoa. *Ipar Euskal Herriko emaitzak*.

Eskuragarri: [[https://www.mintzaira.fr/fileadmin/documents/Aktualitateak/Prensaurrekoak/2023/2023\\_03\\_30/Emaitzen\\_laburpena-eus.pdf](https://www.mintzaira.fr/fileadmin/documents/Aktualitateak/Prensaurrekoak/2023/2023_03_30/Emaitzen_laburpena-eus.pdf)].

EUSKO JAURLARITZA (2016). *Gu gazteok. 12-14 urteko gazteen hizkuntza egunero-kotasunera hurbiltzeko ikerketa partehartzailea. (Laburpen-txostena eta lan-ildoen proposamena aurrera begira)*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

——— (2023). VII. Inkesta Soziolinguistikoa 2021. *Euskal Autonomia Erkidegoa. Laburpen-txostena*.

Eskuragarri: [[https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/eas\\_ikerketak/eu\\_def/adjuntos/VII.-INKESTA-SOZIOLINGUISTIKOA\\_laburpena.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/eas_ikerketak/eu_def/adjuntos/VII.-INKESTA-SOZIOLINGUISTIKOA_laburpena.pdf)].

GARDNER-CHLOROS, Penelope (2009). *Code-switching*. Cambridge: Cambridge University Press.

GASPAR, Artzai (2020). «Euskara batuaren eta euskalkien inguruko jarrerak eta iritziak», *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 115, 2020: 137-153.

GOIRIGOLZARRI, Jone, CARRAMIÑANA, Idoia, ORTEGA, Ane eta ETXANIZ, Josune (2018). *Eta gazteak Bilbon euskaraz, zergatik ez? Gazteen euskararen erabileraren azterketa Bilbon*. Bilbo: Eusko Ikaskuntza.

HOFWEBER, Julia Elisabeth, ZELLER, Jan Patrick eta TREFFERS-DALLER, Jeanine (2023). «Challenging basic assumptions in code-switching research: new linguistic, sociolinguistic and psycholinguistic evidence», *Languages* 8 (2)-124, 2023: 1-6.

IBARRA, Orreaga (2011a). *Nafar euskaldun gazteen ahozko diskurtsoa*. Iruñea: Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

——— (2011b). «Sobre estrategias discursivas de los jóvenes vascohablantes: causas que motivan el cambio de código», *Oihenart: Cuadernos de Lengua y Literatura* 26, 2011: 277-298.

——— (2014). «Tipología y pragmática del code-switching “vasco-castellano” en el habla informal de jóvenes bilingües», *Lapurdum: Euskal Ikerketen Aldizkaria* 18, 2014: 23-40.

——— (2020). «Hizkuntza praktikak “online”, Nafarroako Unibertsitate Publikoako ikasle euskaldunen artean», *Revista Internacional de los Estudios Vascos: RIEV* 65 (1), 2020: 34-71.

IGARTZABAL, Iñigo (2014). *Kode-alternantzia eta hizkuntza-ohiturak Gabiriako bi belaunalditan*. (HIZNET Hizkuntza Plangintza Graduondoko Amaierako Lana).

IRIONDO, Alejandra (2017). «Kode-alternantzia elebidun gazteetan: DS naha-siak», *Gogoia* 16, 2017: 25-56.

IURREBASO, Iñaki (2023). *Hizkuntza gutxituen jarraipena, ordezkapena eta indarber-ritzea neurtzeko demolinguistikazko tresna metodologikoak garatzen. Euskal Herrirako aplikazio praktikoa*. (Doktorego-tesia, UPV/EHU).

LANTTO, Hanna (2012). «Grammatical code-switching patterns of early and late Basque-Spanish bilinguals», *Sociolinguistic Studies* 6 (1), 2012: 21-43.

——— (2015). *Code-switching in Greater Bilbao. A bilingual variety of Colloquial Basque*. (Doktorego-tesia, Helsinkiko Unibertsitatea).  
Eskuragarri: [<https://helda.helsinki.fi/handle/10138/154646>].

——— (2016). «Conversations about code-switching: contrasting ideologies of purity and authenticity in Basque bilinguals' reactions to bilingual speech», *Multi-lingua* 35 (2), 2016: 137-161.

——— (2018). «New basques and code-switching: purist tendencies, social pressures», in *New speakers of minority languages*, C. Smith-Christmas, N.P. Ó Murchadha, Michael Hornsby eta Máiréad Moriarty (ed.). London: Palgrave Mac-millan: 165-187.

——— (2019). «Individual entrenchment vs. community-wide conventionali-zation of contact features in L2 Basque speakers' individual styles», *Applied Linguis-tics Review* 12 (2), 2021: 207-224.

LEGARRA, Endika (2019). *Lagunekin euskaraz. Gazteen lagunarteko hizkera lantze-ko proposamen didaktikoa*. (Master Amaierako Lana, NUP/UPNA).

LERMAN, Aviva, PAZUELO, Lia, KIZNER, Lian, BORODKIN, Katy eta GORAL, Mira (2019). «Language mixing patterns in a bilingual individual with non-fluent apha-sia», *Aphasiology* 33 (9), 2019: 1137-1153.  
Eskuragarri: [DOI:10.1080/02687038.2018.1546821].

MAD'AROVÁ, Slávka (2020). «Use and perception of code-switching by students and instructors in the second language classroom in the US», *Onomázein: Journal of Linguistics, Philology and Translation* 48, 2020: 151-177.  
Eskuragarri: [<https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=7510636>].

MORENO CABRERA, Juan Carlos (2015). *Errores y horrores del españolismo lingüístico. Cinco vocales para conquistar el mundo*. Iruñea: Txalaparta.

MUNARRIZ-IBARROLA, Amaia, EZEIZABARRENA, María José, ARRAZOLA, Varun D.C., PARAFITA COUTO, María del Carmen (2022). «Gender assignment strategies and L1 effects in the elicited production of mixed “Spanish-Basque” DPs», *Linguistic Approaches to Bilingualism* 12 (6), 2022: 778-815.

Eskuragarri: [DOI: <https://doi.org/10.1075/lab.20016.mun>].

MUÑO A, Inma (2002). «Zergatik eta zertarako erabiltzen ditugu euskara eta gaztelera solasaldi berean? Kode-aldaketaren funtzio pragmatikoak», *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 42, 2002: 53-63.

NAFARROAKO GOBERNUA (2021). VII. Inkesta Soziolinguistikoa 2021. *Nafarroako Foru Komunitatea*.

Eskuragarri: [[https://www.euskarabidea.es/fitxategiak/ckfinder/files/VII\\_%20Inkesta%20Soziolinguistikoa\\_2021\\_NAFARROA.pdf](https://www.euskarabidea.es/fitxategiak/ckfinder/files/VII_%20Inkesta%20Soziolinguistikoa_2021_NAFARROA.pdf)].

OKTAVIA, Diana eta TRISNAWATI, Winda (2020). «The code-switching and English language proficiency performed by students in learning English as a foreign language at STKIP-MB», in *7th International Conference on English Language and Teaching (ICOELT 2019)*, Advances in Social Science, Education and Humanities Research bilduma, 411. zenbakia: 334-338.

ORTEGA, Ane, AMORRORTU, Estibaliz, GOIRIGOLZARRI, Jone eta URLA, Jacqueline (2016). *Euskal hiztun berriak. Esperientziak, jarrerak eta identitateak*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.

PARAFITA COUTO, María del Carmen, DEUCHAR, Margaret eta FUSSE R, Marika (2015). «How do Welsh-English bilinguals deal with conflict? Adjective-noun order resolution», in *Code-switching between structural and sociolinguistic perspectives*, G. Stell eta K. Yakpo (ed.). Berlin, München, Boston: De Gruyter: 65-84.

Eskuragarri: [<https://doi.org/10.1515/9783110346879.65>].

PEREZ, Elixabete eta ZULAIKA, Esther (2016). «Adierazkortasun zantzuak euskal gazteen txatetan», *Gogoia* 14, 2016: 105-130.

PÉREZ GONZÁLEZ, Mikel (2022). *Kode-alternantziaren erabilera eta jarrerak «euskara-gaztelania» gazte elebidunengan*. (Master Amaierako Lana, UPV/EHU).

——— (2023a). «Kode-alternantziaren erabilera “euskara-gaztelania” gazte elebidunengan», in *V. IkerGazte. Nazioarteko ikerketa euskaraz. Kongresuko artikulubil-*

duma. *Gizarte Zientziak eta Arteak*, O. Arbelaitz Gallego, A. Latatu Núñez eta E. Perez Gaztelu (ed.). Bilbo: UEUren Argitalpen Zerbitzua: 31-52.

——— (2023b). *Euskal Herriko eta Arabako euskaldunen «euskara-gaztelania» kode-alternantziaren erabilera eta jarrera*. Arabako Foru Aldundirako txostena.

POPLACK, Shana (1980). «Sometimes I'll start a sentence in Spanish y termino en español»: toward a typology of code-switching», *Linguistics* 18, 1980: 581-616.

PORTAL MOLINERA, Ainhoa (2022). *Eremu erdalduneko gazteak eta kode-alternantzia. Arrazoiak eta pertzepzioak*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea. (Gradu Amaierako Lana).

RODRIGO, Irati (2020). «Euskara-gaztelania» elebidunen kode-alternantzia. *Gazteentzako euskal irratsaio baten analisia*. (Gradu Amaierako Lana, UPV/EHU).

SCHÄCHINGER TENÉS, Leila Teresa, WEINER-BÜHLER, Jessica Carolyn, VOLPIN, Letizia, GROB, Alexander, SKORUPPA, Katrin eta SEGERER, R.K. (2023). «Language proficiency predictors of code-switching behavior in dual-language-learning children», *Bilingualism: Language and Cognition* 26 (5), 2023: 1-17.  
Eskuragarri: [<https://doi.org/10.1017/S1366728923000081>].

SINNER, Carsten (2008). «Castellano y catalán en contacto: oralidad y contextos informales», *Oihenart: Cuadernos de Lengua y Literatura* (23), 2008: 521-543.

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA (2022). *Hizkuntzen erabilerearen kale neurketa. Euskal Herria, 2021*.  
Eskuragarri: [<https://soziolinguiстика.eus/es/proiektua/hizkuntzen-erabilerearen-kale-neurketa-euskal-herria-2021-2/>].

TORRALBA-RUBINOS, Claudia M. (2023). «Egun on, señoras y señores parlamentarios». *Hizkuntzen alternantzia Eusko Legebiltzarrean*, in V. IkerGazte. *Nazioarteko ikerketa euskaraz. Kongresuko artikulu-bilduma*. *Gizarte Zientziak eta Zuzenbidea*, Olatz Arbelaitz Gallego, Ainhoa Latatu Núñez, Elixabete Perez Gaztelu (ed.). Eibar: UEUren Argitalpen Zerbitzua: 19-26.

TORREALDAI, Joan Mari (2018). *Asedio al euskera. Más allá del libro negro*. Donostia: Txertoa.

VOLTERRA, Virginia eta TAESCHNER, Traute (1978). «The acquisition and development of language by bilingual children», *Journal of Child Language* 5, 1978: 311-326.

YOW, W. Quin, TAN, Jessica S.H. eta FLYNN, Suzanne (2018). «Code-switching as a marker of linguistic competence in bilingual children», *Bilingualism: Language and Cognition* 21 (5), 2018: 1075-1090.



**Oharrak**

**Notas**

**Remarques**

**Notes**



# Mario Onaindiaren euskal lanak

GOJENOLA ONAINDIA, Manu

manugojenola@gmail.com

Ekonomilaria

DOI: <https://doi.org/10.59866/eia.v.69i2.289>

Mario Onaindiaren itzal politikoa aski ezaguna dugu denok, baina gutxiagotan mintzatu da, ordea, euskal literaturari egin dion ekarpenaz, idazle legez baina baita intelektual gisa ere.

Azterlan honetan, Marioren lehengusua eta haren ekoizpenean aditua den egileak, berorren euskarazko uzta literarioa (ipuinak, eleberrak, itzulpenak...) xehatu du, eta idazleak ibilbide horretan izan zituen kezkak ere azaleratu ditu, hurretik eta barrutik, ahaidetasunak baino ezin eman lezakeen ikuspegitik.

Horretara, Onaindia euskal idazlea ere izan zela gogorarazi nahi digu artikuluak, literatura-alderdi horrek Mariok euskaingintzaren alde eginiko lanaren barruan duen garrantzia aldarrikatuz.



## 1. Sarrera

Mario lehengusuak, eta lagunak, inteligentziaz beteriko buru aparta zuen. Buruargitasunari gehitzen zion gertatuko zenaren susmoa aise, erraz, harra-patzeko trebezia; bazekien jazoko zenari aurea hartzen; begitazio askoko gizona zen (nahiz eta berak esan, Euskadiko Ezkerrako (EE) Ikerketa Zerbitzuaren burua zela, beti huts egiten zuela...). Eta kultur bernizak, likurtak, goitik behera hartua zegoen. Politikara dedikatu zen intelektuala dugu. Eta dibertigarria izateaz gain, originala ere bazen; zenbat aldiz harritzen ninduen, sarri zurturik uzten gintuen gu oro! Bere esaldietariko bat, hauxe zen: «Bakarrik uzten nauzue Tourmaleta igotzen!». Eta aurten 20 urte bete dira utzi gintuenetik. Luzeak benetan, neuretzat bederen.

## 2. Euskara eta literatura, zer ziren Marioentzat?

Mario euskal izkiriatailea zen, idazlea. Gaztelaniaz 8 liburu karrikaratu zituen, eta euskaraz 23. Bai, 23: sorkuntzazkoak, 9, eta 14 itzulpen. Itzulpenok inoren liburuenak izan ziren, ez berarenak, ezta bere gaztelaniazko liburuenak ere.

Euskaltzaletasuna ume-umetatik izan zuen. Eta hizkuntzaren erregistro desberdinen kontzientzia argia ere izan zuen mutikotatik. Aita hizlari bikaina zuen —arrebak Angelita legez (gure ama)—, neba-arrebetan eta lehengusu-lehengusinetan haren antzekorik ez zen. Osabak erakargarritasuna zabaltzen zuen inguruan adierazkortasun harekin, aditzak ongi josiak eta hiztegi zabala eta egokia baliatuz. Mariok izan zuen, bada, non arreta ipini euskara kontuetan: aitarengan, aitaren ahozko jardunetan. Eta gero, maite zituen autoreetan, prefosta.

Frankismoaren urte gogorretan, bere adineko beste askoren antzera, sortu zen kultur mugimenduan ipini zituen begiak eta belarriak. 18 urterekin Bilbora etortzen zen lagun batekin motozikletaz, Café Concordiako bilertara, Gabriel Arestiren eta beste hainbat erdal idazleren batzar-gunera, hain zuzen ere.

Euskarari emana izan zen Cáceresko kartzelan, lehenengo hiru urtean ia euskarazko liburu denak irakurri zituen, Etxeparegandik hasi eta 1936. urte ingurura arterainokoak, berak zioenez. Liburu horiek, Koldo Mitxelenak eta Juanito San Martinek lortzen zizkioten eta familiari eman. Marioren lehen lana sintaxi-kaierra sortzea izan zen. Euskaltzaindiaren eskuetan dago orain —haren euskarazko obra guztiarekin (23 liburu)—, Mariok hainbeste estimatzen zuen Euskararen Akademian. Jose Luis Lizundiak, Akademiako idazkariorde urte askoan izandakoak, kontatu zidan, harriturik zegoela Mariok Euskaltzaindiaz zenbat zekien ikusita. Horrela, bidaia baten biak New Yorken paseoan zirela, Lizundiak politikaz berba egin nahi zuen, baina Mario behin eta berriro euskara eta euskal kulturari buruz hitz egitera tematzen zen. Estimatu handia zion Mariok Euskaltzaindiari, ikaragarria.

Klasikoak aztertzen hasi zen, autorez autore, irakurri eta bakoitzaren gramatika aztertuz. Batez ere Axular, Leizarraga, Etxepare, Etxeberri Sarakoa, Mogel eta Tartas. Bakoitzaren apunte zehatzak eta ikusgarriak egin zituen. Eskuz, argi eta garbi jarrita, hiru koloretan, bere hizki txiki politaz. Esan daiteke, lapurtera (behe-nafarreraren bi aldaeren eraginekin), bizkaiera eta xibereraren klasiko nagusien joskera azken xehetasunera arte azertu zuela. Euskaltzaindiko liburutegian dago sintaxi-kaier hori, arestian esan bezala.

Sintaxiarekin batera, hiztegia ere jorratu zuen; izan ere, hiztegi bi egiten hasi zen, Axularrena eta Leizarragarena. Baina jakin zuenean, Lur argitaletxearen bitartez, Villasante eta Aresti ere horretan ari zirela, laga egin behar izan zuen. Urte batzuk geroago, kartzelatik ilkitzean, 1977ko maiatzean Bruselara igorria izan zen; orduan Lur argitaletxearen ardura hartzekoa zen, baina Euskal Iraultzarako Alderdiaren (aurrerantzean EIA) buru hautatu zuten 1977ko irailean, eta handik bosgarren urtera, Euskadiko Ezkerraren buru.

Hogei urte inguru zituela, literatura euskaraz idatziko zuela erabaki zuen. Gertaera oro etorkizunean euskaraz kontatzeko asmoa zuen. Helburu hori gogoan zuela, beste hizkuntzetako hainbat esamolde euskaraz nola adierazi behar ziren aztertzen ibili zen luzaro.

Cáceresen eta Kordoban egin zituen kartzelaldi luzeenak. Lehenengoan zegoela, euskal historia eta literaturan sakondu zuen. Gero eta gehiago in-

teresatzen zitzaion euskara eta 1973. urte bueltan, literaturan jardungo zuela eta euskara izango zuela literatura hizkuntza pentsatu zuen. Euskal filologiazko eta literaturazko lan guztiak sistematikoki irakurtzen jardun zuen. Horrela, euskal idazleak ezagutu zituen, XVI. eta XVII. mendeetan lapurteraz idatzi zutenak bereziki: Etxepare, Axular, Leizarraga eta beste. Bere idazketa-estiloa haiengandik eratorzea nahi zuen. Halaber, beste idazle batzuen lanak ere irakurri zituen, esaterako honako hauenak: Añibarrorenak, Oihernartenak, Lapeirerenak, Joanategirenak, Manezaundirenak, Ubillosenak, Juan Bautista Agirrerenak, J.-P. Arbelbiderenak, Campiónenak, Azkuerenak, S. Altuberenak, Larzabalenak, Lafitterenak, K. Mitxelenarenak (*Fonética histórica vasca* eta *Textos arcaicos vascos*)...

Hizkuntza literarioaren garapenean tematurik, itzulpena ezinbestekotzat jotzen zuen, eta horregatik hain zuzen, hamar liburu euskarara itzuli zituen kartzelan zegoela. Bidenabar, bi eleberri ere izkiriatu zituen. Klasikoen sintaxia aberasgarria zela uste zuen; baina horretaz gainera, euskal literaturan modan zeuden joera intimistetatik ihes egiteko ere jotzen zuen aurreko autore zaharretara. Hauek guztiak interesgarritzat eta egokitizat jotzen zituen Mariok itzulpenetarako. Baina, halere, idazle klasiko horien lanak galbahe-tik pasatu eta bazuen bakoitzari buruzko bana-banako iritzia. Adibidez, Seber Altuberen joskera ona zela zioen, baina berba egiteko, narratibarako ez ordea, akats nabarmenak zituelako haren aburuz.

Filologia Erromanikoan eta Ingeles Filologian doktorea izan zen. Lehengoan, XVIII. mendeko teatroa, Ilustrazioaren eragina eta errepublikanismoaren (kontrapisuz osaturiko sistema politiko bat lagun bakoitzaren autonomia bermatuko lukeena) oinarriak arakatu zituen. Bigarrenean, ordea, amerikar zine klasikoaren gidoiak aztertu zituen. Filosofia hutsa delakoaren lehen zikloa ere egina zuen, eta Euskal Filologia amaitzeko ere sei-zazpi ikasgai gainditzeko falta zituela joan zitzaigun. Behin baino sarriagotan itaundu nion ea tesirako gairik edo pentsatua ote zuen...

Klasikoen joskera egokiagoa zen Mariorentzat, handik urteetara hartu ziren erabakiek sortu zutenarena baino. Euskara batua, oinarritzat hartuz, gehiago ikertu behar zela esaten zidan. *Elurtzan datzaten zuhaitz enborrak* nobelan nabaria zen joskera klasikoaren eragina, baina orduko literaturan

beharrezkoa zen jendeari interesatzen zaizkion gaiak ukitzea, eta forma aldetik ere irakurgarriagoa izatea. 1936. urtera arte euskaraz idatzitako guztia irakurria zuela esaten zuen. Ikasketa literario nagusia, batez ere, 1971. eta 1974. urte bitartean egin zuen, zenbait testu euskarara itzuli zituenean. Lehen esandako moduan, bertatik konturatu zen klasikoetara jo beharraz: Leizarragaren eta Axularren ekarpenik handiena beren sintaxia zen; hiztegi aldetik ere bazuten garrantzia. Mariok ez zuen ulertzen orduko hainbat idazlek klasikoetara ez jotzeko zuten aurreiritzia.

Gure biografiatuentzat, honako hauek ziren euskararen arazoak: bate-tik, hizkuntza aurreindoeuropearra da, testuinguru kultural indoeuropearrean. Eta bestetik, hizkuntzaren barne-arazoa, bospasei euskalkitan zatikatua dagoelako. Dialektoen batasuna 1964-1968an hasi zen, arau amankomunetan oinarrituta. Mariok zioenez, euskara batuak zera ekarri zuen: idazle izan nahi zuen belaunaldi oso batek arauok bete nahirik lana egitea, eta, gainera, hori modu sortzailean bideratzea. Idazleen ardura 1960ko eta 1970eko hamarkadetan hizkuntzaren normalizazioa izan zen; lehenengo gramatikak osatuz eta gero, hizkuntzaren ariketa praktikoak diren nobelak idatziz.

Baina gramatikariek dena arautu nahi izaten dute, eta horrek literatura-ekoizpena gehiegi lotzen du. Akademian, garai batean, eztabaidan aritzen ziren Mariok aurretik ebatzita zituen gauzez, batez ere sintaxi arlokoiez. Ebazti ere, klasikoengandik ikasita egin zuen, jakina.

Hizkuntza bera normaltasunez ez irakastea eta euskal literatura arloko eskolak ez izatea oztoppo zela zioen. «Klasikoak baditugu, baina ez dira, ordea, klasikoen lanak estudiatzen», argudiatzen zuen. Haren ustez ezinbestekoa zen euskal idazle klasikoak ikastea eta lantzea.

Testuinguru hartan, euskarazko literatura gauza guztiz aseptikoa zela esaten zuen, hotza, lehorra, «andereñoen berbeta zena», eta irauli egin behar zela. Zentzu horretan, apalak izan behar genuela uste zuen, egiten zena agian ez zela oraindik «literatura», baina bidean aurrera joanez lortuko genuela... Hark esaten zuen, euskal literaturaren ikuspuntutik, harroegiak ginela: edo egundoko obra galanta egin nahia, edo bat ere ez. Lar puristak, horretan ere. Berak zioen, hirurogei urterekin egingo zuela *On Kixote Man-*

*txako* moduko lana, eta bien bitartean hizkuntza, gaiak, egiturak eta abar menperatuko zituela. Baina, asko emandakoa eta oraindik asko ematekoa zena gazterik joan zitzaigun, 55 urterekin. Mariok Sazarbitoria aipatzen zuen, eredu gisa afera horretan. Hala, euskal literatura «nerabeen» mundurako, barne-mundurako egiten zela esaten zuen. Baina beste mundu bat ere eraikitzeko baliatu behar zela literatura euskaraz. Horretarako, Mariok itzulpena oso lagungarria zekusan —adjektiboak lantzeko, adibidez—.

«Euskal literatura guztiz intimista izan da —zioen—. Errealitatea, erdaraz egiten da. 1970-1985. urte tartean egin zen literatura intimista izan da». Euskara pulpituetan, tabernan edaria eskatzeko, euskaraz eta euskal literaturaz hitz egiteko... erabili izan da; baina errealitatea, kanpokoa, erdarazkoa zela guztia, zioen Mariok.

Nobela intimistak subjektiboa izatetik objektiboa izatera igaro behar duela uste zuen, Faulknerren bidetik. Gure aitona-amonen literatura ezaren bila. Euskal literatura nerabeen gauza izan da, intimista, hizkuntzaren egoera erakusten duena, pentsatzeko erabiltzen dena, baina ez «adierazteko» zena. Hizkuntza egungo Euskal Herriko errealitate historikora egokitu behar da, nobela historikora jo. Proust, Kafka eta Joycek objektibotasuna eta subjektibotasuna batu egin zituzten, narrazio berean, eta horrela kontzientzia indibiduala eta errealitatea, gauza bera dira. Ez dago istorio neutrorik, denek nahi dute politika edo ideologia mota bat legitimatu. Horixe zioen.<sup>1</sup>

Euskal literaturak, 1960ko hamarkadatik, berrikuntza guztiak nahi izan ditu bereganatu —Camus, *nouveau roman*, Lezama Limarengandik García Márquezengana...— eta hizkuntzagatik, intimismora abiatu, barne-monologora. Horregatik jo zuen Mariok Erdi Arora, eszenatoki neutralera, lapurtera klasikoa egokia eta normala izan zitekeen garaira, alegia.

Euskarazko sorkuntzak duen garrantzia ez zela ikusten esaten zuen. Hizkuntzak aurrera egin dezan, ehunka lan eta zinema-gidoi idatzi behar dira. Ez da nahikoa nobelak eta gidoiak itzultzea. Euskal literaturarik ez badago, ez dago euskal zinerik ere, eta zinemaren arazo nagusia ez da bere egitura,

<sup>1</sup> *La lucha de clases en Euskadi, 1939-1980* (Hordago, 1980: 11).

aurretiko oinarri literario eza baino. Gaelikoak Irlandan ofizialtasuna lortu zuen, baina ez zegoen hizkuntza horretan literatura-sorkuntzarik. Latina eta grekoa bezala, gaelikoa funtzionarioek ikasi behar zuten zerbait zen. Eta horrela ez dago berbetari bizirik eusterik.

Euskara, alor guztietan, gaztelaniaren mailan jarri behar zela zioen Mariok. Literatura mailan hori lortuko balitz, euskararen eta Euskal Herriaren arrakastarako izango litzateke. Literatura, hizkuntza-politikatik desberdindu egin behar da eta premia politikotik bereiztu. Literatura politikaren menpe balego, politikaren kalterako litzateke, eta gainera politikak kaltea eragin liezaioke ostean literaturari ere.

Onartu behar da, euskal literaturak aldaketa izan duela azken urteotan; lehen gramatikarien idazkera zen euskara batua, eta normalizazioaren arduraz zeukaten. Haien erreleboa, euskara hizkuntza literarioa legez darabilten idazleak dira. Gramatika aldetik, euskara batua sortu zen, baina Mariok esandakoaren harira, ondoren euskara batua «apurtu» egin beharko genuke, hizkuntza literarioa aterako bada...

Bere idazkeran apurketa hori gauzatu nahi izan zuen Mariok. Euskara klasikoak interesa sortzen zion iradokitzen duenagatik. Euskalkiek bezala. Idazten zituen edukiak berak euskalki bat edo bestea erabiltzera zeraman. Aseptikoa zeritzon euskara batuari, horregatik euskara klasikoa eta ahozkoa sartu, uztartu nahi izaten zituen.

Hala ere, eta Iparraldeko idazle klasikoekiko zuen lilurarekin batera, onartzen zuen gutariko bakoitzak beste euskalkiak ezagutzeko balio izan zuela euskara batuak eta aintzat ere hartzen zuen. Euskara batuaren zabal-kundean Gabriel Arestiren izena goraiatu zuen.

### 3. **Marioren obra euskaraz**

Garai bi bereizi behar lirateke Onaindiaren euskarazko lanei dagokienez: batetik, kartzelako urteak, 1969tik 1977ra bitartean, eta horren barruan bereziki 1973-1977 epea; eta gero, bigarren sasoia, 80ko hamarkada, 1983. urtetik 1990. urtera doana.

A) 1973-1977. Hamar itzulpen egin zituen kartzelan zegoela: lau Marxen lanenak, bat Althusserrena, beste bat Brechtena, teatroaren gainekoa; eta Vachet autore kanadarraren *Ideologia liberala* ere itzuli zuen (zeinarekin kontaktatu nuen liburu honen ediziorako, eta oraintsu zendu den...). Hain zuzen ere, Mariok itzulpena egin eta 30 urtera lan horretarako hitzaurre labur bat egin zuen, Mario jada joana zela. Stiehlerren Hegeli buruzko liburua ere itzuli zuen; Fisher austriarrarengan ere arreta jarri zuen, batik bat geroago eurokomunismoaren «aitabitxia»-edo izango zenaren *Artista eta bere garaia* lana euskaratu zuelako. Frantzian medikuntzaz egin zen lan bat ere euskaratu zuen. Esango nuke, oro har joera heterodoxoko egileak hautatu zituela itzulpenak egiteko orduan.

Eta nobela bi ere idatzi zituen lehen garai honetan, eta giltzapean gorde ere bai...: *Elurtzan datzaten zuhaitz enborrak* izenekoa lehena, eta bigarrena, aldiz, Bilboko Aurrezki Kutxa Munizipala zenak antolatutako sari batera aurkeztu ostean galdu zena, *Ex gaztanberak hezurrik* izenekoa. Bide batez, esan dezadan Jean Mixel Bedaxagar kantari xiberotarra eta laguna dudana- ren arabera, kantore horretako hitzak gaizki direla, «ez kanaberak hezurrik» behar lukeela. Aurrezki Kutxa izandakoaren eraikinean lan horren bila ibili nintzen, baina uholdeek eginiko kalteaz beheko sotoan zeukaten guzia hondatu egin omen zitzaie la esan zidaten. Handik urte batzuetara, Andres Urrutia egun euskaltzainburu denak esan zidan holako literatura-sariatatik kopia bat Euskaltzaindira igortzea aski normala zela eta balitekeela, etxean, katalogazio-lanak bukatzerako, hor nonbait agertzea ere.

B) 1983-1990. Kartzelaldia atzean utzita, kalera irtendakoan, politikaz izkiriatu zuen, bereziki 1977tik 1983ra bitartean, hau da, EIAren idazkari nagusi izandako urteetan. Gero, sei eleberri eta ipuin-liburua idatzi zituen Mariok, 1980ko hamarkadan, 1983tik 1990era doan urte-epetan. Baita komiki-gidoi bat ere —Jon Juaristirekin batera—. Eta gazteentzat, lau itzulpen ere egin zituen sasoi honetan: komiki bi, nobela bat eta ipuin-liburu bat.

Haren eleberrietan antzeko gaiak ageri dira beti: pertsona edo gizakiaren askatasuna eta askatasun hori lortzeko instituzio edo boterearen aurkako borroka.

Hala-nola:

- *Elurtzan datzaten zuhaitz enborrak*. (Preso baten askatzeaz ari da).
- *Grand Placen aurkituko gara*. (Neska baten liberazioari buruzkoa; bere buruaren jabe izatera helduko da, bera itotzen duten instituzioekin etenez).
- *Gilen Garateako batxilerra*. (Argi eta garbi, nobela inizatikoa. Gizon baten izaera nola garatzen den, maitasunari esker...).
- *Del Rinconen motorra*. (Etorkin baten ibilerak, marjinaziotik irten nahirik).
- *Olaugarroa*. (Preso baten ihesa).
- *Gela debekatua*. (Emazte batek senarraren munduaren menpetik irte-teko asmoa erakutsiko du).

Ipuin-liburuak, *Gau-ipuinak* izenburua du. Bost ipuin surrealistaz osatua; ametsak edo errealitatea diren argi ez dago...

Bigarren garai horretako azken lau itzulpenak, hauexek dira:

- Judith Kerren *Eta Hitlerrek untxi arrosa lapurtu zuenean*, non autoreak bere umetako bizia, autobiografia, kontatzen duen naziengandik ihesi.
- Bestalde, H.H. Munro *Saki* autore ingelesaren ipuinak itzuli zituen, *Bakerako jostailuak eta beste istorioak* lanetik.
- Itzultako komikiak, *Lope Agirrekoa* bata, eta *Ateak zabaldu*. (*Euskal Panpako kronikak*) bestea. Biotan, euskaldunak Ameriketara nola ibili ziren, zelako bizimodua zeukaten kontatu zuen.

C) 1990etik aitzina, bereziki zinema-kontuetan jardun zuen lanean Mariok. Esan behar da Frank Daniels izeneko txekiar zinema-zuzendari eta -gidoigileari segitu ziola Europan zehar, berorren hitzaldiak eta kurtsoak entzuten eta ikasten. Horren ondorioz, Madrilera Unibertsitate Autonomoan hasi zen gero Mario gidoigintza-eskolak ematen. Hura zen Espainian horrelako ikastaldia antolatzen zen estreinako aldia. Mariorekin batera Jose Luis Borau aritu zen irakasle, eta geroago, nahiz eta ez hain sarri, baita Mario Camus eta Carlos Saura ere. Ikasleetan, bi aipatzekotan, Ángeles González Sinde eta Tricicleko Paco Mir izan zituen. Zinema-gidoigintzari lotutako fundazioa sortu zuten, *Viridiana* izenekoak. Aldizkari bat ere argitaratu zuten,



eta han, Madrilen, makina bat zine-kritika karrikaratu zituen Mariok aldi hartan. Baten bat hemen ere bai, Euskal Herrian, eta euskaraz.

Horretaz landa, Gasteizko Unibertsitatean ziklo arturikoaz literatura-klaseak eman zituen.

Baina, salbuespenik gabe, garai orotan, ez zion prentsan politikaz idazteari utzi. Halaber, hainbat liburutarako kolaborazioak egin zituen (hitzau-reak, atalak, artikuluak...). Bizitzan zehar idatzitako 250 artikulua ingurutik, % 15 bat euskaraz idatzi zituen, eta euroatik, 31 *Egunkarian* argitaratu. Liburuei dagokienez, arestian esan dugun legez, gaztelaniaz 8 eta euskaraz 23 liburu atondu zituen.

#### 4. Literatura ikuspegiak: ezagututako autoreak

Mariok idatzitako literatura liburuek bi iturburu dituzte: batetik, hizkuntza literarioa euskaraz sortu nahia; eta bestetik, bizitzatik eta literaturatik ikasitakoaren adierazpena da haren sorkuntza-lana. Irakurleengan sentimenduak piztea interesatzen zitzaion, eta horretarako, nahitaezkoa da norberak sentimendu horietatik igarota egotea.

Gauza asko bizi izan zituen eta horietaz idazteko deliberoa hartua zuen. «Gauzak» gertatu ahala, hausnartzen hasten zen, haiei buruz idazteak zer joko emango ote zuen aztarrika bere artean; eta zenbait gauza asmatu ere egiten zituen... Txikitatik izan zuen joera hori. Istorioak sortu egiten zituen —kotxean zihoala, edozein tokitan— edota egoera berrien bila ibiltzen zen, gero haietaz idatzi ahal izateko. Xehetasunei arreta handia jartzen zien, gero bizi izandakoa zehatz-mehatz deskribatzeko. Hala ere, ez zuen literatura bere munduaren erdigune bakartzat hartzen. Beste alor batzuk ere landu zituen; puntu horretan loturarik gabeko idazlea izan zen beti. Akaso, horregatik gustukoak zituen amerikar idazleak, gerra-garaian Europara etorri zirenak, bereziki. Ikusitakoaz idatzi zuten. Ikusitakoaz idaztea zaila izaten da, eta asmatzea, gehiago. Idazlea izateak bizitzeko era bat dakar, Marioren ustez. Idazlea denak ezin die egoera askori edo sentimenduei ihes egiten utzi behar. Gero, idazteko, horietatik aprobeztatu, «edan» egin behar duelako idazleak. Baina, istorioak kontatzen ere jakin behar zela zioen.

Bidaia asko egindakoa zen, toki askotatik ibilitakoa, eta lagun asko ezagututakoa ere bai, izaera askotarikoak. Euskarazko idazle mordoa ezagutu zuela esango nuke eta, horien artean, aski ezagunak diren batzuk nabarmenduko nituzke. Gazte-gaztetatik Gabriel Aresti ezaguna bazuen ere, kartzelatik atera eta laster beste idazle askorekin harremanetan hasi zen; gehienbat Arestiren ingurumarian ibilitakoak ziren haiek, eta Enrike Villarrek zuzentzen zuen Lur argitaletxearekin zerikusia zutenak ere bai. Hona hemen izen batzuk: Ramon Saizarbitoria, Arantxa Urretabizkaia, Ibon Sarasola, Luis Haranburu Altuna, Xabier Kintana eta Xabier Gereño.

Edo horien aurreko belaunaldiko batzuk, hala nola, Juan San Martín, Federico Krutwig, Txillardegi eta Anjel Lertxundirekin ere hartu-emanak izan zituen eta, halaber, Pott Banda izan zenaren partaideekin: Jon Juaristi, Bernardo Atxaga, Joxemari Iturralde *Jimu* eta Manu Ertzillarekin —*Grand Placen aurkituko gara* liburuaren aurkezpenean lagundu zion horrek Bilboko Herriak liburu-dendan—. Hurrengo edo ia belaunaldi bereko beste idazle batzuekin ere ezaupide handia zuen, izen batzuk aipatze aldera, Felipe Juaristi, Patziku Perurena, Mikel Hernández Abaitua, Tere Irastorza... ekar ditzagun, edo gazteagoetan, Iván Igartua, kasurako. Aipatutako idazleez gainera, beste batzuekin ere harremanak izan zituen, baina izen horiek literatura-munduari zion estimaren adierazgarria erakusteko nahiko direlakoan nago.

Espainiako literaturagileekin ere izan zuen ezaupidea. Bat aipatzekotan, Juan Benet. Benetek —gaztelaniazko literaturaren berritzaile nagusienetakoa zenak— idatzitako *Herrumbrosas lanzas* saileko hirugarren liburua, Mariok aurkeztu zion Madrilen 1986an. Edo Javier Marías, Soledad Puértolas, Juan García Hortelano, Luis Mateo Díez, Álvaro Pombo... idazleak ere hurbilekoak zituen. Galegozko literaturaren ordezkariak ziren Manuel Rivas, Suso del Toro eta Antón Granderekin ere hartu-emanak izan zituen, baita katalanekin ere —Montserrat Roig, Valentín Puigekin...—; eta idazle asturiarrak ere ezagutu zituen Verinesen egiten ziren topaketetan.

## 5. Idazte-moldea eta -teknika

Batez beste, astean lau liburu irakurtzen zituela zioen. Baina gogoan dut, batean nola komentatu zidan egunean liburu bat irakurtzen zuela. Uste dut, 1985. eta 1988. urte bitartean izango zela, idazkari nagusi izateari utzi zionean. Berezkoak zituen irakurtzeko erraztasuna eta zaletasuna. Lo gutxi egitekoa izateaz aparte. Egunean bost bat orduan lo eginda nahikoa zuen. Eta gaua heltzen zenean —beste onaindiatar asko legez— ez zen logura izaten. Galizian, horregatik, esaten zioten deituraz «Onai-noche» izan beharko lukeela, «Onain-día» izan beharrean.

Nobela bat izkiriatzeko, hurrengo patroï honi jarraitzen zion: gai bati buruz irakurri ahal zuen guztia irakurri, hilabeteetan. Gero, behin mamia zuela, idazten hasten zen, jo eta su, egunean 10 edo 40 orrialde eginik. Eta azkenean, testu osoa orraztu.

Hizkuntzekiko interes handia zuen. Kartzelan zegoela, hamabi hizkuntza inguru estudiatzen eta aztertzen saiatu zen: euskara, ingelesa, gaztelania, frantsesa, alemana, grekoa, hungariera, latina, okzitanao, galegoa/portuges-a, italiara...

Zer idatzi nahi zuen bazekien, jakin, literatura-ideiak argi zituen. Eta argi ere azaltzen zituen sortutako «munduen» pentsaerak eta azalpenak, ezau-garri biri jarraituz; bateko, lanei kutsu zaharkitua eman nahi izateak —kla-sikoak izan zituelako maisu— zuzentzen zuen haren lana eta besteko, euskal narratibagintzaren hutsuneen kezka betetzen saiatu beharrak. Horrez gain, sintaxia ondo menderatzen zuen eta istorioak kontatzen bazekien.

Cáceresen isolaturik zeuden Mario bera, Teo Uriarte eta Jose Luis Zalbide. Barruan bizi zuten egoerak ez zuen kanpokoarekin zerikusi handirik... Horregatik, Kafka zuen Mariok arazoak planteatzeko autore egokitzat, problematikagatik zein hizkuntza klasikoagatik, hark aleman klasikoaz idazten zuelako.

Narratiba berriaz, ukitu esperimentalekoaz, gerruntzerik gabekoaz ere pentsatzen zuen, bere fantasiekin beteriko mundu literarioa eraiki nahirik, literaturaz maitemindurik zegoelako... Idazlearentzat estiloa planteatzea, «traizio kulturala» planteatzea dela esaten zuen Mariok. Irakurlearen kon-

plizitatea bilatu behar du erkide duten erreferentzia kulturalaren bitartez. Baina literatura denbora-pasa emandako unetzat jotzen zuen, idatziz betetzen den afiziotzat. Sakontasunaren eta esentziaren transzendentzia eman nahia ekintza literarioaren mugetatik irtetea zela uste zuen.

Beragan eragina izan zuten autoreez mintzatzerakoan, arestian esan bezala, kontuan hartu behar da asko eta denetarik irakurri zuela. Cácereseko zuzendariak senideei aitortu zien bisitetariko batean, harriturik zegoela hirurek irakurritako guztiarekin. Hiru mila liburutik gora lau urtean. Idazle baten ekoizpena irakurtzeko zuen modua erabatekoa zen. Hau da: halako egile baten lan bat irakurri eta gustukoa bazuen, beraren lan guztiak irakurtzen zituen Mariok, eta baita hartaz zegoen guztia ere.

## 6. Hizkuntzaren kontzientzia, politika eta itzulpena

Euskararen munduan egin zituen ikerketek ondorio bitxi batera eramán zuten, oroitzapenen lehen liburukian (513. orrialdean) dioen bezala. Alegia, eskema estalinistak, eta orokorrean marxistak ere, nazioaz zioena —kontzientzia zuen etnia zela— ez zela egia. Aitzitik, euskaldunok aranismoaren aurretik bagenuela kontzientzia. Ildo horretatik, aztertzen zituen autoreek, euren joskeran malgutasuna eta dotoretasuna erabiltzen zutenek, bazuten hizkuntza-komunitate baten partaide izatearen kontzientzia argia. Gainera, Arana Goiriren eragina euskal kulturán ttipiagoa eta negatiboagoa zen, Leizarragaren edo Axularren eraginaren aldean.

Behin batean, Mariok amamak irakurtzen zuen otoitz-liburu zaharra eskatu zien etxekoei. *Cristoren pasiñoia* (1902) —300 orrialde ingurukoa— delako harek Axularrenaren moduko prosa zuen. Aldi luzeak, perpaus elkartuak zerizkion testuari askatasun osoz. Diferentzia bakarra, bizkaieraz zeudela esaldiok, baina ez zuten Marioren iritzia aldatu, halere. Idazle klasiko horiek eta beste batzuek —Larramendik, Etxeberri Sarakoak, Errok, Astarloak, Novia Salcedok eta abarrek— ondorio batera eramán zuten gure Mario: nazioaren eraikuntza ez zela eskema marxistak eta gramsciarrak esandako legez, langileriak eta horren aliatuek, eta aurrerago burgesiak eta burgesiaren aliatuek, hau da, subjektuak —historiaren protagonistek eta

horren aliatuek— sortua izan. Alderantziz, arau batzuk onartzen zituzten lehiakideen batuketa arraro batek sortua zela nazioa, nahiz eta haiek beti borrokan ibili. Autore horiek guztiek euren burua euskalduntzat zuten, eta besteek ere halakotzat zuten, nahiz eta argi eta garbi euren burua kalbinista, katoliko edota Salamancako neoeskolastikotzat jo.

Garrantzitsuena ez zen euskaldunek euren hizkuntzaren balio politikoaren kontzientzia hartu izana (inguruko hizkuntzekiko berezitasuna, herri berezia sortzea, eta horregatik, autogobernurako instituzioak —foru-sistemakoak— sortu izana), ideologia desberdinekoek euren ideiak elkarri adierazteko euskara erabili izana baino.

Leizarragak eta Axularrek hizkuntzarekiko zuten maitasunagatik idatzi zuten, baina ez horregatik soilik, baita euskaldunak euren doktrinetera erakartzeko ere. Hartara, Marxen testuak euskarara itzuli behar ziren, zituen politikazko ideiak ulertzeko; ez ekonomiara zuzenduta, ezpada gizarte zehaztetara begira baino.

Gabriel Arestiren merituetariko bat, dio Mariok, «erdarazko» euskal poeta estimatuenetarikoen —Gabriel Zelaia edota Blas de Otero diren bezala— euskal kulturaren artean egotea da. Bera da zubi hori, euskaltasunaren eta ezkerreko pentsamendu eta kulturen artekoa. Borroka hori, 1960ko eta 1970eko hamarkadetan mugimendu nazionalistaren baitan egon zen liskararen sinboloa da.

Bestalde, oroitzapenen bigarren liburukian, Leioan egin zen euskarari buruzko nazioarteko batzar batean, Mariok kontatu zuen, nola kartzelan zegoela harako liburuak lortzen zizkietenak han zeudela. Hau da, Juanito San Martin eta Mitxelena. Baina azken horrek ihes egiten zion. Ez zuen Mariorekin egoteko gogorik edo. Txillardegiri ikusi zuen eta kasurik egingo ote zion zalantza egin zuen... Eta pentsatu zuen, haren nobela existentzialistek —1950eko hamarkadan idatzi zituen haiek— zelako eragin positiboa izan zuten beragan. Halere, 1960. urtean, militarismoari beste intelektual batzuek eginiko kritika zuzenari —Patxi Iturriozek 1966an eta Patxo Unzuetak 1970an—, erantzunik ematen ez zuela jakin zeritzon Mariok, beste biek jakin ez zuten bezala. Baina, Txillardegiri buruz hori pentsatu arren, uste zuen, Txillardegiren lanak berriro irakurtzea merezi zuela, eta politiko-

ki, marxismo-leninismoari egiten zion kritika eta sozialismo humanistaren alde lerratu izana txalagarria iruditzen zitzaion. Hausnarketa horietan zebilela, Txillardegi hurbildu zitzaion eta eskua eman zion.

Atal hau bukatzeko, aipatu nahi nuke Mariok kartzelatik gurasoenera bidalitako gutun batean dioena. Xabier Amurizak ekonomiari buruz itzultitako liburu bat Marioren eskuetara heldu zen, eta hark itzultze-lan horretan erabili zuen estiloarekin pozik agertu zen Onaindia, 1545. urtearen osteko eredua —bere hitzetan— erabili zuelako, eta ez Azkue-Aranarena.

## I. ERANSKINA

### Marioren literatura-lanak: nobelak eta ipuinak

*Elurtzan datzaten zuhaitz enborrak* (1973; 1977an argitaratua)

Kartzelara agertu den mutil bat erotzen hasita dago, eta Mariok haren zoratzte-prozesua hurretik aztertuko du, Kafkaren testuen estiloari jarraituz. Dinamismo handiko pertsonaia da, ero bat. Izenburua ere, Kafkaren *Kondena* izeneko narrazio-bildumaren ipuin batetik hartu zuen, oso poetikoa iruditzen zitzaiolako: enborrak, elurra, zuhaitza...

Liburu honetarako, oinarrizko iturria du Fischerren liburu bat, *Artista eta bere garaia*. Mariok berak euskaratu zuen liburu hori, eta argi dago berarengan eragin handia izan zuela, funtsezkoa izan zen. Errealismo sozialistaren kontrako tesia defenditzen zuen, artea «beste zeozer» zela azpimarratu. Ez da errealitate objektiboa garrantzitsua, gitariko bakoitzak errealitatea nola bizi dugun baino.

*Elurtzan datzaten zuhaitz enborrak* nobelaren tesi nagusia da, errealitatea menderatu ezina dela, ezagutzen ez delako. Inoiz irakurri dut Marioren oharren batean, Txillardegiren literaturaren parodia egin nahi izan zuela, edo haren liburuetan agertzen ziren pertsonaia sartzearenei ero bat kontrajarri. Oteizaren aitona bien teoriarik oinarritua dago. Jon pertsonaiak Txillardegiren hizkuntzaren modukoa darabil, eta Len delako eroak kortserik gabeko hizkera. Bi subjektuek bizitzaz bi ikuspegi desberdin dituzte eta aurrez aurre daude Lukácsen berezitasunaren espazioan.

Izenordea erabiliz sinatu zuen, Jon Lariz. Haren aita jaio zen Gizaburua-gako okindegiak Lariz Oleta zuen izena, eta handixik hartu zuen izengoitia. Geroago, behin bakarrik erabili zuen, *Oh Euzkadi!* izeneko aldizkariaren hamaseigarren —eta azken— alean argitaratutako lanean, *Nola akatu erlijioa behin betikoz: monoteista purtzil baten erreflexio teologikoak* izenpetzera-koan. Kafka izen arrunta bazen, Lariz ere hala da, zioen. Eta klandestinitateko arrazoiengatik ere erabili omen zuen izenorde hori. Inoiz esan zidan, bera politikara dedikatzen zen idazlea zela, eta Lariz izenaz sistematikoki sinaturik, literatura mespretxatu egingo lukeela.

Liburuak onespren eskasa izan zuen argitaratu zenean 1977an —nahiz eta 1973an idatzia izan—. Kritika gutxi, Sarasolaren, Saizarbitoriaren eta Ruiz Balerdirenak soilik. Kalte egin zion gainerako idazleen isiltasun horrek; idazteko, konfiantza galdu zuen bere buruaz. Hori entzun nionean, liburu bat ateratzen zuen bakoitzean eta joan zitzaigun arte, apal-apalik, neure iritzia agertzen nion, berorren autoestimua sendotu guran.

*Ez gaztanberak hezurrik* (1975; argitaratu bakoa)

Zuberoako Bereterretxeren kantore edo baladaren «Haltzak ez dü bihozik / ez gaztanberak hezurrik» sarrera-hitzetatik hartua da izenburua. Bigarren lerroa da, tituluaren ostean datorrena.<sup>2</sup> Hego Amerikako literatura politiko barrokoaren bidetik eginiko nobela dugu *Ez gaztanberak hezurrik*, garai haietan García Márquezen lanak gogotik irakurtzen ari zen aldian. Hizkuntza aldetik, klasikotasuna barra-barra ageri da; esaldi luzez beterik dago. XVIII. mendeko euskaraz idatzi nahi izan zuen.

Mariok esana da, Espainiako trantsizioa eta Euskadin egongo zen erregimen politikoa ulertzeko taxutu zuela. Hau da, ideologia-arazoak oraindik ere konpondu gabe zeuzkan 1936ko gatazka-egoeraren jarraipentzat har liteke. Arazo horiek azalera ekartzeko idatzi ei zuen.

Aurrezki Kutxak —Caja de Ahorros Vizcaína zenak— eratutako literatura-sariketa batera aurkeztu zuen eleberria, baina galdu egin zen kopia bakarra.<sup>3</sup>

<sup>2</sup> Idazlanaren hasieran esan dudan moduan, Jean Mixel Bedaxagar kantari xiberotarrak esanda dakit, baladaren jatorrizko testuak «ez kanaberak hezurrik» dakarrela, baina aldatuta dagoela...

<sup>3</sup> Lehen ere esana dut, orain dela hainbat urte, Aurrezki Kutxaren eraikinean bazterrak miatzen ibili nintzela, non edo nondik azalduko ote zitzaigun esperantzan...

*Grand Placen aurkituko gara* (1982; 1983an argitaratua)

Bere lehen nobelatzat jotzen zuen. Aurreko biak saioak zirela zioen. Kartzela-denboran bazuen pentsatua lan hau. Derrigor idatzi beharra zuen. Ez da autobiografikoa, baina bere moduko idazle batek, esan nahi baita berak bizi izandakoa ondo ezagutzen zuen batek, egin behar zuen eleberri hori. Hasieran, titulua, *Penelope* jartzeko asmoa zuen, Ulisesen antzera, emakumea senarrari itxaroten egon zelako, zortzi urte kartzelan eginda... Zelanbait esateko, heroia, Ulises barik, emaztea zen.

Hiru plano daude liburuan. Batetik, gizonaren begira dagoen emakumeak idazten dion gutuna: urte horiei buruz hausnar egin du, nolako gizona aurkituko ote duen, bion alaba zelan hartuko duen, eta asko lagundu dion lagun baten berri ere eman dio gutun horretan. Epistola, teknika egokia da garapena adierazteko. Bestetik, Grand Placen zain dagoen kaleratu berri den gizona. Azkenik, Grand Place plazaren beraren deskripzioa.

Belaunaldi baten joan-etorria jaso nahi izan zuela esaten zuen Mariok. Beste izenburu bat ere jartzekotan egon zen: *Belaunaldi zurtza*. Haren belaunaldiari jazotakoa ezin zen «soziologikoki» kontatu, nobela baten bitartez ez bazen. Eta hartu behar zuen ikuspuntuak ez-zuzena izan behar zuen, zeharkakoa, emakume batek kontatua.

Lehen lanean, *Elhurtzan datzaten zuhaitz enborrak* eleberrian, ez zen emakumerik agertzen, edo azalduta ere, bigarren mailan. Oraingo nobela honean, emakumea dugu pertsonaiarik garrantzitsuena. Sentsibilitatea erakusten du emakumeak. Gizonoi oso zaila egiten ei zaiguna. Eleberri hori idazteko, urtebetez idazle emakumeezkoen lanak irakurtzen jardun zuen. Hala nola, Virginia Woolf, Doris Lessing, Simone de Beauvoire... emakume-idazle handien obrak, eta gehien irakatsi omen zionarenak, Mercé Rodoredaren liburuak. Rodoredak xehetasunak oso ongi lantzen zituen, idazle gizonezkoen abstrakzioaren aldean.

Neure ustez, 1982an izkiriaturako nobela horretan, dagoeneko heterodoxiarako joera erakusten du. Aurreko urteetan bizi izandako ortodoxia aldatu nahi balu legez, lehengoa utzita. Bizitza indibidualaz ere mintzo da, hura aldarrikatuz. Autokritikarako gogoia nabari zaio. «Erakundean» zertarako



sartu ere aipatzen du. Grand Place deskribatzen duenean, etakide izandako gida turistikoa mintzo da, eta pozik dago aitaren tailerra utzi izanaz eta Brusela kosmopolitan ibiltzeaz.

1983ko apirilaren 22an Ramon Saizarbitoriak aurkeztu zuen *Grand Placen aurkituko gara*, Donostiako Bilintx liburu-dendan, Luis Haranburu Altuna editoreak sarrera egin ostean. Manu Ertzillak Bilboko Herriak liburu-dendan aurkeztu zuen, eta gero garai bateko Joker kafetegian afaldu genuen eta afa-lostean goizaldera arte tabernaz taberna ibili ginen Mario, Jon Juaristi eta Manu biok. Azkenean, autoraino lagundu nion eta Gasteizera abiatu zen.

Liburuaren azalak ez zuen esanahi berezirik, baina asko gustatzen zitzaion Mariori. Jon Juaristik itzuli zuen gaztelaniara, *Grand Place* izenburuarekin.

#### *Gau-ipuinak* (1983)

Narrazio surrealistikak dira eta irakurleak ez daki ametsak irakurtzen ari ote den, edo ez. Zinema amerikarraren eragina dute. Pertsonaiak era guztietakoak erabili nahi izan zituen. Eleberri horretan, Frantziako literatura-ren eraginez, denak katedratikoak dira, eta ikuspegi intimista eta psikologi-koa agertzen da. Amerikarretan, ostera, Faulknerren pertsonaietan bezala, laborariak, beltzak, askozaz jende herrikoiagoa ageri da. Faulkner, Dos Pas-sos, Hemingway eta horien eragina aitortzen zuen Mariok. Hirietako per-sonaiak, eguneroko problematika batean atera gabe bizi direnak dira. Dena dela, Hemingway gehiago interesatzen zitzaion pertsona gisa, idazle moduan baino.

#### *Gilen Garateako batxilerra* (1984)

Durangon 1443an sortu zen Fray Alonso de Mella heretikoak eragindako egoera dela eta, Erroman dauden kardinal bik tenplarioen azpilana dela pentsatzen dute eta hori jakiteko, gazte bat bidaltzen dute, espioi, han ger-tatutakoa ikertzera.

Gilen, kardinal baten senidea da. Umetan Lekeition eta Durangon bizi izandakoa zen. Frantziskotarra zen, eta Italian uste dute, heresia gehienak San Frantziskoren obra sakon eta erradikala irakurtzetik datozela. Gai hori, U. Ecoren *Arrosaren izenean* ere agertzen da.

Gero, Granadara doa tenplarioen mairuekiko nolabaiteko harremanak argitzeko asmoz. Ondoren, atzera Euskal Herrira dator, «zaldun ibiltarien» gisara. Neska judu batekin maiteminduko da (horrela maitasun-nobela bihurtuta *Gilen Garateako batxilerra*). Pertsonaia aldatu egingo da, baina ez zaldun-eleberrietako pertsonaien modura, non garapenik izaten ez duten. Hasieran, «zaldunen» nobela egiteko asmoa bazuen ere, azkenean nobela «pikareskoa» idatzi zuen. Garai hartako egitura tipikoa zuen: zerbaiten bila joan, eta aurkitu edo ez, aldatu egingo da pertsonaia. Neska judua ere sarritan ageriko da, *Ivanhoen* Rebecca bezala. Walter Scotten eragina zuela onartzen zuen berak.

Protagonista pikaro goliardoa da, eta idazleak ironiaz eta distantzia hartuz deskribatuko du. Ezin da abangoardiarik egon, aurretik literatura jasekoa ez badago. Hala, Mario narrazio-lengoaia propioa bilatzen ari da nobela historikotik gertu, Marguerite Yourcenarren edo Robert Gravesen ildotik.

XIII. eta XIV. mendeetako testu arturiko klasikoen egiturari segitzen dio nobela honek, bereziki Tolkienek aurkitu eta 1955ean argitaratutako *Sir Gawain eta Zaldun Berdearen* egiturari.

Egungo nobela egin nahi izan zuen, eta era berean zaldun-nobelen parodia izango zena. Baina, nola euskaraz genero horretako lanik ez zegoen, hizkera erromantikoa sortzen saiatu zen, eta horrela, lan horietan erabilitako hizkerari (*briosos corceles, ojos de lapislázuli, manos de alabastro...*) barre egin. Hizkera erromantikoa taxutzen den heinean —ez baitzegoen ordura arte—, hartaz trufa egin.

Ganboatar eta oinaztarren tartean heretikoak ageri dira. Ziklo arturikotik eta Britainiako kondaira eta kroniketarik harturiko sinbologia darabil. Garai berezia izan zen. Zazpi urtean, Durangoko heresia gertatu zen, laborarien matxinada jauntxoan soldaduen kontra altxatu zen, eta handik gutxira foruak idatzi ziren, non denak aitoren semeak izango diren. Mariok esaten zuen Durangoko inguru horretan errealismo magikoa egiteko aukera handia zegoela, bertako fantasiarako joera berezkoa kontuan izanik. Gaztelaniazko bertsioan —Jon Juaristik itzulia, *La tau y el caldero* izenez— Abadinoko udal-armarria ageri da azalean, honako zeinu hauekin: tenplarioen erromes-maskorrarekin eta Grialaren zeinua den pertzarekin.

Europar, urte horietan, arazo eta zailtasun asko zeuden laborarien artean, munduaren kontzepzio berriak ekarri zituen aldaketak, iraultzak, hamarrenak, juduen eta heretikoen kontrako jazarpenak... Horiek guztiak garai horietan jazotakoak dira. Sasoi hartan, XV. mendean, protestanteen Erreforma zetorren, eta berarekin europar modernotasuna; paralelismoa egin daiteke orduko egoeraren eta ezkerak 80ko hamarkadan bizi izan zuen kinkaren artean. Durangoko heretikoek, Europako beste toki batzuetan legez, «helburuen» afera mahaigaineratu zuten lehenengoz. Ez salbazioa lortzeko metodoak, ezpada salbazioa bera, hau da, iraultza.

Garaiko berreraiketa literarioa edo hizkuntzazkoa erdietsi nahi zuen Mariok. Pertsonaiei une hartako ideologia eta estiloa ematen saiatu zen. Hizkuntzarekin eginiko ahaleginaz gain, nobela «bisuala» sortzea zuen xede. Euskal eta europar historia, kulturaren eta literaturaren ikerketa sakona egin zuela esaten zuen. Nerabeentzako literatura errealista albo batera laga, eta mundu fantastikoa sortu zuen.

XV. mendeko hizkuntza erromantikoa asmatu nahian jardun zuen. Etxepareren obran oinarritu zen gehienbat. Kontzesioak egin bazituen ere, orduko moduko hizkera birsortzen saiatu zen eta Erdi Aroko kronista balitz bezala idatzi zuen. Irun Hiria saria jaso zuen 1983an.

Erdi Aroan egiten zuten moduan, literatura oso errealista izan arren, intertestualitate mordoa erabiltzen zuten. Gauzak esateko orduan, klasikoen ahotan jartzen zituzten adierazpenok, Mariok berak zioenez. Ereduak, Kintiliano eta Zizeron ziren. Hark, Aristoteles, Galeno, Heraklito eta Katon aipatu zituen. Euskal Herria, XV. eta XVI. mendeetan, Europari oso loturik zegoen. Horregatik, eskolastikoen esentzia hartzen saiatu zen eta Tabirako heretikoez txostena prestatu. Erdi Aroko ipuin bat idatzi gura izan zuen.

Lan hori idazten zebilela, kantu gregorianoa entzutera joaten zen Gasteizko eliza batera, esku artean zuen zeregina girotze aldera. Eleberria idatzi eta gero, orrazketa-lanak Tunezen egin zituen, hara oporretara joanik.

Lanaren bigarren zatia idazteko asmoa izan zuen —«hau nire *Tormesko mutila* da eta bigarrena, *On Kixote* izango da», zioen—, baina azkenean, beste egitasmo batzuetan murgildu zen eta bigarren zati hura burutu gabe geratu zen.

*Del Rinconen motorra* (1985)

Laburra da, baina polita. Galiziar etorkin bat Gernikan kokatzen du, hau da, ez baserri-giro hutsean, ezta hiri-giro garbian ere, tarteko batean baino.

Eleberrian ageri den pilotaria, Mariok esan zidanez, gure gurasoen lehen-gusua eta bere garaiko aurrelaririk onena ei zen Dionisio Onaindiarengan oinarrituta dago. Pilota gaztetan lagata, bere anaia Seberinorekin —Espainiako Borroka Askeko txapelduna izan zenarekin— bizi zen; txakurrak hartu eta mendira jotzea zuen afizio printzipalena. Marjinazio edo bazterketa erakusten du. Aurrekoetan erabilitako hizkera klasikoaren aztarnarik ez da hemen, estilo «kaletarragoaren» mesedetan. Arrazismoa da gai nagusi, integrazio-arazoa dago.

*Olagarroa* (1987)

Preso komun en kartzela barruan gertatzen da istorioa. Protagonistari, Gerardori, lagunekin lapurreta egin eta gero, zigorra emango diote eta kartzelara bidali. Zazpi urtean egon behar izango du barruan. Laster irten behar luke, baina lagunak diru asko ordainduta, bera baino lehenago, atera dira. Isabel eraman dute. Gerardo etsipenik latzenezan erori da. Hasi, amaitu bezala egiten da, modu zirkularrean, protagonista berriro kartzelan delarik. Kartzela olagarro handi baten modukoa da, behean zuloak dituena, baina kontrolaturik daude, eta handik ezin da ihesik egin. Teilatutik egin behar. Beldurrak, frustrazioak, interesak azaleratuko dira. Pertsonaia bat —Tiranizida, Euskal Herriaren metafora dena— gizon arraroa da; ideologiak zabaltzen jardun du eta kartzela-zaindariekin haserretu egin da, baina ez du zigorrik jaso... «Ilusioak saldu» egiten dizkie presoek: kartzela hutsik dagoela eta ihes egin daitekeela, zuzendariaren botereak ez duela legitimitaterik... Eta norbaiti ihes egitea posible dela sinestarazi egiten dionean, ez du ihesik egiten. Kartzela den munstroaren kontrako borroka da nobela hori.

Ardura bikoitzaren espresioa da: mitologia tradizionalaren aurkako borroka, eta borroka horren adierazpen nobelatua, hizkuntzazko adierazpena. Ideia argi eta ongi taxutua, eta literatura-hizkuntzarekiko kontzientzia garbia. Sinbologia maisuki darabil. Euskalduna ez dago mundutik aparte, haren borroka munduko borrokaren zatia da, oztopoen kontrako askatasunaren

alde. Horra hor, Marioren amerikar transzendentalismoarekiko lotura; Melville eta abarren bidetik. Olgarroa, Moby Dick izango litzateke, munstroa, infernua, gizona preso duena. Azkue Saria jaso zuen 1986an. Jose Maria Gelbenzu Bilbora etorri zen liburu hori gaztelaniaz argitaratzeko asmoz. Kallean aurkitu nituen bera eta Jon Juaristi, Mariorengana zihoazen Ertzilla Hotelera, Herrien Ezkerra Europarako koalizioaren biltzar batean zegoela eta. Eta ni neu ere haiekin batu nintzen. Baina, bertan behera geratu zen egitasmoa.

*Gela debekatua* (1988)

*Nora* izan zen lanaren lehenengo izena. Nobelak badu alde gotikoa eta baita intrigazko edo kutsu poliziakoa ere.

Banku-zuzendari baten emaztea da protagonista; umea galdu eta gero herri batera eramango dute. Andre horrek zenbait gauzaz bere burua nola askatzen duen kontatuko digu istorioak, emakumearen ikuspegitik, baina emakumeak berak lehen pertsonan hitz egin beharrean, zine-muntaiaren teknikaz baliatuko da eta hirugarren pertsonan mintzatuko da. Andre-gizonak etxez aldatu eta dorre batera doaz. Hango gela batera ezin da sartu. Dei anonimoak jasoko ditu gizonak, eta andreak dena jakin nahi... Andreak sentimenduak ederki azalduta daude.

Senarra banku-zuzendaria denez, diru-mugimenduak bere gain daude. Maitalea ere badu, kanpoan. Diru asko darabil arrantzale-herri baterako. Gehiegi. Eta diru hori bankuaren bidez zuritzen ote duen susmoa dago. Zenbait gizarte-harreman ageri dira istorioan zehar, ondo islaturik.

## II. ERANSKINA

### Mario hizkuntzaren batasunaz mintzo da

Hizkuntza-batasuna —edo «bateratua», haren hitzetan—, sakonki aztertu zuen Mariok, klasikoen ezagutza zabaletik hasirik (kartzelan zegoela, egoera zailean, alegia, eta 1970eko hamarkadaren hasieran, inoiz inor gutxik egina zuen ordura arte) eta euren sintaxia bihotzeraino sartu eta bereganatu.

turik, eta hemeretzigarren mendearen hondarretan hasi zen klasikoekiko haustura arteko garaia ikertuz. Aipaturiko etendura horretako ekoizpena ere estudiatu zuen, hau da, sasoi hartatik hasi eta 1950eko hamarkadan berriro klasikoetara jotzen duten idazleak agertu arterainoko lanak arakatu zituen, bitarteko Azkuerenak eta Arana Goirirenak, hots, Larramendiren jarraitzaileak. Eta beti ere, lapurtarrez eta bi behe-nafarrez, eta zubereraz idatzi zutenengana itzultzen zelarik, bizkaierazko ekarpena mespretxatu gabe.

Marioren hainbat lan argitaragaberen artean, kartzela-denboran eginiko hiztegiak eta sintaxiari buruzko lanak dira. Baina, hizkuntzazko lan horietaz gain, idatzi teorikoak ere badaude, linguistikaz, eta bereziki euskararen batasunaz. Horietatik batzuk aukeratu ditut, interesgarrienak neure iritziz, eta atal bakarrean batu, mamiaren arabera azpiatalak eginez.<sup>4</sup> Klasikoetatik hasirik eta 1968an euskara estandarra finkatu arte, zer pentsamendu, jarraera, proposamen eta abar egon ziren modu berezian aurkezten ditu Mariok, bere iritzia emanaz. 1970eko hamarkadaren hasieran idatzirik daude, baina ez dute gaurkotasunik batere galdu. Garaiko hizkuntza darabil, gaurkoarekin alderatuta aldaketa ttipi batzuekin egina.

#### a) Sarrera

*Ex zuten orduko euskaldunek bi hizkuntzen artean aukeratu beharrik ikusten. Aukera, erdara zen. Kontzientzia falta honek markatzen du euskal literaturaren historia XIX. mendearen bukaeraraino. Horregatik, XVI. mendetik XIX. mendearen bukaera arte doan epean, erlijio-liburu multzo bat eta ezer guti gehiago aurkitzen da. Euskaldunek ez dira euskaraz baliatu bere problema guztiez aritzeko, aitzitik maiz jo dute erdarara. Eta erdaraz eskribitu<sup>5</sup> dira batik bat, euskararen defentsa politiko guztiak, edo gehienak bederen, nahiz salbuespen txalogarri dugun Etxeberri Sarakoa baitan; baina salbuespen honek erregla egiaztatu besterik ez dauku egiten, bere obra gauden menderaino argitara ez baitzen. Mugimendu hau «apo-*

<sup>4</sup> Idatziok hitzez hitz transkribatu dira, Mariok idatzita utzitako moduan, gaurko hizkuntza zein ortotipografiari begira egin behar izan ditugun azaleko moldaken batzuk salbu.

<sup>5</sup> Jatorrizkoan *eskribatu*. Aurreragoetean ere berdin.

logiak» osatzen dute eta, batez ere, benetako garrantzia historiko eta sozial batekin, Larramendigandik Novia Salcedogana doa, nahiz gehiago egon, hark baino lehen eta hauen ondoan.

## b) Sintaxia eta batasunaren bidea

Inportanteena, mendeen artean ireki<sup>6</sup> den bidea izan da. Aintzinakoengana jo, klasikoak bezala eskribitzen saiatzea, zeren hauetan ediren baitzakkegu elkarrengana ez hurbiltzea, baina denok bat bihurtzea. Arreta handiz, hitzak banan-banan hartu dira, baina estiloa eta sintaxia ukitu gabe. Nola behar diren hitzak lotu, hori da aberastasuna, Lafittek zioenez. Leizarraga, Axular, Etxeberri Sarakoa, Mogel... «alienigenak» dira, ala euren garaiko euskara mintzatuaren sintaxiarekin ez daude kontraesanean?

Etxeparek, Leizarragak (batez ere), Axularrek, Etxeberri eta gainerako klasikoek euskal joskera berri bat kreatu zuten, euskara egokituz zernahi eskribitzeko euskaraz, euskara kulturaren, literaturaren eta zientziaren lanabes bilatuz. Eta sintaxi berri honek ez du ukatzen «joskera jatorra»; bestea ezagutzen dute eta ez dute ukatzen, tankera honetaz baliatzen dira.

Gaiztze bat egiten dute, ezagutzatik, baina bere barnean asimilatua iraurazten<sup>7</sup> duen gaiztze bat.

1. Orazio mota hauek beharrezkoak dira, baldin euskara egoki bilakatu nahi badugu literaturarako eta zientziarako lanabes.
2. Tankera hauek ez direla erderatik hartuak, baina euskal orazio singlearen sintaxiaren desarrollo normala direla.
3. Garbikeria euskaraz jabetu zeneraino<sup>8</sup> eskritore guztiek edo inportantenek erabili zituztela.

Leizarragarri / Axularri jarraitu eta ez Astarloari. Euskara aurreratuen, gaiena, egokiena hartu. Klasikoen sintaxiari boikota (nahi zioten egin), Astarloak

<sup>6</sup> Jat. iriki. Aurreragokoetan ere berdin.

<sup>7</sup> Jat. iraur erazten.

<sup>8</sup> Jat. zen dagino.

hitzekin egin bezala. Klasikoen kontrako jarrera: idatzi, mintzatu bezala egin behar da.

Euskararen ez dago bi sintaxi motarik, bata «jatorra» eta bestea «alienigena», nahiz aro batez zenbait orazio mota erabat kondenuatuak egon arrotzat. Delako «alienigena» hori ez dago kontraesanetan jatorrarekin, aitzitik; klasikoen baitan argiki dagoenez, biek elkar osatzen dira. Bata, hizkuntza mintzatuaren guztiz erabilia da. Bestea, ordea, eskribituan, batik bat.

Euskal Herriak dituen behar eta premia kulturalak euskaraz ihardetsi eta erantzun nahi baldin badugu, euskara zein-nahi hizkuntza bezala aldatu egin behar da, euskara landu behar da, sintaxi korapilatsuago bat behar da, esaldi eta arrazoinamendu korapilatsuagoak egiteko, baina beti egin den bezala, oraingoa, mintzatuaz baztertu gabe.

Hego Euskal Herrian, Larramendigandik beti gaizki ibili gara. Gatazka, politikan egin beharrean, euskararen etimologia eta etorkia aztertzen eta eztabaidatzen nahi izan dugu egin. Nik ez dut iraultzarik proposatzen hizkuntza kontuetan, baina aitzitik, mende honen [XX. mendea] hasieran egin zen etendura euskararen alde batera utz dezagun proposatzen dut. Iraultza horretaz uko egin dezagun eta lotu beti eskribitu den euskarari, Etxeparek, Leizarragak, Axularrek, Etxeberri biek erabili zuten euskara har dezagun eta ez beste berri bat asmatu; eta harena<sup>9</sup> gainera beldur gabe ez soilik hitzak banan-banan, baina bai ere sintaxia, asko egokiagoa da egin hamaikak darabiltena baino. Euskalkiak elkar hurbiltzean, emaitza euskalkiak hurbildu direla da, eta ez besterik, hortik ez da sortuko idioma berri bat. Hitzak elkartu bai, baina sintaxia nola?

Euskarari kalterik gehien egin diona, debekuak eta persegizio ofizialez geroztik, horrelako jende mota izan da: garbizaleak. Autoreak dira inportanteak, ez dute euskalki baten idazten, nahastu egiten dute. Eskritore zaharrek, klasikoez, hurbiltzen gaituzte eta bateratu. Euskalkiak, elkar bereizi eta separatu, hesia dira. Euskalkietatik aztertzen hasi, eta ez dago soluziorik. Autoreak aztertuz, erraza eta aise. Mogel eta Leizarraga hurbilago dira, beren euskalkiak baino. Klasiko guztiek ez dute euskara bera erabiltzen. Baina denei zegokien guna, nukleo, mami

<sup>9</sup> Jat. hark.



bat —so egite batean ez da agertzen, baina estudiantuz gero, aurkitu daiteke hizkuntza mintzatuari dagokiona—. Euskara BAT egin, dialektoak zeharo gaindituz. Beste gauza bat da dialektoak elkarri hurbiltzea.

c) Klasikoen hizkuntza eta euskara ba(tera)tua

Euskara bateratzea, euskalkiak hurbiltzea baino gehiago da. Euskara idatzia-  
ren kontra, euskara mintzaturia erabili izan da. Baina, euskara bateratua, hizkuntza idatzia da. Bateratua egiteko, idazleen obretara jo behar da. Dialektoak, elkar separatu eta bereiztu egiten gaituzte. Autoreek, elkartu eta bateratu. Bizkaiera, adibidez, bizkaitarren mintzamoldea da. Axular ez da Lapurdiko eskritorea, Euskal Herri osoarena baino.

Euskara bateratzeko, klasikoen bidea ireki behar da. Ez gara hurbilduko, bat egingo baizik. Problema, euskara literarioa sortzea da, ez dialektoak hurbiltzea. Euskara bateratu eta gainera, euskara hizkuntza literario bihurtu. Hegoaldean, duela larogei urte [1890 inguruan] etena klasikoengandik ematen da. Iparraldean, zorionez, gertatu ez zena.

Historian barrena, hizkuntzen bateratzea eta literatura berriaren sortzea elkarturik joan dira. Egun, asko irakurtzen da, sekulako gehien. Baina, eskritore profesionalik ez dago Euskal Herrian. Amateurismoa, arriskua da.

Herria ez da kanpokoekin konforme —nahiz eta problemak antz haundia eduki— bere problemari zehatz erantzungo duen literatura, nobela, saioa, filosofia, erlijio-lanak..., baina gure problemak dituzten berezitasun eta zehaztasun ororekin. Euskal literatura ez da altxatuko, honi erantzuna ematen ez badiogu.

Bi problema:

1. Euskara literarioa egiteko, euskal literatura egin behar eta ez gramatikak eta hiztegiak.
2. Literatura herrikoia izateko, herriak egun dituen problemei ihardetsi behar die.

Euskal Herrian, euskal literaturak izan dituen gorabehera guztietan, mugimendu politiko eta sozial bati elkarturik izan dira. Leizarragak euskara erabili

zuen, euskaldunak kalbinista bihurtzeko. Axular eta Tartasek, Trentoko Kontzilioaren ondoko literatura egin zuten, katolikoak bezala. Euskararen korrante literarioak beti egon dira loturik mugimendu sozialei. Ez zuten nahi euskara filosofia kutsurik zuelako, kalbinismoari garaitu nahi zioten. Lehen aldiz, euskarazko hitz eta orazio mota guztiez baliatzen dira, batez ere, Leizarraga. Eta besteek, ondorengoek, ez dute baztertzen aurrekoek idatzitakoa. Hauek guztiok gainerako eskritore guztiak baino literatura gehiago ekoizten dute, eta hizkuntza mintzatu batek literario egiten dituen problema guztiak soluzionatu.

Geroago, ez dute euskara erabiltzen ideologia eta kultura bat kreatzen, baina euskara bihurtzen dute ideologia eta bere balio ideologikoa baizik ez dute ikusten. Bigarren prozesu hau aldeztu kaltegarri, eta aldeztu onuragarri izan da euskararentzat. Larramendi, Astarloa, Novia Salcedo, Arana Goiri, Orixe, Lizardi eta abar. Eta egungoei esker, euskara, Axularren garaian ez zena, euskaldun guztien nazio-hizkuntza bihurtu da. Baina hegoaldez, denaz bezainbatean, balio politiko honek, bere balio linguistikoa gairatzen du, jan egiten du, eta garai batean mintzatzeko eta eskribitzeko ez deus bihurtzeko arriskuan jarri zuen.

Egungo euskaldunok, nahi edo ez, bi korrante hauen seme-alabak gara. Lehen korrantea, berez, bakarrik ez da gai euskara nazio-hizkuntza bihurtzeko. Froga, gure gurasoek egin zieten kasuan dugu. Abertzale ez zirenek baizik ez zituzten irakurri liburu horiek, zenbait salbuespenez landa, noski. Bigarren korranteaz, bere «txadon», «ludi», «urrutizkin» eta abarrek euskara itotzen zuten, eta literario ez ezik, ia mintzatzeko gauza ez zen bezala utzi zuten. Ez zitzaien axola handirik, gehienei bederen, zeren euskara euskaldunen nortasunaren gakoa baitzen, baina ez euskara erreala, jendea mintzatzeko zena, baina edozein. Egiptokoek bere piramideak bezala edukitzeko baitzen, arrotzei erakusteko.

Gu, bion seme-alabak gara. Aranistak gara egun euskaraz eskribitzen dugun guztiok, hau da, euskara eskribitzea erabakitzen baldin badugu, Unamuno, Julio Urkixo, Pio Barojaren joera arbuatzen dugu eta Aranari jarraitzen. Baina, gure aranismoa ez da hemendik pasatzen, zeren erabaki hori politikoa da, ez du zerikusirik linguistikarekin. Baina, erabakia hartu ondoan, eskribitzen hasten garenean, gure joerak ez du zerikusirik Aranarekin. Egun [1971-1972 inguruan], Euskal Herrian ez dago batere Aranaren hiztegi eta gramatika erabiltzen duenik.

Jakin aldizkariak, «Eboluzioa ala erreboluzioa?» galdetzen duenean, eboluzioa aukeratzen dugu denok, baina gure aurretiko iraultza guztiak arbuaitu behar ditugu, zeren, bestela, iraultza baten korrontean jarraitzen kausitzen gara. Euskarak mende honen [XX. mendea] hasieran iraultza jasan zuelako, Arana eta Azkue gidari zituela. Batak: euskaratik, Larramendi, Astarloa, Novia Salcedo eta abarretik zetorren korronte bati jarraituz, erdal kutsu zituzten hitz guztiak zokoratu zituen. Besteak: korronte berari darraikiola, baina moderatuagoa izanik, hitzekin orobat egiten ez bazen ausartu, orobat egin zuen orazioekin, «alienigentzat kondenatuz».

Guk zer? Iraultza bat bien kontra, azken hogeitaz arnaren purismoaren kontra egin den bezala. Euskaltzaindia orain 20 urte (1950 inguruan) ez baitzen sentitu erantzule Aranak hitzekin egin zuen etendurarekin. Exenpluz, arima ez da gogoia, gehiago da. Hitzekin, kontzeptu berria dela onartzen bada, gauza bera sintaxiaz. Konstrukzio berriak galdatzen duen hizkuntza bat eskribitzeko.

Euskara literarioa ez da sartzen erreka-zuloetako baserrietako hizkuntzekin ez taberna<sup>10</sup>-zuloetakoekin harreman eta konpetentzian, baina frantsesa eta espainolarekin, hau da, gainerako hizkuntza literarioekin. Mokoroaren exenpluen aurrean («Euskaraz, nola esaten da....?»): [Mariok dio] Ez dakit eta bost axola zait. Axola zaidana, eta asko da, hau euskaraz esatea, eta denok aditzeko molde-ra esatea da. Are gehiago, euskararen etorkizuna honen mendean dago: gai bihurtzen baldin badugu hori esateko ez dugu problemarik ukanen, ez badugu gauza egiten, ez badugu esaten, alferrik gabiltza.

Euskaraz nobela bat eskribitzea ez dago kontraesanetan Arrate Balleko (eibartarrentzat Arrate Balle, Nabarniz lekeitarrentzat dena da, hau da, munduaren azken fina) baserritarren euskararekin, zeren zoritxarrez, hau ez da konturatu nobela hori argitaratu denik, baina Euskal Herrian nobelak irakurtzen dituenekin.

Euskara ez dute hizkuntza literario bilakatuko, egungo egoerak irauin dezan<sup>11</sup> nahi dutenak, baina euskaraz zerbait esan nahi dutenek. Historian barrera beti izan da horrela. Gehien aportatu zuena Leizarraga izan zen eta ez zuen erabili

<sup>10</sup> Jat. tafema.

<sup>11</sup> Jat. egungo egoera eutsi dadin.

euskara, hau gal ez zedin, baina euskaldunak kondena eta arbuia ditzaten «Ser-  
veten deabrukeriak». Azkue: moderatuena. Beti bezala erdian. Eskritore zaha-  
rrak kontutan ukan, baina bere obra dialektoen termino multzoetan galtzen de-  
larik; erdaratik datozen hitzak jarri hiztegian, baina galdera-ikurrez (?) beterik.

Nik [Mariok] egin ditudan itzulpenak, liburuagatik egin ditut, ez euskara lan-  
tzeko, ez esperimentuak egiteko. Erdarakadaz josita kausituko dituzte: baina hitz  
bat edo beste aparte, joskera «arrotz» bat erabiltzen dudalako, hitz honek dituen  
bi zentzuez: estrainio eta kanpotarra, alegia. Nire esperientzia ez dadin alfer izan  
besteentzat.

Ene iritziz hedatuegia dago iritzi bat, guti gorabehera baietzten duena gauden  
garai honetan euskaraz egiten ari garen lan oro esperimentu hutsa dela eta ez  
duela baliorik, edo balio handirik bederen, oraino euskara sehaskan dagoela eta  
zenbait kultur alorretan, guztiz ere, zientziazko liburuetan. Horrek iradokirik,  
jende gehiagi ari zaiku oraino euskaraz jorratu ez den eremu berrietan, baina ez  
berek interes bat dutelako alor honetan, baina lehenak izateko nahiz edo euskara  
lantzeko gura soilez. Nik kaltegarri deritzat portaera horri eta gure maila kultu-  
ralaren apaltasunaren salatzaile aparta. Izan ere, portaera horrek ez gaitu harri-  
tu behar gatozen lekua eta maila ezagutuz: euskara abertzaletasunak itorik zegoe-  
na eta nolabait herbaldurik<sup>12</sup> haren baliostasunean kulturaren eta ideologiaren  
tresna izateko, Axular, Leizarraga, Kardaberaz eta, oro har, mende honetako  
hasierako eskritorerik gehienentzat. Eta hor ez dakusat erdiko biderik: edo euska-  
ra hizkuntza xahu garbi bat egin (kanpokoak harritzeko, jakina) edo elkar uler-  
tzeko erabili. (Konkreta dezadan puntu hori: zertaz dugu elkarrekin ulertu behar?  
Sermoiak? Arantzazuko Ama Birginaren kalendrera? Taberna-zuhuetako ezta-  
baidaz? Zakurrak agintzeko: hator! hoa! kalerat! Ala, kulturaren babes eta tres-  
na izateko?). Azken puntu hau, jakina, gainerako beste gauzetarako beti balio  
ukan baitu eta baitu euskarak. Kulturaren babes bezala ukan duen eta duen  
balio hau uste dut anitzek ez duela guztiz klarki eta horretaz aritzea ezin besteko  
deritzat.

Gauden mende honetan, gehiago enplegatu dugu euskaldunok euskara azter-  
tzen, euskal gramatika egiten, euskaraz baliaturik gure eztabaida politikoak argi-

<sup>12</sup> Jat. erbaldurik.

tzeko eta literaturgintzan aritzeko baino. Diodan honen esenplurik argienak Azkue eta Sabino Arana dugu, askorentzat euskararen alorrean maisu eta eredu jarraile direnak oraino.

Zer eskribitu zuen Azkuek euskaraz, zer euskarari buruz? Euskaraz deus guti eta gehiena herriaren ahotik hartu eta berak apainduta. Euskarari buruz? Gehiegi, larregi. Gehiegi, funtsean bere garaiazen seme izanik, euskara aztertzen ari zenean ez zuelako libratzen —gramatikalariek zer dioten «baxtertuz»— jendeak orduan eta historian barrena erabili duen hizkuntza, baizik eta beste inguruko hizkuntzekin zerikusirik ez duten gauzak. Jakina, bereizkuntza horretan ezinbestez erori behar ukan zuen pertsonalkerietan. Ikuspegi subjetoetan, eta erori egin zen.

S. Aranak bestalde, bere garaiko —eta Euskal Herriaren aurreko garaietako seme zela— huts berberak eta handiagoak egin zituen; hain garbitu eta xahutu zuen «euzkera», non ezin baitzen balia berataz, «euzkaldunei» zein zen bere aberria erakusteko, tituluak eta erakundeen slogan eta izenak jartzeko baizen ez zuen balio haren eskutan. Eta hori ezinbestez zen, itzurbiderik<sup>13</sup> gabeko karrikan sartu zuelako bere burua, eta ez garai hartan euskara karrikan jendartearen kausitzen zen egoera eta mailaren kariaz. Orduan egun baino euskaldun gehiago baitzegoen.

Tinta gehiago joan da euskarari buruz eztabaidatzen, euskaraz eskribitzen baino. Gure artean egon diren banaketa eta etendurak historian barrena sakonegiak izan dira eta euskara aspalditik politika-gatazka guztien gai eta alor bilakatu, literaturaren mailan etendura hauek ez jasotzeko.

Baina zuzentzeko garaian gaude, sekula ez da kausitu euskara hain goruntz indartsuan, inoiz ere ez dira historian egon egun bezainbat liburu argitaratu eta, enetzat erabakileena eta inportantena, sekula ez da hain argiki kausitu euskarak zuen balio politikoa, euskaldunen nazio-hizkuntza bezala, zeren 1936ko gerla aitzinean, euskarak politika-kutsua bazuen ere, bazegoen Euskal Herrian popularen sektore bat joera erabat argia ez zuena Euskal Herriari eta, beraz, euskarari buruz, eta euskararen parte bat hartu zuena ez berataz mintzatzeko, baina beroni buruz mintzatzeko. Urkixo, RIEV eta honelako jende modua ari naiz.

<sup>13</sup> Jat. itzurbiderik. Aurreragoetan ere berdin.

Hauen aldean, Sabindarrak, Sabineek berak egin zuten, «garbitu» zuten euskararen defendatzaileek, zeintzuentzat euskarak erdararen antza zuen oroz ukatu behar baitzuen, bai «eliza» eta «mundua» bezalako hitzak, bai eta batez ere, erdararen antza zuten «joskera-tankera» oro.

Talde batak ez besteak ez zuten egin obrarik oraingo eskritoreentzat jarraigari agertzen denik, nahiz eta talde batean idazleak egon, besteak euskara estudio-gai erabiltzen zuten bitartean, espainol, frantses, ingeles, aleman eta are latina (!) ere erabiltzen zuelarik bere estudioetako (hizkuntza hauetan eskribitua baitago RIEV).

Halaz ere, gerla ondoan, dena, euskara osoa politizatzen da. RIEV bezalako aldizkariak ere debekatuak gelditzen dira. Garai honetan ez da hain klarki agertzen «euzkeraren» aldeak. Berdin da «txandon» edo «eliza» esatea. Biak daude guztiz debekatuak. RIEV bezalako gauzak gerizatzen zuten taldeak ezabatu egiten dira, lurrak iraungiak bezala.

Euskal Herriaren etsaiek, Larramendi hiztegia eta gramatika egitera, Astarloa apologia egitera behartu zuten jarraileek, «euskara» bateratu zuten erabat eta behin betirako. Hala ere, bateratze hau politikoa da, eta ez linguistikoa. Orobat daiteke «eliza» edo «txandon» esatea, baina guardia zibil baten aitzinean, ez euskaldun baten aurrean.

Halaz ere, euskararen bateratzea serioski planteatu daitekeen inguramendua eta baldintzak gerturik daude, 1950 aldian prestatzen da lehen aldiz, euskararen bateratzea klasikoak jarraile eta irudiztat harturik egin behar dela. 1960ko hamarkadan, mugimendu politikaria goraka ari denean, «batasuna» euskararen hitz entzutetsua bilakatu da. 1968a da gaurdaino<sup>14</sup> prozesu bi hauen tontorra. «Batasunaren Kutxa» eta orok buruan ditugun gertakariak hilabete beretan jazotzen dira.

Halaz ere, bultzada izugarri honen ondoan arriskutan gaude bat bedera bere euskalkian gelditzeko, duela hamar urte baino hurbilago, baina gipuzkera, bizkaiera eta abar izaten dirauen hizkuntza batean. Eta ez dago itzurbiderik, ezin daiteke pauso gehiagorik eman. Orain urrats egiten dugu, klasikoak izan ziren

<sup>14</sup> Jat. gaurdagino.

*bezala onartzera eramaten gaituen urrats bat, ala behin betirako gelditzen gara egungo egoera honetan, editorial bederak bere buruz dialekto batean eskribitzen duelarik.*

### III. ERANSKINA

#### Hizkuntza eta gizartea

Euskaltzaletasunaren sentimenduak jarrera naturala izan behar zuela uste zuen Mariok, eguneroko euskaldunen gauza, pisu metafisikorik gabea. Horixe izango litzateke komunitate naturala.

Euskararen egoera asko hobetu zela esaten zuen. Lehen ez zegoen batere dirurik eta gero, milioiak... Baina arazoak ere ekarri zizkigula: batasunarenak. Batasuna, zioen Mariok, Arestik eta bere ingurukoek egin zuten. Baina, haiek egin beharrean, apaiz kontserbadoreek egin behar zuketena, eta herri-hizkera gazteek bultzatu. Baina alderantziz izan zen: apaiz nagusiek euskalkietako herri-hizkerak bultzatu, eta gazteek hizkuntza estandar arautua zaindu (eta ez gaztediari gustatu behar litzaiokeena egin, arauak hautsi!). Askok, euskara batu eta gero, dena konpondurik egongo zela uste genuen; baina telebistan entzuten den euskara ondo dagoela euskaltegiatiko ikasleentzat, baina jende askok ez duela ulertzen, esaten zuen Mariok. «Zorioneko» problema da, baina azken finean, arazoa.

Marioren iritzi, euskarak legitimazio soziala berreskuratu du eta hori euskararen kapital handiena da. Lehen ihabla en cristiano! esaten zuten euskara denda batean entzunez gero, eta orain, «Perdona, no sé euskera».

Aukeran onena denek euskara ikastea litzateke, baina hori bakarkako lana da, eta euskaldunen —euskaradunen— eskuetan dago gakoa. «Inzentiboak», pizgarriak, eman behar zaizkio euskarari, baina ez da politizatu behar. HABE eta AEK bultzatu beharrean, dirulaguntzekin batzokietan euskaltegiak zabaltzen ari zirela-eta garai batean kexu zen Mario.

Euskara politika-partidu batzuei lotzea, gerta dakiokkeen gauzarik arriskuetsuena zela esaten zuen. Gogoan dut, autonomia-prozesua hastear zegoela,

autobusean zihoazela, nola komentatu zion gure amari euskararen zabalitzea eta lanetarako eskakizun gisa erabiltzea kontuz egin beharrekoak zirela, inor zapaldu gabe eta gauzak ondo pentsaturik. Jendea euskararen aurka ez jartzeko.

Garrantzitsua da hizkuntza bat maite dela erakustea, baina norberak egin behar du lana, bai idazlearena eta bai irakurlearena. Gauza sinbolikoek —Korrika, Kilometroak...— eragin txikia dute. Euskara «salbatzeko» ekin-tza kolektiboak antolatu egin izan dira. Ez da ulertu nahi, berbeta ikastea norberak egin beharrekoa dela, nork bere gain duen ardura. Halaxe zioen.

Era berean, euskara ikastea norberaren arazoa bada ere, harriturik utzi ninduen 80ko hamarkadaren hasieran-edo esan zidanean, euskara soilik jakitea ez zela nahikoa. Ezen, azkenean, batek euskara baino ez bazekien, Mariok zioan: «Euskara baino ez dakik? Hi, kale-garbitzaile!». Beste zer-bait ere jakin behar zela adierazi nahi zuen. Eta baita euskarazko eskolak emateko ere. Edo, batez ere, filologia, kasurako.

Mariok zioen, jendea euskaldundu egin dela euskara ofiziala delako, ez gizarte-mugimenduengatik. Hauxe esan zuen: «Nafarroako erregina zen Joana Albretekoaren garaian (1555-1571), berak bultzatu zuen Itun Berria Leizarragak euskarara ekartzea. Orduetik hasi eta 1980. urtera arte ez da egon euskararekiko aldeko joerarik. Orduan, euskarak 0 pezeta zituen, eta geroago, 20 urtean, 50.000 milioi pezeta... Eta horrexek eman dio historia-ko bultzadarik inportanteena euskarari. Jende askok eta askok ez daki euskaraz, baina euron zergekin ETB ordaintzeko prest dago. Edo *Egunkaria*».

Gauzak borondatez egin behar dira. Norbait baldin balego euskaraz ikasi nahi duena, bada, munduko laguntza guztia eman beharko litzaioke, baina ez da oreka galdu behar; ez bortxatu edo behartu ezin duzuna. Uste zuen Mariok, kaltegarria zela horrelako polemika kaskarrak sortzea, honi buruz denok dugulako praktika integratzaile eta tolerantia. Beraz, ez dugu tradizio hori apurtu behar, eta politika zientifikoagoa egin behar dugu.

«Ikusi egin behar da zer dagoen egiteko gizartean bertan, instituzio publikoetatik at, euskara gehiago garatzeko. Baina, politikaren ikuspegitik aztertuta, onartu behar da, horrez gain badaudela beste sentsibilitate ba-



tzuk, eta horiek kontuan izan behar direla, jende guztia ados jartzeko. Eta hori ez da inondik inora kontu berria. Uste dut hori dela Euskal Herrian egin den politika mota, nahiz eta jendeak baloratu ez, jendeak nahiago du iskanbilak eta diferentziak nabarmendu», zioen.

Euskara arma politikotzat hartua eta erabilia izan da, eta maiz banakuntza sortzeko. Alderantziz egin beharko genuke: demokrazia zaintzeko erabili.

#### IV. ERANSKINA

##### Hizkuntza-politika

Euskara inoizko egoerarik mesedegarrienean eta onenean zegoela esaten zuen Mariok. Berrogei urteotan hilzoritik aurrerapauso nabarmenak egitera pasatu da.

Uste zuen, abertzaletasunak euskara berpiztea ekarri zuela —batzuen «erradikaltasunak»— eta demokraziak beste bultzada bat eman ziola, formazio politikoan adostasunean oinarrituta. Baina beste alde bat ere kontuan hartzekoa zela zioen, erdaldunen erosotasuna funtsezkoa izan dela. Irakaskuntzan ia protestarik ez zen egon irakasleen euskalduntzea ahalbidetzeko saioan, eta horrek euskara irakaskuntzan arrakastaz sartzea ekarri zuen.

Euskara normalizatzeko, telebista bezain inportantea egunkaria dela zioen Mariok. Literaturari esker mundua sortu egiten da askatasun handiz, baina egunkari batek hizkuntza «bortxatu» egiten du eta alor guztietara hedatu beharra dago.

Hezkuntza-sistemak demokraziaren baloreak garatzeko balio behar du, eta euskararen eta gaztelaniaren kulturetatik, bietatik, hiritarrek parte hartu dezaten ere bai, euren prestakuntzarako.

Euskararen gaia borroka politikoetatik atera egin behar dela, eta arlo zientifiko batean planteatu, uste zuen. «Denok gaude euskararen alde, euskarak izugarritzko garapena izan du hogei urteotan eta ez dugu hori eten nahi, baina arlo zientifikoago batean planteatu behar da», esan zuen. Borroka ez da euskararen eta erdararen artean.

Instituzioetan, euskararen aldeko jarrerak hartu behar ziren. Adibidez, orain dela urte asko aditzera eman zidan, berori izan zela Legebiltzarrean idazleei laguntasuna ematea proposatu zuena. Oso zaila dela idazleek dirurik kobratzea. Argitaletxe-politikak ez dio batere laguntzen idazleari. Kobratzen ez bada, idazteari utzi egin behar diola idazleak. Horregatik, bada, irakaskuntzan, profesio edo lanbide liberaletan ari dira gehienak. Laguntza eman behar zitzaie idazleei esan zidan. Berak proposatu egin zuen Legebiltzarrean hori, lehendabizikoz, aitortu zidanez, eta baita AEKri laguntasun ekonomikoa ematea ere. Geroago, *Euskaldunen Egunkariari* ere, ildo horretatik joanda, dirulaguntzak helaraztea eskatu zuen Mariok.

Behin baino sarriagotan entzun nion Mariori esaten, berarentzat lege garrantzitsuenak Autonomia Estatutua zela, eta gero Euskararen Legea eta Eskola Publikoarena. Hau guztia haren erran batean ikus daiteke: HABEri dirua eman behar bazitzaion, ez zedila izan AEKri kenduta, Guggenheim Museoari baino.

## V. ERANSKINA

### Hizkuntza-politika plana

PSE-EE gobernura indartsu eta sendo helduz gero, Mariok Hezkuntza eta Kultura Sailak, eta Hizkuntza Politikaren Idazkaritza elkartzeko asmoa eta plan zehatza zuen, 1994an prestatua. Uste dut garrantzitsua dela plan hori hona ekartzea, zeren, berez, oso interesgarria baita, eta horren berri inon ere ez da ezagutzera eman, *Argia* aldizkarian izan ezean. Eta, bestalde, Marioren euskaltzaletasuna erakusten duelako, baina ez ikuspegi pertsonal literario-tik, ezpada denon mesederako den orotako ikuspuntutik. Bere politikari izatea euskaltzaletasunari lotua dago, erabat, aldarrikapen horretan.

Haren aburuz, Hezkuntza Sailak koordinazioa egingo luke aipaturiko beste atalekin. Kultura eta Hezkuntza elkartu ondoren, maila bi bereizi egin beharko liriateke: lan zientifikoarena eta administrazioarena.

Unibertsitatean, soziolinguistika sail zientifikoa osatuko litzateke, hizkuntzaren eremu guztietan egoera aztertu eta, gero, hartu beharreko eraba-

kiak eta lanak egiteko. Adituez eta zientifikoez bete egingo litzateke departamentu edo sail hori, eta alderdiekiko erabateko autonomia izango luke.

Horrela, euskararen inguruko eztabaida, politikaren eta ideologiaren esparrutik atera egingo litzateke. Administrazioak sail horrek agindutakoa bete egin beharko luke.

Balitzko soziolinguistika-bulego berri horren betebeharrak honako hauek izango lirateke:

- Hezkuntza-ereduen emaitzak aztertu.
- Administrazioaren euskalduntzearen jarraipena egin.
- Helduen euskalduntzearen eta alfabetatzearen diagnostia egin eta plangintza berriak proposatu.
- Udal elebakarren jarduna eta dinamika ikertu.

Hizkuntza Politikaren Idazkaritza Nagusiaren zeregina zalantzan ipini behar litzateke. Eta, lehenik eta behin, Lehendakaritza Sailetik atera egin.

Behin Unibertsitateko sail berria osatu eta gero, Hezkuntzak ardura zabalagoa izango luke. Hala nola, helduen euskalduntzea eta alfabetatzea Hezkuntza Saileko gauza izango litzateke, PSE-EErentzat. HABE, Kulturatik atera, eta Hezkuntzara joango litzateke. Mariok horixe esan zuen, garai hartako eztabaidak, HABEren eta AEKren artean, puri-purian zeudenean.

EITBren funtzionamendua, Kultura Sailetik aterata, autonomia izango litzateke.

Mariok aipatu zituen beste bi ardatz, hauexek ziren:

- Herri-ekimenak eta administrazioaren arteko elkar ez-ulertzeak, konponbidean ipini beharra zegoela zioen. «Herrigintza» esaten zion. Adibidez, *Egunkariari* publizitate instituzionala jartzearen betoa jaso, eta gero, elkarlan zintzoan, ea *Egunkaria* nola zabal zitekeen ikusi... Betoa jasotzea ezin izan zitekeela esan zuen, presentzia instituzionalaren truke.
- Euskal agente esanguratsuenekin —idazleekin, kasurako— harremanak normalizatu. EAJ-PNVko «apaiz zaharren» eta idazle aurrerakoen artean urteetako banaketa egon izan da, eta EAJ-PNVk ez

zuela, Mariok zioenez, ezer egin hori gainditzeko. Premiazkoena, edozein politika egiteko, aldez aurretik euskal munduarekin eztabaidatzea litzateke.

Laburbilduz, kultura munduko eragileenganako hurbilketa funtzeskoena zen, Marioren iritziz. Lehenengoa, Unibertsitatearen eta idazleen mundura gizarte hurreratu. Gero, herri-ekimenetan elkarrekin egitasmoak egin eta eurok aurrera atera.

Geroxeago, administrazioa euskalduntzea izango litzateke hurrengo pausoa. Eta horretarako, unibertsitateko sail soziolinguistikoak alor hori aztertu eta diagnosa egin beharko luke.

Hainbat erakunderekin harremanak argitu beharko lirateke. Bereziki, Euskaltzaindiarekin eta Eusko Ikaskuntzarekin. Unibertsitate mailako egitura berrian lan-alorrak zehaztu. Eusko Ikaskuntza, eztabaida kultural eta ideologikorako toki aproposa litzateke, eta batetik, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako, eta bestetik, Nafarroako eta EAEko unibertsitateen koordinazio eta topaleku baliagarria ere bai.

Aurkeztutako programa hartan konturik interesgarriena da, instituzio zientifiko bat antolatu beharra proposatu zela, gauzak aztertzeke, euskara ez zedin beti auzipean egon, edo debate ideologikoaren barruan.

Plan erakargarri hori ez zen gauzatu sozialistek hauteskundeak irabazi ez zituztelako, nagusiki. Baina, 1999tik aurrera bizi izan zen giroa, mehatxuekin, bizkartzainekin, politika ahari-topeka bihurtu zenean, eta Marioren osasun-arazoak sortzearekin batera, pott egin zuen Mariok sortutako egitasmo hark. Asmo bikaina, baina sarritan jazo zitzaion bezala, aurreratuegia eta sakonegia gure herri honentzat.



**Liburu aipamenak**

**Reseñas de libros**

**Comptes rendus de livres**

**Book reviews**



# *La Reial Acadèmia de Bones Lletres de Barcelona i l'Institut d'Estudis Catalans davant la normativa de la llengua catalana*

Martí i Castell, Joan

2023. urtean argitaratua, 191 or.

Argitaletxea: Reial Acadèmia de Bones Lletres


ISBN: 978-84-128090-1-5

URRUTIA BADIOLA, Andres M.

Euskaltzaindia

<http://orcid.org/0000-0002-2139-7137>

DOI: <https://doi.org/10.59866/eia.v.69i2.290>



## **Katalan-hizkuntza estandarra, haurgintza-minetan**

Urte luzeetan euskaldunok eredu eta hizpide izan dugu katalan-hizkuntzaren estandarizazioa. Euskararentzat beharrezkoa jotzen genuena, alegia, euskara batu baten peskiza, eginik eta moldaturik agertzen zitzaigun Pirinioetako beste ertzean, katalanaren esparruan.

Hura, alabaina, ez da goizetik gauera eginiko ibilbidea, bide malkartsua eta gorabeheratsua baino. Bihurgune askotan bere burua ikusita, nekeza izan da harentzat estandarizaziorako esparru erkidea eskuratzea.

Esan ohi da estandarizazio horren egile eta bultzatzaile nagusia Pompeu Fabra izan zela eta haren lanabesa Secció Filològica de l'Institut d'Estudis



Catalans (aurrerantzean SF-IEC) delakoa, E. Prat de la Riba sona handiko figurak eratua, Kataluniako Mankomunitatea (1914-1917) garai hartan sortu berriaren arrimuan.

Haren indarrez eta bultzadaz eginiko ortografia, gramatika eta hiztegin-tzaren bitartez, katalan-hizkuntza garaikide eta batuaren zimentarriak egonkortu ziren.

Ibilera horretako hariltze-aldietan kontrakotasunak eta on-gaitzak izan ziren. Horra bada, katalanez idatzitako ekarpen haren muina: *La Reial Acadèmia de Bones Lletres de Barcelona i l'Institut d'Estudis Catalans davant la normativa de la llengua catalana*. Egilea, Joan Martí SFren kidea eta euskaltzain ohorezkoa, eta baita Reial Acadèmia de Bones Lletres de Barcelona (aurrerantzean RABLB) erakundearen kidea ere. Gaia, RABLBren erakundearen jokamoldea katalanaren estandarizazio-prozesuan zehar.

Izatez, RABLB aspaldiko erakunde akademikoa zen, Bartzelonan sortua eta bertan kokatua. Haren eraginez, XIX. mendearen azken laurdenean, 1881. urtean justu, eratu zen Acadèmia de la Llengua Catalana izenekoa (aurrerantzean ALC). Zoritxarrez urte berean eten ziren ALCren ekime-nak, desadostasunak zirela medio.

Artean eta SF-IECren eraginez, 1913. urtean argitaratu zituen horrek *Normes ortogràfiques*, katalan osoarentzat aginduzkoak izateko asmoarekin, Mancomunitatearen bultzadaz. Kontrakotasunak berehala etorri ziren eta horren harira, ALC berpiztu zen 1915. urtean.

Arin eta aisit ibili zen gizartearen barruan ALCren zabalkundea. Martí-ren iritziz, erakunde berrituaren ideologia linguistikoa argi zegoen (31. or.):

[...] la consciència que la llengua espanyola dominava en poder la llengua catalana i, doncs, la necessitat de defensar especialment aquesta i de deixar d'afegir glòries per a la castellana..., una oposició que evidencia el conflicte entre ambdues llengües, en perjudici de la catalana; desmenteix, en conseqüència, la tesi que l'ALC i sobretot la RABLB fos essencialment procatalana lingüísticament.

Areago, ALC erakundeak 1916. urtean kaleratu egin zuen *Regles ortogràfiques* testua eta gero RABLBk argitaratu zuen, ia testu bera, 1924. urtean, Or-

*tografia de la llengua catalana* izenburupean, ortografiaren esparru propioa ezarri nahian. Bitasunean iraun zuten bi erakundeok 1933. urtera arte, orduan erretiratu baitzuten ALCK eta RBALBK euren ortografia eta IECrena onetsi.

Hartara, ibilbide horretan Joan Martík proposatu digun abiapuntua, hainbatez, hauxe da: itxuraz IEC eta RABLB erakundeen arteko talkak izan baziren ere, bitzutan zegoen asmo bera, hau da, katalan-hizkuntza garatzea eta Kataluniaren adierazmolde nazionala bihurtzea, krisi larrian zegoen une hartan, besteak beste, XIX. mende hondarrean eta XX. mende hasieran.

Horrek egileari bidea eman dio garai horretako katalanistika aztertzeko eta Pompeu Fabra eta gainerako adituen arteko adostasunak eta desadostasunak azalarazteko. Martík bertatik bertara zedarriztatu ditu bere egitekoaren mugak. Bateko, Fabraren *Obres completes* erabili duela dio eta beste, RABLBren bibliotekan dauden material ugariak, batez ere, gutunak eta osterantzeko testuak, ikuspegi aberatsa eman diotenak.

Bestalde, hainbat katalan-zale ageri dira orrialdeetan zehar, RABLBko eta IECko partaideak zirenak. Hurrenkera luzean zenbatu dira eta bakoitzak Fabrarekin izan zituen harremanak ikertu dira, batzuetan labur, besteetan luzeago, euretariko bakoitzak duen garrantziaren arabera, aldekoa edo kontrakoa izan arren Fabraren eginahalekiko.

Hor daude Fabraren aldezkariak eta arerioak, Fabraren maisuak (Aguiló, Milá i Fontanals...) eta lehen kolaboratzaileak, gero Fabrarendandik eta IECtik aldendu zirenak. Nolanahi ere, badago baieztapen biribil-biribila, Martíren aldetik datorrena (77. or.):

[...] per a l'elaboració de la codificació de la llengua catalana que esdevingué oficial de l'IEC, Fabra se'inspirà sobretot en un membre de la RBALB, el llegat del qual ell mateix confirmà que feu possible que no errés en l'objectiu que es proposà.

Bistan da Marià Aguiló i Fuster (1825-1897) izan zela RABLBren kide hori.

Egileak, hala ere, ez ditu alboratu oraingo soziolinguistikaren ekarpenak. Arean ere, ezin argiago azpimarratu du ahalegin haiek zeukaten helburu, gizartean eta jendaurrean zabaldu zedin katalanaren erabilera (74-75. or.):

Tot això no obstant, la labor de codificació d'una llengua, per ben feta que estigui, serveix de ben poca cosa si no és aprovada i adoptada pels usuaris. Paradoxalment, en el procés d'extensió social, els suggeriments més savis i argumentats són els que troben més resistència enfront de la tendència tàctica de posicions populistes, que obtenen seguidor més fàcilment. Així, abans que Fabra i que l'IEC, Aguiló i Milà i Fontanals hagueren de saber entomat, d'encaixar l'animadversió de molts escriptors. Tingueren poc seguiment, com inicialment també li costà a Fabra de tenir-ne; ningú no volia reconèixer mestres. Però, a la fi, Aguiló i Milà i Fontanals, primer, i, més tard, Fabra, aquest amb el suport decidit i decisiu públic i sociopolític d'Enric Prat de la Riba, realitzaren l'empresa que contribuí extraordinàriament i definitivament en la codificació del català acceptada per tothom.

Fabrak arretaz aztertu zituen RABL Bren egiteko moldeak eta proposamenak. Horretara dator, etorri ere, liburuaren bigarren zatia, bertan ikeretzen baita zertan desberdintzen diren bi sistemak, ortografia, fonetika, morfologia edota lexikoan. Bestalde ere, egilearen aburuz (124-125. or):

Crec que ha quedat suficientment demostrat en el que he exposat fins aquí que entre els partidaris d'una proposta i els d'una altra diferente hi havia més harmonia que hom no podia imaginar al llarg de tota la història de la confecció de la preceptiva.

Liburuaren edukia irudi ugarirekin horniturik dator, protagonista zein materialei begira, eta esan daiteke egileak, arlo akademikoaren kide izanik ere, bilatu duela (eta aurkitu ere bai) halako oreka, liburu irakurlearen interesa pizteko eta ontzeko, ondorioetan murgiltzen denean, batik bat. Edu berean dator, Martíren eskutik, katalan-hizkuntzaren estandarizazioari buruzko bibliografia zabala, ikuspegi orokorra eskaintzeko asmoz. Gainera, eranskin gisa, hortxe dauka irakurleak RABL Bk 1924. urtean paraturiko *Ortografia de la llengua catalanaren* faksimilea, azaldutakoaren lekuko sendoa dena.

Hitz batez esateko, ekarpen esanguratsua eta argigarria, hizkuntzaren estandarizazioaren ikuspegitik, historiaren irakaspen ezin ukatuzko batekin, hots: hobe da hizkuntza-kontuetako prozesuetan, prozesu sozialak diren neurrian, arinetan baino, tentu handiz eta pausoz pauso jokatzea.

# *Euskera Ikerketa Aldizkariaren idazketa arauak*

Normas de redacción de la revista *Euskera Ikerketa Aldizkaria*

Règles de rédaction de la revue *Euskera Ikerketa Aldizkaria*

Guidelines for contributors to the journal *Euskera Ikerketa Aldizkaria*



## ***Euskera Ikerketa Aldizkariaren idazketa arauak***

Hauek dira *Euskera Ikerketa Aldizkariaren* oinarrizko idazketa arauak. Aldizkarira aurkezten diren lanek araubide hori bete beharko dute. Hala-ber, malgutasuna eskaini eta arautuak ez dauden xehetasunak bideratzeko, Humanitateetako Chicago estiloak finkatzen dituen arauak onartuko dira (<https://www.chicagomanualofstyle.org/home.html>).

*Euskera Ikerketa Aldizkariaren* helburua ikerketa-lan originalak diren artikuluko akademiko eta zientifikoak argitaratzea da.

Eskuizkribu bat ebaluaziorako igorri aurretik, bermatu egin behar da haren edukiak aldizkariaren jakintza-esparruetara egokitzen direla.

**Eskuizkribu motak.** Egileentzako orientabide modura, *Euskera Ikerketa Aldizkariak* bere jakintza-esparruetako eskuizkribu mota hauek onartzen ditu:

1. Artikuluak: ikerketa-lan originalak, jite teoriko zein enpirikodunak, garapen tekniko eta analitiko egokia dutenak, eta alorreko aldizkari zientifikoek erabiltzen duten ohiko formatua izatea.
2. Ikerketa artikuluei eskatzen zaien hedadura, garapen teoriko eta zehaztasun analitikoa izan gabe, labur-labur, aurkikuntza esanguratsuak, ekarpen berriak eta orain arteko literatura zientifikoaren interpretazioak egiten dituzten azterketak eta ikerketa-oharrak.
3. Dokumentuak eta txostenak: aldizkariaren ikerketa-esparruan egin diren dokumentazio eta material-ekarpenen behaketa- eta azterketa-lanak.
4. Liburuaren iruzkinak: aldizkariaren jakintza-esparruan, interes akademikoa duten argitalpen berriak aztertzen dituzten saiakera izaerako lanak.

**Hizkuntzak.** Artikuluak, oharrak, txostenak eta iruzkinak Euskal Herriko mundu akademikoan erabiltzen diren hizkuntzatan argitaratuko dira. Beren-beregi euskaraz argitaratzea sustatuko da, baina ingelesez, gaztelaniaz eta frantsesez idatzitako lanak ere lekua izango dute. Horietatik kanpo bes-

te hizkuntzaren batean idatzitako artikulua iritsiko balitz, Idazketa Batzordeak luke onartu ala ez.

**Lanak igortzea.** Eskuizkribuak aldizkariaren webgunea erabiliz helarazi behar dira. Lehenbizi erregistratzeko urratsak bete behar dira, eta ondoren, fitxategiak *Euskera Ikerketa Aldizkari*ra igortzeko jarraibideak bete behar dira. Eskuizkribuarekin batera aurkezpen gutun bat erantsi behar da, eta hor artikulua tipologiaren berri emateaz gain, hura aintzat hartzeko eta aztertzeko eskaria egingo da. Gutun horretan, egileak lauzpabost lerrotan lanaren ekarpena ere azalduko du. Halaber, lana beste aldizkari batzuetara igorri ez izanaren adierazpena egingo du, eta egile eskubideak lagako dizkio aldizkariaren editore den Euskaltzaindiari.

**Lanen aurkezpenak.** Eskuizkribuak igortzean, egilea esaten ari da aldizkariaren lanak aurkezteko prozedurak ezagutzen eta onartzen dituela eta, halaber, *Euskera Ikerketa Aldizkari*aren argitalpen prozedura onartzen duela.

Igorritako artikulua behin betikoak izango dira, behar bezala idatziak, akats linguistikorik eta mekanografikorik gabeak. Horretarako, komeni da nork bere ordenagailuan zuzentzaile ortografikoa instalaturik izatea eta hura aplikatzea artikulua Euskaltzaindira bidali baino lehenago.

Artikulua hasieran, egilearen/egileen kidetza (unibertsitatea, ikergunea, erakundea, etab.) eta helbide elektronikoa ezarriko dira.

Testua idazteko 1,5 lerroartekoa erabiliko da, eta zein-nahi argitasun edo zuzenketatarako, orrialdearen albo bietan, 1,5 cm-ko koskarekin idatzirik aurkeztuko dira lanak. Orrialdeak eta oin-oharrak segidako zerrendan zentratuko dira.

Testu-gorputza 12 puntukoa izango da.

Esparru akademikoan ohikoak diren letra tipoak onartuko dira (Arial, Times New Roman, Calibri...). Artikulua atal eta azpiatal guztiak zenbaki arabiarretan eta hierarkikoki zenbakituko dira: 1., 1.1, 1.1.1, 1.2, 1.2.1, 2., etab.

Beste hizkuntza bateko hitz solteak letra etzanez idatziko dira. Halaber, letra etzanez idatziko dira liburuen izenburuak eta aldizkariaren izenak.

Artikuluak, zuriuneak aparte, ez dute 30.000 karaktere baino gutxiago eta 60.000 baino gehiago izango (tauletako testuak barne). Liburu aipamenek, hemen ere zuriuneak aparte, ez dute 6.000 karaktere baino gutxiago eta 10.000 baino gehiago izango.

Originalak (bi kopia, horietarik bat anonimoa) nahitaez euskarri elektronikoa (DOC(X), ODT edo RTF formatuetan) eta aldizkariko webguneko plataformaren bidez helaraziko dira. PDF bertsioa ere bidali behar da.

Taulak eta irudiak. Lerro eta zutabeetan ematen den informazioa TAULA izenarekin izendatu behar da. Argazkiak eta grafikoak IRUDIA izenarekin izendatu behar dira. TAULAK eta IRUDIAK ordena kronologikoaren arabera zerrendatu behar dira, taulak alde batetik eta irudiak bestetik. Bietan iturria adierazi behar da. Taulak eta irudiak deskribatzeko oinak 10eko letra-gorputzarekin idatziko dira, esandako horien aurretik.

Orokorrean, material grafikoa, mapak, laminak, argazkiak eta abar 1300 pixeleko gutxieneko zabalera tamaina izango dute eta 300 dpi-ko bereizmena. Irudiak eta taulak, eskuizkributik aparte, beste fitxategi batean txertatuta igorri behar dira. Irudi kopuruaren ondorioz, artikulua luzerak araututako muga gainditzen badu, aldizkariaren Idazketa Batzordeak erabakiko du argitaratu ala ez.

## **Eskuizkribuaren formatua**

### **Lehen orrialdea**

Artikuluaren izenburua lau hizkuntzatan (euskara, gaztelania, frantsesa, ingelesa).

Egilearen izen osoa. Beheko lerroan, egilearen kategoria profesionala eta zein erakunderi atxikia dagoen. Lehenbizi erakunde nagusia eta jarraian, balego, erakunde nagusitik eratorritakoak. Halaber, helbide elektronikoa eta egile bat baino gehiago bada, nor izango den gutuneriaren jasotzailea.

Jarraian, lanaren laburpena aurkeztuko da. Ikerketa-artikuluarekin batera, haren laburpena (gehienez ere 500 karaktere) eta gako-hitzak (gehienez



ere sei) emango dira. Laburpenak eta gako-hitzak euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez idatziak izan behar dira. Esan gabe doa artikulua hirugarren hizkuntza batean idatzia badago, hizkuntza horretan ere aurkeztu behar direla aipatutako gako-hitzak eta laburpena. Gomendatzen da laburpenak argi adieraztea zein diren ikerketaren helburuak, metodologia eta erabilitako dokumentazio-iturriak, eta, jakina, zein diren aurkikuntza edo ondorio nagusiak.

### **Bigarren orrialdea**

Ikerketa-artikulua, oharra, txostena edo liburu-aipamena aurkezten da. Aintzat hartu behar da arestian zehaztu diren baldintzak bete behar dituela.

### **Oin-oharrak, aipuak eta erreferentzia bibliografikoak**

Aipu laburrak. Lau lerro baino laburragoak direnak testuan bertan jasoko dira eta testu-gorputzaren tamaina bera izango dute. Komatxoaren eredia hierarkia honen arabera izango da: «xxxx “xxx ‘xxx’ xxx” xxx». Azkenik, aipuaren amaierako puntua erreferentziaren ondoren ipiniko da: “[...] jarraitzen zuen Zaldibiak” (Intxausti 1999).

Aipu luzeak. Aparteko pasartean idatziko dira, letra tamaina 10,5 puntuko izango da eta testu arruntetik bereizteko, ezkerretik eta eskuinetik 1,5 cm-ko koska utzi behar da. Halaber, aipuaren aurretik eta ondoren, tarteko lerro zuri bat utziko da. Kasu honetan, amaierako puntua erreferentziaren aurretik jarriko da: [...] jarraitzen zuen Zaldibiak. (Intxausti 1999). Aipuko lehen lerroak ez du ondokoak baino barrurago egon behar.

Aipuaren barruko paragrafo artean lerro zuririk ezin da sartu.

Idatzi gabe geratzen den esaldia edo esaldi zatia kako zuzen edo parentesi karratu artean eta hiru etenpuntu jarrita adieraziko da: [...].

Aipaturiko erreferentzia guztiak, ahalaz, testu barnean txertatuko dira, artikulua iren bukaeran erantsi ohi den bibliografiarekin lotuz, eta Egilea Urtea sisteman oinarrituta, honela: (Larramendi 1729), (Mitxelena 1961: 123).

Egile bakarra denean, deitura eta urtearen artean ez da komarik jarriko: (Villasante 1961).

Bi egile direnean, bi deiturak puntu eta koma bidez bereiziko dira: (Furet; Ozouf 1977). Hainbat libururi erreferentzia egiten zaienean, argitasuna helburu, bestelako formula batzuk erabili ahal izango dira: (Deumert eta Vandebussche 2003; Coupland, Kristiansen & Deumert 2011).

Egileak hiru baino gehiago direnean, lehena eta *et al.* edo “eta beste” jarriko da. Bukaeran, erreferentzia guztiak zerrendatzen direnean, egile guztiak agertu behar dira.

Egilerik ez denean obra bera aipatuko da, eta izenburua luzea bada, eten-puntuak erabiliko dira: (Registro... 1829: 133).

Erreferentzia bibliografiko osoak artikulua iren bukaeran zerrendatuko dira, oinarritzko eredu honen arabera:

AZKUE, Resurreccion Maria (1896). *Proyecto de ortografía: sometido á la censura de los que se dedican á cultivar el euskera*. Bilbao: Müller y Zavaleta.

LAFON, René (1975). «Indices personnels n’exprimant rien de déterminé dans les verbes basques», in *Mélanges linguistiques offerts à Emile Benveniste*. Paris: Société de linguistique de Paris: 331-337.

LARRAMENDI, Manuel (1729). *El imposible vencido: arte de la lengua bascongada*. Salamanca: Antonio Joseph Villargordo Alcaráz.

MITXELENA, Koldo (1959). «Euskal-itzak zein diren», *Euskera* 4 (1959): 206-214.

MITXELENA, Koldo, SARASOLA, Ibon (1990). *Textos arcaicos vascos. Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia eta UPV/EHU.

URKIXO, Julio (1967). «De paremiologia vasca: Oihenart conoció los “Refranes y sentencias” en vascuence de 1596», *ASJU* I (1967): 3-44.

ZUBIMENDI, Joxe Ramon, ESNAL, Pello (1993). *Idazkera liburua*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Dokumentua modu elektronikoan soilik eskura daitekeenean, honela aurkeztuko da:

Egilearen deitura, Egilearen izena (argitalpen urtea). «Artikuluaren izenburua», *Argitalpenaren izenburua*, zenbakia: or-or. <http://www.xxxxxxxx>. helbidetik eskuratua. (Kontsulta data ere jarri behar da).

WALIÑO, Josu (2016). «Euskara eta Internet: Zortzigarren lurralde konkistatzen», *Euskera* 61, 1: 42-44.  
Eskuragarri: <http://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/80887.pdf> (2018ko ekainaren 4an kontsultatua)

Dokumentuak beste euskarri batzuetan argitaratu direnean (CD-ROM, DVD), irizpide berak erabiliko dira, baina amaieran euskarria zein den adieraziko da kako zuzenen edo parentesi karratuen artean [...].

Egileak artikuluaren bibliografia oinarrizko eredu horren arabera antolatu du. Kasuan-kasuan izan daitezkeen zehaztapenak edota berezitasunak argitaratzaile-arduradunarekin batera konpondu behar ditu.

## Normas de redacción de la revista *Euskera Ikerketa Aldizkaria*

Estas son las normas de redacción básicas de la revista *Euskera Ikerketa Aldizkaria*. Los trabajos que se presenten a esta revista deberán cumplir dicha normativa. Para ofrecer una mayor flexibilidad y ayudar en aspectos que no estén lo suficientemente detallados, se tendrán en cuenta las normas que dicta el estilo Chicago para Humanidades. Los artículos adoptarán y utilizarán las reglas establecidas por el Chicago Style for Publication in the Humanities (Chicago Manual of Style. <https://www.chicagomanualofstyle.org/home.html>).

*Euskera Ikerketa Aldizkaria* tiene por objeto la publicación de artículos académicos y científicos que sean trabajos originales de investigación.

Antes de enviar un manuscrito para su evaluación, le rogamos que verifique que su contenido se ajusta a los ámbitos temáticos de la revista.

**Tipo de manuscritos.** Como orientación para los autores, *Euskera Ikerketa Aldizkaria* acepta para su consideración, dentro de sus ámbitos de estudio, estos tipos de trabajos:

1. Artículos: deberán ser trabajos de investigación originales, de carácter teórico o empírico, con un adecuado desarrollo teórico o analítico y tener el formato habitual de las revistas científicas especializadas.
2. Estudios y Notas de Investigación: deberán informar brevemente de hallazgos singulares, nuevas aportaciones, replicación de hallazgos o añadidos a la literatura científica que justifiquen su publicación sin la extensión y desarrollo teóricos o el detalle analítico requerido a los artículos.
3. Documentos e informes. Deberán presentar trabajos en los que se realice una exploración y análisis de aportaciones documentales sobre las materias y temas tratados por la revista.
4. Crítica de libros: serán trabajos ensayísticos que analicen novedades editoriales de interés académico y científico en el ámbito de la lengua vasca.

**Lenguas.** Los artículos originales de investigación, las notas, los documentos e informes y las críticas de libros se publicarán en cualquier idioma utilizado en el mundo académico del País Vasco. Se priorizará la publicación en euskera, pero tendrán cabida a su vez, los trabajos escritos en inglés, castellano o francés. Si llegase un trabajo escrito en una lengua diferente a las citadas, sería el Consejo de Redacción el que decidiera publicarlo o no.

**Envío de trabajos.** Los manuscritos deben ser remitidos utilizando la página web de la revista, registrándose y siguiendo las instrucciones para remitir ficheros a *Euskera Ikerketa Aldizkaria*. El manuscrito se acompañará de una carta de presentación pidiendo la consideración del manuscrito y una orientación sobre su tipología. En esta carta el autor explicará en 4-5 líneas cuál es la aportación del trabajo que presenta y la declaración de no envío simultáneo a otras revistas. Así mismo, en esta carta figurará la cesión de derechos al editor.

**Presentación de trabajos.** El envío de manuscritos presupone, por parte de los autores, el conocimiento y aceptación de estas instrucciones, así como de las normas del proceso editorial de *Euskera Ikerketa Aldizkaria*. Los artículos enviados serán definitivos, debidamente redactados, libres de errores lingüísticos y tipográficos. Para ello, es recomendable tener instalado un corrector ortográfico en el ordenador y aplicarlo antes de enviar los artículos a Euskaltzaindia.

Para la redacción del texto se utilizará interlineado de 1,5 líneas, y para cualquier aclaración o corrección, los trabajos se escribirán con sangría de 1,5 cm a ambos lados de la página. Las páginas y notas al pie se contarán cronológicamente. El cuerpo del texto será de 12 puntos. Se aceptarán tipografías típicas en el ámbito académico (Arial, Times New Roman, Calibri...).

Todos los apartados y subapartados del artículo se numerarán en números arábigos y jerárquicamente: 1., 1.1, 1.1.1, 1.2, 1.2.1, 2., etc.

Las palabras sueltas en otra lengua se escribirán en cursiva. Los títulos de libros y revistas también se escribirán en cursiva.

En general, la longitud de los artículos, sin contar los espacios, no debe ser menor de 30.000 caracteres ni mayor de 60.000 (incluidos los textos de

las tablas). Las críticas de libros, igualmente, sin contar los espacios, tendrán no menos de 6.000 caracteres ni más de 10.000.

Los originales (2 copias, una anonimizada) serán enviados mediante la plataforma en formato electrónico (formatos DOC (X), ODT o RTF). Una de las copias se debe enviar en formato PDF.

La información proporcionada en filas y columnas debe llamarse TABLA. Las fotografías y gráficos deben llamarse IMAGEN. Las TABLAS y las IMÁGENES deben enumerarse cronológicamente, las tablas por un lado y las imágenes por otro. Ambas deben indicar la fuente.

Los subtítulos para los pies de foto y las imágenes deben escribirse en cuerpo 10 y colocarse encima de las tablas e imágenes.

En general, el material gráfico, mapas, láminas, fotografías, será de un tamaño mínimo de 1300 píxeles de ancho y 300 ppp, con la mayor calidad posible. Las figuras, cuadros o imágenes deberán enviarse en un archivo aparte del trabajo, no incluidas en el texto. En el caso de que la extensión resultante de los trabajos por causa de las ilustraciones sea mayor, el Consejo de Redacción decidirá si es pertinente su publicación.

## **Formato del manuscrito**

### **Primera página**

Título del trabajo en euskera (además en castellano, francés e inglés).

Nombre completo del autor y la categoría profesional con indicación debajo de cada autor, de la institución, universidad o centro de investigación donde ejerce su actividad (primero la institución general, seguido de la institución o instituciones subordinadas), dirección postal completa y dirección de correo electrónico. En caso de varios autores se indicará el responsable de correspondencia.

Después se proporcionará un resumen (máximo de 500 caracteres) y palabras clave (máximo de seis). Los resúmenes y las palabras clave deben

estar escritos en euskera, castellano, francés e inglés (Abstract y Keywords). No hace falta decir, que si el artículo está escrito en una tercera lengua, las palabras clave y el resumen también deben enviarse en dicha lengua. Se recomienda que el resumen exponga con claridad la finalidad del estudio o investigación (objetivos); los procedimientos básicos y/o fuentes documentales utilizadas (métodos); los principales hallazgos encontrados (resultados), y las conclusiones más relevantes, así como resaltar los aspectos nuevos e importantes del estudio.

### **Segunda página**

Será la de arranque del texto del manuscrito propuesto que, en todo caso, habrá de atenerse a las ya citadas características generales.

### **Notas, citas y referencias bibliográficas**

Citas breves. Las de menos de cuatro líneas se incluirán en el texto y tendrán el mismo tamaño que el cuerpo del texto. Las comillas dependerán de la siguiente jerarquía: «xxxx “xxx ‘xxx’ xxx” xxx». Finalmente, el punto final de la cita se colocará después de la referencia: “[...] Zaldibia continuó” (Intxausti 1999).

Citas largas. Se escribirán en un pasaje aparte, con un tamaño de letra de 10,5 puntos y sangría de 1,5 cm a izquierda y derecha. Además, antes y después de la cita, se dejará una línea blanca intermedia. En este caso, el punto final se colocará antes de la referencia: [...] Zaldibia continuó. (Intxausti 1999) La primera línea de la cita no debe ser más profunda que la siguiente.

No se pueden insertar líneas blancas entre los párrafos de la cita.

La oración no escrita o parte de la oración se indicará entre corchetes y con tres puntos de corte: [...] Todas las referencias citadas deben, si es posible, incluirse en el texto, vinculándolas a la bibliografía que suele adjun-

tarse al final del artículo, y utilizando el sistema Autor Año, como sigue: (Larramendi 1729), (Mitxelena 1961: 123).

Cuando hay un solo autor, no se coloca coma entre el nombre y el año: (Villasante 1961). Cuando son dos autores, los dos nombres se separan por punto y coma: (Furet; Ozouf 1977). Cuando se haga referencia a varios libros o artículos, si se considera necesario, se podrán utilizar otras fórmulas (Deumert y Vandenbussche 2003; Coupland, Kristiansen y Deumert 2011).

Cuando los autores son más de tres, deben aparecer el primero y luego *et al.* o y otros. Al final, cuando se enumeran todas las referencias, deben aparecer todos los autores.

Cuando no haya autor, se mencionará la obra en sí, y si el título es largo, se utilizarán puntos de corte: (Registro... 1829: 133).

Las referencias citadas se darán completas al final del artículo, ordenadas alfabéticamente, de acuerdo con este modelo básico:

AZKUE, Resurrección María (1896). *Proyecto ortográfico: sujeto a censura por parte de quienes cultivan el euskera*. Bilbao: Muller y Zavaleta.

LAFON, René (1975). «Indices personnels n'exprimant rien de déterminé dans les verbes basques», en *Mélanges linguistiques offerts à Emile Benveniste*. París: Sociedad de Lingüística de París: 331-337.

LARRAMENDI, Manuel (1729). *Lo imposible vencido: el arte del euskera*. Salamanca: Antonio Joseph Villargordo Alcaráz.

MITXELENA, Koldo (1959). «Euskal-itzak zein diren», *Euskera* 4 (1959): 206-214.

MITXELENA, Koldo, SARASOLA, Ibón (1990). *Textos arcaicos vascos. Contribución al estudio y edición de textos vascos antiguos*. San Sebastián: Diputación Foral de Gipuzkoa y UPV/EHU.

URKIXO, Julio (1967). «Sobre la paremiología vasca: Oihenart conocía los "Refranes y sentencias en euskera" de 1596», *ASJU I* (1967): 3-44.

ZUBIMENDI, Joxe Ramón, ESNAL, Pello (1993). *Idazkera liburua*. Gasteiz: Servicio General de Publicaciones del Gobierno Vasco.



Cuando el documento sólo esté disponible en formato electrónico, se presentará de la siguiente manera:

Nombre del autor (año de publicación). Título del artículo. Título de la publicación, xx: p-p. <http://www.xxxxxxxx>. Recuperado de. (También se debe incluir la fecha de consulta).

WALIÑO, Josu (2016). «Euskara eta Internet. Zortzigarren lurraldea konkistatzen», *Euskera* 61, 1: 42-44.  
Disponible: <http://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/80887.pdf> (Consultado el 4 de junio de 2018).

Cuando los documentos se publiquen en otro soporte (CD-ROM, DVD), se seguirá el mismo criterio, pero al final se indicará el soporte entre corchetes [...].

El autor organizará la bibliografía del artículo de acuerdo con este modelo básico. Podrá consultar con la persona a cargo de la editorial para resolver cualquier problema específico o particular.

## Règles de rédaction de la revue *Euskera Ikerketa Aldizkaria*

Voici les règles de base de rédaction de la revue *Euskera Ikerketa Aldizkaria*. Les travaux présentés à la revue devront respecter ces règles. Pour offrir une plus grande flexibilité et apporter une assistance sur des aspects qui ne seraient pas suffisamment détaillés, on tiendra compte des règles édictées par le Chicago Style for Publication in the Humanities (<https://www.chicagomanualofstyle.org/home.html>).

L'objet de la revue *Euskera Ikerketa Aldizkaria* est la publication d'articles universitaires et scientifiques issus de travaux de recherche originaux. Voici les principaux domaines dont traitera la revue :

Avant d'envoyer un manuscrit pour qu'il soit évalué, nous vous demandons de bien vouloir vérifier que son contenu corresponde aux domaines d'étude proposés.

**Type de manuscrits.** Pour orienter les auteurs, sachez que *Euskera Ikerketa Aldizkaria*, parmi ses domaines d'étude, accepte d'examiner ce type de travaux :

1. Articles : il devra s'agir de travaux de recherche originaux ayant un caractère théorique ou empirique, avec un développement théorique ou analytique adéquat, et ayant le format habituel des revues scientifiques spécialisées.
2. Etudes et notes de recherche : elles devront faire état brièvement de découvertes singulières, de nouvelles contributions, d'interprétation de découvertes ou d'ajouts à la littérature scientifique qui justifient leur publication sans l'extension et le développement théoriques ou les détails analytiques requis pour ces articles.
3. Documents et rapports : ils devront présenter des travaux de recherche et d'analyse des contributions documentaires dans l'un des domaines de recherche dont traite la revue.
4. Critique de livres : il s'agira d'essais analysant les nouveautés éditoriales à caractère universitaire dans l'un des domaines de recherche dont traite la revue.

**Langues.** Les articles de recherche originaux, les notes, les documents et rapports et les critiques de livres seront publiés dans l'une des langues utilisées dans le milieu universitaire du Pays Basque. La priorité sera donnée à la langue basque mais auront également leur place les travaux rédigés en anglais, en espagnol ou en français. Si un article est présenté dans une langue autre que les langues citées, c'est le comité de rédaction qui décidera de le publier ou pas.

**Envoi des travaux.** Les manuscrits devront être remis en utilisant la page web de la revue, ils devront être enregistrés et suivre les instructions de téléchargement des fichiers sur *Euskera Ikerketa Aldizkaria*. Le manuscrit sera accompagné d'une lettre de présentation demandant l'examen du manuscrit et une information quant à sa typologie. Dans cette lettre l'auteur devra expliquer en quatre ou cinq lignes de quelle nature est sa contribution ainsi qu'une déclaration stipulant qu'elle n'a pas été présentée simultanément à d'autres revues. La lettre contiendra aussi la cession des droits à Euskaltzaindia.

**Présentation des travaux.** L'envoi des manuscrits suppose de la part des auteurs la connaissance et l'acceptation de ces instructions ainsi que des règles de procédure éditoriale de *Euskera Ikerketa Aldizkaria*. Les articles envoyés seront définitifs, rédigés comme il se doit, exempt d'erreurs linguistiques et typographiques. Il est pour cela recommandé d'installer sur l'ordinateur un correcteur orthographique et de vérifier le texte avant d'envoyer les articles.

Au début de l'article il convient de préciser l'appartenance de l'auteur ou des auteurs (université, centre de recherche, institution,...) ainsi que les adresses électroniques.

Pour la rédaction du texte on utilisera l'interligne 1,5 et pour tout type d'éclaircissement ou de correction les travaux seront présentés avec un alinéa de 1,5 cm des deux côtés de la page. Les pages et les notes figureront en pied de page par ordre chronologique.

Pour le corps du texte on utilisera une taille de caractère de 12 points.

Seront acceptées les polices habituellement utilisées dans le milieu universitaire (Arial, Times New Roman, Calibri,...). Tous les paragraphes et

sous-paragraphes de l'article seront numérotés en chiffres arabes et de manière hiérarchique : 1., 1.1, 1.1.1, 1.2, 1.2.1, 2., etc.

Les mots isolés en langue étrangère s'écriront en italique. Les titres de livres et de revues s'écriront également en italique.

De manière générale, les articles, sans compter les espaces, devront compter au moins 30 000 caractères et au plus 60 000 caractères (y compris les textes des tableaux). De la même façon, les comptes rendus de livres, sans compter les espaces, devront compter entre 6 000 et 10 000 caractères.

Les originaux (2 copies, dont une anonymisée) seront envoyés sur la plateforme du site web de la revue sous leur forme électronique (formats DOC (X), ODT ou RTF). Une version PDF du document devra également être envoyée.

Tableaux et images. L'information présentée sous forme de lignes et de colonnes doit être nommée TABLEAU. Les photos et les graphiques doivent être nommés IMAGE. Les TABLEAUX et les IMAGES doivent être classés de façon chronologique, les tableaux d'un côté et les images de l'autre. Ils doivent tous les deux indiquer quelle est leur source. Les légendes de photos et d'images doivent avoir une taille de police de 10 et figurer au-dessus des tableaux et des images.

De manière générale, le matériel graphique, les cartes, les gravures, les photos devront avoir une résolution minimale de 1300 pixels et 300 ppp. Les images et les tableaux seront envoyés dans un fichier à part. Dans le cas où les travaux dépasseraient la longueur maximale fixée à cause du volume des images, le comité de rédaction décidera si leur publication est pertinente.

## **Format du manuscrit**

### **Première page**

Titre du document en quatre langues (basque, espagnol, français et anglais).

Nom complet de l'auteur. Ligne suivante, sa catégorie professionnelle et nom de l'institution, de l'université ou du centre de recherche où il exerce son activité. Tout d'abord l'institution générale, puis la ou les branches de l'institution concernée. L'adresse électronique et, dans le cas d'auteurs multiples, sera indiqué le nom du destinataire du courrier.

On fournira ensuite un résumé (avec un maximum de 500 caractères) et des mots-clés (6 au maximum). Les résumés et les mots-clés doivent être écrits en basque, en espagnol, en français et en anglais. Il va sans dire que si l'article est écrit dans une troisième langue, les mots-clés et le résumé doivent être écrits dans cette même langue. Il est recommandé d'exposer clairement dans le résumé la finalité de la recherche, la méthodologie, les sources documentaires utilisées et enfin quelles sont les principales découvertes et les conclusions les plus significatives.

### **Seconde page**

Elle présente l'article de recherche, les notes, le rapport ou la référence du livre. Il ne faut pas perdre de vue le fait que le texte doit répondre aux exigences précisées plus haut.

### **Pieds de page, citations et références bibliographiques**

Citations courtes. Celles qui ont moins de quatre lignes seront insérées dans le texte et auront la même taille de police que le corps du texte. Les guillemets respecteront la hiérarchie suivante : « xxxx "xxx 'xxx' xxx" xxx ». Enfin, le point final de la citation sera placé après la référence : "[...] continuait ainsi Zaldibia" (Intxausti 1999)."

Citations longues. Elles figureront dans un passage à part et auront une taille de police de 10,5 points et un alinéa de 1,5 cm à gauche et à droite par rapport au reste du texte. De plus, avant et après la citation on laissera une ligne vide. Dans ce cas le point final sera placé avant la référence : [...] continuait ainsi Zaldibia. (Intxausti 1999). La première ligne de la citation ne doit pas avoir de retrait par rapport à la suivante.

On ne doit pas insérer de ligne vide entre les paragraphes de la citation.

La phrase non écrite ou la partie de phrase sera indiquée entre crochets et avec trois points de suspension : [...].

Toutes les références citées doivent si possible être insérées dans le texte et reliées à la bibliographie qui est habituellement ajoutée à la fin de l'article, en utilisant le système Auteur Année ci-après : (Larramendi 1729), (Mitzelena 1961: 123).

Lorsqu'il n'y a qu'un auteur, on ne met pas de virgule entre le nom et l'année : (Villasante 1961).

Lorsqu'il y a deux auteurs, les deux noms sont séparés par un point-virgule : (Furet ; Ozouf 1977). Lorsqu'il est fait référence à plusieurs livres ou articles et si on l'estime nécessaire, on pourra utiliser d'autres formules (Deumert et Vandebussche 2003 ; Coupland, Kristiansen et Deumert 2011).

Lorsqu'il y a plus de trois auteurs, il convient de citer le premier et ensuite la formule *et al.* ou et autres. Enfin, lorsque les références sont listées, tous les auteurs doivent être cités.

Lorsqu'il n'y a pas de nom d'auteur, on ne mentionnera que le titre de l'œuvre et, si le titre est long, on utilisera des points de suspension : (Registro... 1829 : 133).

Toutes les références bibliographiques citées seront présentées à la fin de l'article, classées par ordre alphabétique, selon le modèle suivant :

AZKUE, Resurrección María (1896). *Proyecto ortográfico: sujeto a censura por parte de quienes cultivan el euskera*. Bilbao: Muller y Zavaleta.

LAFON, René (1975). « Indices personnels n'exprimant rien de déterminé dans les verbes basques », in *Mélanges linguistiques offerts à Emile Benveniste*. Paris : Société de linguistique de Paris : 331-337.

LARRAMENDI, Manuel (1729). *Lo imposible vencido: el arte del euskera*. Salamanca: Antonio Joseph Villargordo Alcaráz.

MITXELENA, Koldo (1959). «Euskal-itzak zein diren», *Euskera* 4 (1959): 206-214.

MITXELENA, Koldo, SARASOLA, Ibón (1990). *Textos arcaicos vascos. Contribución al estudio y edición de textos vascos antiguos*. San Sebastián: Diputación Foral de Gipuzkoa y UPV/EHU.

URKIXO, Julio (1967). «Sobre la paremiología vasca: Oihenart conocía los “Refranes y sentencias en euskera” de 1596», *ASJU I* (1967): 3-44.

ZUBIMENDI, Joxe Ramón, ESNAL, Pello (1993). *Idazkera liburua*. Gasteiz: Servicio General de Publicaciones del Gobierno Vasco.

Lorsque le document n’est disponible qu’en format électronique, il sera présenté de la manière suivante :

Nom, Prénom de l’auteur (année de publication), « Titre de l’article », *Titre de la publication*, numéro : p.-p., <http://www.xxxxxxxx>. (Il faut également citer la date de consultation).

WALIÑO, Josu (2016). « Euskara eta Internet. Zortzigarren lurraldea konkistatzen », *Euskera* 61, 1: 42-44.

Disponible: <http://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/80887.pdf> (consulté le 4 juin 2018).

Lorsque les documents sont publiés sur un autre support (CD-ROM, DVD), la même méthode sera utilisée, mais à la fin le support sera indiqué entre crochets [...].

L’auteur organisera la bibliographie de l’article selon ce modèle de base. Il pourra en référer au responsable d’édition pour résoudre tout problème spécifique ou particulier.

## Guidelines for contributors to the journal *Euskera Ikerketa Aldizkaria*

These are the basic guidelines for contributors to the journal *Euskera Ikerketa Aldizkaria*. Papers submitted to this journal must follow these guidelines. To give greater flexibility and assist with aspects not defined in sufficient detail, the guidelines established by the Chicago Humanities style. Papers must adopt and use the rules laid down by the Chicago Style for Publication in the Humanities (Chicago Manual of Style. <https://www.chicagomanualofstyle.org/home.html>).

The purpose of *Euskera Ikerketa Aldizkaria* is to publish academic and scientific papers that are original research work. These are the main subject areas of the journal:

Before submitting a manuscript for assessment, please make sure its content fits into the fields of study proposed.

**Manuscript types.** As guidance for authors, *Euskera Ikerketa Aldizkaria* accepts for consideration the following types of work within its fields of study:

1. Papers: these must be original research work, of a theoretical or empirical nature, in appropriate theoretical or analytical depth and in the habitual format for specialist academic journals.
2. Studies and research notes: these must report briefly on singular findings, new contributions, replication of findings or additions to the academic literature to justify their publication without the theoretical length and depth or the analytical detail required in full papers.
3. Documents and reports: work submitted must explore and analyse documentary contributions to the subject and topics dealt with by the journal.
4. Book reviews: these will be essay-type pieces analysing new publications of academic and scientific interest in the field of the Basque language.



**Languages.** Original research papers, notes, documents and reports and book reviews will be published in any language used in the academic world of the Basque Country. Publication in Basque will be prioritised but work written in English, Spanish or French will also be acceptable. In the event of a piece arriving in a language other than those mentioned above, the Editorial Committee will decide whether to publish it or not.

**Sending work.** Manuscripts must be sent in via the journal's website, registering and following instructions for uploading files to *Euskera Ikerketa Aldizkaria*. The manuscript must be accompanied by a covering letter requesting it be considered and an indication of its type. In this letter the author must explain in 4-5 lines what the contribution of the work submitted is, and declare that they are not sending it to other journals at the same time. The letter must also include a grant of rights to the publisher.

**Submission of work.** Sending in manuscripts implies that authors are aware of and agree to these instructions, as well as to the rules of the *Euskera Ikerketa Aldizkaria* editorial process. The papers sent must be final, properly written and free from language and typographical errors. It is therefore advisable to have a spell checker installed on the computer and to use it before sending papers off.

The author or authors' institution (university, research centre, institution, etc.) must be cited at the beginning of the paper together with the pertinent email addresses.

Line spacing of 1.5 is to be used to write the text, and scripts must have a margin of 1.5 cm at both sides of the page for any explanations or corrections. Pages and footnotes are to be numbered in order.

Body text must be in 12 point.

Typical fonts in the academic sphere (Arial, Times New Roman, Calibri, etc.) will be accepted. All sections and subsection of the article are to be numbered hierarchically with Arabic numbers: 1., 1.1, 1.1.1, 1.2, 1.2.1, 2., etc.

Individual words in another language are to be written in italics. The titles of books and journals must also be written in italics.

In general, articles must be of no less than 30,000 or more than 60,000 characters, not counting spaces but including text in tables. Book reviews must be between 6,000 and 10,000 characters, not counting spaces.

Originals (2 copies, one anonymised) must be sent via the platform in electronic format (DOC (X), ODT or RTF formats). One of the copies must be sent in PDF format.

Information arranged in rows and columns must be called TABLE. Photographs and graphs must be called IMAGE. TABLES and IMAGES must be numbered in order, tables on one side and images on the other. The source must be indicated in both cases. Subtitles for captions for photos and images must be written in 10-point body text and placed over the tables and images.

In general, graphic material, maps, plates and photographs must be at least 1300 pixels wide and 300 ppi, in the best resolution possible. Figures, boxes and images must be sent in a separate file from the work, not included in the text. In the event that the illustrations make the piece longer, the editorial committee will decide whether to publish it.

## **Manuscript format**

### **First page**

Title of the work in Basque (as well as in Spanish, French and English)

Full name of the author and their professional status, stating the institution, university or research centre where they work under each author (first the general institution, followed by the subordinate institution or institutions), full postal address and email address. If there are several authors, it must be specified which of them is responsible for correspondence.

After this an abstract must be given (maximum 500 characters) with key words (up to six). Abstracts and key words must be written in Basque, Spanish, French and English. Needless to say, if the paper is written in a third language the key words and abstract must also be sent in that lan-

guage. It is recommended that the abstract clearly outline the purpose of the study or research (aims), the basic procedures and/or documentary sources used (methods), the main findings (results) and the most salient conclusions, as well as highlighting the important new aspects of the study.

## Second page

This is where the text of the manuscript submitted begins, in all cases conforming to the general features mentioned above.

## Notes, quotations and bibliographical references

Short quotations. Those of less than four lines are to be included in the text and will be the same size as the body text. The quotation marks must conform to the following hierarchy: «xxxx “xxx ‘xxx’ xxx” xxx». Finally, the full stop at the end of the quotation must be placed after the reference: “[...] Zaldibia continuó” (Intxausti 1999).

Long quotations. These are to be written as a separate paragraph, with a font size of 10.5 points and a 1.5 cm margin to the right and left. Also, an intermediate blank line must be left before and after the quotation. In this case, the final full stop must come before the reference: [...] Zaldibia continuó. (Intxausti 1999). The first line of the quotation must not be deeper than the following one.

Blank lines must not be inserted between the paragraphs of the quotation.

Unwritten sentences or part-sentences are to be indicated by an ellipsis between square brackets: [...]. A references cited must, if possible, be included in the text, linking them to the bibliography that generally comes at the end of the paper, using the Author Year system, as follows: (Larramendi 1729), (Mitxelena 1961: 123).

When there is a single author, no coma goes between their name and the year: (Villasante 1961). When there are two authors, the two names are

separated by a semi-colon: (Furet; Ozouf 1977). When reference is made to several books or articles, if it is felt necessary, other formulas may be used (Deumert & Vandebussche 2003; Coupland, Kristiansen & Deumert 2011).

When there are more than three authors, the first must appear followed by *et al.* or *and others*. At the end, when all the references are listed, all the authors must appear.

If there is no author, the work itself is mentioned and, if the title is long, an ellipsis is used: (Register... 1829: 133).

The references cited are to be given in their entirety at the end of the paper, in alphabetical order, according to this basic model:

AZKUE, Resurrección María (1896). *Proyecto ortográfico: sujeto a censura por parte de quienes cultivan el euskera*. Bilbao: Muller y Zavaleta.

LAFON, René (1975). «Indices personnels n'exprimant rien de déterminé dans les verbes basques», in *Mélanges linguistiques offerts à Emile Benveniste*. París: Sociedad de Lingüística de París: 331-337.

LARRAMENDI, Manuel (1729). *Lo imposible vencido: el arte del euskera*. Salamanca: Antonio Joseph Villargordo Alcaráz.

MITXELENA, Koldo (1959). «Euskal-itzak zein diren», *Euskera* 4 (1959): 206-214.

MITXELENA, Koldo, SARASOLA, Ibón (1990). *Textos arcaicos vascos. Contribución al estudio y edición de textos vascos antiguos*. San Sebastián: Diputación Foral de Gipuzkoa & UPV/EHU.

URKIXO, Julio (1967). «Sobre la paremiología vasca: Oihenart conocía los "Refranes y sentencias en euskera" de 1596», *ASJU I* (1967): 3-44.

ZUBIMENDI, Joxe Ramón, ESNAL, Pello (1993). *Idazkera liburua*. Gasteiz: Servicio General de Publicaciones del Gobierno Vasco.

Where the document is only available in electronic format, it is to be presented in the following way:

Author's name (year of publication). Title of the article. Title of the publication, number: pp. <http://www.xxxxxxxx>. (The date on which it was consulted must also be included).

WALIÑO, Josu (2016). «Euskara eta Internet. Zortzigarren lurraldea konkistatzen», *Euskera* 61, 1: 42-44.

Available: <http://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/80887.pdf> (consulted on 4th June 2018).

Where the documents are published on some other medium (CD-ROM, DVD), the same criterion is to be followed, but at the end the medium is to be indicated between square brackets [...].

The author must organise the bibliography of the paper in accordance with this basic model. They may consult the person responsible at the publisher to settle any specific or individual issue.

## **2024rako harpidetzaren prezioa / Precios de suscripción para el 2024 / Prix de l'abonnement pour 2024 / Subscription prices for 2024**

Espainia: 20 €

Atzerria / Extranjero / Etranger / Other countries: 25 €

## **Zenbaki solteen prezioa 2024rako / Precios de los números para el 2024 / Prix des numéros pour 2024 / Prices of issues for 2024**

EUSKERA Ikerketa Aldizkaria 2024, 69, 1: 20 €

EUSKERA Ikerketa Aldizkaria 2024, 69, 2: 20 €

## **Salmenta eta banaketa / Venta y distribución / Vente et distribution / Sale and distribution**

Euskaltzaindiko Argitalpen Zerbitzua

Plaza Barria, 15

48005 BILBO

Tel. 94 415 8155

Fax: 94415 8144

e-mail: euskeraaldizkaria@euskaltzaindia.eus

\* \* \*

Eskatzaileak, datu pertsonalak eman behar dituenez gero, eskatzaile horrek esanbidezko baimena ematen du datu horiek Euskaltzaindiaren fitxategi informatikoan sar daitezzen; fitxategiaren xede bakarra zerbitzu pertsonalizatua eskaintzea da. Fitxategia Datuen Babeserako Agentzian inskribatuta dago, eta, berori kudeatzeko, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa (Izaera Pertsonaleko Datuen Babesari buruzkoa) eta horren garapenerako gainerako arauak betetzen dira. Eskatzaileak bere datu pertsonaletan sartzeko, horiek zuzentzeko, ezerezteko eta horien aurka jartzeko eskubideak ditu, eta badu eskubideon berri. Eskubide horiek idatziz egikaritu ahal izango ditu, helbide honetara mezu elektronikoa bidaliz: info@euskaltzaindia.eus. Edozein kasutan ere, eskatzaileak bermatzen du emandako datu pertsonalak egiazkoak direla.

\* \* \*

El solicitante autoriza expresamente a que los datos personales aportados en relación a su pedido, sean incorporados al fichero informático de Euskaltzaindia, destinado exclusivamente a dar un servicio personalizado al usuario. Dicho fichero resulta inscrito en la Agencia de Protección de Datos y es gestionado de acuerdo a lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre sobre Protección de Datos de Carácter Personal y demás normativa de desarrollo. El usuario queda informado de sus derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición respecto de sus datos personales, pudiendo

ejercitar estos derechos por escrito mediante correo electrónico a la dirección [info@euskaltzaindia.eus](mailto:info@euskaltzaindia.eus). En cualquier caso, el usuario garantiza que los datos personales facilitados son veraces.

\* \* \*

Lacheteur donne son autorisation expresse pour que les informations personnelles relatives à sa commande soient intégrées au fichier informatique d'Euskaltzaindia qui est destiné exclusivement à offrir un service personnalisé à l'utilisateur. Ce fichier est inscrit à l'Agence de Protection des Données et est géré conformément à la Loi Organique 15/1999 du 13 décembre sur la Protection des Données à Caractère Personnel. L'utilisateur est informé de ses droits d'accès, de rectification, d'annulation et d'opposition relatifs à ses données personnelles et peut demander l'exercice de ses droits par écrit, en adressant un courrier électronique à [info@euskaltzaindia.eus](mailto:info@euskaltzaindia.eus). Dans tous les cas, l'utilisateur garantit l'exactitude des données personnelles qu'il aura fournies.

\* \* \*

The applicant expressly authorises that the personal data provided in relation to his/her order may be included in the Euskaltzaindia computer file, intended exclusively to provide a personalised service to the user. This file is registered with the Data Protection Agency and is managed in accordance with the provisions of Spanish Organic Law 15/1999 of 13 December 1999 on the Protection of Personal Data and other implementing regulations. The user is informed of his/her rights of access, rectification, cancellation and opposition with regard to his/her personal data, and may exercise these rights in writing to the email address [info@euskaltzaindia.eus](mailto:info@euskaltzaindia.eus). In any event, the user guarantees that the personal data provided are truthful.

## IKERKETA ARTIKULUAK

Ane ARANDIA MORGAETXEBARRIA

*Joseba Sarrionandiaren poesiaren molde jasoak*

Ane BERRO eta Cecilia FERNÁNDEZ-ALTONAGA

*-KAdun adberbioez haratago: apurKA-apurKA baina beti aurreraKA*

Kepa DIÉGUEZ BARAHONA

*Urtaroak: ikuspegi etnolinguistikoa*

Miren IBARLUZEA SANTISTEBAN

*Itzulpen-estrategia pedagogikoak euskal irakaskuntzaren ardatzekin bat*

Josu MARTINEZ

*Euskara zinema elekariaren hasmentan (1930-1936):  
debateak, ametsak eta praktikak*

Mikel PÉREZ GONZÁLEZ eta Amaia MUNARRIZ-IBARROLA

*Euskaldunen euskara-gaitasunaren eragina  
euskara-gaztelania kode-alternantziaren erabileran*

## OHARRAK

Manu GOJENOLA ONAINDIA

*Mario Onaindiaren euskal lanak*

## LIBURU AIPAMENAK

Andres M. URRUTIA BADIOLA

*La Reial Acadèmia de Bones Lletres de Barcelona i l'Institut d'Estudis  
Catalans davant la normativa de la llengua catalana*

